Athleticeko hainbat jokalaria –Alkiza eta Guerrero, besteak beste– *lesionauta ei dagoz.*

– Alkarrizketetan erabilten da solaskide bakotzak dinoana bereizteko. Hiztun bakotxaren aitamenaren hasieran jarten da, eta aitamen horreen artean kontalariaren eretxia sartu ezkeror hori be marra artean idatzi behar da.

– *Zenbat dauka gaur hileak?*

– *Neuk be ez dakit ze egunetan bizi nazan.*

– *Zuekaz egin behar dot berba –esan eban zuzendariak urduri.*

– *Zer da, ba?* –*itandu eutsan ikasle batek–, ez da gure irakaslea etorri, ala?*

Halanda be, hiztunaren izena adierazoten dan antzezlan-idatzietan... ez da marra luzerik idatzi behar, J.A. Mogelen *Peru Abarkaren* pasarte honetan ikusten dan lez:

PERU. Jangoikuak egun onak emon daijozala.

MAISU JUAN. Bai zuri bere adiskidia.

– Zuzenbideak:

Marra luzearen aurrean ez da komarik ez bestelakorik ipinten; ostean ipiniko da, marrak kenduta zeinu hori beharrezkoa izan ezkeror. Ipintekotan, iteko marraren ostetxuan idatzi behar da.

**Egunkari batzuk dirala eta*, –El Correo eta El País tartean–
zurrunmuru hori are gehiago zabaldu da.

Egunkari batzuk dirala eta –El Correo eta El País tartean–,
zurrunmuru hori are gehiago zabaldu da.

Esaldiaren antolamentua zaindu egin behar da eta ahal dala ez da bat-bateko etenik egin behar.

↓ *Azterketa honeek –EGA, HE...– gainditzeko hizkuntza ondo jakin behar da.*

↑ *Azterketa honeek gainditzeko –EGA, HE...–, hizkuntza ondo jakin behar da.*

1.3.9. Marratxua (-)

– Izen bereziak edo berba ezezagunak deklinatzean erabiltzen da (kakotxen bidez edo letra etzanaz berezita ez dagozanean). Dana dala, berba bat ezaguna edo ezezaguna dala esatea subjektiboa da kasu askotan. Halan ba, batzuetan norberak ikusi behar dau marratxua ipini edo ez. Erizpide moduan hauxe esan daiteke: berbea non amaitzen dan eta atzizkia non has- ten dan argi geratzen bada, marratxu barik idatzi; baina zalantzaren bat sortzeko arriskua egon ezkerro marratxua ipini.

W. Shakespeare-en *liburu gehienak irakurrita daukadaz.*

Aktore gazte askoren amesa Hollywood-en ospea irabaztea da.

– Errepikapenetan, lehenengo berbea deklinatuta ez dagoanean: *astiro-astiro, barri-barriak, poz-pozik...* baina *mendiz mendi, etxerik etxe...*

Ibilteko aro eder-ederra dago.

Itsua-itsuan *sinesten dau esaten deutsien guztia.*

– Alkarketa batzuetan:

Gure seme-alabak aitita-amamen baserrira joan dira.

Bertsolari-txapelketako *finala astegoien honetan izango da.*

– Onomatopeien egitura konposatuetan:

Ikusi-makusi, zer ikusi?

Etxe ondoko pozueta ebilen plisti-plasta zapata barriakaz.

– Idatzizko testuetan, lerro amaieran berbea osorik sartu ez eta lerroz aldatu beharra egon ezkerro, marratxua erabili behar da. Silabaka zatitzea gomendatzen da. Hitz alkartuen kasuan, marratxua lerro amaieran suertau ezkerro, hurrengo lerroaren hasieran barriro idatzi behar da.

An-dre-a, gi-zo-na-ri, u-me-a-ren, e-txe-ra-ko...

1.3.10. Marra makurra (/)

– Leku-izenak hizkuntza bitan emoten diranean (alboetan hutsunerik itxi barik):

Arrasate/Mondragón

Vitoria/Gasteiz

– Bertsoak eta olerkiak ohiko ahapaldietan idatzi beharrean hitz lauz idaztean ahapaldi bako- txa bereizteko erabiltzen da, bai aurrean, bai atzean hutsunea dala (hasieran eta amaieran ez da marrarik idatzi behar):

“Gazte nintzala talde bat gendun / euskaldun jatorra eta fededun / hartu genduan erabagia / jarteko gurutz paregabia / esan ta egin / jarri genduan Atxeli mendin / herri osoan ikusi zedin” (B. Enbeita)

– Legeen eta abarren zenbakien artean:

1.654/2002 Foru Agindua, *apirilaren 18koa, euskal poneya-pottoka arrazako abere aukeratuak erosteko aparteko laguntzak emon dituana da.*

Hau guztiau Administrazioagazko Auzi-Eskumena arautzen dauen garagarriaren 13ko 29/98 Legeagaz bat dator.

1.3.11. Kakotxak (“”, ‘ ’, « », < >)

Kakotxak edo komatxuak barruan aitatzen dana marketako erabilten dira.

– Berbaz berbako aitamenak idatzikeran:

“Etxeen prezioak gora egin dau nabarmen” *da gaurko egunkariko titularra.*

“Ikasi dau zaharrak, irakatsita beharrak” *dino esaera zahar batek.*

– Komunikabide idatzietan, kazetariaren kontaera objektibo baten nonoren berbak diran-diranean jasokeran:

Enpresa alkartearen buruak “alperreko eztabaida gitxiago eta pragmatismo handiagoa” *eskatu deutse politika-alderdiei ekonomia bizkortu ahal izateko.*

– Ezizenak idaztean:

Jose Maria Agirre, goitizenez “Lizardi”, *olerkari ezaguna izan genduan.*

Patxiku “Eskuluzea” *oin be lapurretan harrapau ei dabe.*

– Egunkari, aldizkari, liburu, denda, eta abarren izenburuak idaztean (halanda be, holakoe-tan letra etzana be erabili leiteke):

Anderrek “Golf TDI” *bat erosi dau.*

“Medicus mundi” *erakundeak esan dauenez, Afrikako iparraldean HIESak hartu -tako gaixoak gitxitu egin dira.*

– Beste hizkuntzetatik zuzenean hartutako berbak aitatukeran (halanda be, erderazko esake-rak eta adiera aldatuta daukien euskerazko berbak letra etzanaz be idatzi leitekez):

Gure Joxe “gentelman” *itzela da, gero!*

Han joian bere kamioitzarragaz “highway”*an.*

– Herri-berbakeran, berbak ez-estandarrak dirala zeozelan marketako:

“Porroak” *erreten ikusi ditue eskolako komunetan.*

Aurreko zapatuan upealako “atxurra” *harrapau eban lehengusuaren ezkontzan.*

– Esamolde ironikoak edo esangura bikotxeakoak adierazokeran:

Negozio “ederra” *eginda daukie herri turistiko batzuetako udalek!*

Bai, bai, gu “paradisuan” *bizi gara: beti behar eta behar.*

– Zuzenbideak:

Kakotx artean doana deklinatu behar dogunean, deklinabide-marka marrarik eta tarterik itxi barik gehitzen da.

*“Argia” *tik hartu dot artikulu hau.*

“Argia”*tik hartu dot artikulu hau.*

*“Lauaxeta”-ren *artikuluak guztiz ezagunak izan ziran bere sasoian.*

“Lauaxeta”-ren *artikuluak guztiz ezagunak izan ziran bere sasoian.*

Berbaz berbako aitamenak jasoten diranean, kakotxak itxi ostean ipini behar da jagokon zeinua: koma edo puntua, normalean.

**Urdaibaiko alkarteak adierazo dauenez* “zurtuta gagoz obrakaz.”

Urdaibaiko alkarteak adierazo dauenez “zurtuta gagoz obrakaz”.

Esaldiaren antolamentua zaindu eta bat-bateko etenik ez egiten ahalegindu behar da. Kasu honetan, kakotxen bidez marketan dan berbaz berbako aitamena eta zehar estiloaren bidez adierazotakoa ez nahastea komeni da.

*Azken egunotako egoera dala eta,
“udala eragozpen ugari jarten”
dabilela salatu eben herritarrek.

Azken egunotako egoera dala eta,
“udala eragozpen ugari jarten
dabil”, salatu eben herritarrek.

1.3.12. Apostrofoa (’)

Letraren bat isilpean itxi dala adierazoten dau.

– Batez be *eta* juntagailuaren *t’* laburdura da ezaguna, eta horren barruan *t’erdi* egitura:
Agur t’erdi:

– Deitura batzukaz erabili izan da, baina gaur egun erabilera hori ez da bape zabaldu. Halanda be, atzerriko izen batzukaz erabilten da oraindino.

Agirre’ tar Peruk *datorren domekan egingo dau jaumartzea*.
O’Neil markako erropak janzteia asko gustetan jako.

– Zuzenbideak:

Lehenago orduak adierazoteko *ordu bat t’erdi, ordu bi t’erdi...* formak erabilten ziran arren, gaur egun osorik idazteko joera nagusitu da. Dana dala, *t’erdi* irakurten eta esaten da ahoz.

↓ Bost t’erdiak *jo dabe*.

↑ Bost eta erdiak *jo dabe*.

↓ *Bart* zortzi t’erdietan *sartu naz*
ohera, eta ointxe arte!

↑ *Bart* zortzi eta erdietan *sartu naz*
ohera, eta ointxe arte!

1.4. ALKARKETA

Askotan, alkarketa bidez berba barriak sortukeran, aldaketa fonetikoak jazo ohi dira, batez be izenakaz, eta horreek kontuan hartu behar dira hitz alkartuak idazteko orduan.

Basurde (< baso + urde)

Iturburu (< iturri + buru)

Betule (< begi + ule)

Zapaburu (< zapo + buru)

Horrezaz gainera, lexikoan eboluzinoa ikusten da eta lehen berba bi zirana gaur egun berba bakartzat hartzen dogu, esaterako, *odoloste, sagardo, udaletxe, uriburu...* Halan ba, hemen emondako idaztarauak aurrerago aldatu egin leitekez. Momentuz, behintzat, hitz alkartuak hiru erataro idatzi leitekez: lotuta, bereiz edo marratxuz, baina batzuk marratxuz zein bereiz idazteko aukera dago.

LOTUTA

- ⇒ **Jarleku** (aditzoina + izena) erakoak:
ikasgela, jokabide, sortalde, geltoki...
- ⇒ **Aldakatz** (aditzoina + izenondoa) erakoak:
moldakatz, sinestezin, ulerterraz...
- ⇒ **Udabarri** (izena + izenondoa) erakoak:
bihotzerre, gizagaixo, azkordin, minbera...
- ⇒ **Odolustu** (izena + aditz partizipioa) erakoak:
aurrekusi, itxurabarritu, indargaldu, azpimarkatu...
- ⇒ **Lauburu** (zenbatzailea + izena / izena + zenbatzailea) erakoak:
begibakar, ahobiko, bostortz, ehunzango...
- ⇒ **-bako, -dun, -gile, -gin, -gintza, -zain, -zaintza, -zale** atzizkiak:
lotsabako, dirudun, ongile, behargin, etxegintza, umezain, erizaintza, neskazale...
- ⇒ **-aldi, -buru, -gizon, -(g)une, -(k)ide, -(k)ume, -orde**:
agintaldi, zerbitzuburu, legegizon, zerbitzugune, baliokide, kalekume, sailburuorde...
- ⇒ **ber-/ bir-, des-, ez-, sasi-** aurrizkiak:
berrikusi, desagertu, ezezagun, sasijakintsu...
- ⇒ **aurre-, azpi-** eta **gain-** daukienak lehen osagaitzat:
aurrekontu, azpiegitura, gainsoldata...

BEREIZ

- ⇒ **Aposizinoak**:
Oiz mendia, Larramendi ikastola, Anaiak alkartea, D eredia...
Jaun zuzendaria, Andere kontseilaria, Maisu Juan, Izeko Madalen...
- ⇒ **Egin, eragin, emon, hartu, izan** eta **edun (izan)** aditzakaz osotuak:
behar egin, on egin, barre eragin, min emon, parte hartu, bildur izan, behar izan...
- ⇒ **Etxez etxe** eta **mendirik mendi** lakoak (lehen osagaia deklinatuta, bigarren ez):
aurrez aurre, mendiz mendi, kalerik kale, bazterrik bazter...
- ⇒ **Egin barri** erakoak:
esan barri, hasi barri, etorri barri, amaitu barri...
Baina, ezkonbarri, jaiobarri, mezarbarri...
- ⇒ **Posposizino** edo **hitz atzekariak**:
mahai gainean, esku artean, etxe aurretik, fax bidez...
Baina, nazinoarteko, zuzatzarte, eskolaurre...
- ⇒ **Bila, eske** edo **falta** edo euren ereduak daukiezanak bigarren osagaitzat:
ur bila, diru eske, lo falta...
- ⇒ **Euskal, erdal, giza, itsas** daukienak lehen osagaitzat, aspaldikoak ez badira (1):
euskal gizartea, erdal literatura, giza adimena, itsas garraioa...
Baina, gizalege, itsasontzi, itsasgizon...
- ⇒ **-ia** letraz amaiturik **-a** organikoa galdu dabenak (2):
bidai agentzia, biologi azterketa, ortografi arauak...
- ⇒ **Aditzoina + atzizkia + izena**:
alfabetatze ikastaroa, batze lana, kanporatze saioa...

(1) Gaur egun, alkarketa barriak egin behar diranean, ez dago arau fonetiko zaharrak zertan jagon. Halan:

*EAEko unibertsital garraioa.
*EHNE nekazal sindikatua.

EAEko unibertsidade-garraioa.
EHNE nekazari(tza)-sindikatu.

(2) Alkarketako lehenengo osagaia *-ia* amaieraduna danean, *-a* letraz edo hainbarik idaztea aukeran dago: *ginekologi(a) saila, biologi(a) azterketa...*

Osterantzeko *-a* organikoak ez dira galtzen alkarketan. *-a* organikodun berben artean hurrengo seiretan baino ez da onartzen alkarketan *-a* hori kendu ahal izatea: *burdina, eleiza, hiz-kuntza, kultura, literatura, natura.*

Idazkerari jagokonez, amaierako *-a* kentzen danean, hitz alkartua banan idatziko da, eta *-a* gordeten danean, ostera, bereiz zein marratxuaz: *hizkuntz eskola // hizkuntza(-)eskola...*

Natur zientziak *asko gustetan jataz.*

Kultur etxean *hainbat ekitaldi atondu ditue ingurugiroa babestearen alde.*

Gainerako kasuetan *-a* hori gorde egin behar da.

*Hezkuntz arloan *lan egitea gatxa be gatxa da.*
*Bankuaren finantz egoera *eskasa da.*

Hezkuntza arloan...
... finantza egoera...

MARRATXUZ

- ⇒ **Gorri-gorri**-ren moduko errepika indargarriak:
labur-labur, bene-benetan, bihotz-bihotzez, hasiera-hasieratik, itsu-itsurik...
- ⇒ **Apurka-apurka** lako errepikak (bi osagaiak atzizki berbera):
astero-astero, astiro-astiro, banan-banan, kontuz-kontuz, polito-polito...
- ⇒ **Seme-alabak** eta **zuri-gorri** erakoak:
andra-gizonak, neba-arrebak, zeru-lurrak, joan-etorria, gitxi-asko...
- ⇒ **Parra-parra** eta **plisti-plasta** modukoak:
bor-bor, mara-mara, kili-kolo, dinbi-danba...
- ⇒ **Amorebieta-Etxano** erako leku-izenak (1):
Gernika-Lumo, Lasarte-Oria, Abanto-Zierbana, Etxarri-Aranatz, Gamiz-Fika...

(1) Leku-izenak bi hizkuntzatan emoten diranean, ez ditugu marratxuaz lotuta idatziko, marra makur batez banatuta baino.

*Arrasate-Mondragón
*Lizarra-Estella

Arrasate/Mondragón
Lizarra/Estella

Siglak, ostera, bi hizkuntzatan emoten diranean marratxuaz lotuta emongo ditugu.

BEZ-IVA
EAJ-PNV

MARRATXUZ ZEIN MARRATXU BARIK¹

⇒ **Eguzki(-)lore** modukoak:

lan(-)hitzarmena, eskabide(-)orria, merkatari(-)mundua, osasun(-)egoera...

⇒ **Kale(-)garbitzaile** modukoak (1):

Egileak: *odol(-)emoile, euri(-)neurgailu...*

Ekintza: *adar(-)jote, behar(-)eskeintza...*

Jarduna: *ate(-)joka, bide(-)konpontzen...*

(1) Berba biak maiuskulaz idazten diranean marratxu barik idaztea gomendatzen da:

Eusko Jaurlaritza

Garraio Zuzendaritza

Foru Aldundia

Ogasun Saila

1.5. ERATORPENA

1.5.1. Atzizkiak eta aurrizkiak

Hitz eratorriak sortzeko atzizkiak eta aurrizkiak hartzen daberen berbearen lotuta idazten dira.

Hona hemen adibide batzuk:

askatasun, irakasle, arduradun, erizaintza...

berrantolamentu, desbardindu, ezjakintasun, sasimaisu...

1.5.2. Atzizki berezi batzuk

Atzizki horreezaz gainera, jokaera bikotxa daukien atzizki batzuk dagoz, eta kasuaren arabera lotuta edo bereiz idazten dira.

Bako

Berez alkarketarako berbea da, baina atzizki modura be erabilten da eta halakoetan lotuta idatziko dogu. Halan idatziko da adjektibo modura darabilguzan berbetan: *amaibako, buru - bako, odolbako, zuztarbako...*, eta lexikalizatutzat emoten doguzan beste batzuetan: *hainbako...*

Dana dala, kontestu librean banan idatzi behar da: *eperdi bako, ezer bako, indar bako, esan bako, ondu bako...*

Gura / Nahi

Berez alkarketarako berbea da, baina atzizki modura be erabilten da eta halakoetan lotuta idatziko dogu: *azkura, barregura, handigura, logura, bizinahi, esanahi...*

Dana dala, aditz lokuzinoa danean banan idatzi behar da: *etorri gura dot, esan nahi dau, jakin gura baleu...*

¹ Hemen sartzen dira, bereziki, idazleek eta hiztunek kontestuak eskatuta sortzen dituen hitz alkarketa barriak, biziak eta ugariak.

Leku / Toki

Berez alkarketarako berbea da, baina atzizki modura be erabilten da eta halakoetan lotuta idatziko dogu: *helduleku, topaleku, jesarleku, oilotoki, txarritoki, geltoki...*

Dana dala, bestelako kasuetan banan idatzi behar da: *leku(-)izen, leku agiria...*

1.6. MAILEGUTZA

Maileguak hartukeran euskerazko fonetika-legeak kontuan hartu behar dira. Halan, esate bate-rako, euskeraz ez dago *r-* edo *s-* kontsonantez hasten dan berbarik eta mailegu moduan geu-gantzen dogunean bokal protetiko bat ipinten jako aurrean (a, e, i): *errege* (< REGEM), *erru - beda* (< ROTAM), *espirtu* (< SPIRITUM), *eski* (< ski)... Halanda be, mailegu barri-barriek, siglek eta izen propioek ez dabe hasiera-bokal hori hartzen: *record, stop, RENFE, Schubert...*

Horrezaz gainera, berba amaierak be lege jakinak beteten ditue sarritan.

Latinez	Euskeraz	Adibideak
-ANUM, (-ANUS), -I -ERNUS, -A, -UM	-O -O	dekano, plano... moderno, alterno... Baina zaharretan, gobernu, infernu...
-IMUM, (-IMUS), -I -TER, -TRA, -TRUM -VERSUM, -I -ATUS, -US -CRETUM, -I -ITUM, -I -ULUS, -I -UTUM, -I -ALIS	-O -O -O -O -U -U -U -U -U -U -AL	minimo... neutro... bertso, unibertso... aparatu... dekretu, sekretu... kreditu... kalkulu, artikulatu... estatutu, institutu... bokal, material, mineral... Baina zaharretan, ospitale, seinale...
-ARIUS, -A, -UM	-ARI	bibliotekari, politikari... Baina, planetario, primario...
-ENTUM, -I -ITAS, -ATIS -TIO, -ONIS -TOR, -ORIS	-MENTU ² -DADE ³ -ZINO ⁴ -ORE	funtzionamentu, tratamentu... unibertsidade, puntualidade... maldizino, manifestazino... ordenadore, eskultore, kolore... Baina, motor...

Grekoz	Euskeraz	Adibideak
-ISMO	-ISMO	marxismo, feudalismo...
-ITIS	-ITIS	meningitis, flebitis...
-O	-O	dialekto, pedagogo...
-SIS	-SI	analisi, metamorfosi...

² Batuz: *-mendu*.

³ Batuz: *-tate*.

⁴ Batuz: *-zio*.

Erromantzetiko aditzak	Euskeraz	Adibideak
-ADO	-ADU	atentadu...
	-AU	errezau, kantau, kobrau, olgau, pagau...
-IDO	-IDU	absolbidu, deduzidu, defendidu, kabidu, mogidu, segidu...

Gogoratzen dozue zeintzuk diran 10 mandamentuak?
 Unibertsidadeko dekanok *bere laguntzailearen dimisinoa eskatu eban.*
 Ordenadorea *erosi dot “Konekta Zaitetz” planari esker.*

1.7. LOTURIK ALABEREIZ

Partikula batzuk loturik ala bereiz idatzi behar doguzan zalantza sortzen jaku sarritan. Horreek argitzeko asmoz hona hemen oinarritzko idaztarau batzuk:

Arazo

Aditza + *arazo* aditz arazlea beti loturik idazten da, aditzoinaren gainean ia beti: *esanarazo, galarazo, jakinarazo, janarazo...*

-*r* edo -*s* amaiera daben aditzek -*t*- tartean hartzeko joera dabe (*agertarazo, ikustarazo...*), baina idatzian hainbarik erabiliko dira: *agerrarazo, ikusarazo...*

-*a* amaieradun aditzek -*a*- bakarra gordeten dabe: *aterarazo, botarazo...*

Ba

Baiezkoa zein baldintzazkoa izan daiteken partikula hau loturik idazten da beti: *badator, badino, bazan... balitz, balego, balebilz...*

Dana dala, baiezko esaldietan, aditzaren modalidade hitz batzuk tartekatzen diranean banan idatziko da: *ba al zatoz?, ba ete daki?...*

Ezkero

Batuz -*nez gero* idatzi ohi dan kausazko menderagailua bizkaieraz *ezkero* idazten da, ahoz esaten dan modu-moduan: *eskatu ezkero, etorri ezkero, lagundu ezkero, parkatu ezkero, dagoan ezkero, ebilen ezkero...* Denporea adierazoteko be bardin idazten da: *ordu biak ezke-ro, bost eta erdiak ezkero, atzo ezkero, gauera ezkero, gabonak ezkero...* Guztiz lexikalizatu-ta agiri da aditzondoakaz: *honezkero, horrezkero eta harrezkero.*

Nongura / nonahi / non-nahi, zenbatgura...

Galdetzailea + *gura / nahi* egiturakoak lotuta idazten dira: *nongura / normahi, zergura / zer-nahi, noizgura / noiznahi...*

Dana dala, galdetzailea -*k*, -*n* edo -*t* hizkiez amaitu ezkero, berba baten (*nongura / nonahi, zenbatgura / zenbatnahi...*) edo marratzuz bereizita (*non-nahi, zenbat-nahi...*) idatzi daitezke.

1.8. KONTSONANTE ALTERNANTZIAK

Euskalkien arabera, kontsonanteen arteko hainbat txandaketa gertatzen dira. Jarraian bizkai euskeraz nagusi diranak aztertuko doguz:

b / p:

Berba hasieran *p-* da ugariagoa: *parkatu, pazko, pekatu, pekorotz, pitxi, podere...* Baina kasu batzuetan *b-*dun formak be erabilten eta txandakatzen dira: *barre, biztu... boltsiko / poltsiko...*
Berba barruan: *denpora, denporale...*

d / t:

Berba hasieran biak ikusten dira: batetik, *dendatu...*; bestetik, *tanbolin, torre...*

Beste posizinoetan be aukera biak agiri dira: *ondasun...*, baina *santu...*

Atzizkiei jagokenez, bizkai euskeran *-dade* aldaera erabilten da *-tateren* lekuan: *abilidade, nobedade, umildade...* Kasuren baten, *bakartade*. Era berean *-mentu* erabilten da, eta ez *-mendu*: *kunplimentu, mandamentu, sufrimentu...*

g / k:

Berba hasieran *k-* da nagusi: *kerexa, kolko, konbit, korotz, kurutze...* Baina berba batzuetan *g-* erabilten da: *gastaina, ganbelu...* Eta beste batzuetan forma biak dira ezagunak batean edo bestean: *korbata / gorbata, korta / gorta...*

Alkarketetan eta eratorpenetan be kontsonante alternantziak edo aldaketa fonetikoak gertatzen dira atzizkiak hartu edota berba biak lotzen diran lekuan. Hona hemen adibide batzuk:

b > p: *aizpuru* (haitz + buru), *lupera* (lur + behera), *zalpurdi* (zaldi + burdi)...

d > t: *sagasti* (sagar + -di)...

g > k: *aizkorri* (haitz + gorri), *moldakatx* (molda(tu) + gatx)...

p / f:

Berba hasieran *p-* da nagusi: *praka, prijidu, proba...* Halanda be, kasu batzuetan, batez be mailegu-hitzetan: *fardel, feria, firu, fraile...* edota: *famau, familia, fanfarroi, frutu...*

Beste posizinoetan be gehienetan *p-* erabilten da: *alper, aproba...* Dana dala, kasu batzuetan: *afari...*

1.9. SIGLAK

Siglak (ADN, AHT, EUSTAT, SOS...) berba batzuen lehen letra hartuta sortzen dira. Printzipioz, euskeratu egin behar dira (ONU > NBE, OTA > TAO...), baina asko jatorrizko hizkuntzan zabaldua dagoz eta halan erabilten dira (FBI, IRA, PP, PSE-PSOE...). Letra larriz eta tartean puntu barik idazten dira. Izen berezien moduan deklinatzen dira eta deklinabide marka zuzenean hartzen dabe, marratxu barik eta hutsunerik itxi barik, hiru kasuotan izan ezik:

- kasu-marka sigla amaitzen dan letra beragaz hastean (AEK-k, BBK-k...).
- sigla *-r* letraz amaitu eta kasu-marka bokalez hastean (RPR-eko, UER-ek...).
- maiuskulaz idatzitako testu zatieta eta izenburuetan (EAE-KO LEHENDAKARIA, EITB-KO ZUZENDARIA...).

Siglak izen bereziak diranez artikulatu barik idatzi behar dira. Halanda be, sigla batzuk lexikalizatu egin dira edo bide horretan dagoz, eta artikulatu erabilten dira (BEZA, NANA...), eta hainbat kasutan letra xehez idaztea be posible da (Hiesa, Unicef...).

ABLE	Aldi Baterako Laneko Enpresa	ETA	Euskadi Ta Askatasuna
AEK	Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea	GKE	Gobernuz Kanpoko Erakundea
BBK	Bilbao Bizkaia Kutxa	HABE	Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea
BEZ	Balio Erantsiaren Gaineko Zerga	HAEE	Herri Arduraritzaren Euskal Erakundea
BHI	Bigarren Hezkuntzako Institutua	HEO	Hizkuntza Eskola Ofiziala
DBH	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	HIES	Hartutako Immuno-Eskasiako Sindromea
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa	HPS	Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
EBPN	Euskera Bizibarritzeko Plan Nagusia	LAB	Langile Abertzaleen Batzordea
EAJ	Eusko Alderdi Jeltzalea	LH	Lanbide Heziketa
EEE	Europako Ekonomia Elkartea	IZO	Itzulpen Zerbitzu Ofiziala
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria	NAN	Nortasun Agiri Nazionala
EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea	NATO	Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea (OTAN)
EIE	Euskal Idazleen Elkartea	NBE	Nazino Batuen Erakundea (ONU)
EITB	Euskal Irrati Telebista	OHE	Objektu Hegalari Ez-ezaguna (OVNI)
EIZIE	Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartea	TAO	Trafiko eta Aparkamenturako Ordenamentua
ELA	Eusko Langileen Alkartasuna	UEU	Udako Euskal Unibertsitatea
ENL	Euskeraren Normalizazio Legea	UZEI	Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea

IRALEko ikasleak 1HE eta 2HE atera guran dabilz aurten be.

DBHko ikasleen artean HIESa daukan ikasle bat dago.

Irratian esan dabe FBIk 50 lagun atxilotu dituala New Yorken.

BBK-k hamar BMW zozketatuko ditu hileon.

1.10. IKURRAK ETA SINBOLOAK

Ikurrak edo sinboloak (km, l, mg, min...) kalidade, kantidade, unidate, prozesu eta abarren laburtzapenak dira. Normalean nazinoartekoak dira eta batez be zientzia-teknika arloan erabilten dira. Ikurra puntu barik idazten da eta azpian dagoan berbearen moduan deklinatzen da, berba osoa aurrean balego lez. Ikurraren eta deklinabide atzizkiaren artean marratxua jarren da.

cal	kaloria	Li	litioa	h / or	ordu
cl	zentilitro	Na	sodioa	min	minutu
kg	kilogramo	K	potasioa	seg	segundo
km/h	kilometro orduko	O	oxigenoa	m/s	metro segundoko
m	metro	H2O	ura		
ha	hektarea	He	helioa		

*Zubeldiak 2 min-ko alde atera deutso bigarrenari gaurko etapan.
3 kg-ko txuleta ederra jan genduan Berrizen atzo hiru lagunen artean.
Ia 350 km/h abiadura hartzen ei dau Makinenen auto barriak.
2 m-ra heltzeko gitxi falta dau horrek, hain da trankila!*

1.11. LABURDURAK

Laburdurak (adib., luz., zab. ...) berba baten edo berba moltso baten letra gitxituak dira. Hizkuntza bakotzak bere laburdurak daukaz. Gehienetan letra xehez idazten dira eta amaieran puntua jarten da beti. Deklinabide marka ahoskeraren arabera da, eta marratxu eta tarte barik idazten da. Dana dala, taulak, zerrendak eta holakoak egiteko erabilten diranez, normalena ez deklinatzea da. Testuaren barruan ahalik eta gitxien erabiltea gomendatzen da.

Bi berbako laburduretan: letra + puntua + letra + puntua.

adib.	adibidez	kap.	kapitulua	or.	orrialdea
and.	andrea	K.a.	Kristo aurretik	orr.	orrialdeak
e.a. / etab.	eta abar	K.o.	Kristo ostean	P.D.	posdata
esk.	eskuma	ik.	ikusi	P.K.	posta kodea
ezk.	ezkerra	jn.	jauna	P.Ku.	posta kutxa
k.	kalea	tel. / tf.	telefonoa	zenb. / zk.	zenbakia

*Sari asko irabazi zeinkiez gure lehiaketan. Adib. motorrak, bidaiak, liburuak...
Informazio gehiago gura badozue, ik. Peru Abarka, 25-40 orr.
Hori zaharra be zaharra da, K.a.koa gitxienik be!
Eutsi nire helbidea: Iturrimakurre pl. 8. zk. 4 esk., Gernika-Lumo. P.K. 48300.*

1.12. “H”

H hizkiaren erabilera zuzenak hainbat burukomin emoten deuskuz hegoaldeko euskaldunoi, ahoz ez da erabilten-eta. Beraz, ikusiz eta irakurritz ikasi behar dogu noiz erabili behar dan. Halanda be, ohar batzuk egin daitezke erabileraren inguruan:

1. Hitz hasieran:

a) Erakusleakaz eta horreetatik eratorritakoakaz:

hau, hori, ha, honetan, hor retarako...

b) Lekuzko adberbioakaz eta horreetatik eratorritakoakaz:

hemen, hor, han, honako, horraino...

c) Zenbakiakaz:

hiru, hamar, hoge, hirurogeta hamar...

d) *Hi* pertsonaren aditz formakaz, marka hori hasieran doanean:

haz, habil, hago, hintzan...

e) Hitz arrunt batzukaz:

harrapau, herri, hobeto, hur...

f) Izen berezi batzukaz:

Hondarribia, Hernani...

2. Hitz barruan:

a) Bokal artean, bokal bardinakaz zein desbardinakaz:

zahar, lehen, alkohol, zuhur...

ahots, nahi, bihotz, lehor...

Honeekaz batera, bizkaierako tradizino literarioan ezagunak dira *abots, legor, igaz, oge...*

b) Diptongo artean:

leiho, lehoi, oihu, zuhaitz...

Modu berean, Bizkaiko literaturan tradizino handia daukie beste honeek be: *legoi, zugatz...*

Bestalde, hitzari atzizkiren bat ipini ostean batutako bokalak badira ez da -h- erabilten.

ume + -aren > umearen

ume + -entzat > umeentzat

3. Hitz alkarketetan:

a) *H* hizkidun osagai bi alkartzen diranean, gehienetan bakarra ipinten da. Normalean hasierakoak gordeten dau:

harro + hobi > harrobi

hil + herri > hilerrri

hil + hobi > hilobi

Halanda be, *h* bi daukiezanak be topau geinkez zenbakietan:

hamar + hiru > hamahiru

hiru + ehun > hirurehun

Baina baita *h* biak galtzen dituenak be:

hatz + hamar > atzamar

b) Lehenengo osagaiak –silaba batekoa edo bikoia izanda– baino ez badauka *h* hizkia, hainbarik idazten da:

hatz + azal > atzazal

hatz + gura > azkura

hilen + argi > iretargi

herri + zain > ertzain

c) Lehenengo osagaia silaba bakarrekota bada eta bigarrena *h* eroan beharrekota bada, hainbarik idazten da:

goi + herri > goierri

d) Lehenengo osagaia kontsonantez amaitu eta bigarrena *h* eroan beharrekota bada, hainbarik idazten da:

oin + harri > oinarri

oin + hartu > onartu

2. BERBAK SORTZEKO BIDEAK

Egituraren aldetik, hiru eratako berbak bereizten ditugu:

- **BAKUNAK**: berez esangurea daukan elementu bakar batez osotuak. Adibidez:
Iz. → *baso, etxe, txakur...*
Adj. → *apal, biribil, otzan...*
Adb. → *arin, goiz, hemen...*
- **ALKARTUAK**: esanguradun elementu bigaz osotuak, bakotxak bere aldetik be esangurea dauela. Adibidez:
Iz. → *bertsolari-txapelketa, jatetxe, liburu-denda...*
Adj. → *begibakar, eskuzabal, hanka-okor...*
Adb. → *gitxi gorabehera, lehenbailehen, noizean behin...*
- **ERATORRIAK**: esanguradun elementu bati atzizkia edota aurritzia loturik osotuak.
Atzizkiaz:
Iz. → *azterketa, dirutza, hizkuntza...*
Adj. → *eleizati, indartsu, moldakatx...*
Adb. → *benetan, gustura, polito...*
Ad. → *bideratu, etxekotu...*
Aurritziaz:
Iz. → *ezizen, birraitita, desordu...*
Adj. → *ezjakin, desegoki...*
Zenb. → *berrogei, berrehun...*
Ad. → *desegin, birsortu...*

2.1. ALKARKETA

Berba bi edo gehiago lotuaz hitz barria sortzeko prozesuari deritxo halan. Baina berbak ezin dira bata besteagaz edozelan alkatu; arau jakin batzuk zaindu behar dira horretarako. Berba barriak, batzuetan, jatorrizko berba bakunen esangurea jagoten dau, baina beste batzuetan, aldatu egiten da esangurea.

- **Esangurea aldatu bakoak**: *senar-emazteak, betokerra, surluzea...*
Aitita-amamak ipuin zoragarriak kontatu deustez bart.
Udabarrian mutilzaharrak eta neskaharrak pozik ibiltzen dira erromerietan.
- **Esangurea aldatu dabenak**: *txorigaldu, belarrimotz, prakerre...*
Txomin txorigaldu galanta izan ei zan gazetetan.
Ume hori prakerre hutsa izan da beti.

Askotan, berbak lotzerakoan **aldaketa fonetikoak** jazoten dira, batez be izenakaz:

Artaburu (< arto + buru)

Itaurren (< idi + aurre + -n)

Elgorri (< eri + gorri)
Galburu (< gari + buru)
Jatordu (< jan + ordu)
Ubide (< ur + bide)

Astapotro (< asto + potro)
Besamotz (< beso + motz)
Betoker (< begi + oker)
Lehenbailehen (< lehen + bait + lehen)

Zuzenbideak:

Hitz alkarketa kontuan, arauak zuzen erabili ezagaitik hainbat huts egiten dira, batez be erdarazko hitz-segidak hitz alkartu bidez itzuli gura diranean:

Número de (...)	*(...)en zenbakia	(...)en kopurua / zenbatekoa
Reglas de ortografía	*ortografiako arauak	ortografi arauak ortografia(-)arauak
Asentamiento judío	*asentamendu judutarra	judu(en) asentamentua
Audiencia Nacional	*Audientzia Nazionala	Entzutegi Nazionala
Balance positivo	*balantze baikorra	balantze positiboa / ona aldeko balantzea
Carta bomba	*gutun-bonba	bonba-gutuna
Centro comercial	*komertzio zentroa	merkataritza gunea
Cruce de caminos	*gurutze-bidea	bidegurutzea
Diferentes casas	*etxe ezberdinak	hainbat / zenbait etxe etxe batzuk
Intenciones fundamentales	*asmo oinarrizkoak	oinarrizko asmoak
Juego sucio	*joko zikina	azpikeria / azpijokoa...
Justicia mexicana	*justizia mexikarra	Mexikoko justizia
Política lingüística	*politika linguistikoa	hizkuntz politika hizkuntza(-)politika
Proceso autonómico	*prozesu autonomikoa	autonomi prozesua autonomia(-)prozesua
Tercera edad	*hirugarren adina	edadekoak / adinekoak

Gaztelaniaz *izen + izenondo* segida dogun askotan, euskeraz egokiago gertatzen da *izen + izen* egitura erabiltea.

2.2. ERATORPENA

Berba barria sortzen da berez esangura osoa daukan berba bati aurrizkia edo atzizkia lotuaz. Eratorpenean be edozein berba ezin da edozein atzizkigaz lotu, arau batzuk bete behar dira, zelanbaiteko lotura logikoa egon behar dau.

Aita(tu) + -men > aitamen	Negar + -ti > negarti	Poz + -ik > pozik
Des- + bardin > desbardin	Herri + -koi > herrikoi	Eder + -to > ederto

Gizon-emakume talde handiari jentetza esaten deutsagu.

Kirola egitea osasungarria ei da.

Onean ez bada, txarrean izan beharko dau.

2.2.1. Atzizki eratorleak

2.2.1.1. IZEN-ATZIZKIAK

• Izen abstraktuak	
-DADE ¹ -EZIA / -TZIA -GINTZA -GO ² -ERA -(K)ERIA -MENDI -PEN -(T)ASUN -TZA	errealidade, kalidade, libertade, unibertsidade, ziadade... pobrezia, finezia, flakezia, malezia, atrebentzia, pazientzia... bitxigintza, etxegintza, liburugintza, zidargintza... apaizgo, irakaslego... luzera, sakonera, zabalera... handikeria, gaiztakeria, lelokeria, alperreria, okerreria... gozamendi, hondamendi, itomendi, itsumendi, urkamendi... atzerapen, eroapen, igaropen, irakaspn, iraupen, itsaspn... hurkotasun, itotasun, maitasun, estuasun, ondasun, osasun... alkatetza, artzaintza, jagoletza, maisutza, medikutza...
• Egilea	
-ERU -GIN -GILE -KO -(L)ARI -LE -(T)ARI -TZAILE	tanbolinteru, kinkaileru, barkeru... behargin, bizargin, hargin, heriotzagin, ikazkin, okin... estalgile, gaizkile, langile, ongile, osagile, salbagile... alogereko, auzoko, erbesteko, etxeko, herriko, ogipeko... mezulari, soinulari, tratulari... emoile, entzule, erakusle, ereile, igarle, ikasle, jagole... agintari, dantzari, ehiztari, mandatari, merkatari, tabernari... asmatzaile, erretzaile, hiltzaile, sortzaile, zabaltzaile...
• Moltzotasuna / zenbatekoa	
-DI -(K)ADA -KETA -(T)ERIA [-tegi] -TZA -ZKO	arboladi, artadi, haresti, mahasti, pagadi, pinudi, sagasti... besada, betekada, eskukada, gurdada, kamioikada, platerkada... egurketa, sagarketa, zorriketa... gazteria, andrateria, gizonteria, umeteria, zalduneria, tresneria... basatza, bedartza, dirutza, euritza, harritza, jentetza, lastotza... andrazko, umezko, kotxezko...
• Tresna edo baliabidea	
-GAILU ³ -GARRI -KI	hozkailu, jostailu... apaingarri, azpigarri, erregarri, gomutagarri, nasaigarri... adabaki, beroki, estalki, ipinki, iragazki...

¹ Euskera batuaz *-tate* aldaera erabilten da normalean.

² Atzizki hau ekialdean erabilten da batez be, eta gaur egun euskera batuan, baina ez bizkai euskeran.

³ *-Gailu* atzizkia, berez ekialdekoa, tresna mota barrietarako asko erabilia da.

• Objektua, produktua, emaitza...	
- (K)ARI - KI - KIN - KIZUN - KO	bazkari, edari, errari, eskari, gurari, lotsari, ortuari, sendari... arrainki, ardiki, jaki, txahalki, txarriki, urdaiki... botakin, ebakin, erdikin, etorkin, hasikin, hondakin, salkin... asmakizun, eginkizun, etorkizun, ustekizun... belarritako, betaurreko, garriko, iduneko, oinetako...
• Lekua	
- TEGI - LEKU / -TOKI ⁴	ardandegi, gizategi, lantegi, lorategi, muntegi, sutegi... kakaleku, txizaleku, topaleku, txarritoki, oilotoki...
• Sasioa	
- ARO, -ZARO - TE	urtaro, zahartzaro, seinzaro... agorte, edurte, eurite, gerrate, gosete, haizete, sikate...
• Ekintza edo ondorioa	
- ADA - ANTZA - DURA, -TURA - ERA - KA - (K)ADA - (K)ETA - KO - KUNDE - KUNE - KUNTZA - MEN - MENTU ⁵ - TE / -TZE - TZA - ZINO ⁶	begirada, purrustada... alegrantza, mudantza, tardantza, triskantza... erretura, estura, harridura, joskura, ohitura, tristura... esaera, etorrera, ezaguera, ibilera, sarrera, sorrera, urteera... agiraka, arnasoska, bultzaka, joka, laztanga, puzka, sakaka... harrikada, labankada, makilada, ostikada, zurrutada... ameseta, azterketa, barriketa, berbeta, erosketa, gorueta... belarrondoko, kokoteko, lepoko, matraileko, ostiko... erakunde, nahikunde, ohikunde, zabalkunde... egikune, esakune, abagadune... aurrerakuntza, batzakuntza, errakuntza, haserrekuntza... adimen, ahalmen, aitamen, gozamen, ikusmen, entzumen... kunplimentu, mogimentu, pentsamentu, sentimentu, zimentu... egite, esate, izate, batze, erditze, esker-emote, konpontze... autortza, eskeintza, ezagutza, jaiotza, ezkontza, heriotza... begitazino, burutazino, gogorazino, laguntzino, parkazino...
• Era, zelakotasuna	
- KERA - KUNE	berbakera, ibilkera, joskera, mogidukera, paraukera... ibilkune, begirakune, izakune...

⁴ Berez alkarketarako hitza da, baina parasufijo edo erdi-atzizki modura erabilten da.

⁵ Batuaz *-mentu* erabilten da.

⁶ Batuaz *-zio* erabilten da.

2.2.1.2. ADJEKTIBO-ATZIZKIAK

• Joera, izakera edo zaletasuna	
-BAKO ⁷ -BERA -ERU -GIN / -GILE -GURA ⁸ -KOI -(K)OR -(T)AR -TUN	ardurabako, epebako, etenbako, odolbako, zuztarbako... gilbera, hozpera, izerbera, minbera, negarbera... lukurreru, guzureru, sikuteru... behargin, burugin, gaiztagile... barregura, logura, jangura, negargura... berekoi, etxekoi, haragikoi, herrikoi, umekoi... bizkor, eginkor, errukior, hauskor, iraunkor, lotsor, lohior... beretar, goiztar, abadetar... edatun, ibiltun, ikastun, jakitun, jatun, sinestun...
• Jatorria	
-(T)AR	baserritar, herritar, kaletar, kanpotar...
• Ugaritasuna	
-DO -TI -TSU -ZTO	alperdo, bizardo, ugerdo, zabardo... adurti, basati, bildurti, gaixoti, loti, lotsati, negarti... borondatetsu, bulartsu, dohatsu, gogotsu, uletsu, zaratatsu... gosezto, koipezto, lumazto, zapazto, zorrizto...
• Jabegoa	
-DUN	bizidun, euskaldun, prakadun, sendun, zentzundun...
• Gaitasuna	
-GARRI	barregarri, bildurgarri, ikaragarri, kaltegarri, penagarri...
• Zelakotasuna	
-KO -ZKO	agiriko, azaleko, benetako... ganorazko, naruzko, patxadazko, sedazko, zentzunezko...
• Eztasuna	
-GA [-ge]	artega, deunga, egoska, eskerga, ezkongea, indarga, loka...

⁷ Berez alkarketarako hitza da, baina atzizki modura erabilten da.

⁸ Berez alkarketarako hitza da, baina atzizki modura erabilten da.

2.2.1.3. ADBERBIO-ATZIZKIAK

• Atzizki eratorleak	
-ERO (-ORO)	astero, egunero, gauero, goizero, arratsaldero, hilero, urtero...
-IK	alperrik, bilosik, hutsik, ortozik, pozik, zabalik, zutunik...
-KA	agiraka, aharrausika, albo-alboka, alkar joka, arrastaka, ausnarka, barreka, erdizka, estulka, haginka, hara-honaka, harrika, hor-hemenka, indarka, negar zotinka, orroaka, tiroka...
-RO	argiro, astiro, biziro, barriro, deungaro, geldiro, gozaro, luzaro, oparo, osoro...
-TA	bihortuta, ugartuta, trokatuta, tximurtuta...
-TO (1)	ederto, errazto, galanto, gogorto, hobeto, okerto, ondo, otzanto, polito, txarto, urtento...
-TSU	bardintsu, bateratsu, oraintsu...
-TZAKA	agertzaka, arduratzaka, bildurtzaka, dudatzaka, ixiltzaka, ustetzaka, sentitzaka...
• Deklinabideko atzizkiak: euskeraz izenki (izen edo adjektibo) batzuk, deklinabideko atzizki batzuez baliatuta, adberbio bihurtzen dira:	
-AN	artean, beharrian, dantzan, eskean, ezinbestean, ezjakinean, ezustean, lapurretan, merkean, onean, txarrean ...
-ARREN	bildurraren, ederrarren, itxurarren, jainkoaren amorearren, lotsarren, pozarren...
-GINEN	arrautzeginen, bideginen, etxeginen, gaztaiginen, gerraginen, ogiginen, txizaginen...
-KERA	albokera...
-RA	atzera, aurrera, erara, gerora, gustura, gora, ostera...
-TAN	amesetan, arduratan, benetan, eztitan, lekutan, sarritan...
-TARA	eratarra, honetara, iruntzitarra, luzetara, okerretara, zabaletara...
-TIK	barrutik, bertatik, errotik, gogotik, narrutik...
-Z	ahozpez, amorruez, arduraz, argiz, artez, aurretiaz, berariaz, berbaz, bihotzez, deadarrez, egunez, eskuz, eurrez, gauez, halabeharrez, itxuraz, nekez, onez, penaz, preminaz, tamalez...

Ikusten dan lez, bikoiztasunak erraz sortzen dira:

aurretiaz / aldeztatik, aurretiztik
 bihotzez / bihotzetik
 gogoz / gogotik
 onez /onean
 hobe beharrez / ondo beharrian, hobeto beharrian
 derrigorrez / derrigorrean
 eraz / erara

(1) Horreen parean beste euskalki batzuetan -KI atzizkiak eratorritako aldaerak erabilten dira: ederki, ongi, poliki, gaizki...

Sarritan, euskerak dituan beste baliabide batzuk ahaztuta, batez be erderatiko itzulpenetan, “-mente” amaieradun adjektibo guztiak hartzerakoan -KI atzizkiak adberbiotu ohi ditugu; halan, *politikoki, *legalki, *normalki, *ekonomikoki...

Atzizki horri biderik zarratu barik, bai bizkaieraz, bai batuaz, bestelako bide jatorragoak bilatu behar geunkez. Esaterako: politikan, legez, normalean edo berez, ekonomiari jago-konez...

2.2.2. Aurrizki eratorleak

BIR- / BER-	<ul style="list-style-type: none"> – Izenetan: birraitita, birrezkontza, birzahi... – Aditzetan: berbiztu, birretsi, birjaio, birlandatu, birloratu... – Zenbakiakaz: berrogei, berrehun, birmila (bi mila)... – Beste kategoria batzuk: berau, berbera, berton...
DES-	<ul style="list-style-type: none"> – Izenetan: desbardintasun, desbide, deserri, desoreka, desordu... – Adjektiboetan: desbardin, desegoki... – Aditzetan: desbideratu, desegin, deskonortau, deslotu, despuztu...
EZ- (1)	<ul style="list-style-type: none"> – Izenetan: ezbehar, ezgauza, ezizen, ezune, ezuste... – Adjektiboetan: ezazi, ezjakin, ezezagun, ezikasi...
SASI-	<ul style="list-style-type: none"> – sasieskola, sasikume, sasimaisu, sasimediku...

(1) Lokuzino batzukaz be erabilten da: ez entzun egin, ez ikusi egin / ez ikusiarena egin...

2.3. MAILEGUTZA

Berbak beste hizkuntza batetik hartzeari deritxo halan. Mailegu gehienak kultura hitzak izaten direnez, jatorrizko hizkuntzatik hartu behar dira, ahal dan neurrian behintzat. Hori bai, maileguak hartukeran euskeraren fonetika-legeak jagon behar dira.

Era bitako maileguak bereizi behar dira:

- **Mailegu zaharrak:** berba honeek hartu ziran sasoiko arauen arabera egokituta dagoz eta itxurea be guztiz euskalduna daukie. Hizkuntzan ondo txertatuta dagoz. Adibidez: latinetik, *eleiza* (<ECCLESIA), *gorputz* (<CORPUS), *bake* (<PACE)...; arabieratik, *alkate*, *alkondara*, *azoka*...; gaztelania zaharretik, *premina*, *asmo*, *erregu*...
- **Mailegu barriak:** berba honeek oraindino hots-arauetara guztiz egokitu barik dagoz, ez ditue beteten lehenagotiko lege fonetiko zaharrak. Adibidez: *mantenimentu*, *uni-bertsidade*, *autodeterminazio*, *aerobic*, *radar*...

Mailegu zaharrak hizkuntzan ondo sartuta dagozan ginoan erabili behar dira. Mailegu barriak erabili orduan, ostera, erderakada argiak baztertu eta euren ordeaz, ahal dala, euskeraz jatorrak diranak bilatu behar dira. Kontzeptua euskeraz ondo adierazo ahal bada, onen-onena maileguak baztertzea da.

2.4. LEXIKOAREN BERREZARPENA

Aldentzeko zorian dagoan berba bat indarbarritu egiten da esangura berregokituta. Adibidez: *garden* hitza Azkuek honetara deskribatzen dau: “1. (...) puro, claro, transparente (se dice de los licores)... Odol garden-gardena bota dot. 2. (...) cardenillo”. Gaur egun “transparente” zentzurik zabalenean adierazoten dau. Esan daiteke, esaterako:

Ezin da esan gure politika-egoera orain hogeitau urte baino gardenagoa danik.

2.5. ZABALKUNTZA SEMANTIKOA

Berba jakin baten esangurea zabaldu egiten da aplikazino barriakaz.

-Analogiaz:

Ardatz hitza Azkuek honetara azaltzen dau: "...palo que colocado verticalmente sirve de centro a montones cónicos de paja". Gaur egun "eje", hitzonen erabilgune-rik gehienetan.

-Kalko semantikoz: batez be zientzia berbak (fisika, kimika, matematika...) aditzen emoteko erabilten da.

Rayos ultravioleta = *Izpi ultramoreak*

Fuerza electromotriz = *Indar elektroeragilea*

Zuzenbideak:

Bestelako kalko semantikoak egiten diranean kontuz ibili behar da.

Aparato político de ETA	*ETAren aparailu politikoa	ETAren egitura politikoa
Ciudadano	*hiritar	herritar
Colectivo	*kolektibo	talde
Ilegal	*ilegal	legez kanpoko
Inmigrante	*inmigrante	etorkin
Minoría	*minoría	gitxiengo
Portavoz	*ahotseroale	bozeroale / ordezkari
Acordonar la zona	*gunea akordonatu	gunea inguratu
Bajar un 8%	*%8ko beherapena izan	%8ko beherakada %8 merkatu
Caer (bien/mal)	*ondo / txarto jausi	atsegin / gustuko (ez) izan
Celebrar una reunión	*batzarra ospatu	batzarra egin
Conocer (algo)	*(zeozer) ezagutu	(zeozer) jakin
Conseguir la victoria	*garaipena lortu	irabazi
Dirigirse a (...)	*(...)gana zuzendu	(...)ri berba egin
Echar en falta	*faltan bota	falta igarri / sentidu hutsunea / hutsa somatu
Echar una mirada	*begiratu bat bota	begiratu begiratu bat egin
Echar una siesta	*siesta bota	siesta / biaoa egin siestara joan
Echase novio	*senargaia bota	senargaia topau / egin
Encontrarse bien	*ondo aurkitu	ondo egon
Estar en malas condiciones	*baldintza txarretan egon	egoera txarrean egon
La carretera que lleva a X	*(...)e)ra daroan bidea	(...)e)rako bidea (...)e)ra doan bidea

La política que lleva el gobierno	*gobernuak daroan politika	gobernuaren politika gobernuak egiten dauen ... gobernuak darabilen ...
Llevarse bien	*ondo eroan	ondo konpondu (alkarregaz)
Merecer la pena	*pena merezidu dau	merezidu dau
Padecer un cambio	*aldaketa pairatu	aldaketa gertatu / jazo
Pagar el precio	*prezioa ordaindu	ordaindu
Ponerse a pensar	*pentsetan ipini	pentsetan hasi pentseteari ekin
Repetir exámenes	*azterketak errepikatu	azterketak atzera / barrero / ostera (be) egin
Tener ganas de	*(...) gogoak euki	(...) gogoa euki

3. IZENA

Izena pertsonak, animaliak, gauzak, ideiak, etab. aitatzeko eta izendatzeko erabilten dogun berbea da.

Mikeli guzurra *esan neutsan*.
Okerkeriak *egitearren zigortu dabe*.

3.1. IZENAREN SAILKAPENA

3.1.1. Izen arruntak eta bereziak

Izen arruntak determinatzailea behar dau sintagma osotzeko. Semantikaren aldetik, kategoria, mueta edo espezie bateko gauzak adierazoten ditu.

Emakumea *gure bila ibili da*.
Etxea *erosi dot Zeanurin*.

Izen bereziak normalean ez dau determinatzailearik behar izaten sintagma osotzeko. Semantikaren aldetik, norbaiti edo zerbaiti erreferentzia zehatza egiten deutso; ez da espezie bereko izaki guztiak adierazoteko erabilten.

Miren *etorri da*.
Paris *Frantzian dago*.

Kasu batzuetan erakuslea edo zenbatzailea hartu leike: *Zer uste dau Maria honek? Hiru Maria ezagutzen dodaz*. Adjektiboaz lagundurik egon ezkerro, *-a* mugatzailea be hartu leike: *Maria gurea, Peru gaztea, Bilbo handia*. Baina bestela, izen bereziak, salbuespenak gorabehera, ez daroa mugatzailearik.

Testu klasikoetan badira mugatzaile eta guzti erabilten diran izenak: *Aita San Frantziskoa, Jondone Peria, Jesusa...*

3.1.1.1. KASU BEREZI BATZUK

- Euskeraz badagoz berba batzuk erabilera bikotxa dabenak:

AITA, AMA, OSABA, ANDEREÑO... lako berbak: izen arruntak izan arren, izen berezien moduan deklinatzen dira normalean.

Amak *agindu deust eta* izekogaz *etorri naz parkera*. (Iz. berezia, zehaztua)
Gelako ume guztien amek afaria egin dabe. (Iz. arrunta, moltoa)

aitita / amama aita / ama	aitabitxi / amabitxi osaba / izeko	errege / erregina¹ andereño
--	---	---

¹ Gaur egun mugatzaileaz erabilten dira: *erregea, erreginea*.

JAINKO [/ Jangoiko] berbea izen arrunt lez deklinatzen da.

Limosnatxu bat, Jainkoaren izenean.

Jangoikoak egin ei eban mundua.

Aldizkarien (**Argia, Deia...**) eta erakundeen (**Osakidetza, Euskal Telebista...**) izenak, batzuetan jatorriz izen arruntak izan arren, izen berezien moduan deklinatu behar dira.

Atzo Deian Osakidetzaren beste plan baten barri emon eben.

Elhuyarren artikulu bat idatzi dabe poloen urtzearen gainean.

Alberdaniak argitaratuko dau zure liburu barria?

Zapatuan Athleticen partidua ikusten joango gara.

Beste batzuek, ostera, izen arrunten jokabidea dabe (**Euskaltzaindia, Ur Partzuergoa...**).

Ogasun Saitetik gutun garratz eta ikarea emoteko modukoa jaso dot.

- **Siglak** (DBH, EGA, EITB, HE...) izen berezien moduan deklinatzen dira, artikulu barik. Halanda be, sigla batzuk lexikalizatuta edo bide horretan dagoz, eta artikuluaz erabilten dira (BEZa...), eta beste kasu batzuetan minuskulaz be idatzi leitekez (Hiesa...).

EIZIEK daukan web-orrian topau dogu informazio hori.

ETBko albistegietako aurkezle izateko lehiaketa bat antolatu dabe.

- **Ikurrak** edo **sinboloak** (km/h, ha, seg, Li...) azpian isilpean daukien berbearen moduan deklinatzen dira, berba osoa aurrean balego lez.

1000 ha-ko basoa erre da astegoien honetan Lerida inguruan.

Gure autopistetan ezin da 120 km/h abiadura pasau, legez behintzat.

- **Laburdurak** (and., etab., or. ...) normalean ez dira deklinatzen, zerrendak eta holakoak egiteko erabilten diralako batez be. Osterantzekoetan, deklinabide marka ahoskeraren araberakoa da.

K.a.ko 2000. urtekoa ei da ointsu topau daben fosil hori.

Markinako Azokan frutak, ortuariak, landarak, eskulanak, etab. ikusi eitekezan.

- **BIZKAIA, DONOSTIA, ONDARROA...** -a letraz amaitzen diran leku-izen bereziak: organikoa danean beti gordeten da, baina artikulu danean izen arruntetan kentzen dan guztietan kentzen da, NON kasuan ez, baina bai NONGO, NONDIK, NORAKasuetan.

Nafarroara joan nintzan.

eta

Nafarroan egon nintzan.

Bizkaira joan nintzan.

baina

Bizkaian egon nintzan.

Leku izenetan lau atal bereizi daitezke:

- -a organikodunak.
- -a mugatzailedunak.
- -a atzizkia galdu izan edo galbidean dabenak.
- -a atzizkirik hartzen ez dabenak.

Euskal Herriko bazter polit bat ezagutzeko asmotan Lemoara joan ginan.

Errigotitiko eta Larrabetzuko jaietan baino ez gara egon aurtan.

-A organikodun leku-izenak

Aezkoa	Errenteria	Lemoa	Plentzia
Alegia	Frantzia	Mungia	Zaldibia
Bedia	Gipuzkoa	Nafarroa	Zigoitia
Donostia	Gorbeia	Ondarroa	Zuberoa

Beraz,

*Donostiko	Donostiako	*Gorbeira	Gorbeiarra
*Erreteritik	Erreteriatik	*Mungirantz	Mungiarantz

-A mugatzailedunak

Azkoitia	Erriberabeitia	Mallabia	Natxitua
Azpeitia	Euskal Herria	Mañaria	Olaberría
Bizkaia	Getaria	Markin-Etxebarria	Zizur-Txikia
Ermua	Hondarribia	Murgia	Zumaia

Beraz,

*Bizkaiako	Bizkaiko	*Hondarribiara	Hondarribira
*Ermuatik	Ermutik	*Mañariarantz	Mañarirantz
*Bizkaia garbia		Bizkai garbia	
*Bizkaia maitea		Bizkai maitea	
*Bizkaia osoa		Bizkai osoa	

-A galdu izan edo galbidean dabena

Aulesti	Berriatu(a)	Foru(a)	Ibarrangelu
Arratzu	Deustu	Goierrri	Larrabetzu
Basurtu	Errigoiti	Goiti(a)	Loiu
Beiti(a)	Etxebarri	Goiuri(a)	Mañu(a)

Honeetarik gehienetan jatorrizko *-a* mugatzaileari jagoko.

Gaur egun, *Aulesti*, *Arratzu*, *Errigoiti*, *Larrabetzu*... herri izenetan *-a* galdutzat emoten da eta kasu askotan euren herri izenetan be ez dabe gorde. Horregaitik, normal entzuten dira *Aulestin*, *Arratzun*, *Errigoitin*..., eta ez antxinagokoak diran *Aulestian*, *Arratzuan*, *Erri-goitian*...

Horrezaz gainera, esan behar dogu *-a* artikulua oraindino gorde dabena herri izenetan azentua zaintzea be ezinbestekoa dala. Holan ba, **Fóruan* euskaldun batentzat fonetika aldetik ezezaguna da eta *Foruán* (*Foruén*) esan beharko geunke. Halanda ze:

*Ásuán	Asuán (<i>Asuén</i>)
*Bustúrian	Busturián (<i>Busturijén</i>)

Gipuzkoako herri-izendegia euskeratu orduan, *-a* azken bokalari, artikulua azken baten, eutsi egin jako herri izenetan; esaterako, *Azkoitia* edo *Getaria* dira izen ofizialak.

-A-rik hartzen ez dabena

Atxondo	Bilbo	Lapurdi	Zaratamo
Bermeo	Durango	Legutio	Zeberio
Berango	Gorliz	Lekeitio	Zeanuri
Berriz	Igorre	Otxandio	Zizurkil

-a / -e bikoiztasuna dabena toki-izena

Arana, *Bizkarra*, *Ibarra*, *Zabala*, *Zorrotza* toki-izena leku-askotan *Arane*, *Bizkarre*, *Ibarre*, *Zabale*, *Zorrotze* egiten dira, *-e* atzizkiaz ebagirik. Azken *-a* mugatzailea izanik, izen arruntak lez deklinatu izan dira, eta toki-denpora kasuetan *-(e)an*, *-(e)ko*, *-(e)tik*, *-(e)ra*. Kasuon

aztarrena da *-e* hori. Halanda ze, ontzat emoten da toki-denpora kasuotan horretara erabiltea: *Ibarren, Ibarreko, Ibarretik, Ibarra*.

Era berean, izen ofizialean *-aur, -ena, -gan* amaiera daben toki-izenak *-e* eta guzti erabilten dira ahoz, baita idatziz be batzuetan. Halan: *Zubiaur / Zubiaurre, Abadena / Abadene, Mai -dagan, Negurigane...* Toponimia txikian onargarriak dira *-e* atzizkidun izendapenak, baldin ahozkoan indar handia badabe.

-ak / -eta atzizkidun toki-izenak

Batez be toponimia txikian asko dira *-ak* plural atzizkiaz edota *-eta* atzizki-atalaz erabilten diranak. Holakoek izen arrunten deklinakera daukie. Halakoak dira: *Arteak / Arteeta, Lauro -ak / Lauroeta, Soloak / Soloeta, Geldoak / Geldoeta, Landak / Landeta, Pagoak / Pagoeta* eta beste asko. Toki-denpora kasuetan honetara egingo da: *Lauroetan, Lauroetako, Lauroetatik, Lauroetara*.

-aga / -a laburketa

Idatziz, eta administrazino-erabileran *-aga* amaiera daben toki-izenak *-a* egin ohi dira ahoz. Halakoak osorik idatziko dira, baina ahoz ontzat joko da forma laburtua. Halan: *Arrigorria -ga / Arrigorria, Madariaga / Madaria, Elorriaga / Elorria, Iturriaga / Iturria*.

Beste herrialdeen eta herrien izenetan, bai bertokoetan, bai kanpokoetan, Euskaltzaindiaren gomendioai jarraituko deutsegu.

3.1.2. Izen zenbakarriak eta zenbakaitzak

Zenbakarria da zenbatu daiteken izena, zenbatzaileak onartzen dituana.

Ate bi pintau doguz.

Neskatila asko agiri da / dira.

Zenbakaitza da zenbatu ezin dan izena, eten edo atalbakoa dan gaia, “masa” lez hartzen dana, esaterako, likidoak. Kasu horreetan (*bildur, ur...*) *bat, bi...* esatea ezinezkoa da. Holarakoetan, *asko, gitxi, handi, txiki* eta antzekoak erabilten dira edo beste esapide batzuez ordezkatu.

**Ke bat dago gela honetan.*

**Daukat gose bat.*

**Badaukat bero bat.*

**Logura bat badauka umeak.*

**Zelo batzuk badaukaz.*

Ke handia dago gela honetan.

Gose naz. / Gosez hilda nago.

Bero naz. / Beroak tragauta nago.

Logureak erreta dago umea.

Zeloak erreta dago.

Gogoan hartu, neurria edo kopurua adierazoten danean izenak ez dauela mugatzailerik behar.

3.1.3. Izen neurgarriak eta neurgaitzak

Izen zenbakaitzen artean azpimoltso bat egin daiteke: izen neurgarriak eta neurgaitzak.

Izen neurgarria (*ura, orioa, uruna, gatza...*), zenbatu edo kontau ezin bada be, zeozelan neurtu egin daiteke. Adibidez: *asko, gitxi, hainbat, litro bat, bost kilo, hiru dozena, baso bete, eskukada bi...* *Zenbat* itaunari erantzuten deutso.

Gatz asko bota deusazu saldeari.

Hiru litro ur edan behar ei dira egunean.

Ordena nagusia: kopurua + gaia (mugatzaile barik).

Baso bat / bete <i>ur</i> (gaia)	≠	<i>Ur</i> baso bat (ontzia)
Botila bat / bete <i>esne</i>		<i>Esne</i> botila bat

Lehenengo neurria adierazoten dauen izena (izen sintagma) eta ostean neurtua dan izena.

* <i>Oraintxe</i> ur baso bat <i>edango neuke</i> baso bat ur...
* <i>Arrautza</i> dozena bat <i>behar dot pastela egiteko</i> .	Dozena bat arrautza...

-kada

-kada atzikia ipinten jako bolumena edo moltsotasuna adierazoten dauen izen askori: *esku -kada, besada, kolkokada, altzokada, koilarakada, platerkada, kamioikada...*

Platerkada <i>indabea</i>	Platerkada <i>indabak</i>	(* <i>indaba</i> platerkadak)
Platerkada bi <i>indaba</i>	Platerkada bi <i>indabak</i>	(* <i>indaba</i> platerkada bi)
Kamioikada <i>lurrak</i>	Bost kamioikada <i>lur</i>	(* <i>lur</i> kamioikadak)
Gurkada <i>ikatz</i>	Hiru gurkan <i>ikatz</i>	Hiru gurkan <i>ikatzak</i>
Traktorekada <i>bedarra</i>	Traktorekada <i>bedarrak</i>	Lau traktorekada <i>bedar</i>

bat / bete

Bizkaieraz, kopuru-izen batzukaz, *baten* lekuan *bete* erabilten da sarritan, batez be isurkariakaz, baina baita beste neurri-eremu batzuetan be. Halan bada, *bete, baten* ordezeko jazoten da halakoetan, baina ez *bi, hiru* eta beste zenbatzaileena.

Etxe bete lagun alkartu ginan.
Auto bete ume eroan dau.

Izen neurgaitza (*antz, gorroto...*) ezin da ez kontau ez neurtu. Halan bada, *handi / txiki, luze / labur, gogor / leun...* lako adjektiboak erabiliko ditugu. *Zelako* itaunari erantzuten deutso.

Gaur haize handia dago eta ez dot etxetik urten gura.
Ez genduan larritasun makala pasau!
Ekarri eizu soka labur hori.
Denporale gogorra ei dator iparraldetik.
Bildur itzela pasau genduan kobazulo haretan.

Gogoan izan, ahal dala izen neurgaitzakaz ez dirala *asko / gitxi* zenbatzaileak erabili behar.

* <i>Min</i> asko hartu dot <i>belaunean</i> .	<i>Min</i> handia...
* <i>Aitaren antz</i> asko <i>dauka</i> <i>antz</i> handia...
* <i>Denpora</i> asko <i>egon nintzan zuri itxaroten</i> .	Luzaroan...

Kontrako esangurea adierazo behar danean, ostera, esaldian *gitxi* zenbatzailea ipintea baino normalagoa da esaldia bera ezezka ipintea. Inoiz konparazinoa be erabilten da.

* <i>Gaur atzo</i> baino <i>bero</i> gehiago <i>egiten dau</i> .	<i>Gaur atzo</i> baino <i>beroago dago</i> .
↓ <i>Eleizan bero</i> <i>gitxi</i> <i>egiten dau</i> .	↑ <i>Eleizan ez dau bero</i> <i>handirik egiten</i> .
↓ <i>Hori egiteko gogo</i> <i>gitxi daukat</i> .	↑ <i>Ez daukat hori egiteko bape gogorik</i> .
↓ <i>Tabernaz taberna</i> <i>ibilteko gogo</i> <i>gitxi daukagu</i> .	↑ <i>Tabernaz taberna</i> <i>ibilteko ez daukagu</i> <i>horrenbesteko gogorik</i> .

3.1.4. Izen bizidunak eta bizibakoak

Izen biziduna pertsona edo animaliei jagoke.

Gaur arratsaldean amamagana joango naz.
Txakurrek ez deuste konfiantzarik emoten.

Izen bizibakoa beste gauza guztiak izendatzeko erabilten da (landarak barru).

Etxera *noa*, *nekatuta nago-eta*.

Nekaneri arboletara *igotea gustetan jako*.

Izen bizidun eta bizibakoen arteko banaketak toki-denporazko kasuetarako dauka garrantzia. Izan be, gehienetan, izen bizidunek ez ditue izen bizibakoakaz erabilten diran atzizki arruntak onartzen; hau da: *-(e)an*, *-(e)ko*, *-(e)tik*, *-(e)ra*. Euren lekuan beste honeek erabilten dira: *-agan*, *-agandik*, *-agana*.

Gizonagan

Andreagandik

Umeakana

Oker nabarmenak egiten dira hori dala-eta batzuetan:

**Gauza horreek alkarretik banatu behar dira*. ... alkarre(n)gandik...

Izen biziduna tokitasun-zentzuaz erabilten danean, atzizki arruntagaz azaltzen da:

**Zaldiarengandik jausi eta hiru saihets* Zaldi gainetik *jausi*...

apurtu ditu.

**Umeagandik umeagana alde handia dago*. Umetik *umera*...

Pluralean be, sarri balio kolektiboa edo moltsotasuna nagusi izaten dan lez, atzizki arruntak erabilten dira:

Andretan *be danak ez dira eretxi berekoak*.

Gizonetariko *bat bertora etorri da biziten*.

Otsoetara *bota eben bildots gaixoa*.

GOGOAN HARTU !!

📖 **Iz. bereziakaz** atzizki honeek erabilten dira: *-(r)i*, *-(r)entzat*, *-(e)gaz*...

📖 **Iz. berezi lez deklinatu** behar dira: *aita / ama*..., aldizkari eta erakundeen izenak, siglak eta pertsona eta leku-izen bereziak.

🌀 *izekori*, *Argiako*, *Athleticen*, *BBK-k*, *HABEko*, *Ondarroara*, *Foruraino*, *Larrabetzutik*...

📖 **Iz. bizidunakaz** *-gan-* atzizkia tartekatzen da: *-agan*, *-agandik*, *-agana*...

🌀 *semeagan*, *irakasleagandik*, *zuekanaino*, *amaganantz*...

!!!! *umetik umera*, *zaldi gainetik jausi*, *asto gainera igon*...

📖 **Iz. zenbakaitzakaz** honeek erabilten dira: *handi*, *itzel*, *bizi*, *hainbesteko*, *txiki*...

🌀 *logura handia*, *txizagura itzela*, *erritmo bizia*, *hainbesteko indarra*...

📖 **Iz. zenbakaitz neurgaitzakaz EZ** dira erabilten: *asko*, *gitxi*.

**bero asko*, **azkura asko*, **gogo asko*...

Halanda be, berba batzukaz (*argi*, *behar*, *ganora*...) erabili leiteke: *gitxi*.

🌀 *argi gitxi*, *behar gitxi*, *ganora gitxi*, *gose gitxi*...

📖 Kontrako esangurea emoteko, *gitxi* erabili beharrean, gehienetan esaldia **EZEZKA** jarten da.

🌀 *ez dago bero handirik*, *ez dauka antz handirik*, *ez dauka bape erraztasunik*...

4. IZENORDAINAK ETA ERAKUSLEAK

Izenordain-motak bereiztu geinkez:

1. Pertsona-izenordainak.
2. Erakusleak.
3. Galdetzaileak eta galdetzaileetatik eratorriak.
4. Alkarkariak.
5. Bihurkariak.

4.1. PERTSONA-IZENORDAINAK

4.1.1. Pertsona-izenordain arruntak

	SINGULARRA	PLURALA
1. pertsona	NI	GU
2. pertsona	HI / ZU	ZUEK

1 ETA 2. PERTSONAK					
NOR	ni	hi	gu	zu	zuek
NORK	nik	hik	guk	zuk	zuek
NORI	niri	hiri	guri	zuri	zuei
NOREN	nire	hire	gure	zure	zuen
NORENTZAT	niretzat	hiretzat	guretzat	zuretzat	zuentzat
	niretako	hiretako	guretako	zuretako	zuendako
NORGAITIK	nigaitik	higaitik	gugaitik	zugaitik	zuekaitik
NOGAZ	nigaz	higaz	gugaz	zugaz	zuekaz
ZEREZ	nizaz	hizaz	guzaz	zuzaz	zuezaz
NOrenGAN	nigan	higan	gugan	zugan	zuekan
NOrenGANDIK	nigandik	higandik	gugandik	zugandik	zuekandik
NOrenGANA	nigana	higana	gugana	zugana	zuekana
NOrenGANAINO	niganaino	higanaino	guganaino	zuganaino	zuekanaino
NOrenGANANTZ	niganantz(a)	higanantz(a)	guganantz(a)	zuganantz(a)	zuekanantz(a)
	niganuntz	higanuntz	guganuntz	zuganuntz	zuekanuntz

– *Zuek* izenordainari jagokon lekuan, beste hurbil batzuen analogiaz, *zuok* erabilten da sarri; baina, euren artean ez dago oposiziorik. Hori kontuan hartuta, era indartubakoak (*zuek, zuei, zuen, zuekaz...*) erabiltea gomendatzen da. Halanda be, era hurbilok (*zuok, zuoi, zuon, zuon - tzat, zuondako, zuokaz...*) aldaera estilistikotzat ontzat emongo dira.

Euskeraz ez dago pertsona-izenordain arruntik 3. pertsonarako. Hori adierazoteko 3. gradu-ko erakusleez baliatzen gara: *ha / hareek*.

3. PERTSONAK		
NOR	ha	hareek
NORK	harek	hareek
	hak	
NORI	hari	hareei
	hareri	
NOREN	haren	hareen
NORENTZAT	harentzat	hareentzat
	harendako	hareendako
NORGAITIK	ha(re)gaitik	hareekaitik
NOGAZ	ha(re)gaz	hareekaz
ZEREZ	ha(re)zaz	hareezaz
	harez	hareez
ZERTZAT	hatakotzat	
NOrenGAN	ha(re)gan	hareekan
NOrenGANDIK	ha(re)gandik	hareekandik
NOrenGANA	ha(re)gana	hareekana
NOrenGANAINO	ha(re)ganaino	hareekanaino
NOrenGANANTZ	ha(re)ganantz(a)	hareekanantz(a)
	ha(re)ganuntz	hareekanuntz

Jauna, errukitu zaitez nizaz!

E, hi, lagundu eiguk, mesedez!

Eurak hasi ziran irainka! Guk ez genduan ahorik zabaldu!

Zelan demontre pentsau zeinke zuk holakorik?

Oliba patsa eta haren ondorio lazgarriak albista izan dira egunokaz.

4.1.2. PERTSONA-IZENORDAIN INDARTUAK

– 1. eta 2. gradu-ko pertsona-izenordain indartuak:

1. ETA 2. PERTSONAK					
NOR	neu	heu	geu	zeu	zeuek
NORK	neuk	heuk	geuk	zeuk	zeurok
					zeuek
NORI	neuri	heuri	geuri	zeuri	zeurok
					zeuei
NOREN	neure	heure	geure	zeure	zeuroi
					zeuen
NORENTZAT	neuretzat	heuretzat	geuretzat	zeuretzat	zeuron
	neuretako	heuretako	geuretako	zeuretako	zeuentzat
					zeurontzat
					zeuendako

NORGAITIK	neugaitik	heugaitik	geugaitik	zeugaitik	zeuekaitik <i>zeurokaitik</i>
NOGAZ	neugaz	heugaz	geugaz	zeugaz	zeuekaz <i>zeurokaz</i>
ZEREZ	neuzaz	heuzaz	geuzaz	zeuzaz	zeuekin <i>zeurokaz</i>
NOrenGAN	neu(re)gan	heu(re)gan	geu(re)gan	zeu(re)gan	zeuekan <i>zeurokan</i>
NOrenGANDIK	neu(re)gandik	heu(re)gandik	geu(re)gandik	zeu(re)gandik	zeuekandik <i>zeurokandik</i>
NOrenGANA	neu(re)gana	heu(re)gana	geu(re)gana	zeu(re)gana	zeuekana <i>zeurokana</i>
NOrenGANAINO	neu(re)ganaino	heu(re)ganaino	geu(re)ganaino	zeu(re)ganaino	zeuekanaino <i>zeurokagino</i>
NOrenGANANTZ	neu(re)ganantz(a) neu(re)ganuntz	heu(re)ganantz(a) heu(re)ganuntz	geu(re)ganantz(a) geu(re)ganuntz	zeu(re)ganantz(a) zeu(re)ganuntz	zeuekanantz(a) <i>zeurokanantz</i> zeuekanuntz

– *Zeurok*, *Zeuek* izenordainaren forma zaharra da, oindino Zeberio eta Orozko inguruan bizi-rik dirauana.

Beste alde batetik, analogiaz sorturiko hurbilak be (*zeuok*, *zeuoi*, *zeuon...*) kontuan hartuko dira, besteak gomentatuko diran arren.

– 2. gradurako, *berori* eta *eurok* / *eurak errespetuzko izenordainak* be badira, gaur egun gero eta gitxiago erabiltzen diranak. Baina formaren aldetik 3. pertsonakoak dira eta aditza 3. pertsonan eskatzen dabe; esangureari begira, ostera, 2. pertsona adierazoten dabe.

ERRESPETUZKO IZENORDAINAK		
NOR NORK	berori berorrek	eurok eurak eurok eurak eurek
NORI	berorri berorreri	euroi eurai eurei
NOREN NORENTZAT	berorren berorrentzat berorrendako	euron euren eurontzat eurentzat eurondako eurendako
NORGAITIK NOGAZ	berorregaitik berorregaz	eurokaitik eurakaitik eurokaz eurakaz
ZEREZ	berorrezaz berorrez	eurokin eurakin eurozaz eurezaz
NOrenGAN NOrenGANDIK NOrenGANA NOrenGANAINO NOrenGANANTZ	berorregan berorregandik berorregana berorregaino berorreganantz(a) berorreganuntz	eurokan eurakan eurokandik eurakandik eurokana eurakana eurokanaino eurakanaino eurokanantz(a) eurakanantz(a) eurokanuntz eurakanuntz

Berorrek ezer behar baleu, gu prest gaukaz berorri laguntzeko.
 Berorrena da gutun hau, abade jauna.
 Berorregana gatoz gaixoa ekarten, mediku jauna.

Zer hartu gura dabe eurok, baso bete ardao?
 Eurok esan dagienean urtengo dogu etxetik; deitu beigue prest dagozanean.

– **3. graduko pertsona-izenordain indartuak**: 3. graduko erakusle indartuak hartzen dira.

3. PERTSONAK		
NOR	bera	eurak
NORK	berak	eurek
		eurak
NORI	berari	eurai / eurai
NOREN	beraren	euren
NORENTZAT	berarentzat	eurentzat
	berarendako	eurendako
NORGAITIK	beragaitik	eurakaitik
NOGAZ	beragaz	eurakaz
ZEREZ	berazaz	eurezaz
NOrenGAN	bera(ren)gan	eurakan
NOrenGANDIK	bera(ren)gandik	eurakandik
NOrenGANA	bera(ren)gana	eurakana
NOrenGANAINO	bera(ren)ganaino	eurakanaino
NOrenGANANTZ	bera(ren)ganantz(a)	eurakanantz(a)
	bera(ren)ganuntz	eurakanuntz

Izenordain indartuek arruntek baino indar gehiago daukie eta, normalean, pertsona edo gauzea bergogoratu gura danean erabilten dira.

Erabilerari jagokonez, ez da erraza izenordain arrunten eta indartuen arteko desbardintasanak eta bakotxaren erabilera-eremuak zehaztea. Halanda be, argibide batzuk emongo ditugu:

Mendebaldeko euskalkietan forma indartuak erabilteko joera handiagoa dago, ekialdekoetan baino.

Sintaxiaren aldetik ez dago debeku askorik eta era guztietako testuinguruetan eta esaldietan topau geinkez forma indartuak: esaldi nagusietan zein menpekoetan, kontrakotasuna adierazoten dala zein ez dala, baiezko esaldietan zein ezezkoetan... Halanda be, bereizketa egiteko, sintaxiari barik semantikari erreparau behar jako eta beti kasuan kasuko salbuespenak egon leitekezala kontuan izan.

Hurrengo testuinguru honeetan **izenordain arruntak** erabili:

- Galdegai ez danean.
- Ezezko esaldietan.
- Zati-galderetan.
- Bokatiboetan.
- Harridurazkoetan.

Ni sarri egoten naz Lekeition.
 Badaezpadan be, nik esan egingo neuskio.
 Zu ez zara lehengo egunean ikusi nebana.
 Hi ez haz hemengoa!
 Zuek nori emon deutzazue giltza?
 Zergaitik ez dozue nigaz egon gura?
 E, zu, lagundu, mesedez!
 Hi, egon hadi ixilik!
 Gu gara inuzenteak! Guk daukagu xaxarea!
 Zuk hartu beharko dozuz hartzekoak!
 Ez nazala ni hemengoa?

Dana dala, galdegai izanda be, beti ez da forma indartua erabilten.

Nik ekarri dot.
 Zuk dakizu erantzuna.
 Orain guri toketan jaku.

Zalantza kasuetan beti be era indartubakoa erabiltea da seguruagoa eta gomendagarriena.

Hurrengo testuinguru honeetan **izenordain indartuak** erabili:

- Izenordaina galdegaia danean.
- Kontrakotasuna marketako.
- *Be*, *behintzat* eta antzekoen aurrean.
- *Ni neu*, *zu zeu* eta antzekoetan.

Betiko moduan, geuk esan beharko deutzazu egia.
Trankil egon, neuk ipiniko deutzazue gaurko afaria.
Atzo goizean zeu heldu zinan lehenengo, ezta?
Lotsatu egiten naz esaten, baina neuk bakarrik dakit egia.
Nogaz egon zara berbetan? Neuk be ez dakit nor izan dan.
Eurentzat behintzat ezusteko ona izan da txapelketa irabaztea.
Ni neu ez noa behintzat. Datozala gura badabe.
Zuek zeuek zer egiteko asmoa dozue, ba?
Gu, geu gara nahikoa bazter guztiak endredetako.

Galdegai izan ez arren be, kontrakotasuna markau nahi danean izenordain indartuak erabilten dira: hau da, *neu* eta ez beste bat, *geugaz* eta ez beste bategaz.

Zergaitik kasu ez deutzazu egin neuri? (Beste bati egin beharrean)
Ez pentsau hori zeuretzat danik. (Zuretzat barik, besteentzat da)

– Edozelan be, goiko arau edo gomendioagaz bat ez datozan kontestu askotan agertzen dira *neu*, *zeu* erako izenordainak. Hiztunak, moduren baten, enfasia emon gura leuskioen kasuak dira. Adibidez:

Jolasteko gogo handia daukazu zeuk. (= zuk zeuk, zeuri jagotzunez)
Ez zeuntsan zeuk kontau, ba! (= zeu izan zinan kontau zeuntsana)
 “Etorri zan hona, *neu* etxean ez nengoala, mutil lotsa gaiztoko bat” (J.A. Mogel)
 (= neu falta nintzan etxean)
 “... *zeuk* zergaitik esan ez deutzazu *zeurea?*” (D. Agirre) (= zuk zeuk pentsetan zenuana)

- “¿Zer desiau dozu *zeuk*? ¿Zer pentsau dozu?” (Prai Bartolome) (= zeure desioa)
 “Zer dinostazu *zeuk*, neure semea?” (D. Agirre) (= zeuk eta ez bestek)
 “*Neure* mutil onak; iges egizue gaurko neskatiletati” (J.A. Mogel)
 “Ondo sinesgaiztokoia zagoz *zeu!*” (D. Agirre)
 “–Gazteak –esan eutsen irribarrez- luzea dozue haria *zeuek*” (D. Agirre)

Adibide horreek hobeto ulertu daitezke semantikaren aldetik begiratu ezker. Gainera, hola-ko kasuetan, askotan izenordain indartua agertzen da *nik neuk*, *zuk zeuk*... zentzuan, hau da, “al menos X” adierazo gura danean.

Horren eraginez egindako huts ohikoenak, nahasteak eta ultraerabilera batzuk lerrotuko ditugu:

* <i>Neuk ez dot hori egin.</i>	Nik ez...
* <i>E, heu, etorri hona atoan!</i>	E, hi...!
* <i>Geuk zergaitik egin behar dogu hori?</i>	Guk zergaitik...
* <i>Geu gara kokoloak!</i>	Gu gara...
* <i>Zeu non bizi zara?</i>	Zu non...
* <i>Zeuk etxe bat erosi dozu, ezta?</i>	Zuk...
↓ <i>Nork ikusi eban gertatutakoa? Nik.</i>	↑... Neuk.
↓ <i>Maite eizuez hurrekoak nik maite zaituedan lez.</i>	↑... neuk maite zaituedan lez.
↓ <i>Konforme...gu joango gara, baina zuek be bai, e!</i>	↑... baina zeuek be bai, e!
↓ <i>Zelan esan daikezu zeuk holakorik!</i>	↑... esan daikezu zuk...!
↓ <i>Jauna, errukitu zaitetz geuzaz!</i>	↑... errukitu zaitetz guzaz!
↓ <i>Bihurtu eizuz geugana zeure begiok!</i>	↑ <i>Bihurtu eizuz gugana...!</i>
↓ <i>Kasurik egin gura ez badeustazu, neugaitik egin zeuk gura dozuna!</i>	↑... nigaitik egin zeuk gura dozuna!

Nor eta *Nork* kasuen barruan, zehaztu daiguzan oraintsu sartu diran *nik pertsonalki* eta antzeko egitura okerrak. Horreen lekuan *ni neu*, *nik neuk*... erabili behar dira.

* <i>Ni pertsonalki ez nago asmo horren alde.</i>	Ni neu...
	Neu behintzat...
* <i>Guk pertsonalki baietz bozkatuko dogu.</i>	Guk geuk...
	Geuk behintzat / behinik behin...

Bestalde, izenordainen *Noren* kasuari jagokonez, balio indartua eta bihurkaria nahastu egiten dira sarritan.

Neure
 Heure
 Bere (beronen / berorren) // Beraren¹
 Geure
 Zeure
 Zeuen / zeuron
 Euren (euron)²

¹ Ahoz *beran*, *beren* esaten dira.

² Bizkaieraz *euren* erabilten dogu plural guztietarako, bihurkari, izenordain zein erakusle indartu modura.

– Izenordainak adierazoten dauen pertsona –ekintzaren egilea edo jabea, edo ekintzagaz zerikusia daukana– aditzean agertzen bada, *bere* genitibo bihurkaria erabili behar da (gen. bihurkariak aurreko erreferente bat behar dau eta aditzean ikutzen da).

Senarrak bere bizimodua egiten dau eta nik neurea.

Iñakik onartuko dau nozonoiz bere errua.

– Izenordainak adierazoten dauen pertsona aditzetik kanpo geratzen danean, ostera, *beraren* forma indartua erabili behar da.

Beraren trebetasunaz fiau behar dozu.

Kepa nigaz haserre dago, baina nik beraren laguna izan gura dot.

Bere / *beraren* edo *berea* / *berarena* bereizteko jaramon egiezu ondoko adibidei:

(a) “Artolak dauka ustea / *berea* dabela / mundu guztiko jentea.” (herri-kopla)

(b) Artolak dauka ustea / *berarena* dala / ...

Gogoan izan, gaztelaniaz “su” erabilten dan kasu askotan ez dagoala euskeraz *bere* erabili beharrik:

↓ *Alkateak behargina bere lanpostutik kentzea erabagi dau.*

↑ *Alkateak behargina lanpostutik kentzea erabagi dau.*

Dana dala, erabilera zaharra halan izan arren, hiztunek sarritan *bere* eta *beraren* bardindu egiten ditue, bata besteagandik bereiztu barik, eta halan leku batzuetan *berea* eta beste batzuetan *bera(re)na* kontestu berberetan erabilten dira.

Bere erabilteko lege segurua hau izango da: aitatzen dauen pertsona edo gauzea esaldi berean agertzen bada *Nor*, *Nori* edo *Nork* modura (eta *bereren* aurretik agertzen bada argiago), berori erabili behar da. Erreparatu deiegun ondoko perpausai:

Andoni bere etxera eroan neban. (Nor)

Andonik bere etxera eroan ninduan. (Nork)

Andoniri bere etxea erosi neutsan. (Nori)

Kontestu korapilatsuagoetan hainbat beharrago egiten da *bere* / *beraren* bereizketa egitea, esaldiari argitasun handiagoa emateko. Esate baterako:

Andoni, Iker eta hirurok gengozañez, Andoni bere etxera eroan neban. (Noren etxera? Andoniren etxera? Ala Ikerren edo kontestuan ezaguna dan norbaiten etxera? Andoniren etxera aditu behar dogu, *bere* bihurkaria izan ezkeror).

Aditz nagusiko pertsonak (zer-nori-nork) mendeko perpausako izenordaina bihurkari izatean be eragina izan leike. Ohartu gakiezan hurrengo adibide bie:

Lehenengo Patxi heldu zan, gero Jon; eta Patxik bere andrea be etortekoa zala esan eban. ... (Patxiren andrea)

Lehenengo Patxi heldu zan, gero Jon; eta Patxik beraren andrea be etortekoa zala esan eban. ... (Jonen andrea)

Ondorioz, *bere* eta *beraren* bereiztera egin behar dogu ahaleginez:

Bere (bihurkaria, aditzean parte hartzea eskatzen dauena)

Beraren (indartua, ez dago aditzean, baina lehenago aitatuta dago)

Bere / *beraren* larregi erabilteaz: sarritan, *haren* formaren ordeaz *bere* erabilten da indartua edo bihurkaria izan ez arren, baita behar ez danean be.

↓ *Argi dago Ander eta bere ama ez dirala ondo konpontzen.*

↑ ... *Ander eta* (haren) *ama...*

↓ *Aitak bere semea zigortu dau.*

↑ *Aitak semea...*

Noren kasuaren inguruan bestelako hutsak be egiten dira:

*Nire <i>lagunakaz alkartzekotan naz.</i>	Neure <i>lagunakaz...</i>
*Gure <i>kotxean joango gara.</i>	Geure <i>kotxean...</i>
* <i>Jokalariak harenen jarraitzaileakaz egon ziran.</i>	<i>Jokalariak euren jarraitzaileakaz...</i>

Bera izenagaz batera:

- Batzuetan, *bera* determinatzaile indartu lez agiri da.
Atzoko gizon bera etorri jat gaur be diru eske.
- Beste batzuetan, barriz, erakusle edota izen mugatzailedunen aposizioan:
Gizona bera hurreratu jatan diru eske, ez andrea.
Alabeari berari emon neutsan amari eroateko.
Ha bera konponduko litzateke bakarrik be.
Hari berari ezin leio ezer esan.

4.2. ERAKUSLEAK

Herriko euskeran eredu bi dira nagusi: bata, erakuslea eta gradu bereko artikulua erabilten dituana (*hau andrea, hori gizonori, honeek gazteok...*); bestea, erakuslea edozein izanda be *-a / -ak* artikulua erabilten dituana (*hau andrea, hori gizona, honeek gazteak...*).

Beraz, eredu moderno honen egitura hauxe da:

Hau Hori Ha	Izen	-au -ori -a	-a
Honeek Horreek Hareek		(+Adj.) -ok -ok -ak	

Baina tradizioz idatzi guztian, beste euskalkiakaz bat datorren joera bera da nagusi eta bakarra:

Izen (+Adj.)	hau, hori, ha honeek, horreek, hareek
-----------------	--

Tradizinozko ereduak, determinatzaile bakar eta atze-kokaeradun horrek, eredu modernoari egin deituko lekua, batez be ahozkoan. Idatzizko ereduak, eredu klasikoak jagongo da ahal dala. Determinatzaile biko ereduak ahozkotik hurreko hizkuntza-mailetarako gordeko dira.

Erabilgune nagusiak:

Lau erabilgune nagusi izan ohi ditue erakusleek esaldian:

- Bakarrik:

Izan be, sarritan ez da zertan aitatu berari jagokan edo azpian beragaz dagoan izena. *Ikasle hau* esateko *hau* esan daikegu; edo *gauza horrek* esan beharrekoan *horrek*, edo *mutil hari* esan beharrekoan *hari*, baldin kontestuak argitzen badeusku ze izen jagokan.

Hau *da gehien dakiana*.
 Horrek *emoten deust penea!*
 Hari *ez deutso inork esan*.
 Paraje *ederrak dira, baina hareetan ez dago hemengo bizitasunik*.

- Izen, adjektibo edo izen + adjektibo baten ondorik:
 Etxe honek *teilatua apurtuta dauka*.
 Txiki horren *ondoan nagusi batek joan behar dau*.
 Urte haretako *jazoera tristeak ondo gogoan ditugu*.
 Abendu santu honetan *Jesusen jaiotzea, kontentuaren handiz guztiok poz gaitean!*
- Izen, adjektibo edo izen + adjektibo baten aurretik, atzetik mugatzailea darraiola:
 Horregaz oinagaz *zapata handia behar dozu*.
 Honentzat umeonentzat *ez dozu saririk erosi?*
 Honeetara herrietara *jente gitxi etorten da neguan*.
 Hareetan urteetan *ez zan izan oraingo oparotasunik*.
- Leku-denpora kasuetan, singularrerako leku-adberbioak erabilten dira erakuslearen orde:
 Hemen herrian [/ herrionetan] *oindino euskera asko egiten da*.
 Neskaitila hori handik etxetik [/ etxe haretatik] *urteten ikusi dogu*.
 Zoaz horko plazako [/ plazaorretako] *kioskora eta erosi eizu egunkaria*.
 Orduan urtean [/ urte haretan] *itzelezko edurteak izan ziran*.
 Oraingo astegoienean [/ astegoienean] *bertso-afaria izango da herriko tabernan*.

Halanda be, goian esan dogun lez, eredu zaharrari eustea gomendatzen dogu azken kasu bietan.

4.2.1. Erakusle arruntak

	HAU	HORI	HA	HONEEK	HORREEK	HAREEK
NOR	hau	hori	ha	honeek	horreek	hareek
NORK	honek	horrek	harek	honeek	horreek	hareek
NORI	honi	horri	hari	honeei	horreei	hareei
NON	honeri	horri	hareri			
NOREN	honen	horren	haren	honen	horreen	hareen
NORENTZAT	honentzat	horrentzat	harentzat	honeentzat	horreentzat	hareentzat
NORGAITIK	honendako	horrendako	harendako	honeendako	horreendako	hareendako
	honegaitik	horregaitik	ha(re)gaitik	honeekaitik	horreekaitik	hareekaitik
	haugaitik	horigaitik	hagaitik			
NOGAZ	honegaz	horregaz	ha(re)gaz	honeekaz	horreekaz	hareekaz
ZEREZ	honezaz	horrezaz	ha(re)zaz	honeezaz	horreezaz	hareezaz
	honez	horrez	harez	honeez	horreez	hareez
ZERTZAT	honetakotzat	horretakotzat	hatakotzat	—	—	—
NON	honetan	horretan	ha(re)tan	honeetan	horreetan	hareetan
NONGO	honetako	horretako	ha(re)tako	honeetako	horreetako	hareetako
NONDIK	honetatik	horretatik	ha(re)tatik	honeetatik	horreetatik	hareetatik
	honetarik	horretarik	ha(re)tarik	honeetarik	honeetarik	hareetarik
	honik		harik			
NORA	honetara	horretara	ha(re)tara	honeetara	horreetara	hareetara
NORAKO	honetarako	horretarako	ha(re)tarako	honeetarako	horreetarako	hareetarako
NORAINO	honetaraino	horretaraino	ha(re)taraino	honeetaraino	horreetaraino	hareetaraino

NORANTZ	honetarantz(a) honetaruntz	horretarantz(a) horretaruntz	ha(re)tarantz(a) ha(re)taruntz	honeetarantz(a) honeetaruntz	horreetarantz(a) horreetaruntz	hareetarantz(a) hareetaruntz
NOrenGAN	honegan	horregan	ha(re)gan	honeekan	horreekan	hareekan
NOrenGANDIK	honegandik	horregandik	ha(re)gandik	honeekandik	horreekandik	hareekandik
NOrenGANA	honegana	horregana	ha(re)gana	honeekana	horreekana	hareekana
NOrenGANAINO	honeganaino	horreganaino	ha(re)ganaino	honeekanaino	horreekanaino	hareekanaino
NOrenGANANTZ	honeganantz(a) honeganuntz	horreganantz(a) horreganuntz	ha(re)ganantz(a) ha(re)ganuntz	honeekanantz(a) honeekanuntz	horreekanantz(a) horreekanuntz	hareekanantz(a) hareekanuntz

Erakusle arruntak (*hau, hori, ha...*) oinarrizkoak dira, eta berez ia edozein kokagunetan eta kon-
testutan erabili leitekez: bardin da galdegaia izan edo ez, bardin da ezaguna izan edo ez. Halan:

Honek *daki dana*.

Honek *ez daki ezer*.

Hau *da hemen ugazaba eta honi itandu jakin beharreko guztia*.

Erakusleen morfologiaren argibide batzuk:

– Nork kasuan *harek* zein *hak* onartuko da. Gaur egun, pluraletan *honeik, horreik, hareik* aldaerak idazten ez diran arren, Bizkaiko tradizio literarioan euren lekua izan dabe.

– Norgaitik kasuan ontzat emoten dira: *haregaitik* forma arrunta eta *hagaitik*, lokailu ilatibo gisa sarri erabilten dana.

– Zerez kasuan bazterrean itxi dogu ekialde-euskalkietako *-taz* atzizkia. Eta aintzat hartu ditugu, batetik: *honezaz, horrezaz, hazaz* ereduak, baina baita atze-hitzez lagundurik erabilten diran besteak be: *honez gainera, horrez aparte, harrezkero* (harez gero), *honezkero* (honz gero).

– Bizidunentzako toki-denpora kasuetan, 3. graduko singularrerako ontzat emoten dira *hare -gan* zein *hagan*, eta bardin kasu enparadukoetan.

– Toki-denpora kasuetan, 3. gradu singularrerako, *haretan, haretako, haretatik, haretara...* ereduak ondoan, ontzat emon dira forma zaharrak be: *hatan, hatako, hatatik, hatara...*

– Nondik kasuan, singularrean, *honetatik* eta *haretatik* forma oinarrizkoen ondoan, aintzat hartu dira atze-hitzez lagundurik erabilten diran bi: *honik aurrera, harik eta ... arte*. Pluralean, *-etatik* atzizki orokorraren ondoan, gitxi-asko erabilia da *-etarik* bereziagoa, batez be eremu partitiborako:

Honeetarik *zeintzuk dozuz guren?*

Horreetarik *bat baino ez da egokia*.

Hareetarik *ala honeetarik gura dozuz, ba?*

4.2.2. Erakusle indartuak

Forma indartuak sortzeko lau hizki daukaguz: *-xe, ha-, ber-, eur-*.

Erakusle indartuak (*hauxe, berori, eurak, haorrek...*) norbait edo zerbait ahalegin eta intenzi-
zino aparteko zehazketa gura dogunean erabilten ditugu. Galdegaiaren tokia eta indarra bereganatzen dabe beti.

Ikusten dozu hau? Hauxe da gure neskatila galanta.

Mutil formalak dozu Peru: berorregaz ezkondu behar zenduke.

Zeu hona etortea, horixe gura izan dot nik.

Nekezago erabilten dira ezezkako perpausetan edo *nor / zer* erako itaun-hitzak esaldian diranean. Ugariago, ostera, baiezko perpausetan.

Mendeko esaldi guztietan erabili leitekez; ez dago alde horretako murriztapenik:

Horrexegaz (gizonagaz) etorri dan andrea da gure zuzendari barria.
Pentsetan nago ez dan berau hobe.

-XE atzizkidunak:

	SINGULARRA		
	HAU	HORI	HA
NOR	hauxe	horixe	haxe
NORK	hone(t)xek	horre(t)xek	ha(re)(t)xek
NORI	hone(t)xeri	horre(t)xeri	ha(re)(t)xeri
	honixe	horrixe	harixe
NOREN	hone(t)xen	horre(t)xen	ha(re)(t)xen
NORENTZAT	hone(t)xentzat	horre(t)xentzat	ha(re)(t)xentzat
	hone(t)xendako	horre(t)xendako	ha(re)(t)xendako
NORGAITIK	hone(t)xegaitik	horre(t)xegaitik	ha(re)xegaitik
	hauxegaitik	horixegaitik	
NOGAZ	hone(t)xegaz	horre(t)xegaz	ha(re)(t)xegaz
ZEREZ	hone(t)xezaz	horre(t)xezaz	ha(re)(t)xezaz
	hone(t)xez	horre(t)xez	hare(t)xez
NON	hone(t)xetan	horre(t)xetan	ha(re)(t)xetan
	honetantxe	horretantxe	ha(re)tantxe
NINGO	hone(t)xetako	horre(t)xetako	ha(re)(t)xetako
	honetakoxe	horretakoxe	ha(re)takoxe
NONDIK	hone(t)xetatik	horre(t)xetatik	ha(re)(t)xetatik
	honetatixik	horretatixik	ha(re)tatixik
NORA	hone(t)xetara	horre(t)xetara	ha(re)(t)xetara
	honetaraxe	horretaraxe	ha(re)taraxe
NORAKO	hone(t)xetarako	horre(t)xetarako	ha(re)(t)xetarako
	honetarakoxe	horretarakoxe	ha(re)tarakoxe
NORAINO	hone(t)xetaraino	horre(t)xetaraino	hare(t)xetaraino
	honetarainoxe	horretarainoxe	ha(re)tarainoxe
NORANTZ	hone(t)xetarantz(a)	horre(t)xetarantz(a)	ha(re)(t)xetarantz(a)
	hone(t)xetaruntz	horre(t)xetaruntz	ha(re)(t)xetaruntz
NOrenGAN	hone(t)xegan	horre(t)xegan	ha(re)(t)xegan
NOrenGANDIK	hone(t)xegandik	horre(t)xegandik	ha(re)(t)xegandik
NOrenGANA	hone(t)xegana	horre(t)xegana	ha(re)(t)xegana
NOrenGANAINO	hone(t)xeganaino	horre(t)xeganaino	ha(re)(t)xeganaino
NOrenGANANTZ	hone(t)xeganantz(a)	horre(t)xeganantz(a)	ha(re)(t)xeganantz(a)
	hone(t)xeganuntz	horre(t)xeganuntz	ha(re)(t)xeganuntz

	PLURALA		
	HONEEK	HORREEK	HAREEK
NOR	honee(t)xek	horree(t)xek	haree(t)xek
NORK	honee(t)xek	horree(t)xek	haree(t)xek
NORI	honee(t)xei	horree(t)xei	haree(t)xei
NOREN	honee(t)xen	horree(t)xen	haree(t)xen
NORENTZAT	honee(t)xentzat	horree(t)xentzat	haree(t)xentzat
	honee(t)xendako	horree(t)xendako	haree(t)xendako
NORGAITIK	honee(t)xekaitik	horree(t)xekaitik	haree(t)xekaitik
NOGAZ	honee(t)xekaz	horree(t)xekaz	haree(t)xekaz
	honee(t)xekin	horree(t)xekin	haree(t)xekin
ZEREZ	honeexezaz	horreexezaz	hareexezaz
	honee(t)xez	horree(t)xez	haree(t)xez
NON	honee(t)xetan	horree(t)xetan	haree(t)xetan
	honee(t)xetako	horree(t)xetako	haree(t)xetako
NONGO	honee(t)xetako	horree(t)xetako	haree(t)xetako
	honee(t)xetarik	horree(t)xetarik	haree(t)xetarik
NONDIK	honee(t)xetatik	horree(t)xetatik	haree(t)xetatik
	honee(t)xetatixik	horree(t)xetatixik	haree(t)xetatixik
NORA	honee(t)xetara	horree(t)xetara	haree(t)xetara
	honee(t)xetarako	horree(t)xetarako	haree(t)xetarako
NORAKO	honee(t)xetarako	horree(t)xetarako	haree(t)xetarako
	honee(t)xetaraino	horree(t)xetaraino	haree(t)xetaraino
NORAINO	honee(t)xetaraino	horree(t)xetaraino	haree(t)xetaraino
	honee(t)xetarainoxe	horree(t)xetarainoxe	haree(t)xetarainoxe
NORANTZ	honee(t)xetarantz(a)	horree(t)xetarantz(a)	haree(t)xetarantz(a)
	honee(t)xetaruntz	horree(t)xetaruntz	haree(t)xetaruntz
NOrenGAN	honee(t)xekan	horree(t)xekan	haree(t)xekan
NOrenGANDIK	honee(t)xekandik	horree(t)xekandik	haree(t)xekandik
NOrenGANA	honee(t)xekana	horree(t)xekana	haree(t)xekana
NOrenGANAINO	honee(t)xekanaino	horree(t)xekanaino	haree(t)xekanaino
NOrenGANANTZ	honee(t)xekanantz(a)	horree(t)xekanantz(a)	haree(t)xekanantz(a)
	honee(t)xekanuntz	horree(t)xekanuntz	haree(t)xekanuntz

Oharrak erakusle indartuen formaz:

Bizkaiera literario mailan *-xe* atzizkidunak gomendatzen ditugu oro har, eta *-txe* atzizkidunak, berau erabilten dan bizkai ekialderako.

Kasu batzuk gutziz arraro eta bakanak dira *-xe* atzizkia: batez be zerez kasukoak.

Erakusle forma batzuk aditzondo lez baino ez dira erabilten, berariaz, *hatantxe*, *hataraxe*, *hatarakoxe*. Baina baita: *horretaraxe*, *horreta(ra)koxe*, *honetaraxe*, *honeta(ra)koxe*.

Hileroko asistentziak ez genduzala bialdu dinozu? Hatantxe nago neu be.

Zeuk be esan deutzazu ordaindu egin behar dauela? Ba, hatarakoxe deitu deutzat neuk be.

*Zapatak erosten zoaze? Ba, geu be hataraxe goaz.
 Triste zagoze? Geu be horretaraxe gagoz.
 Txarrantxa hau honeta(ra)koxe da: igurtzi eta igurtzi ugerrak kentzeko.*

Erakusle indartuok, gehienetan bakarrik, izen edo adjektibo barik erabiltzen dira (a). Izen edo adjektiboz lagundurik darabilguzanean, aurre posiziora erakarten ditugu (b).

- (a) *Beraren andratxu maitea:* harexegaz *bizi zan pozik.*
 (b) Honexek beharrenek *emoten deust beste edozerk baino ardura gehiago.*

BER- aurrizkidunak:

	HAU	HORI	HA
NOR	berau	berori	bera
NORK	beronek	berorrek	berak
NORI	beroni	berorri	berari bereari
	beroneri	berorreri	
NOREN	beronen	berorren	beraren bere
NORENTZAT	beronentzat	berorrentzat	berarentzat beretzat
	beronendako	berorrendako	berarendako beretako
NORGAITIK	beronegaitik	berorregaitik	beragaitik beregaitik
	beraugaitik	berorigaitik	
NOGAZ	beronegaz	berorregaz	beragaz berekin
ZEREZ	beronezaz	berorrezaz	berazaz
	beronez	berorrez	beraz berez
NOrenGAN	beronegan	berorregan	beragan beregan
NOrenGANDIK	beronegandik	berorregandik	beragandik beregandik
NOrenGANA	beronegana	berorregana	beragana beregana
NOrenGANAINO	beroneganaino	berorreganaino	beraganaino bereganaino
NOrenGANANTZ	beroneganantz(a)	berorreganantz(a)	beraganantz(a) bereganantz(a)
	beroneganuntz	berorreganuntz	beraganuntz bereganuntz
NON	beronetan	berorretan	berean / <i>beratan</i>
NINGO	beronetako	berorretako	bereko / <i>beratako</i>
NONDIK	beronetatik	berorretatik	beretik / <i>beratatik</i>
NORA	beronetara	berorretara	berera / <i>beratara</i>
NORAKO	beronetarako	berorretarako	bererako / <i>beratarako</i>
NORAINO	beronetaraino	berorretaraino	bereraino / <i>berataraino</i>
NORANTZ	beronetarantz(a)	berorretarantz(a)	bererantz(a) / <i>beratarantz(a)</i>
	beronetaruntz	berorretaruntz	bereruntz / <i>berataruntz</i>

Eredu honetako erakusleak bihurkariak dira, hau da, aurretiaz aitaturako norbait edo zerbait berriz izendatzen danean erabiltzen dira. Galdegaiaren posizinoa beteten dabe gehienetan, baina ez beti.

*Eskeko bat topau eban aur rez aurre eta berari emon eutsan eukan guztia.
 Hor dozu irakaslea eta berorrek argituko deustu nik baino hobeto edozein gauza.*

Morfosintaxi bereizpide batzuk:

– 3. graduko erakusle bihurkarietan azpisail bi bereizi dira hainbat kasutan: *beraren* eredu-koak (gazt. “de él”) eta *bere* eredu-koak (gazt. “de sí mismo”).

Halan bada, erakuslea erabili behar dan perpausean pertsona bat izendaturik badago, orduan erabiliko da: *bere*. Eta beste bihurkariok be *beretzat* | *beretako*, *berez*, *beregan*, *beregandik*, *beregana*, testuinguru horretan erabili leitekez.

Nork bereari ekiten deutso hemen.

Gizonak berez behar dau adorea bere barruan.

Hik euretzat eta hak beretzat egiten dau behar.

Ekipoak beregan zituan indar guztiak atera, eta azkenean partidua irabazi eban.

Beraren, *beragan* ereduokoa norbait / zerbait aurretik aitatua edo ezaguna dan guztian erabili leitekez.

Neure amak sortu ninduan eta berarentzat dira nire eskerrik beroenak.

Norbait maite danean, ezin da aldendu beraganako joera edo lera.

Euren jatorria errepikariak izatea bada be, badirudi askotan *ber-* zein *-xe* erabilteko aukera dagoala eta desbardintasuna semantikoa dala sintaktikoa baino gehiago.

EUR-dunak:

	HAREEK	
NOR	eurak	eurok
NORK	eurak	eurok
	eurek	
NORI	eurai	euroi
	eurei	
NOREN	euren	euron
NORENTZAT	eurentzat	eurontzat
	eurendako	eurondako
NORGAITIK	eurakaitik	eurokaitik
NOGAZ	eurakaz	eurokaz
	eurakin	eurokin
ZEREZ	eurezaz	eurozaz
NON	euretan	eurotan
NONGO	euretako	eurotako
NONDIK	euretatik	eurotatik
NORA	euretara	eurotara
NORAKO	euretarako	eurotarako
NORAINO	euretaraino	eurotaraino
NORANTZ	euretarantz(a)	eurotarantz(a)
	euretaruntz	eurotaruntz
NOrenGAN	eurakan	eurokan
NOrenGANDIK	eurakandik	eurokandik
NOrenGANA	eurakana	eurokana
NOrenGANAINO	eurakanaino	eurokanaino
NOrenGANANTZ	eurakanantz(a)	eurokanantz(a)
	eurakanuntz	eurokanuntz

Morfosintaxi-oharrak:

– Nortzuk edo zertzuk ezagunak diranean erabilten dira oro har:

(a) *Zapatak ondo daukazuz? Bai*, eurok hartuko dodaz.

(b) *Enpresaren jabe barriak dinozu? Eurakaitik geratu ginan behar barik.*

– Singularrean *bere / beraren* artean egiten dan bereizketarik ez dago pluralean: *euren* erabilten da kontestu bietan:

Agintari barriok be euren mesederako egiten dabe behar.

Bietara ulertu leiteke: (a) agintarien euren, edota, (b) ezagunak diran beste batzuen mesederako.

– Guztiz bakanak dira *eurezaz, eurozaz* instrumentalak.

– Hurbiltasuna, *eurok* ereduko formen bidez marketan da: hurbiltasuna, batzuetan toki-denporazkoa da, beste batzuetan gogozkoa.

Ditudan baino urte gehiago ipini gura deustazuz? Eurok be nahikoa dodaz.

Asko dira egunero entzuten nabena. Eurontzat da nire lehenengo agurra.

– Erakusleen edota izen mugatzailedunen aposizinoan erabilten dira sarri bihurkari hurbilak:

Honek beronek...

Horregaz berorregaz...

Harentzat berarentzat...

Gazteoi euroi...

Emakumeen euren...

HA-dunak:

	SINGULARRA		
	HAU	HORI	HA
NOR	haau	haori	haa
NORK	haonek	haorrek	haarek
NORI	haoni	haorri	haari
NORNI	haoneri	haorri	haareri
NOREN	haonen	haorren	haaren
NORENTZAT	haonentzat	haorrentzat	haarentzat
NORRENTZAT	haonendako	haorrendako	haarendako
NORGAITIK	haonegaitik	haorregaitik	haaregaitik
NOGAZ	haonegaz	haorregaz	haaregaz
ZEREZ	haonezaz	haorrezaz	haarezaz
ZEREZ	haonez	haorrez	haarez
NON	haonetan	haorretan	haaretan
NONGO	haonetako	haorretako	haaretako
NONDIK	haonetatik	haorretatik	haaretatik
NORA	haonetara	haorretara	haaretara
NORAKO	haonetarako	haorretarako	haaretarako
NORAINO	haonetaraino	haorretaraino	haaretaraino
NORANTZ	haonetarantz(a)	haorretarantz(a)	haaretarantz(a)
NORANTZ	haonetaruntz	haorretaruntz	haaretaruntz
NorenGAN	haonegan	haorregan	haaregan
NorenGANDIK	haonegandik	haorregandik	haaregandik
NorenGANA	haonegana	haorregana	haaregana
NorenGANAINO	haoneganaino	haorreganaino	haareganaino
NorenGANANTZ	haoneganantz(a)	haorreganantz(a)	haareganantz(a)
NorenGANANTZ	haoneganuntz	haorreganuntz	haareganuntz

	PLURALA		
	HONEEK	HORREEK	HAREEK
NOR	haoneek	haorreek	haareek
NORK	haoneek	haorreek	haareek
NORI	haoneei	haorreei	haareei
NOREN	haoneen	haorreen	haareen
NORENTZAT	haoneentzat	haorreentzat	haareentzat
	haoneendako	haorreendako	haareendako
NORGAITIK	haoneekaitik	haorreekaitik	haareekaitik
NOGAZ	haoneekaz	haorreekaz	haareekaz
	haoneekin	haorreekin	haareekin
ZEREZ	haoneezaz	haorreezaz	haareezaz
	haoneez	haorreez	haareez
NON	haoneetan	haorreetan	haareetan
NONGO	haoneetako	haorreetako	haareetako
NONDIK	haoneetatik	haorreetatik	haareetatik
NORA	haoneetara	haorreetara	haareetara
NORAKO	haoneetarako	haorreetarako	haareetarako
NORAINO	haoneetaraino	haorreetaraino	haareetaraino
NORANTZ	haoneetarantz(a)	haorreetarantz(a)	haareetarantz(a)
	haoneetaruntz	haorreetaruntz	haareetaruntz
NOrenGAN	haoneekan	haorreekan	haareekan
NOrenGANDIK	haoneekandik	haorreekandik	haareekandik
NOrenGANA	haoneekana	haorreekana	haareekana
NOrenGANAINO	haoneekanaino	haorreekanaino	haareekanaino
NOrenGANANTZ	haoneekanantz(a)	haorreekanantz(a)	haareekanantz(a)
	haoneekanuntz	haorreekanuntz	haareekanuntz

HA- saileko erakusleez oharrak

Harridura-kontestuetan baino ez dira erabiltzen. Bat-batean aurrera azaltzen jakun zerbait seinatlatzen dogunean, agerrera horregaz harriturik eta zurtuta gagozala aditzen emoteko.

– Erakusleakaz:

Ikusten dozu hori gizona? Haorrek dauka, bai, behar egiteko modua!

Egizu haonetara, ezpabe ezingo dozu-eta!

Haonetaraino heltzea triste da gero!

– Aditzondoakaz:

Aurrerago ikusiko dogun lez, aditzondookaz azaltzen dira gehien:

Hamen nor datorren!

Begiratu haorra!

Ikusten dozu nor dagoan haan!

Bizkai euskeraren eremu guztikoak ez dira forma honeek: kostaldean eta sartaldean indartsuagoak dira. Eskualde batzuetan ez dira ezagunak, eta euron ordezkari edo forma arruntak edo *-xe* sailekoak erabiltzen ditue. Erakusle-mota honeek nekez hartu izan dabe idatzizko itxuririk eta idazleek mehatz baino ez ditue aintzat hartu; ahozkoa mugatu izan da euron erabilera.

Leku-adberbio arruntak:

	HEMEN	HOR	HAN	Non
NON	hemen	hor	han	non
NONGO	hemengo	horko	hango	nongo
	hemeko			nongoa
NONDIK	hemendik	hortik	handik	nondik
	hemetik			nondik nora
NORA	hona	horra	hara	nora
NORAKO	honako	horako	harako	norako
NORAINO	honaino	horraino	haraino	noraino
NORANTZ	honantz(a)	horrantz(a)	harantz(a)	norantz(a)
	honuntz	horruntz	haruntz	noruntz

– *Non* galdetzailea lekuaren gaineko galderak egiteko erabilten da oinarrian, beste galde-hitzak lez.

Nondik *deitu deutsu?*

Norako *ekarri dabe mahai barria?*

Beste erabilera batzuk: galdetzaile bi batera doazanean lexikalizatu egiten dira eta zentzua aldatu egiten da.

Zelan:

Nondik nora *batu dozuz horreek kontuok?*

Nondik nora *hasi zara beharleku horretan?*

Zer dan edo zer ez dan adierazoteko:

Graduondoko ikasketa horreen nondik norakoak posta elektronikoz jazoko dozuez.

Distribuzino-egituretan be sarri entzuten da: ...nora, ...hara, non...-n, han...

Eguzkia nora, trapuak hara.

Nora haizea, hara lainoa.

Haxe nora doan, hara joakoz atzetik besteak be.

Non gura dozun ipintea, hantxe ipiniko jatzu.

Nondik lan, handik jan.

Nondik etorri zaran, handik joango zara.

Etxeko andrea nongoa, ahaideak hangoak.

Leku-adberbio indartuak:

-XE atzizkidunak:

	HEMEN	HOR	HAN
NON	hementxe	hortxe	hantxe
NONGO	hemengoxe	horkoxe	hangoxe
	hemekoxe		
NONDIK	hemendixik	hortixik	handixik
	hemendixe	hortixe	handixe
NORA	honaxe	horraxe	haraxe
NORAKO	honakoxe	horrakoxe	harakoxe
NORAINO	honaxeino	horraxeino	haraxeino
NORANTZ	honaxerantz(a)	horraxerantz(a)	haraxerantz(a)
	honaxeruntz	horraxeruntz	haraxeruntz

Hementxe itxarongo dogu kateakaz lotuta gure arazoa konpondu arte.
Horkoxea da ba Pili, Igorrekoa, bai.
Konputagailu hau honakoxe ekarri dabe.
Hortixik joaten da gure amamanera.
Badakizu zelan daukadan zutabe bat egunkarian? Harakoxe idazten nabil.

Sarritan, erlatibozko esaldiak saihesteko, normalagoa da erakusle indartuak erabiltea. Halan, bizkaitarrentzat ezkerreko esaldiok baino arruntagoak dira beste honeek:

↓ *Hori da tabernea egoan lekua.*

↑ *Hortxe egoan tabernea.*

↓ *Hau da Txirrita jaiio zan etxea.*

↑ *Hementxe jaiio zan Txirrita.*

↑ *Hemengoxea zan Txirrita.*

HA- aurizkidunak:

	HEMEN	HOR	HAN
NON	hamen	haor	haan
NONGO	hamengo	haorko	haango
NONDIK	hamendik	haortik	haandik
	hametik		
NORA	haona	haorra	haara
NORAINO	haonaino	haorraino	haaraino
NORANTZ	haonantz(a)	haorrantz(a)	haarantz(a)
	haonuntz	haorruntz	haaruntz

Forma honeek ahozko erabilerari jagokoz eta idatzizkorako ez ditugu bultzatuko.

Hamen Bermeo! Haontxe ulertu dot txistea!

Hamen falta jakuzanak!

Nora egingo dogu bizikleta zahar hau? Haorra edo, hemendik kendu behintzat.

Haor bizi naz, hurrengo ikusiko dozun etxe gorri horretan.

Haor ba ume! Esan deusut hor ez ibilteko eta jausi zara oster a be.

Haan doa abiadan bere auto zaharrorregaz!

BER- aurizkidunak:

	HEMEN / HOR	HAN
NON	berton	bertan
NONGO	bertoko	bertako
NONDIK	bertotik	bertatik
NORA	bertora	bertara
NORAKO	bertorako	bertarako
NORAINO	bertoraino	bertaraino
NORANTZ	bertorantz(a)	bertarantz(a)
	bertoruntz	bertaruntz

Berton egiten da Bertoko garagardoa.

Ikusten dozu pinu ilara ha? Bertaraino heldu zan sutea igaz.

Leku-aditzondo bi alkarren atzean be sarri erabilten dira:

Hemen bertan / bertan...

Hantxe bertan...

Hara bertara...

Horkoxe bertokoa...

Denpora-adberbioak:

		(ORAIN)	(ORDUAN)	NOIZ
NON	-XE	orain / oin / [/ hon]	orduan	noiz [/ noz]
	HA-	oraintxe / ointxe / [/ hontxe] haontxe	orduantxe [/ orduxean]	
NONGO	-XE	oraingo / oingo [/ hongo] oraingoxe / oingoxe	orduko ordukoxe	noizko [/ nozko]
NONDIK		oraindik / oindik / [/ honik] oraindino / oindino / [/ hondino]		noiztik [/ noztik] noizik [/ nozik] noizdanik [/ nozdanik] noiztikoa
	-XE	oindixik	orduxerik / -tik	
NORA		... hona	ordura	noizik hona / noiztik hona noizik noiza / noiztik noiza noizik nora / noiztik nora noiz arte [/ noz arte]
	HA-	haona		
NORAKO (dest.)	-XE	oraingo / oingo [/ hongo] oingoxe	orduko [/ ordurako] ordukoxe [/ ordurakoxe]	noizko [/ nozko]

Oraintxe helduko dira helmugara txirrindulariak!
Gorpua aurkitu ebenean, orduantxe jakin zan nor zan hiltzailea.
Haontxe heldu naz Bermeotik! ("Hauntxe(k) heldu nai Bermiotik!")
 Ordurik hona...
 Lehengo urterik hona...
Oingoxe hilean egin behar izaten da urtero egitasmoa eta memoria.
Jantzi hori hongoxe dozu; gero, neguan, ezingo dozu erabili.
Gaztetan zoro hutsa izan zan eta ordukoxe moduan segiduten dau oin be.

Denpora-aditzondo bi alkarren atzean:

Ointxe bertan / bertan...
 Orduantxe bertan...

– Noiz galdetzailea denporearen inguruko galderak egiteko erabilten da oinarrian. Galdegaia dan lez, aditzaren aurretxoan kokatuko da beti, beste galde-hitzen moduan.

Noizko pasadizua da kontetan zabilzana?
Noizkoa da kanta hori?
Noizik noiza / noiztik nora egoten dira autobusak?
Etxean noiz arte egoteko ustea daukazun badakizu?

Distribuzino-egituretan be sarri erabilten da: noiz..., orduan(txe)...

Noiz gehien behar dozun, orduan egiten deusue huts.
Noizko prest euki gura dozun, ordurako amaitu behar dozu.

Moduzko adberbioak:

	HOLAN HONAN	HOLAN	HALAN	ZELAN
	holan / honan	holan	halan	zelan
	holako / honako	holako	halako	zelako
	[/ holango] / [/ honango]	[/ holango]	[/ halango]	[/ zelango]
-XE	holantxe / honantxe	holantxe	halantxe	
HA-	haolan / haonan	haolan	haalan	
HA-...-XE	haolantxe / haonantxe	haolantxe	haalantxe	

Halantxe *ezagutu genduan alkar, jaietan.*
Haolan *izango da, bestetara ezin leike-eta!*

– Zelan galde-hitz osoa da:

Zelan *bizi zara?*

Zelako *bizimodua daukazu Ameriketan?*

Distribuzino-egituretan be sarri entzuten da: zelan..., halan... | zelako..., halako...

Zelan *behar egiten dan gaez, halan ikusiko da egunez.*

Zelakoak *diran erabagiak, halakoak izango dira ondorioak.*

Pleonasmo batzuk:

Holakoxeak be erabili daitezke harridurazko esaldiei indar gehiago emoteko. Halanda be, ahozko erabileratik kanpo ez ditugu bultzatuko.

HA-...-XE

Biak batera be erabilten dira inoiz:

haona // honaxe > haonaxe
haolan // holantxe > haolantxe
haon // ontxe > haontxe

Haonaxe *etorteko esan deusut lehen be!*

Haontxe *ikusit dot zure neskalaguna beste bategaz mosuka!*

-XE ... BER-

Biak batera be erabilten dira.

hauxe berau horixe berori
hementxe berton hantxe bertan

Joango gara zinera? Horixe berori *pentsetan egon naz neu be.*

Hementxe berton *daukazu Ercilla kalea, parketxo horren atzean.*

4.3. GALDETZAILEAK ETA GALDETZAILEETATIK ERATORRIAK

4.3.1. Galdetzaileak

**NOR / NORTZUK
ZER / ZERTZUK
ZEIN / ZEINTZUK**

NOR / NORTZUK

	NOR	NORTZUK
NOR	nor	nortzuk
NORK	nork	nortzuek / nortzuk
NORI	nori	nortzuei nortzuri
NOREN	noren	nortzuen
NORENTZAT	norentzat	nortzuentzat nortzuendako
NORGAITIK	norgaitik	nortzukaitik
NOGAZ	nogaz	nortzukaz nortzu(e)kin
ZEREZ	norzaz	nortzuez
NORTZAT	nortzat nortako	—
NON	—	—
NONGO	—	—
NONDIK	notatik	—
NORA	notara	—
NORAKO	—	—
NORAINO	—	—
NORANTZ	—	—
NOrenGAN	nogan	nortzukan nortzuengan
NOrenGANDIK	nogandik	nortzukandik nortzuengandik
NOrenGANA	nogana	nortzukana nortzuengana
NOrenGANAINO	noganaino	nortzukanaino nortzuenganaino
NOrenGANANTZ	noganantz(a) noganuntz	nortzukanantz(a) nortzuenganantz(a) nortzukanuntz nortzuenganuntz

NOR

Mugagabez deklinatzen da, goiko paradigmaman ikusten danez. Pertsonen itantzeko erabilten da.

– Leku-denporazko deklinabidea be badauka, kontestu murriz batzuetan baino erabilten ez dana:

Notara *emon dau ume honek hain berbalduna izateko?*
Notatik *jatorko bertsozaletasuna?*

– Ia beti bakarrik agiri da sintagman, izenordain gardena dan ezkerero.

Nor *dabil hor?*
Nork *izan gura dau ikasketa buru?*
Nogaz *etorriko zara atzera etxera?*

– Mugatzailerik ez adjektiborik hartzen ez badau be, noiz edo noiz *demonino, jainko / jan - goikozko, arraio, barraban, deabru, kristo* eta antzeko izenondoak hartzeko gai da:

Nor *demonino zarala uste dozu harropuz handiorrek?*
Nor *denganino ete da?*
Nor *jangoikozko ete dator sasoi honetan?*
Nor *barraban da gure umea jaten ibili dana?*
Nor *arraio...?, Nor deabru...? ...*

– Batzuetan galdetzaile balioa galdu eta izenordain zehaztugabe soil bihurtzen da, nahiz eta erabilera hau nahiko urria izan.

Zu ez zara nor niri kontuak eskatzen etorteko.

– Aditz partizipioaz esapidea eginez eta galdetzaile-indar barik sarri erabilten da holakoetan:

Horrek hartuko leuke nork emon baleuka.
Ziria sartuko leuke, nori sartu euki ezkerero.

NORTZUK

Nor galdetzaileak balio plurala adierazo behar dauenean, *nortzuk* erabilten da haren lekuan. Aditzagazko akordua, batagaz (*nor*) singularrean eta besteagaz (*nortzuk*) pluralean egiten da.

Nortzuk *dabilz hor?*
Nortzuk *izan gura dabe ikasketa buru?*
Nortzukaz *etorriko zara atzera etxera?*
Nortzukana *joaten zara uleak apaintzen?*

Leku batzuetan *nor* elementuaren ordez *zein* erabilten da pertsona-izenordain galdetzaile lez. Ahozkoan halan bada be, idatziz ondo bereizten dira *nor* eta *zein*.

Zeinek irabaziko dauela uste dozue? (Nork)
Zeinek deitu dau telefonoz? (Nork)
(*Ate-hotsa kanpotik*)
Barrutik: -Zein da? (Nor)

ZER / ZERTZUK

	ZER	ZERTZUK
NOR	zer	zertzuk
NORK	zerk	zertziek / zertzuk
NORI	zeri	zertzuei
		zertzuri
NOREN	zeren	zertzuen
NORENTZAT	zerentzat	zertzuentzat
	zerendako	zertzuendako
NORGAITIK	zergaitik	zertzukaitik
NOGAZ	zegaz	zertzukaz
		zertzu(e)kin
ZEREZ	zertzaz	zertzuez
	zerez	
ZERTZAT	zertzat	—
	zertako	
NON	zertan	zertzuetan
	zegan	
NONGO	zertako	zertzuetako
NONDIK	zertatik	zertzuetatik
NORA	zertara	zertzuetara
NORAKO	zertarako	zertzuetarako
NORAINO	zertaraino	zertzuetaraino
NORANTZ	zertarantz(a)	zertzuetarantz(a)
	zertaruntz	zertzuetaruntz
NOrenGAN	—	—
NOrenGANDIK	—	—
NOrenGANA	—	—
NOrenGANAINO	—	—
NOrenGANANTZ	—	—

ZER

Pertsona ez diranez itantzeko erabilten da eta, beste galde-izenordainak lez, mugagabeen deklinatzen da.

Zer da eskuartean daroazuna?

Zerk ikaratzen zaitu gehien?

Berandu da eta zeri itxaroten zagoz, ba?

– Izenordaina danean bakarrik erabilten dogu, aditzagazko akordua singularrean dala. Salbuespen modura, *zer* hori subjektu plurala dauen perpauseko atributu funtzinoa beteten dauenean agertuko da aditza pluralaz:

“Zer dira erregelduak? Aupatsak esan gurako dozu.” (J.A. Mogel)

“Guazan, dino Etxekuak, / Jaaki basokuak / Zer dirian ikustera.” (J.A. Mogel)

– Izen baten aurretik dala be erabilten da, haren determinatzaile lez. Ahoz, askotan amaierako *-r* galdu egiten da.

Ze(r) ordu da?

Ze(r) barriketa darabilzue?

– Ez da hain arraroa *ze gauzak*, *ze gizonak* legezko egituren barruan erabilirik ikustea, hau da, mugatzailedun izen baten aurretik. Halakoetan *zelako* adnominalaren ordekoak egiten dituela dirudi, baina zentzuan bada alde txikiren bat bata eta bestearen artean.

– Aditz partizipioaz esapidea eginez eta galdetzaile-indar barik sarri erabilten da holakoetan:

Ez dauka zer jan, ez zer edan, ez zer jantzi.

– Batzuetan izenordain-galdetzaile balioa galdu eta izen komodin lez funtzionatzen dau zer esan ez dakigunean; hitzen bat gogoratu ezinik gabiltzanean... edozein hitzen ordeko balio dau. Forma hori ahoz sarritan darabilgu, baina idatzirako bestelako forma landuagoak erabiltea egokiagoa da.

Gaztetan zera... ikaragarri gustetan jakon telesail hori.

– Etxeko atea orratz batez zabaltzea lortu dot. – Bai, zereko zeragaz!

ZERTZUK

Zer galdetzaileak balio plurala adierazo behar dauenean, *zertzuk* erabilten da haren lekuan. *Zer* aditz singularraz eta *zertzuk* aditz pluralaz egiten dabe komunztadura.

Zertzuk ekarri deutesuez, laztana?

Zertzuk esan deutesuz horrek leloorrek?

Zertzukaz etorri leiteken pertsona oin barriro be!

Izen bategaz batera doanean, ostera, zentzu plurala eukiagaitik *zer gauza* erabili izan da tradizioz eta halan idaztea gomendatzen da, aditzagazko akordioa plurallean be onartzen dala:

Ze etxe dira erakutsi gura deustazuzanak.

Ze gai sartzen dira hurrengo azterketan?

Gaur egun hiztun askok *zertzuk* + izena be erabilten dabe:

Zertzuk gauzak erosi behar dira konbidadu-bazkarirako?

Zertzuk kontuak dakaruz gaueko orduetan?

ZEIN / ZEINTZUK

	ZEIN	ZEINTZUK
NOR	zein	zeintzuk
NORK	zeinek	zeintzuek / zeintzuk
NORI	zeini	zeintzuei
	zeineri	zeintzuri
NOREN	zeinen	zeintzuen
NORENTZAT	zeinentzat	zeintzuentzat
	zeinendako	zeintzuendako
NORGAITIK	zeinegaitik	zeintzukaitik
NOGAZ	zeinegaz	zeintzukaz
		zeintzu(e)kin
ZEREZ	zeinezaz	zeintzuez
	zeinez	
ZERTZAT	zeintzat	—
	zeindako	
NON	zeinetan	zeintzuetan
NONGO	zeinetako	zeintzuetako
NONDIK	zeinetatik	zeintzuetatik
	zeinetarik	
NORA	zeinetara	zeintzuetara
NORAKO	zeinetarako	zeintzuetarako
NORAINO	zeinetaraino	zeintzuetaraino
NORANTZ	zeinetarantz(a)	zeintzuetarantz(a)
	zeinetaruntz	zeintzuetaruntz
NOrenGAN	zeinegan	zeintzukan
		zeintzuengan
NOrenGANDIK	zeinegandik	zeintzukandik
		zeintzuengandik
NOrenGANA	zeinegana	zeintzukana
		zeintzuengana
NOrenGANAINO	zeineganaino	zeintzukanaino
		zeintzuenganaino
NOrenGANANTZ	zeineganantz(a)	zeintzukanantz(a)
	zeineganuntz	zeintzuenganantz(a)
		zeintzukanuntz
		zeintzuenganuntz

ZEIN

Pertsona, abere edo gauzez itantzeko balio dau. Ezaguna edo mugatua dan moltso edo kopuru baten barruan egiten da itauna.

Zeinentzat da foto-makina hau? (Izan leiteke neba-arrebetarik, seme-alabetarik, aldra edo talde bateko kideetarik *zeine-gan* pentsauta egin dan erosketa)
Zein dozu gurago, gorria, baltza ala zuria? (Aukeran diran ardao muetatarik zein hautatu itantzen da)

– Bakarrik edota izen-multzo bati aurrean ipinirik erabili leiteke itauna egikeran. Aditzagazko akordua singularraz hemen be:

Zein da buruan darabilzun asmoa?
Zein hizlari begitانتzen jatzu entzuteko gozatsuena?
Zein ume esanginek ez leuke agintzen jakona egingo?

– Adjektibo eta aditzondoan goratzaile (graduatzaille) izaten dira harridura-perpauzetan, beti be, horreen aurretik ipinita. Gaur egun, *zein* baino *ze* zabalago dabil zeregin honetarako:

Zein dotorea dan soineko barri hori!
Zein ondo dirudizun kapela zuri horregaz!
Zein dan gatxa, gero, mundu guztiari gustua egitea!

– Aurre-erreferentea daben erlatiboko perpauzak eregiteko be erabilten da. Gaur egun, hiztunek nekez egiten ditue holako esaldiak, baina lehenagoko testuetan ugariak dira.

Hemen dozue zuen zuzendari barria, zeinek eroango dauen zuen lanaren ardurea eta zeini emon beharko deutzazuen egiten dozuen eta ez dozuen guztiaren kontua.

4.3.2. Galdetzaileetatik eratorriak

Lau bide nagusi daukaguz era honetako izenordeak sortzeko. Era berean, adizlagunak be sortu daikeguz. (Oinarrian, batetik *nor*, *zer* eta *zein*, eta bestetik *non* eta *noiz* galdetzaileak dagoz. Galdetzaileetatik eratorritako batzuk deklinatu be egin daitekez gero).

- Galdetzaileari *e-* edo *i-* gehituta: baiezkoak ez diran esaldietan erabilten dira, hau da, ezezkoetan, baldintzazkoetan, itaunetan...
- Galdetzailea birritan jarrita, tartean *edo* doala, eta galdetzaileari *bait-* gehituta: baiezko esaldietan erabilten dira beti.
- Galdetzaileari *edo-* aurrizkia gehituta, edo *-gura / nahi-* erantsita.
- Galdetzailea + *edo* + erakuslea.

	E- / I-	- EDO- / BAIT-	EDO- -GURA/ NAHI-	ERREPIKATU BARIK	
NOR	INOR	NOR EDO NOR NONOR norbait	EDONOR NORGURA normahi	NOR EDO HA	NO(R)BERA NOR BERE
ZER	EZER	ZER EDO ZER ZEOZER zerbait	EDOZER ZERGURA zernahi	ZER EDO HA	
ZEIN			EDOZEIN ZEINGURA zeinahi		
NON	INON	NON EDO NON NONON nonbait	EDONON NONGURA nonahi	NON EDO HAN NONGO(a) EDO HANGO(a) NORAEDO HARA NONDIK EDO HANDIK	
NOIZ [/ noz]	INOIZ [/ inoz]	NOIZ EDO NOIZ NOZONOIZ [/ nozonoz] NONOIZ [/ nonoz] noizbait	EDONOIZ [/ edonoz] NOIZGURA noiznahi		
ZELAN	EZELAN	zelanbait	EDOZELAN	ZELAN EDO HALAN ZEOZELAN	
ZENBAT		BAT EDO BAT BATEN BAT	EDOZENBAT ZENBATGURA zenbanahi		

Erabilera-argibideak:

INOR / EZER: *nor / zer* galdetzaileen gainean eregiak dira *i-* eta *e-* aurrizkiak gehituta (*ino-ri, inon, ezerean, ezegaz...*). *Nor* eta *zer* izenordainen moduan deklinatzen dira:

Entzun dau inork inoiz holako barri bitxirik?

Gaurko umeak ez dira ezerean bildur.

Inor, ezer... partikulek ezezko esaldietan eta itaunen erantzunetan *ez* behar dabe; aditza ager-tu ezker, aditzagaz batera; eta bestela, ostean. Horreen esangurea azpimarkatu gura danean *be* partikula eranstean jake:

Nik ez deusat inori be holakorik aditu.

Zerk arduratzen gaitu hainbeste gizakiok? Ezerk be ez.

Askotan, inguruko hizkuntzen eraginez, *inor*, *ezer*... *ez* partikula barik erabilten dira ezezeko esaldietan, forma horreei ezezeko zentzua emoteko *ez* gehitzea derrigorrezkoa bada be.

**Nora doa?* Inora, *etxean dago*. ... Inora be *ez*, *etxean dago*.

**Zer egingo dabe agintariak arazo* ... Ezer be *ez*.

hori konpontzeko? Ezer.

Beste batzuetan, barriz, kontrakoa egiten da, hau da, *ez* birritan ipini.

**Gaur ez da inor bez etorri eskolara*. ... *ez da inor* (be) *etorri eskolara*.

**Ez dogu horrezaz ezebez entzun*. *Ez dogu horrezaz ezer* (be) *entzun*.

Inor / Ezer ≠ Nonor / Zeozer

Antzeko esangurea euki arren, ez dira guztiz parekoak. Lehenengok besteek baino balio zehaztubakoagoa daukie.

Inork *badaki zer jazo dan?*

Nonork *badaki zer jazo dan?*

Lehenengoan galdera egiten dauenak ezezeko erantzuna itxaroten dau; *inor* horren barruan aukera guztiakaitik itantzen da. Bigarrean, *ostera*, *nor* zehaztuagoa da; hiztunak nonork zeozer ikusi dauela uste dau beharbada.

Ezezeko esaldietan be antzekoa ikusi daikegu.

Azkenean, zorionez, inori *ez jakon ahaztu jatekoa ekartea*.

Azkenean, zorionez, nonori *ez jakon ahaztu jatekoa ekartea*.

Lehenengoan, danak ekarri eben jatekoa, inortxo be ez zan etorri hainbarik. Bigarrean, barriz, baten bat akordau zan jatekoa ekarteaz, baina besteei ahaztu egin jaken.

Inor eta inoiz baiezko esaldietan:

Salbuesenezko erabilerratzat jo daitezke. Esangura bereziak adierazoteko baiezko perpausetan be agertzen dira zehaztubakook:

– *Inor*, *beste* / *besteak* daben zentzu berberaz erabilten da:

Dana inork egitea gura izaten dau horrek, ardura guztiak inorentzat ixten ditu.

Inoren *arazoakaz barik*, *norberarenakaz arduratu behar da*.

– *Inoiz*, *noiz edo behin* edo antzekoen balioz erabilten da:

Inoiz ikusi zaitut kalean pasetan.

Inoizko denporan jazo leiteke hondamendiren bat.

NOR EDO NOR / NONOR...: *nor* / *zer* kasuan eta leku-denporazko kasuetan (*non*, *noiz*) jatorrizko forma zein era laburtua erabili daiteke. Halan:

noiz edo noiz / *nozonoiz* / *nonoiz*

non edo non / *nonon*

nor edo nor / *nonor*

zer edo zer / *zeozer*

Kasu horreezaz kanpo, deklinabidea errazteko forma arrunt laburtua erabiltea gomendatzen da: *nonork*, *nonori*, *nonoren*, *nonorentzat*...

NO(R)BERA / NOR BERE: lehenengoaren baliokidea *bakotxa* da eta bigarrenarena *bako-txa bere*, *bere* hori bihurkaria da-eta. Bide batez, esan daigun gaur egun *bakotxa* erabilteko joera handia dagoala, eta hori txarto egon ez arren, neurriz erabiltea gomendatzen da.

No(r)bera lotuta idazten da, atzizki bakarraz deklinatuta, baina jatorriz egitura bi dira.
Nori berari... (= arkaismoa)

Bestetik, *no(r)bera* edozein kasutan deklinatu daiteke, baina *nor bere* partikula *nor*, *nork* eta *nori* kasuetan baino ezin da erabili.

No(r)bera [/ bakotxa] *joaten da holako lekuetara inor agindu barik.*

No(r)berak [/ bakotxak] *daki ondoen etxeke barri.*

No(r)berarentzat *ez dana ez da inorentzat be.*

Nor bere [/ bakotxa bere] *etxera joan daitela.*

Nork berea [/ bakotxak berea] *jagoten dogu.*

Nori berea [/ bakotxari berea] *da zuzenbidea.* (esaera zaharra)

Paradigmako zehaztugabe batzuen sinonimo edo hurrekoak:

EDONOIZ / NOIZGURA, noiznahi: sinonimotzat jotzen dira egitura honeek:

Edonoiz *joanda be, han beti topauko dozu nonor.*

Noizgura *deitu zeinke, gau eta eguneko zerbitzua eskeintzen dabe.*

NON EDO NON / NONON / nonbait / NON EDO HAN / NONBAITEN: hurrengo egiturek be zentzu beretsua daukie:

Nonon / nonbaiten *egongo dira hemen falta diran aleak.*

Non edo han *topau beharko dot beharren bat.*

Hainbaten / harenbaten *itxiko ebazan eta inondik inora ezin dauz topau.*

Nonbait *aurkituko dozu, batean ez bada, bestean.*

BATEN BAT: *nonor* izenordainaren kidekoa da, baina pertsoez gainera, gauzak be hartzen ditu:

Pausu-hotsa entzun dot; baten bat dago atean.

Auto asko dagoz aukeran eta baten bat erosi beharko dogu.

HALAKOREN BATEN: *noizbait / nonoiz* aditzondoan balio hurrekoa dauka.

Edadea be badauka eta, mutilorrek ezkondu beharko dau halakoren baten.

4.4. ALKARKARIAK

**ALKAR
BATAK BESTEA**

ALKAR

Bizkaiko hainbat lekutan *arkal* erabilten da kontsonante trukaketaz, baita *algar* be, baina idatzirako *alkar* erabiltea gomendatzen dogu.

Izenordain alkarkaria edo erreziprokoa da, eta izenordaina danez, izen sintagma osotu lei ezelako mugatzaile barik. Hori bai, aurrekariak beti plurala izan behar dau (*gu, zuek, hare - ek*) eta aditza 3. pertsona singularrean egiten da. Izen sintagmak esaldian dauen funtzinoren arabera hartutako atzizkia hartzen dau *alkar* izenordainak be. Dana dala, kasu-mar-ka guztiak onartzen ditu *nork* kasua izan ezik.

Nik zu ikusi zaitut + Zuk ni ikusi nozu = Zuk eta nik (guk) alkar ikusi dogu.
Alkar ikusten dogun bakotxean luzaroan egoten gara berbaz.
Alkarren ondoan bizi diranez, sarritan egoten dira alkarregaz.

Deklinabideko atzizkiakaz kontu handia euki behar da, ze esaldiaren esangurea guztiz aldatu geinke:

Alkar bazkalduko dogu. (Bata bestea jango dogu)
Alkarregaz bazkalduko dogu. (Bata besteagaz jango dogu)

Euskaldun askok *Nork-ALKAR-Aditz Iragankorra* egitura jatorraren orde, erderak eraginda edo, nahiago dau *Nor-Ad. Iragangaitza* egitura erabili.

Ikusiko gara gero. (Alkar ikusiko dogu gero)
Maite gara. (Alkar maite dogu)

Baina ezin da inoiz esan **alkar ikusiko gara*, aditzak iragangaitzak izanda *alkar* objektu moduan erabilerik ez dagoalako.

Erderaren eraginez, batzuetan *alkar* ez da zuzen erabilten.

**Pello eta Pili alkarren hur jesarrita ... alkarregandik hur jesarrita ... egoten dira beti.*
**Bai, ikusiko gara gero be.* *Bai, ikusiko dogu alkar gero be.*
**Haserratu ziranetik ez dira barbarik ... ez deusie alkarri barbarik egiten.*
**Gure familiak oraindino ez dira ezagutzen.* *Gure familiek oraindino ez dabe alkar ezagutzen.*

BATAK BESTEA

Alkar izenordainaren antzeko zentzua eta erabilera ditu, hau be erreziprokoak egiteko erabilten da. Deklinabideko kasu-marka guztiak onartzen ditu.

Bata besteari itxaroten egozan, baina leku ezbardinetan.
Katu biak bata bestearen bildur ziran.

Forma bitzuk antzekoak dira, baina beti be ez dira baliokideak, *alkar* izenordainak erreziproko izatea adierazo behar dauelako derrigorrean. Genitiboa erabili behar dogunean *alboan, gainean, ondoan* eta antzekoakaz, batzuetan hobe da *bata bestearen* forma erabiltea.

**Kajok alkarren barruan gordeta ... bata bestearen barruan... itxi dodaz.*

4.5. BIHURKARIAK

NEURE	BURUA
HEURE	BURUA
BERE	BURUA
GEURE	BURUA
ZEURE	BURUA
ZEUEN	BURUA
EUREN	BURUA

X-EN BURUA

Izen berari erreferentzia egiten deutsien bi izen dagozanean erabilten da. Egitura beti da berbera: *izenordain indartua Noren kasuan + burua* (aurrekoa plurala bada be burua singularrean agertuko da).

Txarto nabil, ze neure buruagaz be berbetan hasita nago.
Bizitzeak itota, azkenean bere buruaz beste egin eban.

Halanda guztiz be, aditz jakin batzukaz (*atundu, aurkeztu, dutxatu, garbitu, jantzi / erantzi, orraztu...*), egitura horren ordeztan *izan* aditz laguntzailea darabilgu bihurkaritasuna adierazoteko. Kasu horreetan, objektua agertu ezker, esaldiak galdu egiten dau bihurkaritasun zentzua, eta *nor-nork* motako aditzak erabili behar dira.

Jantzi zaitetz arin, bestela hotzitu egingo zara!
Etzetik urteteko orraztuko zara, ezta?
Garbitu dozu eskua mahaira etorri aur retik?
Gazte-gaztea ez zan arren, unibertsidadean sartzeko eskaera aurkeztu eban.

Baina gero eta sarriago, bihurkaritasuna adierazoteko *x-en burua* egituraren ordeztan *izan* aditz laguntzailea oker erabilten da, horren erabilera mugatuta egon arren.

**Neska beltzaran hori nor ete dan ... galdetzen deusat neure buruari.*
galdetzen naz.
**Gaur, ondo ikusten naz. ... ondo ikusten dot neure burua.*
**Ez naz horretarako gauza ikusten. Ez dot neure burua...*

Horrezaz gainera, gorago esan dogun moduan, aditz batzuek *izan* onartu arren, **edun* eskatzen dabe objektua agertzen danean.

**Min egin zara garrian, ala? Min hartu dozu garrian, ala?*
**Garbitu zara arpegi zikin hori? Garbitu dozu arpegi zikin hori?*

Laburtuz, *bere burua hil dau* eta *hil egin da* ez dira gauza bera, baina *neure burua gorrota - tzen dot* esapidaren ordeztan **gorrotatzen naz* esatea trakeskeria hutsa da euskera jatorraren kalterako.

Gogoan hartu bihurkaritasuna adierazo gura danean izenordain indartua erabili behar dala, inoiz ez arrunta.

**Ez ibili zure burua zuritzeko ... zeure burua...*
ahaleginetan.
**Gaixorik dago eta beran burua ... bere burua...*
be ez dau ezagutzen.

5. DETERMINATZAILEAK

Aurrerago esan dogunez, izen sintagmaren ardatza izen arrunt batek osotzen dauenean, gramatikala izan daiten, normalean determinatzailearen bat behar dau.

Determinatzaileen sailkapena: 1. Mugatzaileak 1. Artikuluak 2. Erakusleak 2. Zenbatzaileak 1. Zenbatzaile zehaztuak 2. Zenbatzaile zehaztubakoak 3. Zenbatzaile orokorrak 3. Determinatzaile zehaztubakoak
--

5.1. MUGATZAILEAK

Mugatzailea izen sintagma osoari jagoko eta sintagmaren eskumako muturrean jarten da.

	HAU HORI HA	Edozein mugagabe zenbakaitzetan	BAT (bat eta ez bi)
Euskeraz		-A	BAT
Gaztelaniaz	el / la le / la		un(o) - una un- una
Gaurko joera		-A	BAT

Izen sintagma batek mugatzaile bakarra eroango dau, kasu berezi batzuetan izan ezean, hau da, artikulua badaroa ez dau erakuslerik eroango, eta alderantziz gauza bera.

*Gizona hori <i>Andoniren aita da.</i>	Gizon hori...
*Minbizia hori <i>osatzen gatxa da.</i>	Minbizi hori...

Holako arazoak gehitu egiten dira *-a* hori hitzak berea dauen ala artikulua dan ez dakigunean. Hori argitzeko bideatariko bat hiztegiara jotea da, hiztegian berbak deklinatu barik agertzen diralako. Beste bide bat, zalantzarik berbak esaldi arrunt baten erabiltea da, *bat* edo *-(r)ik* atzean ipinita, eta orduan konturatuko gara zein dan *-a* organikoa eta zein ez (arantza bat / arantzarik, lagun bat / lagunik...).

* <i>Jonen</i> anai <i>zaharrena abadea da.</i>	... anaia...
*Egi <i>bat esan behar deutsut.</i>	Egia <i>bat</i> ...

Dana dala, gero hitz alkarketetan lehenengo osagaiaren *-a* hori alden du egin daiteke. Hori bai, *-a* organikoz amaitzen diran berben artean ondoko sei berbok baino ezin leikie alkarke-tan *-a* hori galdu: *burdina, eleiza, hizkuntza, kultura, literatura, natura*.

Hizkuntza eskola	Hizkuntza eskola
Kultura etxea	Kultur etxea

Badagoz *-a* hori berezkoa daben atzizki batzuk, esaterako, *-(t)eria, -gintza, -keria, -kuntza, -tila, -tura, -tza...*

Gaurko gazteriak hizkuntza asko ikasteko ohitura dauka.

Mutilek idazkaritza ikastea ez da tontakeria.

Hona hemen zalantza sortu leikien *-a* organikodun berba batzuk:

Abantaila	Burdina	Habia	Maila
Anaia	Egia	Heriotza	Natura
Animalia	Eleiza	Hizkuntza	Okela
Arbola	Erregina	Idea	Ordena
Area	Erromeria	Inbidia	Panpina
Arnasa	Familia	Inportantzia	Pertsona
Arrautza	Feria [/ Eria]	Justizia	Polizia
Atorra	Gauza	Kaiola	Probintzia
Atxakia	Gaztaina	Kartzela	Tximinia
Bidaia	Geriza	Kontzientzia	Zikoina
Botila	Grazia	Labana	Zuhurtzia

5.1.1. Artikulua

Izen sintagma mugatzeko edo zehazteko erabilten da.

a) **-A / -AK: artikulua zehaztua**

Bi forma dagoz: *-a* singularerako eta *-ak* pluralerako.

-A. Mugatzaile singularra.

• *-A + -A > -EA*

Hitza *-a* bokalaz amaitzen danean, bizkai euskeran *-ea* tolesten da hitz-akabua (*-ia* amaiera-dun berbarik gehienak izan ezean: familia, animalia, justizia, notizia... Salbuespenak: habia > habiea...). Holan:

alaba > alabea, albista > albistea, aldasgora > aldasgorea, erreka > errekea, gomuta > gomutea, horma > hornea, korta > kortea, laba > labea, landa > landea, lora > lorea, logura > logurea, praka > prakea, salda > saldea.

Era berean, *-baga, -ga eta -tzaka* atzizkidun hitzetan be *-ea* egingo da:

ardurabaga > ardurabagea, lotsabaga > lotsabagea.
 artega > artegea, deunga > deungea, eskerga > eskergea, indarga > indargea.
 bateatzaka > bateatzakea, eztizaka > eztizakea, heltzaka > heltzakea.

Kultura-hitzetan, idatzizko eredurako *-a + -a > -a* erabilteko joera dago, eta ontzat emoten da halan egitea, beste aukera baztertu barik. Halan:

ikastola, politika, natura...

Era berean, *-(k)era, -gintza, -kuntza, -tura, -tza* eta halako atzizkidun eratorrietan be, *-a + -a > -a* idazteko joera nagusi da gaur egun; erabilera hori begi onez ikusten da, baina *-ea* idaztea be ontzat emoten da.

egoera / egoera, hasiera / hasiera, sarrera / sarrera, urteera / urteera.

bidegintza / bidegintza, etxegintza / etxegintza, langintza / langintza, urigintza / urigintza.

hazkuntza / hazkuntza, hizkuntza / hizkuntza, irakaskuntza / irakaskuntza, medikuntza / medikuntza, sorkuntza / sorkuntza.

ohitura / ohitura, kultura / kultura.

bizitza / bizitza, eskeintza / eskeintza, heriotza / heriotza, jaiotza / jaiotza, idazkaritza / idazkaritza, lehendakaritza / lehendakaritza.

Salbuespenez jokatu da *-(k)eria* atzizkidun hitzetan. Halakoetan hitz-amaiera ez da aldatuko. Halan:

astakeria, indarkeria, gizonkeria...

-AK. Mugatzaile plurala.

- *-A + -AK > -AK*

Mugatzaile pluralako atzizkiak ez dakartso ezelako aldaketarik hitz amaierari, bokalez zein kontsonantez amaitzen dala. Halan:

alabak, arrebak, azak, gauzak, gerrak, giltzak, hormak, koplak...

- *-E + -AK > -EAK*

Hitz-oina *-e* bokalaz amaitzen danean be osorik jagoten da amaiera hori: *-eak*. Halan:

bideak, sareak, parajeak, artaldeak, ateak, borondateak...

Baina hainbat hitz dira bizkaieraz alternantzia dabenak, eta idatz-eredurako *-e* hobetsi arren, hiztun askok *-ea / -ak* banaketaz mugatzen dabez. Halanda ze, halakoetan, pluralean *-eak* idaztea gomendatuko da, baina ahoz edo azpieuskalkian erabilteko *-ak* egitea ontzat emongo da. Halan:

Agureak [/ Agurak], Basurdeak [/ Basurdak], Goruleak [/ Gorulak], Jagoleak [/ Jagolak], Kumeak [/ Kumak], Sareak [/ Sarak], Saltzaileak [/ Saltzailak]...

Mugatzailearen erabilgune batzuk:

— Gutuna zuzentzen jakonaren status edo egoera-izena adierazoteko, berbaldi hasieretan, dei-hitz edo bokatiboetan.

Agur, andrea. Kaixo, adiskidea. Epaile jaun agurgarria.

Egun on, entzuleak. Jaun-andreak, ondo etorri.

Txakurra! Geldi hor! Katua! Ixapi! Zagoze geldi, gizonak!

— Izenburu, errotilu eta denda izenetan.

Josetxu Sagardotegia. Eburne uleapaindegia.

— Predikatu sintagman, nor zer dan adierazoteko, zer hori *-a / -ak* artikuluz marketan da, egitekotan.

Hori gaztea da. Horreek zaharrak dira.

Sagarrok mingotsak / mingots dagoz.

Gizon horrek jakituna dirudi. Etxe honek barria emoten dau.

b) -O / -OK: artikulua zehaztu hurbila

Aurrekoaren antzekoa da. Mendebaldeko euskeran hau da plural hurbila deitzen dana. Bi forma dagoz: *-o* singularerako eta *-ok* pluralerako, baina gaur egun pluraleko *-ok* erabilten da batez be. Halanda be, hor daukaguz *umeo*, *etxeon*, *goizeon*, *aspaldion*, *aurton*, *berton*... singularerako artikulua gordeten daben forma lexikalizatuak.

Entzulearen hurbiltasuna marketan dau eta batzuetan hiztuna bera be barruan sartzen da.

Neskak

Neskok

Etxeak

Etxeok

Danok *joango gara beharreko afarira, ezta?*

Honeek umeok zoratu egin behar nabe!

Inoiz zentzu peioratiboaz be erabilten da.

Ze aideplano eta ze lobo dakarstazue, kokolo handiok!

c) BAT / BATZUK: artikulua zehaztubakoa

Izatez, ez dira mugatzaileak, zenbatzaileak baino; halanda be gaur eguneko euskeran mugatzailearen lekua hartzen dabe batzuetan.

Bi forma dagoz: *bat* singularerako eta *batzuk* pluralerako. *Batzuk* deklinatzeak arazoak sortzen ditu. Horregaitik, zehaztu daigun: *batzuek* / *batzuk* erabiltea aukeran itxiko dogu, baina testu berean bide bakar bati jarraituko deusagu.

Honeexek dira bizkaierarako gomendatutako formak:

	BAT		BATZUK
	MUGAGABEA	MUGATUA	
NOR	bat	bata	batzuk
NORK	batek	batak	batzuek / batzuk
NORI	bati bateri	batari	batzuei
NOREN	baten	bataren	batzuen
NORENTZAT	batentzat batendako	batarentzat batarendako	batzuentzat batzuendako
NORGAITIK	bategaitik	batagaitik	batzukaitik
NOGAZ	bategaz batekin	batagaz batarekin	batzukaz batzu(e)kin
ZEREZ	batez	bataz	batzuez
ZERTZAT	battzat	—	—
NON	baten	batean	batzuetan
NONGO	bateko	bateko	batzuetako
NONDIK	batetik	batetik	batzuetatik
NORA	batera	batera	batzuetara
NORAKO	baterako	baterako	batzuetarako
NORAINO	bateraino	bateraino	batzuetaraino
NORANTZ	baterantz(a) bateruntz	baterantz(a) bateruntz	batzuetarantz(a) batzuetaruntz

	BAT		BATZUK
	MUGAGABEA	MUGATUA	
NOrenGAN	bategan	batagan	batzukan batzuengan
NOrenGANDIK	bategandik	batagandik	batzukan batzuengandik
NOrenGANA	bategana	batagana	batzukan batzuengana
NOrenGANAINO	bateganaino	bataganaino	batzukanaino batzuenganaino
NOrenGANANTZ	bateganantz(a) bateganuntz	bataganantz(a) bataganuntz	batzukanantz(a) batzuenganantz(a) batzukanuntz batzuenganuntz

Bizkaiko erdi eta mendebaldeko euskeran mugagabearen taiuko formak (*batzuri, batzuren, batzurentzat, batzurekin* eta leku-denporazko kasuetan *batzutan, batzutatik, batzutara...*) erabilten dira, eta forma horreek aintzat hartzekoak izan daitezke goiko eredia gomendatu arren.

BAT, mugatzaile barik, ezagutu bako unidatea adierazoteko da: badakigu bat dala, baina ez zein.

Baso bat
Sorgin bat
Konputagailu bat

BATZUK zenbatzaileaz zenbateko laburra adierazoten da, gitxi batzuk; gehienetan ezagutu bakoia, baina batzuetan ezagutua.

Patata batzuk erosi ditu. (Ezagutu bakoia)
Hor dagozan gazte batzuk geure herrikoak dira. (Kopuru ezagutua, identifikatua)

BATA unidate ezagutua adierazoteko erabilten da.

Gernikarrak dira horreek, eta neska bata neure lehengusinea.
Lagun bi dozuz zain: bata ordu bi daroaz itxaroten.

BAT / BESTE aurkaritza osagarria egin ezkerre, eskema hau eukiko geunke:

bat	beste bat
bata	bestea
batzuk	beste batzuk / besteak

Botila bat oingo astean edateko erosi dot, eta beste bat datorren asterako.
Gorbata bi ditu: bata lohi eta bestea tximurtuta.

BATEN / BATEAN: non kasuan *baten* erabilten da mugagabea eta *batean* mugatua, azentu bereziagaz bakotxa: *batén / bátean*. Toki-denporazko beste kasuak azentuaz baino ez dira bereizten ahoz, baina idatziz itxura bera dabe:

batéko	báteko
batétik	bátetik
batéra	bátera
batérako	báterako

-(R)EN BAT / BATZUK: nor edo zer bat zehaztubakoago bihurtzeko -(r)en bat erabilten da.
 Umeren bat *izango zan ate joka ibili dana*.
 Ertzainen batzuk *edo izan dira igaro diranak*.
Dan-dana ez dabe jan; hondakinen batzuk guretzat be itxi ditue.

BESTE + X + BAT // BESTE + XA(K): egitura horreekaz kontuz ibili behar da, bata zehaztubakoa da eta bestea zehaztua.

<i>Joango gara beste parke batera?</i>	(Zehaztubakoa, edozein parketara, edo han dagoan beste batera)
<i>Joango gara beste parkera?</i>	(Zehaztua, dagoan bigarren parkera, edo lehen egon garanera)
<i>*Lehen kotxe bat eukan; orain beste kotxea erosi dau.</i>	<i>Lehen kotxe bat eukan; orain beste kotxe bat erosi dau.</i>

Bestalde, izen bereziak artikulatu barik agertzen dira gehienetan, baina batzuetan *bat* mugatzailea azaldu daiteke.

Axular batek ez leuke holangorik egingo. (= Axularren moduko batek)

d) -A / BAT: noiz bata eta noiz bestea?

Euskeraren ondoko bi erderetan –gaztelaniaz eta frantsesez– “un” mugagabea eta “un” zenbatzailea bardin esaten dira. Euskeraz, ostera, -a artikulua eta *bat* zenbatzailea daukaguz. Lehen esan dogunaren bidetik, -a artikulua bidez zehaztu egiten dogu (*zer?*) eta *bat* esaten dogunean =1 esan gura dogu (*zenbat?*). Hori dala-eta, bereiztu egin behar dira erabilera biak, gaur egun *bat* gehiegi erabilteko joera zabaltzen dabil-eta.

Zalantza euki ezkeron aproba hau egin daiteke: *baten* aurrean *bakar* berbea ipini; esangurea oinarrian aldatzen ez bada *bat* esan beharko da, baina esangurea aldatzen bada -a ipini beharko da. Gogoratu daigun, gainera, *bat* ezin dala erabili zenbatu ezin diran izenakaz.

Bakotxaren erabilera eremuak:

NOIZ -A?	NOIZ BAT?
<ul style="list-style-type: none"> • Izen arruntak esatean. • Izen zenbakaitzak erabiltean. • Balio generikoa daukien izenak esatean. • Izaki bakarrak adierazotean. • Izaki ezagunak adierazotean. • Bereizketa garrantzitsua ez danean. • Predikatu osagarri batzuetan. • Izenburuak, errotuluak... idaztean. 	<ul style="list-style-type: none"> • Kontakizun hasieretan. • Kopurua adierazotean. • Osagai moltsoa adierazotean. • Balio zehaztubakoa adierazoteko. • Predikatu osagarrian adjektiboren bat dagoanean. • Harridurazkoetan, graduatzaile lez.

Harridurazko testuinguruetan, *bat* zenbatzailea graduatzaile moduan darabilgu esaldia indartzeko. Erabilera hau guztiz sarturik dago hiztunen artean, baina horren parean beste egitura jator batzuk be badagoz.

↓ *Egiten eban bero bat!*

↓ *Ebilen haize bat!*

↓ *Poztasun bat emoten dau!*

↑ *Bero itzela egiten eban!*

↑ *Sekulako haizea ebilen!*

↑ *Poztasuna emoten dau!*

Izena + *adjektiboa* egituretan, barriz, *bat* hori ez da beharrezkoa, adjektiboak berak beteten dauelako determinatzailearen lekua. Halakoetan be badaukaguz bestelako egitura jator batzuk.

**Ganorabako batzuk baino ez dira!*

**Ni mediku bat naz.*

Ganorabako hutsak dira!

Ni medikua naz.

Sarritan, *-a* eta *bat*, biak dira zilegi, baina bigarrena beti izango da zehaztubakoagoa.

Autoa erosi dau.

Zuok etxe polita dozue mendian.

Auto bat erosi dau.

Zuok etxe polit bat dozue mendian.

Izena adjektiboaz edo adnominalaz lagundurik dagoanean, ez dago gehienetan *bat* horren beharrik, gaztelaniaz “un” erabili arren, beren-beregi guztiz zehaztubakoa dala edota unida-dea dala markau gura ez bada.

Etxe barria erosi dau.

Itzelezko ahalegina egin dogu.

Belarriondokoa emon eutsan.

Urtea da ...-la.

Ha comprado una casa nueva.

Hemos hecho un esfuerzo enorme.

Le dio un tortazo.

Hace un año que...

Zehaztubakoa dala garbi geratu dedin batzuetan beharrezkoa da *bat* jartea.

Datu barri bat jakin dogu auzi horren gainean.

Zenbat eta laguntzailez hornituago dagoan *izena*, *bat* baino erosoago txertatuko da *-a*.

Etxe oso zabala da.

Itzelezko erabagi gogorak hartuko dira.

... zabal bat... (?)

... erabagi gogor batzuk... (?)

Holako sintagma luzeak zatitu be egiten dira sarritan, *izenari bat* eta adjektiboari *-a* ipinita.

Edan dogu ardao bat sekulakorik ederrena.

Etorri da irakasle bat oso gaztea.

Erosi deustez praka batzuk nasai-nasaiak.

Pluralean *-ak* / *batzuk* artean dagoan banaketa ez jagoko guztiz singularrean *-a* / *bat* artean dagoanari. Esan gura da, izen zehaztubakoen testuinguruetan *-ak* artikulua arlo zabalagoa hartzen dau *-a* singularrak baino, eta *batzuk* pluralak murriztagoa *bat* singularrak baino.

Mutilak datoz kantetan kalean behera.

Mutil batzuk datoz kantetan kalean behera.

5.1.2. Erakusleak

Izen bat edo izen sintagma bat, mugatuaz gainera, seinalau egiten dabe, hau da, urrunago edo hurrago dagoan adierazo. Seinalatze hori espazio, denpora edo nozio-mailakoa izan daiteke. Hiru gradu bereizten dira:

	HAU	HORI	HA	HONEEK	HORREEK	HAREEK
NOR	hau	hori	ha	honeek	horreek	hareek
NORK	honek	horrek	harek	honeek	horreek	hareek
NORI	honi	horri	hari	honeei	horreei	hareei
NORNI	honeri	horri	harei			
NOREN	honen	horren	haren	honeen	horreen	hareen
NORENTZAT	honentzat	horrentzat	harentzat	honeentzat	horreentzat	hareentzat
NORRENTZAT	honendako	horrendako	harendako	honeendako	horreendako	hareendako
NORGAITIK	honegaitik	horregaitik	ha(re)gaitik	honeekaitik	horreekaitik	hareekaitik
NORGAITIK	haugaitik	horigaitik	hagaitik			
NOGAZ	honegaz	horregaz	ha(re)gaz	honeekaz	horreekaz	hareekaz
ZEREZ	honezaz	horrezaz	ha(re)zaz	honeezaz	horreezaz	hareezaz
ZEREZ	honez	horrez	harez	honeez	horreez	hareez
ZERTZAT	honetakotzat	horretakotzat	hatakotzat	—	—	—
NON	honetan	horretan	ha(re)tan	honeetan	horreetan	hareetan
NONGO	honetako	horretako	ha(re)tako	honeetako	horreetako	hareetako
NONDIK	honetatik	horretatik	ha(re)tatik	honeetatik	horreetatik	hareetatik
NONDIK	honetarik	horretarik	ha(re)tarik	honeetarik	horreetarik	hareetarik
NONDIK	honik	horrik	harik			
NORA	honetara	horretara	ha(re)tara	honeetara	horreetara	hareetara
NORAKO	honetarako	horretarako	ha(re)tarako	honeetarako	horreetarako	hareetarako
NORAINO	honetaraino	horretaraino	ha(re)taraino	honeetaraino	horreetaraino	hareetaraino
NORANTZ	honetarantz(a)	horretarantz(a)	ha(re)tarantz(a)	honeetarantz(a)	horreetarantz(a)	hareetarantz(a)
NORANTZ	honetaruntz	horretaruntz	ha(re)taruntz	honeetarantz	horreetaruntz	hareetaruntz
NORANTZ	honegan	horregan	ha(re)gan	honeekan	horreekan	hareekan
NORANTZ	honegandik	horregandik	ha(re)gandik	honeekandik	horreekandik	hareekandik
NORANTZ	honegana	horregana	ha(re)gana	honeekana	horreekana	hareekana
NORANTZ	honeganaino	horreganaino	ha(re)ganaino	honeekanaino	horreekanaino	hareekanaino
NORANTZ	honeganantz(a)	horreganantz(a)	ha(re)ganantz(a)	honeekanantz(a)	horreekanantz(a)	hareekanantz(a)
NORANTZ	honeganuntz	horreganuntz	ha(re)ganuntz	honeekanuntz	horreekanuntz	hareekanuntz

a) HAU / HORI / HA // HONEEK / HORREEK / HAREEK

Hiru gradu dagoz:

Hau / Honeek	Hiztunaren ikuspegitik hurren dagoana.
Hori / Horreek	Entzulearen ikuspegitik hurren dagoana.
Ha / Hareek (Haek)	Solaskideen ikuspegitik urrun edo harago dagoana.

Guztira sei forma dira, beraz: *hau, hori, ha* singularrerako eta *honeek, horreek* eta *hareek* pluralerako.

Nik neuk behintzat ez daukat (liburu) hori irakurteko asmorik.

Mutil horreek kokolotuta dabilz aspaldion.

b) HON- / HOR- / HAR-

Erakusleek erro bikotxa dabe:

Hau- / Hon-
Hori- / Hor-
Ha- / Har-

Nor kasuan, singularrean, lehenengoa darabilgu, eta *zergaitik* kasuan be erabili geinke: *hau - gaitik, horigaitik, hagaitik*. Beste guztietan, singularra zein plurala, bigarrena.

Agure honegandik gauza interesgarriak ikasi daikeguz.

Zure alde sarritan egin dauen horrek mesedetxu bat eskatu gura deutsu.

Erakusle forma batzuen argibidea:

• *Hareek* 3. graduko pluralaren ondoan bada tradizino idatzian ezagunagoa dan forma bat: *haek*, gaur egun oindino Arratia eta inguruetan *haik* itxurapean bizi dana.

Haek aldaera klasiko horrek paradigma osoan ditu bere formak: nori *haei*, noren *haen*, norentzat *haentzat*, norgaitik *haekaitik*, nogaz *haekaz*, zerez *haez* / *haezaz*.

Bardin toki-denporazkoetan: non *haetan*, nongo *haetako*, nondik *haetatik* / *haetarik*, nora *haetara*...

Bardin bizidunakazkoan: nogan *haekan*, nogandik *haekandik*, nogana *haekana*...

• *Ha* 3. graduko toki-denpora kasuetan eskeintzen diran formen artean *-re-* bakoak dira klasikoak, eta oindino be bizkai sartaldean bizirik dirauenak: *hatan*, *hatako*, *hatatik*, *hatara*, *hatarako*, *hataraino*, *hatarantz(a)*.

• *Nondik* kasuan eskeintzen diran bigarren itxurak, *honik* eta *harik*, zaharkituak dira eta esapide barruan diraue oindino be: *honik aurrera*, *harik urte batzuetara*, *harik eta*... *arte*.

5.2. ZENBATZAILEAK

Zenbat itaunari erantzuten deusien determinatzaileak dira; kantitatea edo kopurua adierazoten dabe. Beraz, izen sintagma zenbatu eta mugatu egiten dabe.

5.2.1. Zenbatzaile zehaztuak

Zenbat itaunari erantzuten deusie. Izen sintagma mugagabeetan zein mugatuetan erabili daitezke. Gehienetan izen sintagmaren ezker aldean eta batzuetan eskumaldean ipini daitezke. Izen barik, bakarrik be azaldu daitezke.

Bost moltso bereiziko ditugu:

a) Zenbakiak (kardinalak)

0	zero	30	hogeta hamar
1	bat	40	berrogei
2	bi	50	berrogeta hamar
3	hiru	60	hirurogei
4	lau	70	hirurogeta hamar
5	bost	80	larogeti
6	sei	90	larogeta hamar
7	zazpi	100	ehun
8	zortzi	200	berrehun
9	bederatzi	300	hirurehun
10	hamar	400	laurehun
11	hamaika	500	bostehun
12	hamabi	600	seirehun
13	hamahiru	700	zazpirehun
14	hamalau	800	zortzirehun
15	hamabost	900	bederatzirehun
16	hamasei	1.000	mila
17	hamazazpi	2.000	bi mila
18	hamazortzi	100.000	ehun mila
19	hemeretzi	1.000.000	milioia
20	hogei	2.500.000	bi miloi eta erdi

Bat izenaren edota honen multzoaren ondoren ipinten da beti, konposaketa baten atala danean izan ezik.

Lagun bat

Lagun on bat

Hogeta bat *lagun*

Hogeta bat *lagun on*

Bi izenaren edota honen multzoaren ondoren ipinten da bizkai euskeran, konposaketa baten atala danean izan ezik. Halanda be, salbuespenak badira: *bi bider*, *bi mila* eta halakoetan. Beste euskalkietan izen aurrean ipini ohi da.

Arbola bi

baina

Bi bider

Arbola eder bi

Hogeta bi *lagun*

Hortik gorako zenbaki guztiak izen edo izen multzoaren aurrean edo atzean azaltzen dira beti. Honetan be badira salbuespenak: *atzamarra*.

Bost *gizon mardo*

Miloi bat *euro*

Ehun *soldadu*

Mila *dolar*

Horrezaz gainera, batetik ehunera bitarteko zenbakietan *eta* juntagailua erabilten da aurreko zenbakiari lotuta; ehunekoetan ehunekoen ostean (lotu barik); milakoetan milakoen ostean (lotu barik)...

Hari, berrogeta hamar *urte eukazanean*, berrehun eta bi miloi *tokau jakozan*.

Mila bederatzirehun eta larogeian *jaio zan Anderren anaia*.

Zenbatzaile mugagabe eta mugatuak: zenbateko edo kopuru hutsa emon gura danean, *nor-tzuk* edo *zertzuk* zenbat diran bai, baina zeintzuk diran esaten ez danean, zenbatzailea baino beste determinatzailerik ez daroa izen edo izen multzoak.

Lau *gizon*

Bost *etxe*

Baina *nor* edo *zer* horreek zeintzuk diran jakina danean, izen edo izen multzoari atzetik artikulua edo erakuslea ipinten jako.

Gizon bata ezaguna da, bestea ez.

Neska-mutil biak joan dira abadeagana.

Zazpi epotxak basora joan ziran ikazginen.

Hiru mutil horreek ezagunak ditut.

Idazkera: aukera bi dagoz: letraz edo zenbakiz. Testuaren arabera batera edo bestera idatziko da. Halanda be, testu gehienetan hamarretik beherako zenbakiak letraz idazten dira eta hamarretik gorakoak zenbakiz. Kasu-markak zenbakiaren atze-atzean jarten dira (bata / 1a, bian / 2an...).

Hilearen bostean alkartuko gara, goizeko hamarretan.

Hilearen 2an ezkonduko ei dira Morgan.

b) Ordinalak

Ordena, txanda edo nonor zenbatgarrena dan adierazoteko, zenbakiak *-garren* atzizkia erans-ten jake. Bakarrik azaltzen ez bada, izen sintagmaren ezkerraldean jarten dira, izen berezia-kaz izan ezean. Bizkaieraz, zerrenda bateko ordena marketako *-engo* eta *-(e)ko* atzizkiak be erabilten dira, eta *lehen(engo)* eta *azken(engo)* hitzetan eurok dira atzizki bakarrik. Hortik aurrera, mugatzaileak eta kasu-markak gehitu daitezke.

Zenbatgarren *lekua jagotzu zuri?*

Ni laugarren pisuan bizi naz eta hori bostgarrenean.

Lehenengo urten ebana azkenengoa izan zan helmugara heltzen.
Seigarreneko auzokoak zaratatsu-zaratatsuak dira.
Zenbatgarren? Hogeigarren soldadu-taldea // Hogeigarren soldadu-taldea

Zenbatzaile numeralakaz:

– *Esan daiala baxotxak zenbatgarren dan.* – Ni lehenengo, ni bigarren, ni hirugarren, ni laugarren, ni bostgarren...

Hamargarren, hogeigarren, hogeta batgarren, hogeta bigarren, berrogeta hamargarren, ehugarren, berrehugarren...

Milagarren, mila eta batgarren, bi milagarren, bi miloigarren...

Baina,

Miloi batgarren.

Zenbatzaile zehaztubakoakaz:

– Zenbatgarren sartu da txirindulari hori? – Hainbatgarren lekuan, ez dakit seguru.

Idazkera: aukera bi dagoz: letraz edo zenbakiz. Zenbakiak idazten badira, *-garrenen* ordez puntu bat (.) ipintea komeni da. Kasu-markak puntuaren atze-atzean jarten dira.

Antso VI.a Jakituna Iruñeko eta Nafarroako XV. erregea izan zan.

Aita Manuel Larramendi 1690. urtean jaio zan Andoainean.

Autoreetarik:

“*Lelengo* egiten dabee pekatu arako euren gexoetan biderik eztakarden erremedioak egin edo artuten dituezanak, zelangoa dan batzuk egiten dabeena larueña daukeenean, ebagi euren oña besteko intxaur azala ta laratzuan eskegi, sinisturik zelan doian sikatuaz, alan-txe osatuko dala, eta au bereanez da pekatu mortala, siniste osoa daukelako euren ezin arean egin leien gauzeetan. *Bigarren* egiten dabee pekatu mortala aaztuak-gana doazanak, edo berbaren batzukaz osatu deioezan, edo zerbaist galdu badabe non dan edo nok galdu daben esan daioen. *Irugarren* egiten dabee pekatu berbaren batzuen indarrez osatuten dabeenai dei egiten deutseenak: eta ezteutso berba oneek santuak izanagaitik: ze ikusten daneti da onelangoak geien geienetan, gizon eta andra galdu batzuk izan oi dira, ta sarri ta sarri enbusteru ta guzurti garbi ta galantak, jentea engañetearren eta euren lepotik jan ta edatearren dabiltzanak. *Laugarren* egiten dabe pekatu mortala, ez jakiteak eskusetan ezpadituz, arako guraso eta iñudak ume txikiak askonarrak eta beste alango milla zorakeria iminten deutseenak, uste dabela aekaz libre geratuko direala begizkotik eta beste gatxeetatik. [...] *Bostgarren* egiten dabe mandamentu santu onen kontra pekatu mortala Jaungoiko eta santuen izena blasfemetan dabeenak. [...] *Azkenean* barriz egiten dabe mandamentu santu onen kontra pekatu Elexan erreberenzia ta lotsa bagarik, egokera deungaan, berbaz edo barreka egoten direanak.” (J.M. Zabala)

c) **Zatikiak**

Zatikiak zenbatzaileari *-(r)en* mugagabea ipinirik adierazoten dira: *heren* eta *lauren* dira eza-gunenak, eta *hamarren* gitxiago. Unidadearen erdia *erdi* hitzaz adierazoten da.

Sagarraren herena

Sagar herena

Opilaren laurena

Opil laurena

Ogiaren erdia

Ogi erdia

Tartaren heren bat jan neban hiru ordu laurenean.

Sagar erdia jan dot goizerdian.

Sagarraren erdia jausi egin jat.

Sagarren erdiak ustelduta dagoz arbolapean.

Zatitzaile lez beste zenbakirik erabili ezker (bost, sei...) honako perifrasiak erabilten dira:

Dirutza guztiaren bostgarren / seigarren / zazpigarren partea neurea da.

d) Ehunekoak

Ehun zenbakiari -(e)ko atzizkia lotzen jako eta jarraian kopurua zehazten da, gehienetan mugagabea, baina lehenago aitatu edo ezaguna dan ehuneko jakin batez badihardugu, mugatu egin leiteke.

Gazteriaren ehuneko berrogei (%40) lan barik ei dago.

Igazko soldatea baino ehuneko lau (%4) gehiago kobrau dogu aurtan.

Gizartearen ehuneko zazpiak (%7ak) badaki hori.

Biztanleen ehuneko lau (%4) aberatsa da, beste larogeta hamaseia (%96a) pobrea.

Ahozko euskeran askotan -(e)tik atzizkia be entzuten da.

Dantzatalde horretan seitik lau neskak dira.

Hamarretik batek huts egin dau testean.

e) Banatzaileak

Bakotzak zenbat itaunari erantzuten deusie eta zenbatzaile zehaztuari -na atzizkia gehitzen jako aurrekaria plurala dala. Halan: bana, bina, hiruna, bosna hogeina, berrogeta hamar -na...

Garagardo bana edan eben.

Tantu bina egin ditue pelotariak.

Launa koaderno emon jako ikasle bakotxari.

Bosna amaitu zan atzoko futbol partidua.

Zenbaki handiak diranean bana atzekaria ipini leikioe mila baino beheragoko zenbakiei egitura ulergarriago bihurtzeko.

Ehun bana puntu ditu irabazita.

Banatzaille bakotzak mila bana liburu saldu ditu.

Milatik gorako zenbakiakaz, -na atzizkia aurreko zenbakiari berari eransten jako, eta ez mila berbeari.

Zortzirehuna mila euro irabazi ditue apostuetan.

Berrogeina mila ale saldu ditu kantari bakotzak.

Patxik eta Jonek hirurogeta hamarna mila euro irabazi ditue Bingoan.

Horrezaz gainera, -na atzizkiari -ka edo -ko / -ngo erantsi ezker, atzizki barriak eregi geinkez (-naka, -nako / -nango). Bigarren atzizkiak eginak dira banango, binango... dantza-izenak.

Binaka dantzan egitea dibertigarria da.

Hirunaka desfilau dabe kalean zehar.

Binako bardinketa egon da.

Nori zenbat jagokon adierazoteko, beste egitura hau be erabili leiteke: gizoneko hainbat.

Laguneko zenbat ordaindu beharko dogu afaria?

Ume bakotxeko euro bi ordaindu behar da txartela.

Hemen ezbardindu beharreko egitura bi dagoz: erdi bana // erdizka.

Gura badozu pastel handi hau erdi bana jango dogu. (bakotzak erdia)

Pastela jaten hasi gara, baina azkenean erdizka itxi dogu. (ez dogu guztiz amaitu)

f) Esapide batzuk

- Ez dabe kantidade zehatza adierazoten, ugaritasuna baino.
 - Bitik gora / bitik behera...:
Horko gizon horreek hiru mila eurotik gora irabazten dabe hilero.
 - Zu eta biok...:
Amaia eta biok zinera joango gara.
 - Sekulakoak eta bi:
Sekulakoak eta bi esan deutzaz arbitroari.
- Zenbatzaile-atzizkiakaz ditugun eratorri batzuk:
 - *-kaz*: hogetakaz, berrogetakaz, hirurogetakaz...
 - *-ki*: biki, hiruki, zazpiki...
 - *-kotx*: bakotx, bikotx, hirukotx...
 - *-kun*: bakun, bikun...
 - *-kunen*: bikunen, hirukunen, laukunen...
 - *-na*: bina, hiruna, launa...
 - *-naka*: banaka, binaka, hirunaka... eta banan-banan, binan-binan, hirunan-hirunan...
 - *-(r)en*: hamarren...
 - *-tan*: birritan, hirutan, lautan, bostetan...
 - *-tzuk*: batzuk, bitzuk...
 - *-z / -zak*: hogetazak, berrogetazak, ehundazak, milazak...
- Zenbatzaileen posposizinoakaz egindako esapideak:
 - Bider / biderrez:
Bi bider ezkontuta dago.
 - Eskas:
Hogeta hamar euro eskas kostau jat gonea.
 - Eta gehiago:
Hori ordaindu beharko dozu hogeta hamar mila eta gehiago be.
 - Eta piku:
Hogeta lau mila eta piku euro ordaindu dau autoa.
 - Inguru:
Hamar lagun inguruk osotzen dau musika talde hori.
 - Pasau / pasautxu:
Hirurogei euro pasautxu kobrau deust makinea konpontzea.
- Zenbatzaileen aurrekariakaz egindako esapideak:
 - Gitxi gorabehera:
Gitxi gorabehera berrehun konbidau egongo gara ezkontzan.
 - Ia:
Ia ehun mila lagun batu ziran igazko Ibilaldian.
- Zenbatzaile konposatuak:
 - Bi edo hiru...:
Bost edo sei egunerako joango gara kanpora.
 - Bi-hiru / bizpahiru...:
Hiru-lau mutiko etorri jatazan dendara alkoholdun edari eske.

5.2.2. Zenbatzaile zehaztubakoak

Zenbat itaunari erantzuten deutzie, baina kantidadea edo kopurua guztiz zehaztu barik. Ez dabe mugatzailerik onartzen (salbuespena: *batzuk*, plurala da) eta izen sintagmaren ezkerraldean

zein eskoialdean ipini daitezke, bakarrik edo izen batez. Gehienek aditza bai singularrean bai pluralean onartzen dabe (hemen be aparteko kasu batzuk dagoz: *batzuk* zenbatzaileak aditza pluralean behar dau, *honenbeste* eta horren kideek eta *bat* zenbatzailea darenok singularrean).

Zenbatzaileen barruan ikusiko dira zenbatzaile zehaztubakoak eta kantidade-izenak.

Aldra

Batzuetan animalia taldeak adierazoteko erabilten da, eta beste batzuetan taldea orokorrean adierazoten dau. Izenagaz alkarketa egiten dau.

Gazte-aldra handi bat batu zan kontzertu ostean.

Ganadu-aldrea dabil Eguzkibegiko landan.

Inurri-aldrea dago hor harri artean.

Sin.: moltso, pilo, talde, banda.

Apur bat

Zeozeren gitxitasuna adierazoten dau. Izenagaz konposaturik edo bakarrik erabilten da.

Patata-tortila apur(txu) bat jango dogu?

Izenagaz konposaturik be sarri agertzen da: *apurra, apurrak, apur bat...* itxurapean.

Ekarridazu gatz apur bat.

Gosaldu ondoren, ogi-apurrak mahai gainean itxi genduzan.

Neukazan diru-apurrak Bingoan gastau dodaz.

Eukan gogo-apurra galdu ebanean, bertan behera itxi eban dana.

Denpora-aditzondo moduan be erabili geinke: *apur baten.*

Itxaron apur baten, mesedez.

Egon apur baten, oraintxe nator.

Sin.: pixka bat, pitin bat.

Asko

Zeozeren ugaritasuna adierazoten dau. Izenari edo izen multzoari laguntzen dagoanean, haren atzean ipinten da, bestela, bakarrik.

Sagar mueta asko zan azokan.

Txori txiki asko ikusten da aspaldion.

Ez dogu gauza asko behar ondo biziteko.

Asko dira konforme ez dagozanak.

Askori ez jake mendira joatea gustetan.

Izen zenbakarriakaz erabilten da sarri: *pertsona, auto...* Baina zenbakarri ez izanagaitik, neurgarri diranakaz be sarri: *ur, lur, ikatz...* Lehenengoakaz aditzak pluralean komunztatu ohi dau, singularrean be egin ahal dauen arren, eta bigarrenkoakaz singularrean.

Ume asko dabilz / dabil kalean.

Gazte gitxi doaz / doa eleizara.

Gasoil asko erreten dau auto horrek.

Urun asko jaten zan lehenago.

Zenbakarri ez neurgarri ez diran izenakaz, ahal dala ez da erabili behar.

↓ *Bildur* asko

↓ *Hotz* asko

↑ *Bildur* handia / itzela

↑ *Hotz* handia

↓ *Gose* asko
↓ *Gogo* asko

↑ *Gose* handia
↑ *Gogo* handia

Izen batzuk bitzuetara erabili daitezke, *asko* zein *handi* erakoakaz.

Etxe asko ez dagoz auzo honetan.

Lur askorik ez dauka baserri honek.

Askok, bakarrik erabilten danean, balio bereziak hartu leikez:

– *Asko izan* (= nahiko izan):

Asko da zuk esatea nik sinesteko.

Asko da barbarik eta jan daigun.

– *Asko izan* (= arraroa izan, harritzekoa izan):

Asko da, ba, zuk hori ez jakitea!

– *-txu* atzizkia hartuta *gehiegiren* parekoa:

Hori ez ete da askotxu esatea?

– *oso*, *biziki*, eta abarren parekoa:

Polit askoa da etxe zuri ha!

– adberbio-sintangma antzean, gehienetan izena isilpean dala:

Mutil horrek jakin be asko daki, gero!

Sin.: berein, franku, ugari, anitz (ip.).

Ato

Batetik animalia taldeak adierazoteko erabilten da, eta bestetik taldea be adierazoten dau orokorrean. Izenaren atzean erabilten da.

Behiak atoan dabilz batetik bestera.

Lapur ato handiren bat zalakoan, ezkutau egin ziran danak.

Sin.: talde, banda.

Batzuk

Bat zenbatzailearen plurala da; *bat baino gehiago* esan gura dau. Izenaren atzean jarten da. Aditzagazko komunztadura pluralez egiten dau beti.

Herri batzuk pobre-pobreak dira; beste batzuk, ostera, oso aberatsak.

Batzuei ez jake ondo eretxi zure lehengo jarrera.

Urritasuna markau gura danean, *bakar batzuk*, *gitxi batzuk*, *banaka batzuk* edo *-(r)en batzuk* egiturak erabili daitezke.

Hodei bakar batzuk baino ez dagoz zeruan.

Gaur ikasle gitxi batzuk baino ez dira etorri eskolara.

Parking-plazaren batzuk oindino saltzen dagoz.

Gizonezko asko eta neskatila banaka batzuk baino ez ziran ikusten pubetan.

Batzuk horren atzean kopuru zehaztubakoa (ezagutu bakoa) edota zehaztua (ezagutua) egon daiteke. Distribuzioan, bada, *beste batzuk* edota *besteak* azaldu daiteke.

Ikasle batzuk heldu dira, baina beste batzuk falta dira.

Taldeko mutiko batzuk kaletarrak dira, eta besteak baserritarrak.

Sin.: baten batzuk, batzuen batzuk, batzuk batzuk, norbaitzuk, zenbait, zenbaitzuk.

Berein

Ugaritasun hanpatua adierazoten dau. Izenaren aurrean ipinten da. Gaur egun galdu antzean dago, baina gure klasikoen artean ondo lekukoturik dago.

Berein *bider esan eustan zer jazoko zan.*

Batzuk uju, besteak juju, berein agura han dira bekaitzaren begira (“Jai egunez” kantua)

“*Berein barre gozo egin zituzan*” (J.M. Zabala)

“*Bereini zoratu oi jakee alde onetati*” (J.A. Mogel)

“*Berein aldiz jagotan deiez, baiña bein bere eranzun ta jaramon ez neutsan*” (Añi-barro)

Sin.: asko, asko eta asko, hainbat eta hainbat, ugari, zenbatgura, anitz (ip.).

Bost

Asko-askoren zentzu bera hartu leike ingurune adierazkorretan erabilita. Izenaren aurrean edo bera bakarrik agiri daiteke.

Bost bider esan deusat nik hari, baina alperrik!

Honek badaki bost!

Mundu honetan gertatzen da bost gauza penagarri.

“Koplarik gehienak nere burukoak dira; ta *bost* gaubela ta izerdi gozo kosta baitzait ere, ondo enpleatutzat ematen ditut diranak” (Peñaflores)

Sin.: hamaika(txu).

Dezente

Hainbat zehaztubakoaren balio beretsua dau, *nahiko* eta *askoren* artean finkatu geinkena. Beti jarten da izenaren atzean.

Horrek erropa dezente erosten dau beherapenetan.

Jente dezente batu ginan atzoko kontzertuan.

Batzuetan kantidade-adberbio lez be erabilten da, bakarrik.

Edan be dezente edaten dau.

Izenagaz, honen aposizinoan.

Sagarra dezente batu da aurtan.

Sin.: hainbat, nahiko.

Edozenbat

Ugaritasuna adierazoten dau. Izenaren aurretik erabilten da, inoiz bera bakarrik be bai.

Edozenbat etxe egin ditue hemen inguruan aspaldion.

Edozenbat lagun etorri da ikastarora.

Pagadi haretan edozenbat perretxiko batu genduzan.

Antxina ardoagaitik edozenbat diru ordaindu behar izaten zan.

Edozenbat daukaguz, hartu eizuz gura dozuzan beste.

Sin.: asko, hainbat, zenbatgura, ugari.

Franku

Esanguraz, *asko* eta *ugariren* antzekoa da, baina batzuetan, adberbio moduan erabilten danean batez be, *nahikoren* parekoa izan daiteke. Izenari laguntzen deusanean honen aposizinoan ipinten da: *ardaoa* franku eta ez **ardao* franku.

Arazoa franku izan genduan autoagaz atzo.

Umea franku dago etxe ondoko parkean.

Ura franku egoan erreka haretan.
Arraina franku sartu da Bermeon.
Garia franku batu da aurten.

Bakarrik be sarritan erabilten da, kantidade-adberbio lez.
Nahigabea franku dago bazterretan.

Sin.: asko, ugari, anitz (ip.).

Gitxi

Batuz *gutxi*. Esangura aldetik, *askoren* kontrakoa da. Kokapenari jagokonez, izenaren atzean jarten da beti, baina izen barik be agertu leiteke.

Horrek berba gitxi egiten dau lagunakaz ez dagoanean.
Hainbat familia bizi dira gaur egun diru gitxigaz.
Aspaldion gitxi etorri da gurera.

Ezezko esaldietan sartuta, normalean harridurazko kontestuetan, *askoren* pareko esangurea hartzen dau.

Ez da gitxi horreek egiten daben beharra!
Ez da gitxi honaino etortea be!

Izen zenbakaitz askogaz, neurgaitzak diranakaz hatan be, ez da komeni erabiltea (**maitasun* gitxi, **gorroto* gitxi...). Halanda be, batzutan posible da bai izen zenbakarriakaz bai zenbakaitzakaz erabiltea, baina esangura ezbardinagaz.

Kafe gitxi hartu dot. (kafe kantidadea)
Kafe gitxi hartu ditut. (katilukada kopurua)

Zenbakarri ez diran izenakaz doanean, aditzagazko komunztadura singularrez egiten da.

Ur gitxi dago pozu honetan.
Ke gitxik urteten dau tximiniatik.

Oso, nahiko... lako maila-adberbioak hartu leikez.

Oso lagun gitxik lortu dau Everestera igotea.
Nahiko pertsona gitxik ikusi ditu OHEak.

Bakarrik darabilgunean, zenbatzaile-adberbio zereginak beteten ditu.

Horreek gitxi dakie kontu honeezaz.
Gaur gitxi jan dozu.

Gitxi zenbatzaileak ez dau onartzen partitiborik:

**Ez dago zeregin gitxirik.* ... *zeregin gitxi.*

Sin.: eskas, urri.

Gura adina [/ Guraina]

Konparazino-egituran oinarrituriko zenbatzailea da. Honen lekuan *zenbatgura* erabilten da leku gehiagotan. Izen multzoari aurretik ipinten jako.

Gura adina diru irabazten dabe pub batzuen jabeek.

Bakarrean erabilirik:

Guraina jan eta edan egin ondoren, lotara joan ziran.

Hainbat

Berez, konparazino hitza da, bardintasun-konparatzailea, *harenbat*, *harenbeste* edo *hak beste* esanguraduna. Baina gaur eguneko hiztunontzat *asko* edo *dezente* neurria adierazoten dau. Batzuetan, izenagaz batera haren aurretik erabilten da eta, beste batzuetan, bakarrik.

Hainbat *jentek ez dau holakoetan sinisten.*

Aspaldi ez dogu alkar ikusi eta hainbat kontu daukaguz kontetako.

Zenbat buru, hainbat aburu. (esaera zaharra)

Hainbat *batu ditu.* (intxaurrak) (= asko edo)

Hainbat *jan dau.* (= polito, itxuraz)

Esapide batzuetan be agiri da.

Hainbatetan *esan deusatz gauza bera, baina ez deust kasurik egin gura.*

Hainbati eta hainbati *ahaztu egiten jake agindutakoa.*

Sin.: hainbeste.

Hainbeste, horrenbeste, honenbeste

Forma hau erakusleetatik eratorritako konparazino-adberbioei *beste* hitza gehituta eregi da. Hiru graduak dira ezagunak. Maiztasunaren arabera: *hainbeste*, *horrenbeste* eta *honenbeste*. Gitxi-asko hirurak erabilten dira. Dana dala, *hainbeste* da markau bakoena eta kontesturik gehienetan azaltzen dana.

Hainbeste *jaten badozu loditu egingo zara.*

Zertarako egiten dau horrenbeste arrantza, danok gortu behar gaitu-eta!

Nik honenbeste diru ipiniko dot kajan, eta zuk beste horrenbeste.

“Gurean sartuko danak *honenbeste* dote beharko dau” (J.M. Zabala)

Izen neurgaitzakaz *-ko* atzizkia hartzen dabe eta izenaren aurrean ipinten dira.

Ez dau hainbesteko hotzik egiten kalean.

Sin.: hainbat.

Egitura errepikatua: hainbeste eta hainbeste.

Hamaika(txu)

Harridura-perpauzetan baino ez da erabilten: balio enfatikoaz edozelan be. Ugaritasuna adierazoten dau. Izenagaz doanean, haren aurretik ipini behar da, baina bakarrik be ugaria da horraitino.

Hamaika *gizon hil dira mendian aurton be!*

Hamaikatxu *burukomin emoten deustaz etxe zahar honek.*

Hamaikatxu *sufridu genduan gudua zala eta ez zala.*

Sin.: asko, bost, franku, makina bat, partidea.

Horrenbat

Konparazino-zentzuaz erabilten da, egiten dan apurra, *horrenbeste* edo *horrek beste* adieraz. Bakarrik erabilten dabe gaur egun sartaldeko hiztunek.

“– Zenbat kosta jatzu. Mila hogereleko edo? – Bai, *horrenbat.*” (Otxolua)

Makina(txu) bat

Zenbatzaile hanpatua da, eta hagaitik harridura-perpauzetan erabili ohi da. Ugaritasuna adierazoten dau eta izenaren aurrean jarten da beti.

Makina bat *negar egindakoa da hori.*
Makina(txu) bat *jente hiltan da gaur egun kaminoko ezbeharretan.*

Sin.: asko, bost, franku, hamaika(txu).

Moltso

Ugaritasuna adierazoten dau eta izenaren atzetik ipinten da.
Beti dabil paper-moltso handia eskuartean dauela.
Ume moltsoa batu zan inguruan.

Sin.: mordo, pilo, talde.

Mordo

Ugaritasuna adierazoten dau eta mahats-garauen antzera batutako gauza moltsoa esan gura dauen *mordo* izenetik dator (mahats-mordoa). Normalean izenaren atzean jarten da. Ia beti artikulugaz agiri da.

Leku mordoa bisitatu ditugu aurtengo oporretan.
Jente mordoa batu zan sarreran.
Etxe barri mordoa altzau dabe Mungian.
Pelikula mordoa ikusi ditut astegoienean.
Ikasle batzuk sasi-eskola mordoa egiten dabe.
Lagun mordoa batu ginan herri-bazkarian.

Sin.: pilo.

Nahia

Ugaritasuna adierazoten dauen berba mugatzaile hainbat lekutan erabilten da oindino. Izenaren atzean jarten da.

Perretxikoak nahia batu doguz aurton.

Nahia daukagu piperra.

↓ *Piper nahia daukagu.*

↑ *Piperra nahia...*

Esapide batzuetan be erabilten da:

Nahia egin dot indabak jaten. (= bete-bete egin naz indabak jaten)

Nahia eginda nauka. (= gogaituta, nahikotuta)

Sin.: edozenbat, gura adina, zenbatgura.

Nahiko(a)

Nahiko zein *nahikoa* biak dira erabiliak. Esan leiteke zenbatzaile lez *nahikoa* nagusitzen doala, eta maila-adberbio lez eta lokuzinoetan *nahiko*. Normalean maila-adberbio moduan erabilten bada be, zenbatzaile zehaztubakoa be bada. Gehienetan beragaz doan izena artikulatu barik jarten da. Kokapenaren aldetik, adjektibo eta adberbioen aurrean eta izenaren aurrean zein atzean erabili ohi da.

Nahikoa + izen mugagabea ordena:

Nahikoa guzur eta barriketa zuri laban entzun dogu gaur.

Nahikoa behar daukat zu gobernetan eta beste ume bat ekarteko moduan!

Izen mugatuaren ondoan aposizino lez be erabili daiteke: *izena + nahiko(a)* ordena:
Beharra nahikoa egin dot gaurkoz eta banoa etxera.
Ardaoa nahikoa edan eta bete-bete eginda bihurtu zan etxera.

Gehienetan bera bakarrik erabilten da, adberbio lez.
Hori zuentzat nahiko(a) eta lar be bada.
Zugaz ez daukagu nahiko(a), beste laguntzaile bat behar dogu.

Ezezkoetan, ez dago partitiboaren beharrik.
↓ *Kotxe barria erosteko ez daukat diru nahikorik.* ↑ ... *ez daukat nahikoa diru.*

Sin.: aski, franku, bastante (behe-mailakoa dan neurrian ez dogu bultzatuko).

Parrastada (Zarrastada)

Batez be likidoakaz erabilten da eta izenaren atzean ipinita.
Ur parrastada bat bota eutsan burutik behera.
Jaietan ardao parrastada ederra bota euskuen tabernan.

Partidea (Partida bat)

Ugaritasuna adierazoten dau eta normalean izenaren atzean erabilten da.
Liburu partidea irakurri ditu euskal gaien gainean.
Olentzerok erregalu partidea ekarri deusku.
Kanpotar partidea etorri da Euskal Herrira uda bueltan.
Jente partida bat batu da frontoian Retegiren azkeneko partidua ikusteko.

Sin.: asko, franku, hamaika(txu).

Pilo

Batuz *pila bat*. Ugaritasuna adierazoten dau eta bata bestearen gainean pilatuz sortutako moltsoa esan gura dauen *pilo* izenetik dator. Normalean izenaren atzean jarten da, izenaren aurrean ikustea be posible dan arren.
Jente piloa egon zan atzoko batzarrean.
Txominek karta piloa daukaz oraindino be banatzeko.
Egun piloa falta da oporretarako.

↓ *Pilo bat diru.* ↑ *Diru piloa.*
↓ *Pilo bat ardura.* ↑ *Ardura piloa.*
↓ *Pilo bat egun.* ↑ *Egun piloa.*

Sin.: mordo, moltso.

Pitin(txu) bat

Urritasuna adierazoten dau eta izenaren atzean jarten da. Azpimarkatu gura danean *-t-* busti egiten da (-tt-).
Saldeak gatz pittin bat falta dauela esango neuke.

Denpora-tarte laburra adierazoteko *pitin baten* erabilten da.
Itxaron pitintxu baten, mesedez.

Sin.: apur bat, pixka bat.

Pixka bat

Urritasuna adierazoten dau eta izenaren atzean jarten da.

*Itxiko deustazu diru pixka(txu) bat, mesedez?
Zatoze, emongo deustuet esne pixka bat egarria kentzeko eta!*

Denpora adierazoteko *pixka baten* erabilten da.

Itxaron pixka baten!

Sin.: apur bat, pitin bat.

Puskea

Nonor edo zeozer handia dala adierazoteko erabilten da.

Zelako gizon puskea!

Sin.: zati.

Talde

Moltsoa adierazoten dau. Izenaren atzean jarten da, baina bakarrik be agertu daiteke.

*Ikastolatik talde bi etorri gara Bilboko museoa ikusten.
“Arrain-talde ugaria nun agertuko itxaroten dagoan kaioaren antzean” (E. Erkiaga)*

Sin.: moltso.

Txorta bat

Batez be berakatz, kipula, piper... moltsoak adierazoteko erabilten da.

*Piper txorta bat erosi behar deustazu plazan.
Berakatz txortak kamaran eskegi dodaz.*

Ugari

Esangurearen aldetik, *askoren* parekoa da.

*Han jatekoa ugari egoan.
Sagardo botilea ugari saldu dogu aurtengo ferian.*

Ez da izen edo izen-multzoaren determinatzaile lez erabilten normalean, izen mugatuaren ondoan eta aposizinoan baino.

↓ *Jente* ugari

↑ *Jentea* ugari

↓ *Behar* ugari

↑ *Beharra* ugari

Bakarrik agiri danean, kantidade-adberbio lez ohi darabilgu gehienetan.

Ugari batu da generoa aurten soloan.

Baina kontuz, adjektibo lez be sarri erabilia da.

*Arbola hori ugaria da. (= asko emoten dauena)
Ume hori ugaria da. (= barre, berba, mogidu...danerik asko egiten dauena)*

Sin.: asko, berein, franku, anitz (ip.).

Zati

Nonor edo zeozer handia dala adierazoteko erabilten da.

*Hau da hau mutil zatia! (= handia)
Gizon zati itzela! (= handia)*

Sin.: puskea.

Zenbait

Bizkaieraz nekez erabilten da, honen lekua *batzuk* zenbatzaileak hartzen dauela. Halanda be, batzuetan gomendagarri deritxagu berau erabilteari. Normalean izenaren aurrean jarten da.

Zenbait gizon etorri ziran zure bila.

Zenbaitek uste dau heriotza zigorra gehiegizkoa dala.

Zenbaitetan egokiena isilik egotea izaten da.

Sin.: batzuk.

Zenbat

Askotan itaun testuinguruetan erabilten da. Izenaren aurrean jarten da beti, askotan bera bakarrik agertzen dan arren.

Zenbat denpora daroadan zuri itxaroten!

Zenbategaz egin zenduan dantzan zapatuan?

Aditzagazko akordua singularrez egin daiteke askotan, baina izen zenbakarriei buruz danean, pluralean be egin daiteke.

Zenbati entzun deutzazu hori?

Zenbat umek gura dau / dabe gozokia?

Normalean mugagabea deklinatzen bada be, esapide batzuetan mugatuan agertzen da.

Zenbatean dago patata kilo?

Zenbatekoa da txartel hori? Bostehunekoa.

Zenbatgura

Ugaritasuna adierazoten dau eta izenaren aurrean jarten da.

Zenbatgura solomo eta pernil eukiten doguz San Martinetan.

Haregaz zenbatgura barre egingo dozu.

Sin.: asko, edozenbat, hainbat, zenbatnahi.

5.2.3. Zenbatzaile orokorrak

Zenbat itaunari erantzuten deutzie, baina kantidadea edo kopurua adierazo beharrean mol-tsoa, taldea, osotasuna... emoten dabe aditzen.

Bete

Neurria, betetasuna edo osotasuna eta denporea adierazoten ditu *bete* aditzaren partizipio honek. Izatez, aditz-partizipioa da, baina beste zenbatzaile orokorrakaz antz handia dauka. Esangura hori erakutsi guran gorputz-atal, ontzi, objektu edo denpora izenen bategaz erabilten da. Sarritan izen mugagabearen ondorik darabilgu.

Esku bete karamelogaz etorri da gugana.

Baso bete sagardo edan eban, dzanga-dzanga.

Etxe bete lagun batzen dira domekaro.

Hiru, hiru, hiru, kolkoka bete diru ... (herri-kanta)

Izen mugatuaz be erabilten da.

Pitxarra bete ardao atera euskuen.

Lexikalizazioak be agiri dira hitz honeguz: *ordubete, astebete, hilabete, urtebete...*

Ordubete *darroat zure zain*.

Bete hitzak *bat* zenbatzailearen ordezkioak egiten ditu eduki edo 'kontenidu' eremuko berbakaz.

Bete eta *-kada* atzizkia esanguraren aldetik antzekoak diran neurrian ez dira batera erabili behar.

*Kamioikada *bete egur ekarri dabe*.

Kamioi bete egur...

Kamioikada egurra...

Batzuetan, erderaren eraginez, denporea adierazo gura danean *bat* erabilten da. Holakoetan jatorragoa da *bete* erabiltea. Beste batzuetan, ostera, oker erabilten danean, baztertzea kome-ni da.

**Jonen umeak bost urtebete daukaz.*

... bost urte...

**Urte bat barru alkartuko gara.*

Urtebete *barru...*

**Aste bat falta da ikastaroa amaitzeko.*

Astebete *falta da...*

↓ *Hiru hile dira ezkondu zala.*

↑ *Hiru hilabete...*

Dana

Batuz: *dena*. Bakarrik, izen barik erabilten da. Izenagaz batera idazteko joera okerrekotzat jo behar da. Erakusleakaz eta izenordainakaz batera be erabilten da: erakuslea / izenordaina + *dana*. Horreekaz hitzokaz esapide batzuk egiten dira: *hau danau, hori danori...* Singularrean zein pluralean deklinatzen da.

Danek *dakie ondo asko zelakoa dan hori!*

Ardangelatik urten dabe, eta danak piper gorria baino gorriago.

Hau *dana amaitu behar dogu bihar goizerako?*

Hau *danau jan behar dozu zeuk bakarrik, ala?*

Horrek *danak ez dau ezertarako balio.*

Guk *danok ez dogu bardin ikusten drogomenpekotasunaren gaia.*

Zentzu partitiboa dauenean, *danetarik / danerik* forma egina erabilten da:

Danetarik ikusten ohituta gagoz medikuok.

Danerik erosi zeitekean Markinako ferian.

Balio enfatikoa emon gura jakonean errepikaturik erabilten da.

Umeak dan-dana jan dau.

Izenagaz, batera erabili behar danean, *dana* barik *guzti* erabilten da.

↓ *Alderdi danen oneretxiaz onartu zan.*

↑ *Alderdi guztien...*

↓ *Pertsona danek onartu dabe erabagia.*

↑ *Pertsona guztiek...*

Sin.: *guzti, oro*.

Guzti

Bizkai sartaldean *duzti* aldaera erabilten da.

“Albia, deunga *duztien* abia” (RS)

Izenagaz zein izen barik erabili daiteke, eta izenagaz doanean atzean jarten da beti. Erakusleakaz eta izenordainakaz batera be erabilten da: erakuslea / izenordaina + *guzti*. Horreekaz hitzokaz esapide batzuk egiten dira: *hau guztiau, hori guztiori...* Gaur egun **guzti hau, *guz -ti hori* eta antzekoak erabilteko joera baztertu egin behar da, literatur tradizioa be ez dalako horren aldekoa. Bai singularrean, bai pluralean deklinatzen da.

*Asko ikasi dau eta gai guztia daki.
Guztiok alkartu gaitazan eta zor deuskuna eskatu deiogun.
Honek guztiak ez dau txakur txiki bat be balio.
Hori guztiori guzurra dala esan deuskue lagunek.
Gu guztiok erabagi horren kontra gagoz.*

Izenakaz be sintaxi bikotxa dago:

*Bazter guztiak arakatu zituan.
Bazterrak guztiak arakatu zituan. (enfatikoa)*

Esapide bat baino gehiago eregi dira *guzti* hitzagaz:

*Zugaz guztiz ados nago.
Etxe bat erosi dau, garaje eta guzti.
Iturri harek eukan ur bat, guztizko ederra!*

Balio enfatikoa emon gura jakonean errepikatuta erabilten da.

Liburu guzti-guztia irakurri dot, goitik behera.

Sin.: dana, oro.

Oro

Bizkaiera zaharrea erabilten zan, baina harrezkero galdua da euskeraren erdi eta sartaldean. Ekialdean, ostera, bizirik dirau.

Aurreko bien moduan, izenaren atzean jarten da beti, eta kasu-markak berak hartzen ditu. Bi erabilera bereizten dira:

- Izena + *oro* (mugagabea)
Batzarkide oro etorri zen urteroko batzarrerera.
- Izena + mugatzaile plurala + *oro* (mugagabea) (Aposizinoan)
Batzarkideak oro etorri ziren urteroko batzarrerera.

Batzuetan, bera bakarrik be erabilten da.

Orok dakite zer dagoen ondo eta zer gaizki.

Esapide batzuetan be agiri da.

*Oro har, gauzak nahiko ondo doaz.
Orotara lau antzezlan antzeztu behar ditugu.
“Ororen adiskide dena, ezta nehoren” (Oihenart)
“Edozein berentzat, ta Jaungoikoa oroentzat” (RS)*

Sin.: dana, guzti.

Oso

Osotasuna adierazoteko zatigarriak diran gaiakaz erabilten da (zatigarriak ez diranakaz *guzti* erabili behar da). Izenaren atzean jarten da beti eta normalean singularrean.

*Ogi osoa jan eban gosez hilten balego lez.
Herri osoa zeharkatu genduan domekako ibilaldian.*

Aditzondo bihurturik be erabilten da: *osorik*. Izenari eragiten deusanean, izen mugatuaren ondoren erabili leiteke.

*Azkenean Jokinek tartea osorik jan dau.
Liburua osorik irakurri dau.*

Denpora adieragaz be erabilten da.

*Urte osorako joan da kanpora ingelesa ikasten.
Egun osoa alperreko beharrak egiten pasau dot.*

**Denpora osoa emoten dau aldizkariak irakurten.*

Denpora guztia...

5.3. DETERMINATZAILE ZEHAZTUBAKOAK

Izen sintagma determinatzen dabe, baina ez dabe ez mugatzen ez zehazten. Normalean izen sintagmaren aurrean jarten dira, bakarrik azaldu badaitekez be, eta ez dabe mugatzailerik onartzen. Bi moltsu bereizi daitekez:

ZEIN (edozein / zeingura / zeinahi)

Esangura aldetik *zeingura* eta *zeinahi* parekoak dira, baina bizkaieraz lehenengoa erabilten da. Bestalde, askotan, ahoz, formak laburtu egiten dira eta *zeinen* ordez *ze* erabilten da.

Ze(in) herritan pasetan dozuz udako oporrak?

Txikikeria hori edozein lagunek egin leike!

Aurrean dituzun oparien artean zeingura hautu zeinke.

Zeinahi lekutan erraz aurkituko dozu.

ZER (edozer / zergura / zernahi)

Esangura aldetik *zergura* eta *zernahi* parekoak dira, baina bizkaieraz lehenengoa erabilten da. Bestalde, askotan, ahoz, formak laburtu egiten dira eta *zeren* ordez *ze* erabilten da.

Ze(r) esan gura dozu erantzun horregaz?

Horrek edozer egin leike bere esku abilakaz.

Zergura aurkitu zeinke denda handi horretan.

Umeari zergura eta haxe emoten deusan lez, alperrik galdu behar dau.

Neska horreek zernahitarako gauza dira.

6. DEKLINABIDEA

Deklinabidea aztertzeko hamazazpi kasu ikusiko ditugu. Bakotxaren ondoan, berari jagokoa *mugagabea*, *mugatu singularra* eta *mugatu plurala* jarri dira.

Horrezaz gainera, sistema hurbila be ikusiko da beste paradigma baten. Hurbilak, eta euren ugaritasuna, sartaldeko euskeraren bereizgarri dira, nahiz eta testuinguru jakin batzuetan baino agertu ez. Singularrean gradu bi ditue eta pluralean bakarra.

Kasuen gaineko ohar orokor batzuk:

– *Nor*, *Nork* eta *Nori* oinarritzko kasuak dira. Kasu gramatikalak be deitu ohi jake. Eurok azaltzen diranean, aditza be eurotara makurtzen da:

Umeak dabilz olgetan.

Zuek pozten gaituzue.

Peruri ardura barriak etorri jakoz gainera.

Zergaitik ez deustazu neuri jaramon egiten?

– *Zerik* ez da berez kasu berezi bat, *Nor* kasuaren distribuzino-erabilera bat baino.

Jentea *kalean dabil.*

Jenterik *ez dabil kalean.*

– *Noren* eta *Nongo* izenak bata besteagaz alkartzeko erabilten dira batez be. *Noren* kasuaren atzean *nork zer euki* ideia dago. *Nongo* kasuaren azpian *non zer egon* ideia datza.

Mendiaren tontorra. Mendiak tontorra dauka.

Mendiari tontorra jagoko.

Basoko pinuak. Basoan pinuak dagoz.

– *Zertzat* edo *Nortzat* kasuak ez dauka aurreko guztiakaz zerikusirik gehiegi. Lotura-bokal barik lotzen jako izen edo adjektiboari, hau kontsonantez amaitzen danean. *Mugagabea* da beti.

Gizontzat, *alabatzat*...

Edertzat, *gaztetzat*...

– Toki-denporazko kasuak (*non*, *nongo*, *nondik*, *nora*...) aurreko guztiakandik morfologia diferentea dabe:

a) Atzizki oinarritzkoak, *mugatu singularrekoak* dira eta ez *mugagabeoak*: *-(e)an*, *-(e)ko*, *-(e)tik*, *-(e)ra*. Eurotan ia ez dago *-a* mugatzailearen arrastorik.

b) *Mugagabeo* atzizkiak *-ta-* artizkiak eregiten dira: *-(e)tan*, *-(e)tako*, *-(e)tatik*, *-(e)tara*.

c) Pluraleko atzizkiak *-e-* + *-ta-* artizkien gainean eregiten dira: *-etan*, *-etako*, *-etatik*, *-etara*.

Baina ez daukagu goiko sailekoetan dagoan *-ak* horren arrastorik.

Toki-denporazko bizidunentzako kasuak be egitura berezia dabe: *-ga-* artizkia hartzen dabe (*-gan*, *(-gango)*, *-gandik*, *-gana*...).

Ohar orokorrek mugatzaile hurbilaz:

Bizkaieran mugatzaile hurbila pluralean zein singularrean, bietan erabilten da. Pluralean bakarra: -OK, eta singularrean gradu bikoia, erakusleetan lez: -AU, -ORI.

Beti ez da erraza mugatzaile hurbila eta erakusle hurbila euren artean bereizten. Edozelan be, mugatzaileak beti hitzari loturik idazten dira.

Honek umeonek *beti dauka zeozer*. (1go gradua)
Etxeonek *teilatua jausi beharrean dauka*.
Nor da etxeonetan agintzen dauena?
Horrek neskatoorrek *zeozer esan gura deutsu, antza*. (2. gradua)
Ipini eiozu uleorri zinta gorri bat.
Dantzan dabilenorek hankak arin ditu.
Orraztu eizuz uleok, saskel antza daukazu-eta! (pluralak)
Hauxe da inguruotako neskarik politena.
Hor geldi parauta zagozenok be hasi zaiteze beharrean.

Sistema hurbilaren erabilera mugatua da; testuinguru jakin batzuetan erabilten da:

– Hurrekotasuna marketako erabilten da orokorrean:

Hurrekotasuna batzuetan 1. pertsonari jagoko (*ni / gu*), beste batzuetan 2.ari (*zu / zuek*) eta baita 3.ari be (*berau, berori / eurok*).

Umeau *zergaitik dago negarrez?* (= Norberaren aurrean dago)
Gazteok *zergaitik zagoze haserre?* (= Zuek)
Berbaz nabiltzuenonek be gauzatxo batzuk dodaz kontetako. (= Nik)

Hurrekotasuna, lekuzkoa ezeze, denporazkoa be izan daiteke:

Urteok *igarri barik joakuz aurrera*. (= Guk bizi ditugun urteak)
Asteau aurrekoa baino laburragoa egin jat, jaieguna egon da bitartean-eta.
(= Oraingo astea)

Hurrekotasuna, fisikoa ezeze, gogozkoa be izaten da sarritan; lehenago esanikoren bat atzera gogora dakargunean, esaterako:

Dinozuezan notiziok non entzun dozuez ba?
Zertan etorri diran esan dozue baina, gizonok nondikoak dira ba?
Behin bizi zan andra zahar bat txabola baten, eta andreonek euki eban seme bat, eta semeau zan txito gaiztoa.
Azeria goseak hiltzen egoan. Eta behin ia hil beharrean topau ei eban miruak azeri zaharri.

– Atributu bokatioetan, konnotazio bereziaz: adjektibo batzuekin zentzu peioratiboaz (gaxeresleaz); beste batzuekin zentzu oneresleaz:

Zer behar ete dabe honeek atsook?
Maritxu, nora zoaz, eder galantori?
Txikitxu politori, zer dozu negarrez?

6.1. PARADIGMA OROKORRAK

	MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
NOR	-Ø	-A	-AK
ZERIK	-(R)IK	—	—
NORK	-(E)K	-AK	-AK / -EK
NORI	-(R)I -eri	-ARI	-AI / -EI
NOREN	-(R)EN	-AREN	-EN
NORENTZAT	-(R)ENTZAT -(r)endako	-ARENTZAT -arendako	-ENTZAT -endako
NORGAITIK	-(E)GAITIK	-AGAITIK	-AKAITIK
NOGAZ	-(E)GAZ -(r)ekin	-AGAZ -arekin	-AKAZ / -AKIN
ZEREZ	-(E)Z	-AZ	-EZ
ZERTZAT	-TZAT	—	—
BIZIBAKOAK			
NON	-(E)TAN	-(E)AN	-ETAN
NONGO	-(E)TAKO	-(E)KO	-ETAKO
NONDIK	-(E)TATIK -(e)tarik	-(E)TIK -(e)rik	-ETATIK -etarik
NORA	-(E)TARA	-(E)RA	-ETARA
NORAKO	-(E)TARAKO -(e)tako	-(E)RAKO -(e)ko	-ETARAKO -etako
NORAINO	-(E)TARAINO -(e>tagino	-(E)RAINO -gino	-ETARAINO -etagino
NORANTZ	-(E)TARANTZ(a) -(E)TARUNTZ	-(E)RANTZ(a) -(E)RUNTZ	-ETARANTZ(a) -ETARUNTZ
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	-(E)GAN	-AGAN	-AKAN -engan
NOrenGANDIK	-(E)GANDIK	-AGANDIK	-AKANDIK -engandik
NOrenGANA	-(E)GANA	-AGANA	-AKANA -engana
NOrenGANAINO	-(E)GANAINO	-AGANAINO	-AKANAINO -enganaino
NOrenGANANTZ	-(E)GANANTZ(a) -(E)GANUNTZ	-AGANANTZ(a) -AGANUNTZ	-AKANANTZ(a) -enganantz(a) -AKANUNTZ -enganuntz

	SG. HURBILA		PL. HURBILA
NOR	-AU	-ORI	-OK
ZERIK	—	—	—
NORK	-ONEK	-ORREK	-OK
NORI	-ONI	-ORRI	-OI
	-oneri	-orri	
NOREN	-ONEN	-ORREN	-ON
NORENTZAT	-ONENTZAT	-ORRENTZAT	-ONTZAT
	-onendako	-orrendako	-ondako
NORGAITIK	-ONEGAITIK	-ORREGAITIK	-OKAITIK
NOGAZ	-ONEGAZ	-ORREGAZ	-OKAZ
			-OKIN
ZEREZ	—	—	—
ZERTZAT	—	—	—
BIZIBAKOAK			
NON	-ONETAN	-ORRETAN	-OTAN
	-on		
NONGO	-ONETAKO	-ORRETAKO	-OTAKO
NONDIK	-ONETATIK	-ORRETATIK	-OTATIK
	-onetarik	-orretarik	-otarik
NORA	-ONETARA	-ORRETARA	-OTARA
NORAKO	-ONETARAKO	-ORRETARAKO	-OTARAKO
NORAINO	-ONETARAINO	-ORRETARAINO	-OTARAINO
	-onetagino	-orretagino	-otagino
NORANTZ	-ONETARANTZ(a)	-ORRETARANTZ(a)	-OTARANTZ(a)
	-ONETARUNTZ	-ORRETARUNTZ	-OTARUNTZ
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	-ONEGAN	-ORREGAN	-OKAN
			-ongan
NOrenGANDIK	-ONEGANDIK	-ORREGANDIK	-OKANDIK
			-ongandik
NOrenGANA	-ONEGANA	-ORREGANA	-OKANA
			-ongana
NOrenGANAINO	-ONEGANAINO	-ORREGANAINO	-OKANAINO
			-onganaino
NOrenGANANTZ	-ONEGANANTZ(a)	-ORREGANANTZ(a)	-OKANANTZ(a)
	-ONEGANUNTZ	-ORREGANUNTZ	-onganantz(a)
			-OKANUNTZ
			-onganuntz

6.2. PARADIGMA OROKORRAREN APLIKAZINOA

BIZIDUNAK

Kontsonantez amaiturikoak: LAGUN
Bokalez amaiturikoak: UME
-Abokalaz amaiturikoak: ARREBA

BIZIBAKOAK

Kontsonantez amaiturikoak: LUR
Bokalez amaiturikoak: ZELAI
-Abokalaz amaiturikoak: GELA

IZEN BEREZIAK

Pertsona-izenak:

Kontsonantez amaiturikoak: JON
Bokalez amaiturikoak: ANE

Leku-izenak:

Kontsonantez amaiturikoak: GASTEIZ
Bokalez amaiturikoak: BILBO
-Abokalaz amaiturikoak: DONOSTIA
Azkeneko “-A” artikulua dabenak: BIZKAIA

BIZIDUNAK

– Kontsonantez amaiturikoak: LAGUN

	MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
NOR	lagun	lagunA	lagunAK
ZERIK	lagunIK	—	—
NORK	lagunEK	lagunAK	lagunAK / -EK
NORI	lagunI laguneri	lagunARI	lagunAI / -EI
NOREN	lagunEN	lagunAREN	lagunEN
NORENTZAT	lagunENTZAT lagunendako	lagunARENTZAT lagunarendako	lagunENTZAT lagunendako
NORGAITIK	lagunEGAITIK	lagunAGAITIK	lagunAKAITIK
NOGAZ	lagunEGAZ lagunekin	lagunAGAZ lagunarekin	lagunAKAZ / -AKIN
ZEREZ	lagunEZ	lagunAZ	lagunEZ
ZERTZAT	lagunTZAT	—	—
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	lagunEGAN	lagunAGAN	lagunAKAN lagunengan
NOrenGANDIK	lagunEGANDIK	lagunAGANDIK	lagunAKANDIK lagunengandik
NOrenGANA	lagunEGANA	lagunAGANA	lagunAKANA lagunengana
NOrenGANAINO	lagunEGANAINO	lagunAGANAINO	lagunAKANAINO lagunenganaino
NOrenGANANTZ	lagunEGANANTZ(a) lagunEGANUNTZ	lagunAGANANTZ(a) lagunAGANUNTZ	lagunAKANANTZ(a) lagunenganantz(a) lagunAKANUNTZ lagunenganuntz

	SG. HURBILA		PL. HURBILA
	NOR	lagunAU	lagunORI
ZERIK	—	—	—
NORK	lagunONEK	lagunORREK	lagunOK
NORI	lagunONI lagunoneri	lagunORRI lagunorri	lagunOI
NOREN	lagunONEN	lagunORREN	lagunON
NORENTZAT	lagunONENTZAT lagunonendako	lagunORRENTZAT lagunorrendako	lagunONTZAT lagunondako
NORGAITIK	lagunONEGAITIK	lagunORREGAITIK	lagunOKAITIK
NOGAZ	lagunONEGAZ	lagunORREGAZ	lagunOKAZ lagunOKIN
ZEREZ	—	—	—
ZERTZAT	—	—	—
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	lagunONEGAN	lagunORREGAN	lagunOKAN lagunongan
NOrenGANDIK	lagunONEGANDIK	lagunORREGANDIK	lagunOKANDIK lagunongandik
NOrenGANA	lagunONEGANA	lagunORREGANA	lagunOKANA lagunongana
NOrenGANAINO	lagunONEGANAINO	lagunORREGANAINO	lagunOKANAINO lagunonganaino
NOrenGANANTZ	lagunONEGANANTZ(a) lagunONEGANUNTZ	lagunORREGANANTZ(a) lagunORREGANUNTZ	lagunOKANANTZ(a) lagunonganantz(a) lagunOKANUNTZ lagunonganuntz

– Bokalez amaiturikoak: UME

	MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
NOR	ume	umeA	umeAK
ZERIK	umeRIK	—	—
NORK	umeK	umeAK	umeAK / -EK
NORI	umeRI	umeARI	umeAI / -EI
NOREN	umeREN	umeAREN	umeEN
NORENTZAT	umeRENTZAT	umeARENZAT	umeENTZAT
	umerendako	umearendako	umeendako
NORGAITIK	umeGAITIK	umeAGAITIK	umeAKAITIK
NOGAZ	umeGAZ	umeAGAZ	umeAKAZ / -AKIN
	umerekin	umearekin	
ZEREZ	umeZ	umeAZ	umeEZ
ZERTZAT	umeTZAT	—	—
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	umeGAN	umeAGAN	umeAKAN
			umeengan
NOrenGANDIK	umeGANDIK	umeAGANDIK	umeAKANDIK
			umeengandik
NOrenGANA	umeGANA	umeAGANA	umeAKANA
			umeengana
NOrenGANAINO	umeGANAINO	umeAGANAINO	umeAKANAINO
			umeenganaino
NOrenGANANTZ	umeGANANTZ(a)	umeAGANANTZ(a)	umeAKANANTZ(a)
	umeGANUNTZ	umeAGANUNTZ	umeenganantz(a)
			umeAKANUNTZ
			umeenganuntz

	SG. HURBILA		PL. HURBILA
	NOR	umeAU	umeORI
ZERIK	—	—	—
NORK	umeONEK	umeORREK	umeOK
NORI	umeONI umeoneri	umeORRI umeorreri	umeOI
NOREN	umeONEN	umeORREN	umeON
NORENTZAT	umeONENTZAT umeonendako	umeORRENTZAT umeorrendako	umeONTZAT umeondako
NORGAITIK	umeONEGAIK	umeORREGAIK	umeOKAIK
NOGAZ	umeONEGAZ	umeORREGAZ	umeOKAZ umeOKIN
ZEREZ	—	—	—
ZERTZAT	—	—	—
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	umeONEGAN	umeORREGAN	umeOKAN umeongan
NOrenGANDIK	umeONEGANDIK	umeORREGANDIK	umeOKANDIK umeongandik
NOrenGANA	umeONEGANA	umeORREGANA	umeOKANA umeongana
NOrenGANAINO	umeONEGANAINO	umeORREGANAINO	umeOKANAINO umeonganaino
NOrenGANANTZ	umeONEGANANTZ(a) umeONEGANUNTZ	umeORREGANANTZ(a) umeORREGANUNTZ	umeOKANANTZ(a) umeOKANUNTZ umeonganuntz

– -Abokalaz amaiturikoak: ARREBA

	MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
NOR	arreba	arrebEA	arrebAK
ZERIK	arrebaRIK	—	—
NORK	arrebaK	arrebEAK	arrebAK / -EK
NORI	arrebaRI	arrebEARI	arrebAI / -EI
NOREN	arrebaREN	arrebEAREN	arrebEN
NORENTZAT	arrebaRENTZAT	arrebEARENTZAT	arrebENTZAT
NORGAITIK	arrebarendako	arrebarendako	arrebendako
NOGAZ	arrebaGAITIK	arrebEAGAITIK	arrebAKAITIK
	arrebaGAZ	arrebEAGAZ	arrebAKAZ / -AKIN
ZEREZ	arrebarekin	arrebarekin	
ZERTZAT	arrebaZ	arrebEAZ	arrebEZ
	arrebATZAT	—	—
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	arrebaGAN	arrebEAGAN	arrebAKAN
NOrenGANDIK	arrebaGANDIK	arrebEAGANDIK	arrebengan arrebAKANDIK
NOrenGANA	arrebaGANA	arrebEAGANA	arrebengandik arrebAKANA
NOrenGANAINO	arrebaGANAINO	arrebEAGANAINO	arrebengana arrebAKANAINO
NOrenGANANTZ	arrebaGANANTZ(a) arrebaGANUNTZ	arrebEAGANANTZ(a) arrebEAGANUNTZ	arrebenganaino arrebAKANANTZ(a) arrebenganantz(a) arrebAKANUNTZ arrebenganuntz

	SG. HURBILA		PL. HURBILA
	NOR	arrebEAU	arrebEORI
ZERIK	—	—	—
NORK	arrebEONEK	arrebEORREK	arrebOK
NORI	arrebEONI arrebeneri	arrebEORRI arreberrerri	arrebOI
NOREN	arrebEONEN	arrebEORREN	arrebON
NORENTZAT	arrebEONENTZAT arrebendonendako	arrebEORRENTZAT arrebendorrendako	arrebONTZAT arrebondako
NORGAITIK	arrebEONEGAITIK	arrebEORREGAITIK	arrebOKAITIK
NOGAZ	arrebEONEGAZ	arrebEORREGAZ	arrebOKAZ arrebOKIN
ZEREZ	—	—	—
ZERTZAT	—	—	—
BIZIDUNAK			
NOrenGAN	arrebEONEGAN	arrebEORREGAN	arrebOKAN arrebongan
NOrenGANDIK	arrebEONEGANDIK	arrebEORREGANDIK	arrebOKANDIK arrebongandik
NOrenGANA	arrebEONEGANA	arrebEORREGANA	arrebOKANA arrebongana
NOrenGANAINO	arrebEONEGANAINO	arrebEORREGANAINO	arrebOKANAINO arrebonganaino
NOrenGANANTZ	arrebEONEGANANTZ(a) arrebEONEGANUNTZ	arrebEORREGANANTZ(a) arrebEORREGANUNTZ	arrebOKANANTZ(a) arrebonganantz(a) arrebOKANUNTZ arrebonganuntz

BIZIBAKOAK

– Kontsonantez amaiturikoak: LUR

	MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
NOR	lur	lurrA	lurrAK
ZERIK	lurrIK	—	—
NORK	lurrEK	lurrAK	lurrAK / -EK
NORI	lurrI lurreri	lurrARI	lurrAI / -EI
NOREN	lurrEN	lurrAREN	lurrEN
NORENTZAT	lurrENTZAT lurrendako	lurrARENTZAT lurrendako	lurrENTZAT lurrendako
NORGAITIK	lurrEGAITIK	lurrAGAITIK	lurrAKAITIK
NOGAZ	lurrEGAZ lurrekin	lurrAGAZ lurrearekin	lurrAKAZ / -AKIN
ZEREZ	lurrEZ	lurrAZ	lurrEZ
ZERTZAT	lurtZAT	—	—
BIZIBAKOAK			
NON	lurrETAN	lurrEAN	lurrETAN
NONGO	lurrETAKO	lurreKO	lurrETAKO
NONDIK	lurrETATIK lurretarik	lurrETIK lurrerik	lurrETATIK lurretarik
NORA	lurrETARA	lurrERA	lurrETARA
NORAKO	lurrETARAKO	lurrERAKO	lurrETARAKO
NORAINO	lurrETARAINO lurretagino	lurrERAINO lurregino	lurrETARAINO lurretagino
NORANTZ	lurrETARANTZ(a) lurrETARUNTZ	lurrERANTZ(a) lurrERUNTZ	lurrETARANTZ(a) lurrETARUNTZ

	SG. HURBILA		PL. HURBILA
	NOR	lurrAU	lurrORI
ZERIK	—	—	—
NORK	lurrONEK	lurrORREK	lurrOK
NORI	lurrONI lurroneri	lurrORRI lurrorri	lurrOI
NOREN	lurrONEN	lurrORREN	lurrON
NORENTZAT	lurrONENTZAT lurronendako	lurrORRENTZAT lurrorrendako	lurrONTZAT lurrondako
NORGAITIK	lurrONEGAITIK	lurrORREGAITIK	lurrOKAITIK
NOGAZ	lurrONEGAZ	lurrORREGAZ	lurrOKAZ lurrOKIN
ZEREZ	—	—	—
ZERTZAT	—	—	—
BIZIBAKOAK			
NON	lurrONETAN	lurrORRETAN	lurrOTAN
NONGO	lurrONETAKO	lurrORRETAKO	lurrOTAKO
NONDIK	lurrONETATIK lurronetarik	lurrORRETATIK lurrorretarik	lurrOTATIK lurrotarik
NORA	lurrONETARA	lurrORRETARA	lurrOTARA
NORAKO	lurrONETARAKO	lurrORRETARAKO	lurrOTARAKO
NORAINO	lurrONETARAINO lurronetagino	lurrORRETARAINO lurrorretagino	lurrOTARAINO lurrotagino
NORANTZ	lurrONETARANTZ(a) lurrONETARUNTZ	lurrORRETARANTZ(a) lurrORRETARUNTZ	lurrOTARANTZ(a) lurrOTARUNTZ

– Bokalez amaiturikoak: ZELAI

	MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
NOR	zelai	zelaiA	zelaiAK
ZERIK	zelaiRIK	—	—
NORK	zelaiK	zelaiAK	zelaiAK / -EK
NORI	zelaiRI	zelaiARI	zelaiAI / -EI
NOREN	zelaiREN	zelaiAREN	zelaiEN
NORENTZAT	zelaiRENTZAT	zelaiARENZAT	zelaiENTZAT
	zelaiarendako	zelaiarendako	zelaiendako
NORGAITIK	zelaiGAITIK	zelaiAGAITIK	zelaiAKAITIK
NOGAZ	zelaiGAZ	zelaiAGAZ	zelaiAKAZ / -AKIN
	zelaiarekin	zelaiarekin	
ZEREZ	zelaiZ	zelaiAZ	zelaiEZ
ZERTZAT	zelaiTZAT	—	—
BIZIBAKOAK			
NON	zelaiTAN	zelaiAN	zelaiETAN
NONGO	zelaiTAKO	zelaiKO	zelaiETAKO
NONDIK	zelaiTATIK	zelaiTIK	zelaiETATIK
	zelaitarik	zelairik	zelaietarik
NORA	zelaiTARA	zelaiRA	zelaiETARA
NORAKO	zelaiTARAKO	zelaiRAKO	zelaiETARAKO
NORAINO	zelaiTARAINO	zelaiRAINO	zelaiETARAINO
	zelaitagino	zelaitagino	zelaietagino
NORANTZ	zelaiTARANTZ(a)	zelaiRANTZ(a)	zelaiETARANTZ(a)
	zelaiTARUNTZ	zelaiRUNTZ	zelaiETARUNTZ

	SG. HURBILA		PL. HURBILA
NOR	zelaiAU	zelaiORI	zelaiOK
ZERIK	—	—	—
NORK	zelaiONEK	zelaiORREK	zelaiOK
NORI	zelaiONI zelaioneri	zelaiORRI zelaiorri	zelaiOI
NOREN	zelaiONEN	zelaiORREN	zelaiON
NORENTZAT	zelaiONENTZAT zelaiionendako	zelaiORRENTZAT zelaiorrendako	zelaiONTZAT zelaiondako
NORGAITIK	zelaiONEGAITIK	zelaiORREGAITIK	zelaiOKAITIK
NOGAZ	zelaiONEGAZ	zelaiORREGAZ	zelaiOKAZ zelaiOKIN
ZEREZ	—	—	—
ZERTZAT	—	—	—
BIZIBAKOAK			
NON	zelaiONETAN	zelaiORRETAN	zelaiOTAN
NONGO	zelaiONETAKO	zelaiORRETAKO	zelaiOTAKO
NONDIK	zelaiONETATIK zelaionetarik	zelaiORRETATIK zelaiorretarik	zelaiOTATIK zelaiotarik
NORA	zelaiONETARA	zelaiORRETARA	zelaiOTARA
NORAKO	zelaiONETARAKO	zelaiORRETARAKO	zelaiOTARAKO
NORAINO	zelaiONETARAINO zelaionetagino	zelaiORRETARAINO zelaiorretagino	zelaiOTARAINO zelaiotagino
NORANTZ	zelaiONETARANTZ(a) zelaiONETARUNTZ	zelaiORRETARANTZ(a) zelaiORRETARUNTZ	zelaiOTARANTZ(a) zelaiOTARUNTZ

– -Abokalaz amaiturikoak: GELA

	MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
NOR ZERIK NORK NORI NOREN NORENTZAT NORGAITIK NOGAZ ZEREZ ZERTZAT	gela gelaRIK gelaK gelaRI gelaREN gelaRENTZAT gelaarendako gelaGAITIK gelaGAZ gelaekin gelaZ gelaTZAT	geIEA — geIEAK geIEARI geIEAREN geIEARENZAT gelearendako geIEAGAITIK geIEAGAZ gelearekin geIEAZ —	geIAK — geIAK / -EK geIAI / -EI geIEN geIENTZAT geIendako geIAKAITIK geIAKAZ / -AKIN geIEZ —
BIZIBAKOAK			
NON NONGO NONDIK NORA NORAKO NORAINO NORANTZ	gelaTAN gelaTAKO gelaTATIK gelatarik gelaTARA gelaTARAKO gelaTARAINO gelatagino gelaTARANTZ(a) gelaTARUNTZ	geIAN geIAKO geIATIK gelarik geIARA geIARAKO geIARAINO gelagino geIARANTZ(a) geIARUNTZ	geIETAN geIETAKO geIETATIK geIetarik geIETARA geIETARAKO geIETARAINO geIetagino geIETARANTZ(a) geIETARUNTZ

	SG. HURBILA		PL. HURBILA
NOR	gelEAU	gelEORI	gelOK
ZERIK	—	—	—
NORK	gelEONEK	gelEORREK	gelOK
NORI	gelEONI	gelEORRI	gelOI
	geleoneri	geleorri	
NOREN	gelEONEN	gelEORREN	gelON
NORENTZAT	gelEONENTZAT	gelEORRENTZAT	gelONTZAT
	geleonendako	geleorrendako	gelondako
NORGAITIK	gelEONEGAITIK	gelEORREGAITIK	gelOKAITIK
NOGAZ	gelEONEGAZ	gelEORREGAZ	gelOKAZ
			gelOKIN
ZEREZ	—	—	—
ZERTZAT	—	—	—
BIZIBAKOAK			
NON	gelaONETAN	gelaORRETAN	gelOTAN
NONGO	gelaONETAKO	gelaORRETAKO	gelOTAKO
NONDIK	gelaONETATIK	gelaORRETATIK	gelOTATIK
	gelaonetarik	gelaorretarik	gelotarik
NORA	gelaONETARA	gelaORRETARA	gelOTARA
NORAKO	gelaONETARAKO	gelaORRETARAKO	gelOTARAKO
NORAINO	gelaONETARAINO	gelaORRETARAINO	gelOTARAINO
	gelaonetagino	gelaorretagino	gelotagino
NORANTZ	gelaONETARANTZ(a)	gelaORRETARANTZ(a)	gelOTARANTZ(a)
	gelaONETARUNTZ	gelaORRETARUNTZ	gelOTARUNTZ

IZEN BEREZIAK

Pertsona-izenak:

	JON	ANE
NOR	Jon	Ane
ZERIK	(Jon)K	(Ane)RIK
NORK	JonEK	AneK
NORI	JonI	AneRI
	Joneri	
NOREN	JonEN	AneREN
NORENTZAT	JonENTZAT	AneRENTZAT
	Jonendako	Anerendako
NORGAITIK	JonEGAITIK	AneGAITIK
NOGAZ	JonEGAZ	AneGAZ
	Jonekin	Anerekin
ZEREZ	JonEZ	AneZ
ZERTZAT	JonTZAT	AneTZAT
NOrenGAN	JonEGAN	AneGAN
NOrenGANDIK	JonEGANDIK	AneGANDIK
NOrenGANA	JonEGANA	AneGANA
NOrenGANAINO	JonEGANAINO	AneGANAINO
NOrenGANANTZ	JonEGANANTZ(a)	AneGANANTZ(a)
	JonEGANUNTZ	AneGANUNTZ

Leku-izenak:

	GASTEIZ	BILBO	DONOSTIA	BIZKAIA
NOR	Gasteiz	Bilbo	Donostia	BizkaiA
ZERIK	(Gasteiz)K	(Bilbo)RIK	(Donostia)RIK	(Bizkai)RIK
NORK	GasteizEK	BilboK	DonostiaK	BizkaiAK
NORI	GasteizI	BilboRI	DonostiaRI	BizkaiARI
	Gasteizeri			
NOREN	GasteizEN	BilboREN	DonostiaREN	BizkaiAREN
NORENTZAT	GasteizENTZAT	BilboRENTZAT	DonostiaRENTZAT	BizkaiARENTZAT
	Gasteizendako	Bilborendako	Donostiarendako	Bizkaiarendako
NORGAITIK	Gasteiz(E)GAITIK	BilboGAITIK	DonostiaGAITIK	BizkaiAGAITIK
NOGAZ	GasteizEGAZ	BilboGAZ	DonostiaGAZ	BizkaiAGAZ
	Gasteizekin	Bilborekin	Donostiarekin	Bizkaiarekin
ZEREZ	GasteizEZ	BilboZ	DonostiaZ	BizkaiAZ
ZERTZAT	GasteizTZAT	BilboTZAT	DonostiaTZAT	BizkaiTZAT
NON	GasteizEN	BilboN	DonostiaN	BizkaiAN
NONGO	Gasteiz(E)KO	BilboKO	DonostiaKO	BizkaiKO
NONDIK	Gasteiz(E)TIK	BilboTIK	DonostiaTIK	BizkaiTIK
NORA	GasteizERA	BilboRA	DonostiaRA	BizkaiRA
NORAKO	GasteizERAKO	BilboRAKO	DonostiaRAKO	BizkaiRAKO
NORAINO	GasteizERAINO	BilboRAINO	DonostiaRAINO	BizkaiRAINO
	Gasteizegino	Bilbogino	Donostiagino	Bizkaigino
NORANTZ	GasteizERANTZ(a)	BilboRANTZ(a)	DonostiaRANTZ(a)	BizkaiRANTZ(a)
	GasteizERUNTZ	BilboRUNTZ	DonostiaRUNTZ	BizkaiRUNTZ

Taulen inguruko oharrak:

– Mendebaldeko euskeran izen bizidunen deklinabidea NOR kasuaren gainean eregiten da. Euskera batuan, eta ekialdeko euskalkietan oro har, NOREN kasuaren gainean.

BIZKAI EUSKERAN

Alabeagana (*alabiegaiñe*) joan da.

Itxaropen guztia seme gazteagan *ipinita dauka*.

EUSKERA BATUAN

Alabarengana...

... seme gaztearengan...

– Bizkaiera eta sartaldeko euskeraren ezaugarrietako bat *-a* amaieradun berbek absolutuan *-ea* egitea da. Holan, neska + *-A* > *neskea*, loba + *-A* > *lobea*... Lege hori mendebalde guztian beteten da ahozkoan lekuan lekuko aldaketa fonetikoakin:

NeskEA > neskIA > neskIE > neskĪ
neskĒ

Idatzian, lehendik datozen joerak bi izan dira:

– Bata *-EA* idaztea: *errekea*, *arrebea*, *lorea*. (Bizkai sartaldeko eta neurri baten erdialdeko joera)

– Bestea *-IA* idaztea: *errekia*, *arrebía*, *loría*. (Bizkai ekialdeko eta neurri baten erdialdeko joera)

Oraintsuagoan, beste euskalkien eta batuaren eredura makurtzeko joera be indartsua izan da. Guk *-EA* ezaugarriari utsiko deusagu arau nagusi lez, batez be gure ondarekoa dan lexikokoan; baina kasu batzuetan bide bi onartuko geunkez:

<i>-a</i> organikodun atzizki batzuk:	-(k)era:	<i>-A</i> / <i>-EA</i>	sarrera / sarrerea urtekera / urtekerea
	-(k)eria¹:		azpikeria okerreria
	-kuntza:		aurrerakuntza / aurrerakuntzea hizkuntza / hizkuntzea
	-tza:		maisutza / maisutzea nekazaritza / nekazaritzea
Jakintza edo kultur hitzak:	kultura literatura	<i>-A</i> / <i>-EA</i>	kultura / kulturea literatura / literaturea
Berba barri eta maileguzkoak:	ikastola telebista	<i>-A</i> / <i>-EA</i>	ikastola / ikastolea telebista

Dana dala, egun *-a* idaztea da joera nagusia, aitatutako kasuetan.

Berba batzuen azken *-a* hori jausi dan kasuetan be amore emon leiteke: *giltza* > *giltz*, adibidez.

Giltza / *Giltzea hartuta atea edegi dau*.

*Habia*² / *Habia topau dogu behera jausita*.

¹ *-(k)eria* atzizkidunetan aukera bakarra onartuko da: *gaiztakeria*. Bazterrean itxiko da bizkai sartaldeko hiztunetan oindino be bizirik dirauen erabilera: *gaiztakerija*, *okerrerija*.

² *Habia* berbeak berez *habia* beharko leuke *-a* berea dau-eta, baina *-ia* amaieradun berba gehienakaz (*animalia*, *familia*, *notizia*...) jazoten dan moduan, hiztun askok ez dabe *-a* hori gordeten.

↓ Arreba *ezkondu jake*.
↓ Horma *jausi jaku*.

↑ Arrebea...
↑ Hornea...

Absolutuan edo *nor* kasuan ezezik, gainerako kasuetan be artikulua hartzean *-a + -AK > -EAK*, *-a + -ARI > -EARI*, *-EAREN...* egiten da. Halan:

arrebeak, arrebeari, arrebearen, arrebeagaz, arrebearentzat...

Bizidunen deklinabidean: arrebeagan, arrebeagandik...

Hurbiletan be, singularrean, kasu guztietan beteten da bokal-makurtze hori:

arrebeau, arrebeonek, arrebeoni, arrebeonegan, arrebeonegandik...

arrebeori, arrebeorrek, arrebeorri, arrebeorregan, arrebeorregandik...

(Ahoz, leku askotan: *arrebiau*, *arrebiori*, *arrebionek*, *arrebiorrek...*)

-A organikodun berbea bizibakoa danean (*botila*, *hizkuntza*, *horma*, *gela*, *ganbara...*), leku-denporazko kasuetan (*non*, *nongo*, *nondik*, *nora...*) eta gainerako kasuetan jokaera ez da bera.

Kasu gramatikaletan, *-a + -A > -EA* egiten da. Halan:

botilea, botileak, botileari, botilearen...

Hurbiletan:

botileau, botileonek...

botileori, botileorrek...

Baina, leku-denporazko kasuetan ez da lege hori beteten:

horma + -AN > -AN: *horman*, *hormatik*, *hormara...*

Hurbiletan:

eskolaonetan, eskolaonetara...

eskolaorretan, eskolaorretara...

Zuzenbideak:

*Hormean *zuloa egin jaku*.

Horman...

*Hankean *golpea hartu dau*.

Hankan...

*Kaiolean *sartu dabe txoria*.

Kaiolan...

*Hau hormau *hutsik daukazu*.

Hau hormeau...

*Hormeonetan *zeozer ipini beharko zeunke*,
koadruren bat edo.

Hormaonetan...

*Etsamineonetan *ez dot bat bera be aparau*.

Etsaminaonetan...

*Ezkineonetatik *ez da ezer be ikusten*.

Ezkinaonetatik...

Era berean, txarto legokez:

**Ez dot sinisten politikean*.

... politikan.

*Ikastolean *batzarra daukagu*.

Ikastolan...

Pluraletan ez da berezitasun hori egiten:

*Neskeak *etorri dira*.

Neskak...

– Partitiboa izen bereziakaz:

Jon, *Ane*, *Bilbo*, *Donostia...* legezko izen bereziek ez ohi darabile hizkera arrunt eta neutroan *-(R)IK* partitiborik, ez ezezko, ez galderazko perpausetan, ezta be mende-perpausetan.

Salbuespen modura eta enfatizazinoz ez bat ez gehiago marketan dogunean baino ez dira erabili behar *Anerik*, *Jonik*, *Bilborik*, *Donostiarik...* formak.

– *Ane etxean dago?*

– *Anerik ez da bizi gurean*. (Ez zuk dinozun hori, ez besterik)

- *Zenbat Durango dagoz?*
- *Durangorik ez dago bat baino Bizkaian, baina badira Ameriketako gehiago.*

– Artikuladun toki-izenak:

Bizkaia eta horren ereduak toki-izen mugatzaileak izen arruntaren sintaxi berarekin dabe deklinatzerakoan:

Bizkai izena + *-a* mug.

Halanda ze, honeetarikoa sintagma eragileak eregi gaituz:

Bizkai osoa / *guztia*, *Bizkai garbia*, *Bizkai hau*...

Zenbat Bizkai, *Zein Bizkai*...

Deklinabide-atzizkiak erantsirik, honeetarikoa sortuko jakuz:

Bizkaitik Bizkaira...

Busturitik hona ...

Mañariko, *Mañaritik Urkiolara*...

Non kasuan, *mendian*, *zelaian* esaten dan lez, *Bizkaian*, *Busturian*, *Mañarian* gora esaten da.

6.2.1. NOR: absolutua

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
Ø	-A	-AK
andra gizon	andrea gizona	andrak gizonak

Nor kasua deklinabide guztiaren oinarrian dago, hortik eratorrita sortzen diralako beste kasu batzuk be.

Zenbat lagun batuko zara?

Zure auzokoak etxea erosi dau Bilbon, ezta?

Izeko-osabak etorri jataz Ameriketatik.

Besteak beste, gogoan hartu erabilgune honeek be:

- Kantitatea, neurria, pisua, denporea eta parekoak adierazoten diranean:

Bost andra eta lau gizon joan dira hemendik Oizerantza.

- Bokatioetan:

Zu, Maitane, giltzak itxi dozuz hor ahaztuta.

Bokatioak singularrean eta pluralean erabilten dira:

Zu, gizona, hortik ezingo dozu pasau!

Zuek, gizonak, umeak negar baten daukazuez!

Mugagabea, gizaki-izen batzuk baino ez da erabilten. Salbuespeneko erabilera mugatua da, beraz, mugagabea. Mugagabea erabilera hau, zentzuz singularrari jagoko, ez pluralari.

Mutil!, *Mutiko!*, *Neskato!*, *Gazte!*, *Txikito!*, *Lagun!*...

Neskatxi(a)!, *Seme(a)!*, *Ume(a)!*... (bietara)

Hator hona, mutil!

Ea, gazte, korridu gehiago!

Erdu, neskatila, neugaz!
Heldu sokeari, morrosko!
Sartu zaitetz ohean, seme!

Gainerako kasuetan artikulua behar da:

- Abereakaz (berba egiten jakenakaz edo alegietan inoiz agertu leitekezanakaz):
Txakurra!, *Behia!*, *Astoa!*, *Idia!*, *Azeria!*...
- Arre*, astoa!
- Zapi*, katua!
- Aida*, behia!
- Gizaki gehienakaz:
Gizona!, *Andrea!*, *Jauna!*, *Adiskidea!*, *Andereño(a)!*, *Maisu(a)!*, *Atsoa!*, *Agurea!*...
- Karguakaz:
Epailea!, *Zuzendaria!*, *Lehendakaria!*, *Nagusia!*...

Zuzenbideak:

- | | |
|----------|----------|
| *Epaile! | Epailea! |
| *Nagusi! | Nagusia! |
| *Morroi! | Morroia! |
- Adjektiboak gizaki bati deitzeko darabilguzanean be -a:
Lastana!, *Bihotza!*, *Kutuna!*, *Zaharra!*...

Gutunetako hasierako agurretan eta berbaurretan be, sarritan agertzen dira bokatiboak. Horreek tradizioan neutroak izan dira eta ez hurbilak; gaur egun, barriz, joera handia dago hurbilak erabilteko. Batez be adjektiborik ez dagoan bokatiboetan era neutroak gomendatuko doguz:

↓Irakurle maiteok:	↑Irakurle maiteak:
↓Guraso maiteok:	↑Guraso maiteak:
↓Lagun maiteori:	↑Lagun maitea:
↓Jaun / Andre hori:	↑Jauna / Andrea (/Anderea):
↓Idazkari jaun hori:	↑Idazkari jauna:
↓Epaile andre hori:	↑Epaile andrea / Andere Epailea:
↓Gorentasunori:	↑Gorentasuna:

– Badira aditz batzuk, beren-beregi *Nor* kasua mugagabean eskatzen dabenak: *aukeratu*, *bihurtu*, *bilakatu*, *izendatu*, *egin*, *sartu*... Aditz horreek *zer* itaunari erantzuten deusan atributu bat euki leikie (itauna inoiz be ez da *zertan* izango), eta atributu hori bakarrik badago, mugagabean ipini behar da. Hori bai, atributua lagunduta egon ezker adjektibo, adjektibo konparatibo, erlatibozko perpaus edo antzeko baten bidez, -a / -ak mugatzaileak eskatzen ditu askotan.

* <i>Atso zaharra</i> sorgina bihurtu <i>zan</i> sorgin bihurtu...
* <i>Baldarra</i> tximetelan bilakatu <i>zan</i> tximeleta bilakatu...
* <i>Aziak ura</i> ardaoan bihurtu <i>eban</i> ardao bihurtu...
* <i>Jainkoa</i> gizona egin <i>zan</i> gizon egin...

Era berean, ogibidea adierazoteko mugagabea erabili behar da, bestela esaldiak beste esan-gura bat hartzen dau.

* <i>Iñaki</i> abadea <i>sartu zan</i> abade sartu...
* <i>Medikua</i> dago <i>Nicaraguan</i> .	Mediku dago...
* <i>Gure semea</i> irakaslea dago <i>institutuan</i> irakasle dago...

Bide beretik:

Umeak beti ume, hemen eta Parisen.

– Badira izenak, aditz jakin batzuekin batera doazanean lokuzinoa osotzen, *-a* mugatzailea galtzen dabenak: *bildur da, hotz dago, min dauka, huts emon dau, barre egin dau...*

Horreetariko batzuek, *bildur izan* eta *behar izan (edun)* ereduokoez, ez dabe partitiborik onar-tzen ezezka:

Ez gara *ezeren* bildur / Ez gara *ezeren* jabe.
Sekula ez da izaten hotz; beti bero.

**Ez deusut ezer zorrik.* ... zor.

**Egin deustazuna gorabehera, ez zaitut gorrotorik.* ... gorroto.

Baina *egin, eragin, emon, hartu, euki* eta halako beste aditzen inguruan bilbatutako aditz lokuzinoetan, ez beti, baina bai sarri, *-(r)ik* azaltzen da:

Barre egin	Ez barrerik egin
Behar eragin	Ez beharrik eragin
Min hartu	Ez minik hartu
Huts emon	Ez hutsik emon

Gogoan hartu, bestalde, izenak, normalean, mugatu egin behar dirala.

**Ama, platano gura dot.* *Ama, platanoa gura dot.*
 **Gura dozue platano?* *Gura dozue platanorik?*
 **Jon, emon mosu.* *Jon, emon mosu bat / mosua.*

Batzuetan, *Nor* kasua oker erabilten da beste kasu batzuen lekuan.

**Ama lagundu dot.* *Amari lagundu deusat.*
 **Erretea itxi dau.* *Erreteari itxi deusotso.*

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-AU	-ORI	-OK
(hau) andreau	(hori) andreori	androk
(hau) gizonau	(hori) gizonori	gizonok

Hau umeau *benetan be zoratu egin jaku ala brometan dabil?*
Ea engainetan dodan hau miru-zaharrau!
 Hori gizonori *kanpokoia izango da, egundo ez dot ikusi-eta.*
Umea ez dala agiri? Non dabil umeori, ba!
Zantarrori, joaten banaz horra, kobrau egingo dozu!
 Honeek gizonok *jan-edanean eta jokoan dabilz beti.*
Zeuek gazteok zarie geroa eskuan dozuena.
 Horreek neskok *zure lagunak dira?*

6.2.2. ZERIK: partitiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(R)IK	—	—
andrarik gizonik		

(1) -(R)IK

Nor edo Zer kasuko izen eta adjektiboak dira -(r)ik mugatzailea hartu leikienak. Izen horrek balio zehaztubakoa euki behar dau atzizki hau hartu ahal izateko. -(r)ik partitiboa mugagabea da berez, eta bardin da azpian dauen zentzua singularra edo plurala dan, izan be, atzizki horrek biak bardintzen ditu. Horregaitik aditzagazko akordua singularrean egi-ten da beti.

*Guri ez jakuz gustetan ez ardao ... ez jaku... ez ardao baltzik ez zuririk...
baltzik ez zuririk, gorria baino ez.
*Lehen ez ziran ikusten landa eta ... ez zan... behirik eta txahalik.
basoetan behirik eta txahalik.

Erabilgune nagusiak:

– Ezezkako perpausetan, dala ez hizkiaz, edo dala beste ezeztapen-hitzen batez lagundurik: ezin, barik, bako, ezik, ezean, etab.

Edari alkoholodunik ez da saltzen.
Burrurik eza zer dan, gero!
Laguntzarik egon ezean, gatxa da hainbeste liburu argitaratzea.

Dana dala, barik eta bako atzekariek eurek ez dabe ezinbestean partitiboa zertan hartu, normalagoa da aurreko izenari ezer barik lotzea:

Diru(rik) barik ezin da bizi.
Odol(ik) bako pertsona da Xabier.

Ez(a) izen edo adjektiboei atzean ipini ezkerro, hitzorrek partitiboa hartu ohi dau; adberbio eta beste kategoria batzukaz ez, ostera:

Lanik eza, Laguntasunik eza, Osasunik eza...
Ondo eza, Ezer eza, Asko eza...

– Itaun-perpausetan, baina Bai-Ez erakoetan:

Kaferik badago?
Gura dozu pastelik?
Entzun dozu ezereen zurrumurrurik?

– Baldintza zentzuko mende-perpausetan, baina ez beti:

Laguntzarik behar badozue, eskatu eidazue.
Gauza susmagarririk ikusi ezkerro, deitu arin nagusiari.
Zeresanik egotekotan, neuri esan beste inori baino arinago.

– Erlatiboko mende-perpaus mugatuetan eta -nean atzizkidun denporazkoetan, baina ez beti:

Zalantzarik daukanak altzau bei eskua.
Irakasle bat gehiago hartuko da, hutsunerik dagoanean, hak ordezkatu dagian.

– Izenak katean batzen diranean eurretari bakoxtari ipini behar kasu-atzizkia:

*Ez dauka ez asti ez gogorik joateko. ... ez astirik ez gogorik...

– Partitibodun izenari aditz trinkoak jarraitzen deusanean, horrek indarturik egon behar dau:

ba- aurritziaz, galde-perpausetan, eta
ez hizkiaz ezezkoetan.

*Zigarrorik *dozu?*

Zigarrorik *badozu?*

*Ezagunik *dago?*

Ezagunik *badago?*

Kasu hau hainbat esaera zaharretan be agiri da.

Jakiteak ez dau ogirik jaten.

Oinezkorik nahi ez eta zaldizkorik etorri ez.

Neke barik ez dago biziterik.

Non ez da erabili behar:

– Ez da erabili behar *-(r)ik* atzizki partitiboa baieztapenaren eremuan, ez eta *Nor-Zer* erako itaun-perpauetan be:

*Euririk *egingo dau astegoienean.*

Euria *egingo dau astegoienean.*

**Nork erosi dau auto barririk?*

Nork erosi dau auto barria?

Baiezka edo *Nor-Zer* itaunaz *-(r)ik* atzizkia azaltzen danean, esan gura dau esaldiaren zentzua sakonean ezezkoa dala, itxuraz bestelakoa izanagaitik:

Herri horretan nekez ikusiko dozu jente edadekorik erdera berbetan.

Mutikoak gogor ukatu eban berak lapurretarik egin izana.

Nork egingo deusula pentsetan dozu nik baino eskeintza hoberik?

Zelan egin leike pertsonak holako beharrik?

– Ez da erabilten *-(r)ik* atzizkia izen horrek *hainbat*, *hainbeste*, *nahikoa*, *bat*, *asko* edo anitzeko beste determinatzailekerik badauka:

**Ez zan horrenbeste jenterik hurreratu.*

... *horrenbeste jente...*

**Gaur ez da hainbeste pagorik eta haretxik ikusten gure basoetan.*

... *hainbeste pago eta haretx...*

**Ez da etorri batik be.*

... *bat bera be.*

↓*Ez daukagu jente nahikorik zeregin guztiari erantzuteko.*

↑...*jente nahikoa...*

↓*Ez dago behar nahikorik mundu guztiarentzat.* ↑... *behar nahikoa...*

– Lotura edo kopula-aditzakaz: *izan*, *indartu...*

**Lar jatea ez da mesederik.*

... *ez da mesedea.*

**Oinez ibiltea ez da kalterik.*

... *ez da kaltea.*

**Arto horrek ez dirudi sendorik.*

... *ez dirudi sendoa.*

(2) *-(R)IK*. *Eskerrik asko* erredua.

– Kantidadea eta, batez be, askotasuna adierazoten daben izenakaz erabilten da, izen horreen inguruan *asko*, *nahiko...* zenbatzaileak azaltzen diranean. Baita *erdi* izenagaz be.

Asko da barbarik. *Orain jan daigun.*

Beharrik asko eta lar egin dogu gaur. Atsedena hartu daigun.

Zahartzaroan ondo bizi behar dogu. Beharrik asko eginda gagoz gazte denporan.

Nahikoa barriketarik egingo dau jenteak gure kontura.

Biderik erdia oinez egin dogu. Falta dana trenez egingo dogu.

“Heu haz hi, heu, *mozolorik* asko, txatxar buruhandiori!” (M. Zarate)

– Zenbatzaile-hitzik agertu ez arren, askotza adierazoten daben baiezko harridura-perpauetan be erabili leiteke balio enfatikoaz:

Seat-a dinozu auto ona? Badago hoberik!

*Ikusten da tipo bakotzik kalean!
Markinan bada mutil ederrik!*

(3) -(R)IK. Gauzarik onena eredua.

Izen-adjektiboak batera dagozanean eta adjektiboa *-en* atzizki konparatiboaz doanean, izenak *-(r)ik* hartzen dau, beti-beti ez bada be, ia beti.

Haxe izan zan bere bizitzako egunik zoriontsuena.

Amaren antzik handiena alaba txikiak dauka.

Zein da idazle horren libururik ezagunena?

Halanda be, serie mugatuak ditugunean, partitibo barik be eregi geinke izen-adjektibodun sintagma:

Zein da zuen seme zaharrena?

Gure alaba gazteenak jakingo deitsu hori.

Hor aurrean zuzen doan hori dozu bide laburrena, eta handik mendi barrenetik doana, bide luzeena.

Aurrean dozuna da auzoko etxe txikiena.

(4) -(R)IK aditzondo-atzizkia:

Batzuetan *-(r)ik* ez da gramatika-atzizki arrunta, aditzondoak eregiteko atzizki eratorlea baino. Halan, hainbat kasutan adjektiboak aditzondo bihurtzen ditu: *baltzik, zuririk, alperrik, gazterik, hutsik, itsurik, gordinik, tristerik...*

Bardin aditz partizipioak: *hilik, esanik, joanik, ikusirik...*

Aditzondo lez darabilguzan aditz partizipio honeek *-ko* genitibo atzizkia hartu leikie, edo beste izen bati lotzeko edota nominalizatzeko:

Lehen goan ikusiriko pelikulea...

Emoniko berbea...

Nik esanikoa...

-(r)ik aditzondo-atzizkiaz, hitz-segidak be adberbializatzen dira:

Burua makurrik joan da etxera.

Belarriak apalik bialdu dot hemendik.

Aitaren ixilik joan zan mutila ikustera.

(5) -T(Z)ERIK aditzizena:

Partitiboa aditzizenaz be erabili leiteke, baina izen-adjektiboakaz baino kontestu askoz murriztuagoetan. Batez be, aditz nagusia ezezka dagoanean erabili leiteke, *izan* eta *egon* lotura-aditzakaz izan ezean.

Ez neuke ezegaitik be gura inori kalte egiterik.

Ez eban pentsau inori ezer esaterik.

**Badaukazu hori egiterik.*

Ez daukazu hori egiterik.

Baina:

**Ez da ona inogaz kontau barik erabagirik hartzerik. ... hartzea.*

**Ez da derri gorra danok joaterik. ... joatea.*

**Ez dago ondo inori ezer ez esaterik. ... esatea.*

**Ez dago ondo ikusita hondartzan biluzik ibiliterik. ... ibiltea.*

Lotura-balioko beste aditz batzukaz be ez da erabili behar:

**Ez dot ontzat hartzen zuk hori erantzuterik. ... erantzutea.*

**Ez dot ondo topetan bakotxak gura dauena* egiterik. ... egitea.
 **Ez deritxo ondo hori* egiterik. ... egiteari.

Akats asko egiten da, *-t(z)ea* aditzizena toketan dan lekuan *-t(z)erik* erabilten dalako. Perpausaren subjektua bera danean ezin da *-t(z)erik* erabili:

**Ez da komeni ezetz* esaterik. ... esatea.
 **Ez da txarra batzuetan ixilik* egoterik. ... egotea.

Non komeni dan -(R)IK ez erabiltea:

– Baiezko adierazpen-perpausetan ez da zertan erabili, nahiz eta gaur egun komunikabideetan sarri entzuten diran holakoak:

↓*Asteburu honetan egingo dau* euririk kostaldean.
 ↓*Gabonetarako izango da* edurrik Pirinio mendikatean.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
—	—	—

Ez dauka mugatzaile hurbilik.

6.2.3. NOR: ergatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)K	-AK	-AK / -EK
andrak gizonak	andreak gizonak	andrak / andrek gizonak / gizonak

Pluralean aukera bi onartzen dira: *-ak / -ek*. Berez *-ak* da sartalde eta erdiko euskalkietakoa, baina batukoa asko zabaldu da aspaldiko denporetan; gainera, *-ek* atzizkiaz hobeto bereizten dira *Nor* eta *Nork* kasuak.

Irakasleak esan dabe bihar jai eukiko dogula.
Otsoek ardia hil eben.
Horrek ez dau ezertarako balio.
Beleak ez dau belakirik jaten. (esaera zaharra)
Esaera zaharrak guzurrik ez. (esaera zaharra)

Nork kasua euskeraren bereizgarri nagusienetako bat da. Aditz iragankorren subjektu lez azaltzen da perpausetan.

Nork daukagun perpausetan *nor* be azaltzen da:
 Autoak *bide bazterreko* hormea jo eban.

Baina badira aditz batzuk, *nork* bai, baina *nor* onartzen ez dabenak. Hatarikoak dira: *igon, irakin, irau, jardun, bazkaldu, urten...* (normalean, *igon* eta *urten* modu transitiboan erabilten dira bizkaieraz).

*Domekan mendira igon genduan.
 Urak 100 gradutan irakiten dau.
 Aitak oraïndino lanean dihardu.
 Zapatuan berandu urten zenduan kalera, ezta?
 Gaur goiz afaldu dogu.*

Nork kasua dala-eta badira baztertu beharreko adibide batzuk:

<i>*Ni neuk badakit zelakoa dan.</i>	Nik neuk...
<i>*Bata-besteagaz ez dauka zerikusirik.</i>	Batak besteagaz...
<i>*Ama holan jantzita erregina dirudi.</i>	Amak...
<i>*Gizona autoaz arin etorrela oinezko bat jo eban.</i>	Gizonak...
<i>*Bat baino gehiagok egin leikie hori.</i>	Batek baino gehiagok...

Bestetik, erderazko *egitura pasiboak* itzultzen ditugunean, *-agaitik egina*, *-agaitik esana...* eta antzeko egiturak ez dira zuzentzat joko, atzizki horrek kausa adierazoten dauelako, ez egi-le izatea. Gainera, euskerak egitura aktiboak erabilteko askoz be joera handiagoa dauka.

<i>*Gure herria militarraitik hartua izan zan.</i>	<i>Gure herria militarrek hartu eben.</i>
<i>*Gernika frankistakaitik bonbardatua izan zan.</i>	<i>Gernika frankistek bonbardatu eben.</i>
<i>*Udalbatza alkateagaitik desegina izan da.</i>	<i>Udalbatza alkateak desegin dau.</i>
<i>*Ortuariak basurdeakaitik kaltetuak izan ziran.</i>	<i>Basurdeek kalte handiak eragin zituen ortuarietan.</i>

Batzuetan, era biak zuzenak izan daitezke esangura desbardina hartuta:

<i>Emakume batek hil eban.</i>	(emakume batek nonor hil eban)
<i>Emakume bategaitik hil eban.</i>	(emakume bat zala-eta hil eban)

Ekialdean *-(e)z* + partizipioa + *-a / -ak* egitura be ezaguna da balio pasibo hori adierazoteko, baina horren azterrenik nekez idoro daiteke sartaldeko euskeran:

Jesus Done Joanez bataiatua izan zen. (sartaldean)
Jesus Done Joanek bateatua izan zan. (sartaldean)

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEK	-ORREK	-OK
(honek) andreonek	(horrek) andreorrek	androk
(honek) gizononek	(horrek) gizonorrek	gizonok

Horrek taberneorrek *makinatxu bat salaketa jazo ditu zaratea dala-eta.*
Gure neska-mutilok, hori entzunda, haserratu egin ziran.
Neskeonek zer behar ete dau?
Zer gura dau agureorrek?
Azaldu eizu zeuk, asko dakizunorrek.
Kontau eizuez gauza gehiago munduan asko zabilzeenok.

6.2.4. NORI: datiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(R)I -eri	-ARI	-AI / -EI
andrari gizoni	andreari gizonari	andrai / andrei gizonai / gizionei

Izen bereziakaz eta zehaztubakoakaz, tradizioari eta batuko bideari jarraituz, idazterakoan mugagabea *-(r)i* erabiltera joko da, nahiz eta bizkai hiztunok, gehienbat, kontsonantez amaitu ezkerok, *-eri* egiten dogun.

Ze mutili (mutileri) agindu deutsaluz etxerako beharrak?

Mikeli (Mikeleri) *begira geratu ginan guztiok isil-isilik.*

Edozein beharri (beharreri) *ezin jako baietz esan.*

Eibarreri > Eibarri

Mugatu pluralerako aukera bi dagoz: *-ai / -ei*. *-ai* da zaharra eta bizkai euskerari berez jago-kona, baina aspaldiko urteotan batuko eredutik ez urruntzeko, *-ei* erabili izan da gehiago. Momentuz, ba, biak ontzat hartuko dira. Hori bai, *Nork* kasuan *-ak* hartu ezkerok *Nori* kasuan *-ai* hartzea izango litzateke gomendagarriena, eta bardin esan behar da *-ek / -ei* bikoteaz.

Lagunai *emon deustedaz gabonetako erregaluak.*

Zaharrei *zein gazteei, guzciei gertatzen jake hori.*

Erabilgune nagusiak:

– Aditz batzuek objektua, edo 2. argumentua, *Nori* kasuan eskatzen dabe. Halan *eragin*, *era* -*so*, *ikutu*, *itxaron* eta beste hainbestek:

Zer deritxazu horrek esan dauenari?

Ekin lanari, *baina* eutsi goiari!

– Hitz atzekari batzuek *Nori* kasua behar dabe:

Zure laguntasunari esker azterketa gainditu dot.

Nori begira zagoz begiak zabal-zabalik?

Plan barriak egin behar dira geroari buruz.

– Aditz batzuek batzuetan *Nor* dana, beste kontestu batzuetan *Nori* bihurtzen dabe:

Urrun egon arren, ondo entzuten zaitut.

Esan deustazuna ondo entzun deustut.

Esaldian *Nori* kasua agertzen danean, kasuak eta aditzak lotuta egon behar dabe:

**Atzo Amaiari deitu* neban.

Atzo Amaiari deitu neutsan.

Sarritan, gaztelaniaren eraginez edo, *Nori* oker erabilten da *Nor* kasuaren ordeaz.

**Maiteri ikusi deustat goizeon.*

Maite ikusi dot goizeon.

**Zuri kalean ikusi neutsun atzo.*

Zu kalean ikusi zindudazan atzo.

**Geldi ez bazagoz, jo egingo deustut.*

... jo egingo zaitut.

**Eroango deustazu Bilbora?* (niri)

Eroango nozu... (ni)

Erderaren eraginez kalko txarrak be egiten dira.

**Mirarik aitari emon dau.*

...aitatara urten dau.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONI -oneri	-ORRI -orri	-OI
(honi) andreoni (honi) gizononi	(horri) andreorri (horri) gizonorri	androi gizonoi

*Zer pasetan ete jako honi kotxeoni / honeri kotxeoneri?
Gizonorri / gizonorri etorri ete jakoz etxeokak?
Entzule zaitudanorri mila esker eta bihar arte.
Etxekooi deitu euskun abisua emoteko.
Horreei androi atera egiezue zeozer edateko.
Ardurea dozu enoi jagotzue erabagia hartzea.*

6.2.5. NOREN: genitiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(R)EN	-AREN	-EN
andraren gizonen	andrearen gizonaren	andren gizonen

Erabilgune nagusiak:

- Jabetasuna edo egiletasuna adierazotean:
*Domeka goizean Peruren autoa errekan topau eben.
Lehenagokoen gorabeherak gure aitik kontauko deusuz ondoen.*
- -(r)en bat / -(r)en batzuk egituretan:
*Seguruenik, aldizkariren batek emongo dau horren barri.
Pintxoren batzuk jan geinkez taberna haretan.*
- Atze-hitz edo atzekari gehienakaz:
*Eleizearen ondoan bizi da, gurasoengan.
Semearen bila joan beharra gertatu joko.*
- Esapide batzuetan:
*Erabiliaren erabiliaz, apurtu egin da.
Janbeharraren janbeharrak atzamarrak be apartau ezinik dabil!*
- Adjektiboaren izenlagun lez, honen kalitatea goratzeko:
*Mertxikaren gozoa!
Honen ezpateonen puntearen zorrotza!
Hau da gauaren hotza!
Gizonaren lotsagalduko!
Umearen deungea!*

Gaztelaniazko “de” preposizinoaren erabilera hain zabala danez, kasu honetan nahasteak sortzen dira askotan. Erderaz partikula bakarra erabilten dan lekuan, euskeraz modu askotara egiten da, zentzu ezberdinak zehaztuz.

Es DE Inés *Inesena* (Norena?)
Es DE Gatika *Gatikakoa* (Nongoa?)

Es DE piedra	<i>Harrizkoa</i>	(<i>Zerezkoa?</i>)
Es (tortilla) DE jamón	<i>Pernilduna</i>	(<i>Zerezkoa?</i>)
Es (bocadillo) DE jamón	<i>Pernilarena</i>	(<i>Zerena?</i>)
Viene DE París	<i>Parisetik</i>	(<i>Nondik?</i>)
DE pequeño	<i>Txikitan</i>	(<i>Noiz?</i>)
Día DE fiesta	<i>Jai-eguna</i>	(<i>Zer?</i>)

DE = *-(r)en / -(e)ko / -(e)zko / -dun / -(e)tik / -(e)tan / Ø*.

Batez be, *-(r)en*, *-(e)ko* eta *Ø* nahasten dira. Noiz erabili behar da bakotxa? Zalantzaren bat euki ezker, aproba moduan deklinabide kasuaren ordezkari bat ipini leiteke.

-(r)en: edukia, jabetasuna adierazoten dau. *Nork* dauka? *Norena* da? Atzizki honen azpian aurkitzen doguna *edun* aditza da.

Atentadua	egin dau.	Atentadua	egin dau.
Mutilaren	indarra	Mutilak	indarra dauka.
Pozuaren	sakonera	Pozua	sakona da.
Sariaren	hartzailea	X-k	saria hartu dau.
Ibilaldiaren	hasiera	Ibilaldia	hasi da.
Autoaren	giltzak	Autoak	giltzak daukaz.
		Giltzak	autoari jagokoz.
Euro baten	gozokiak	Gozokiek	euro bat balio dabe.
Txorizoaren	bokadiloa	Bokadiloak	txorizoa dauka (barruan).

-(e)ko: lekua, denpora edo ekintza adierazoten dau. *Nongoa* da? *Noizkoa* da? *Zertako* da? Atzizki honen azpian aurkitzen ditugunak *egon* edo *izan* aditzak dira batez be.

Gure etxeko giroa	<i>eskasa da.</i>	Nonon	dagoan X
Hiru txarritxoetako	<i>batek lastozko</i>	Zerez	eginda dagoan X
etxea	<i>egin eban.</i>		
Gustu oneko mahatsa	<i>da aurtengoa.</i>	Zer	zelakoa daukan X
Bizitza biko etxea	<i>da hori.</i>	Zenbat	zer daukan X
Antiojudun neskeak	pernildun tortillea	Zeozer	aldean-edo daukan X
	<i>eskatu dau.</i>		

Ø: ez bada ezer jarten hitz alkartua sortzen da.

Txorizo-tortillea *gozo-gozo egon da.*
Osasun-zentroa *barriztu eta handitu egingo dabe.*

Batzuetan *Noren* kasua oker erabilten da *Nongo* kasuaren lekuan.

*Liburuaren	<i>testu osoa irakurri dogu.</i>	Liburuko	<i>testu osoa...</i>
*Nor da	Euskadiren	lehendakaria?	... Euskadiko
			lehendakaria?
*Hogei	graduaren	temperatura	dago.
			Hogei graduko
			temperatura...
*Bost	metroren	luzera	dauka.
			Bost metroko
			luzera...

Beste batzuetan, oster, era biak onartu leitekez. Biak entzuten dira eta gustu kontua da bata edo bestea erabiltea. Beti be bestea baztertu barik, gu geu *-(e)ko* erabiltearen aldekoak gara.

↓Athleticen	<i>entrenatzailea.</i>	↑Athleticeko	<i>entrenatzailea.</i>
↓ETBren	<i>zuzendaria.</i>	↑ETBko	<i>zuzendaria.</i>
↓Elkarriren	<i>ordezkaria.</i>	↑Elkarriko	<i>ordezkaria.</i>

Batzuetan, testuinguruaren arabera, izen batzuk biziduntzat edo bizibakotzat hartu daitezke. Holakoetan, *-(r)en* edo *-(e)ko* jarrea posible da, baina esaldiek esangura ezbardina eukiko dabe.

Inork ez dino ezer. Eleizearen isiltasuna be aitagarria da.

Abadeak, ziplo jausi zanean, eleizako isiltasuna apurtu eban.

Gainera, *bere* eta *haren* ezbardindu egin behar dira.

Maitek bere etxea erakutsi deust. (berea, Maiterena)

Maitek haren etxea erakutsi deust. (beste nonorena)

Sarritan, *Noren* kasuan deklinatutako izenordain batzuk beharrezkoak ez diranean be erabili egiten dira, ahaidetasuna adierazotean, etab. Kasu horreetan, erreferentzia argia danean, ego-kiena ezer ez ipintea da.

**NATOk bere desadostasuna erakutsi dau.* *NATOk desadostasuna erakutsi dau.*

**Nire amagaz eta nire ahiztakaz nago.* *Amagaz eta ahiztakaz nago.*

**Nire gurasoen etxean bizi naz.* *Gurasoenean bizi naz.*

Erdera usaineko esapide batzuk be hobe da ez erabili:

**Suekoarena egin eban.*

Ez ikusi egin eban.

↓*Kristorenak esan euskuzan!*

↑*Itzelak esan euskuzan!*

↑*Inon diranak esan euskuzan!*

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEN	-ORREN	-ON
(honen) andreonen (honen) gizononen	(horren) andreorren (horren) gizonorren	andron gizonon

Honen maisuonen *ganorea* be *ikustekoa* da!

Horren zekorrorren *jenioa txarra* be *txarra* da, *gero!*

Pobreon *bizimodua ondo triste*a da, *beti behar* eta *behar.*

6.2.6. NORENTZAT: benefaktiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(R)ENTZAT -(r)endako	-ARENTZAT -arendako	-ENTZAT -endako
andrarentzat gizonentzat andrarendako gizonendako	andrearentzat gizonarentzat andrearendako gizonarendako	andrentzat gizonentzat andrendako gizonendako

Kasu honen bidez gauzaren baten hartzailea edo mesedetua nor izango dan adierazoten da. Benefaktiboa adierazoteko atzizki bi dagoz, biak be guztiz onargarriak: *-(r)entzat* da erabi-
liena eta tradizioan sustraituena; Deba eta Leniz aldean *-(r)endako* zabal dabil. Ahoz erabi-
lia dan eskualdeetako edo hara zuzendutako testuetan –idatzi zein ahozkoetan– gomendaga-
ria da atzizki hau.

Auzokoarentzat *erosi doguz pastelok*.
 Baserritarrentzat *eguraldi hau kaltegarria da*.
Heriotzea, batzuentzat, *bizitzearen amaiera da; beste* batzuentzat, *ostera, askatasuna*.
 Norendako *dira apunte honeek?*
Mutil horrendako erregalu bat daukat.

Bigarren aldaera hau, *-(r)endako*, ez da formaz sekula aldatzen. Baina *-(r)entzat* atzizkiaren orde, leku askotan, *-(r)entzako* erabilten da. Bigarren hau, ahal dala, izenlagun-funtzinorako jagotea komeni da, ez adizlagun danerako.

Norentzat *da erregalua?* (Aditzaren lagun)
 Norentzako *erregalua da?* (Izenaren lagun)

*Irakasleentzat <i>ikastaroak hasi dira.</i>	Irakasleentzako <i>ikastaroak...</i>
* <i>Errete</i> a txarra da danontzako.	... <i>txarra da</i> danontzat.
* <i>Sariak</i> edozeinentzako <i>be ezin dau izan.</i>	<i>Sariak</i> edozeinentzat <i>be ezin dau izan.</i>

Kasu batzuetan, ez da erraza *Norentzat* eta *Norako* kasuak bereizten. Alde batetik, *Norentzat* *Noren* kasutik dator, jabetza adierazoten dau eta bizidun zein bizibakoakaz erabilten da; beste alde batetik, *Norako* kasuaren azpian *Non / Noiz* dago, lekua edo denporea adierazoten dau eta, batez be, bizibakoakaz erabilten da.

Erloju hau Nerearentzat *da*.
Ur hotzegia hartzea txarra da zuretzat.
Honeek neumatikook *hobeak dozuz* autoarentzat.

Baina, batzuetan, nahastau eta erabilera desegokiak sortzen dira.

* <i>Irrati hau</i> kotxearentzat <i>da</i> kotxerako <i>da</i> .
* <i>Ur hotzegia txarra da</i> haginentzat.	... <i>txarra da</i> haginetarako.

Halanda be, hitz beragaz, kontestu berean, posible da *-(r)entzat* eta *-(e)rako* agertzea, baina ikuspuntua diferentea da beti: batean, zeri edo nori jagokon; bestean, norako edo noizko dan.

Hau herriarentzat *da*. (herritarrei jagoke)
Hau herrirako *da*. (norako)

Beste batzuetan, ostera, biak erabili leitekez bardin. *Norentzat* kasuagaz objektuei zeozelako bizidun-nortasuna emoten jake, baina bizibakoakaz *Norako* erabiltea jatorragoa da.

Denpora hau txarra da osasunarentzat / osasunerako.

Norentzat kasua sarritan oker erabilten da beste kasu batzuen lekuan:

*Neure buruarentzat <i>berbetan nabil</i> .	Neure buruagaz <i>berbetan nabil</i> .
---	--

Erderaren eraginez, eretxia edo ustea adierazoteko gero eta sarriago erabilten da kasu hau jatorrizko formen lekuan.

*Harentzat, <i>Bilbo uri motza da</i> .	<i>Haren</i> eretxiz, <i>Bilbo uri motza da</i> .
*Niretzat, <i>hau txarto dago</i> .	<i>Nire</i> ustean, <i>hau txarto dago</i> .

Kasu hori agertzen dan titulu labur eta iragarkietan argitasunera joko da.

↓ <i>Eskeintza berezia</i> herritarrentzat.	↑ <i>Herritarrentzako eskeintza berezia</i> .
↓ <i>Institutuko</i> ikasleentzako <i>hitzaldia</i> .	↑ <i>Hitzaldia</i> <i>institutuko</i> ikasleentzat.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONENTZAT -onendako	-ORRENTZAT -orrendako	-ONTZAT -ondako
(honentzat) andreonentzat (honentzat) gizononentzat (honendako) andreonendako (honendako) gizononendako	(horrentzat) andreorrenzat (horrentzat) gizonorrenzat (horrendako) andreorrendako (horrendako) gizonorrendako	androntzat gizonontzat andronndako gizonondako

Honentzat umeonentzat *topau gura dau Foru Aldundiak etxea.*
 Hor dagoan eskoleorrenzat *izango da aurtengo Ibilaldian batuko dan dirua.*
 Umeondako *edozein da jolasteko momentu ona.*
 Semeorrenzat *ekarten ditu guleriak.*
 Honeentzat ikasleontzat *ekarri dot gaur joko hau.*

6.2.7. NORGAITIK: motibatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)GAIK	-AGAIK	-AKAIK
andragaitik gizonegaitik	andreagaitik gizonagaitik	andrakaitik gizonakaitik

Baturako hautu dan *-gaitik* aldaeraren ondoan, *-gaitik* da bizkaierari jagokona.

Erabilgune nagusiak:

– Zergaitia edo kausa aditzen emotea dau egitekorik oinarritzkoena:

Zergaitik alde egin zenduan hemendik? Gerreagaitik.

Seme-alabakaitik hartu dau erabagi hori.

Damuturik ei dago egindako kalte guztiakaitik.

Baliokideak dira *zergaitik / zer dala-eta*, edota *-gaitik / dala-eta*.

– Berbeta edo gogoeta-gaia adierazoteko be sarri erabilten da:

“M.J. Ez egizu bada zuk bere ain dongaro esan nire *opizijokuak gaiti*. P. Ez dinot nik dongarorik zure *biargintzia gaiti*.” (J.A. Mogel)

“Esaten da gizon okerra *gizon gaistuagaiti*.” (J.A. Mogel)

– Noren edo zeren alde zeozer egitea be adierazo leike, berariaz *erregutu, eskatu, egin* legezko aditzakaz:

Domusantu egunean hildakoakaitik errezetan da.

Guretzako hak ez dauka guraizanik: gugaitik ez dau egin inoiz ezer.

– Zeozeren truke egitea adierazoten dau kontestu batzuetan, berariaz *emon, eskatu, kendu, bihurtu, itxi* legezko aditzakaz:

“*ta bazaut, aserratuten bagara, eskatuko deuskula pagu andiren bat bazkari txar one -gaiti*.” (J.A. Mogel)

Dana dala, kasu hau prezioa, trukea... adierazoteko erabilia izanagaitik, beste atzizki batzuk be horretarako aukeran dagoz:

↓ *Hiru eurogaitik erosi dot plazan.*

↑ *Hiru eurotan...*

↓ *Kromo bategaitik aldatu deusat.*

↑ *Kromo baten truke...*

↓ *Gura dozuna emongo deusut azpira*

↑ *... azpira horren truke.*

horregaitik.

– Aditz partizipioaz batez be, baina izen edo izenordain kategoriakaz be, balio kontzesiboa hartu leike: *hori gorabehera, hori eta guztiz be.*

Horrek halan dala esanagaitik, ez nei nik hori sinestu, akabubako guzurtia da-eta.
Hobeto eginagaitik be, ez deuskue eskertuko.
Aurrean zituau udaltzainakaitik, bardin igaro zan autoaz aurrera.

– Aditzizenaz darabilgunean, zergaitia edo kausa adierazoten dau batzuetan eta helburu edo xedea beste batzuetan, testuinguruan zelan ulertzen dan:

Abiada bizian etorren autoak harrapau eban, hantxe lekuan geldi egoteagaitik.
Seme-alabakaz egoteagaitik egunero etorten zan etxera bazkaritan.

– Lexikalizaturik darabilgu berba batzuetan, batez be erakusleei lotuta. *Hagaitik / haaitik; beraz, halanda ze, halan bada, ondorioz* lokailuen sinonimoa. *Horregaitik / horraitik, horrai -tino...* lokailu aurkariak gehienetan, *baina, alabaina* lokailuen sinonimoak.

Bilbotarra zara jaiotzaz? Hagaitik Bilbon biziko zara?
Hagaitik, zu bertokoa zara? Ez dot jakin izan.
Zuretzako ona da, ez horraitik guretzat.

Harridurazko perpausetan be agertzen da indargarri lez:

Berari ez jako ezer pasau, horraitino!
Horraitino, ez zeuntsan hori egingo!

Norgaitik kasuaz, gomendatzen ez ditugun erabilera batzuk be azaltzen dira.

*Umeakaitik jakin dot barri ha.	Umeakandik...
↓Askogaitik irabazi eban partidua.	↓Alde handiaz...
↓Gitxigaitik galdu genduan.	↓Alde txikiaz....

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEGAIK	-ORREGAIK	-OKAIK
(honegaitik) andreonegaitik (honegaitik) gizononegaitik	(horregaitik) andreorregaitik (horregaitik) gizonorregaitik	androkaitik gizonokaitik

Honegaitik diruonegaitik *ez dozu gauza askorik topauko.*
 Horregaitik kontuorregaitik *azkenean kartzelara eroan eben.*
 Honeekaitik euriokaitik *ortuan oindino lurra legor dago.*

6.2.8. NOGAZ: soziatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)GAZ -(r)ekin	-AGAZ -arekin	-AKAZ / -AKIN
andragaz gizonegaz andrarekin gizonekin	andreagaz gizonagaz andrarekin gizonarekin	andrakaz / andrakin gizonakaz / gizonakin

Atzizkion erabilera eremua kontuan hartu behar da. Bizkai mendebaldean *-(e)gaz, -agaz* eta *-akaz* erregulartasunez erabilten dira. Halanda be, Bizkai erdi eta ekialdean pluralean *-akin*

erabilten da berbaz. Deba-Leniz ibarretan, gainera, mugagabeen eta singularrean be *-(r)ekin* gero eta zabalago dabil.

Erabilgune nagusiak:

– Laguntasuna adierazotean:

Umeak auzoko txakurragaz jolasten dagoz.

Lagunakin haserratu naz.

– Denporea adierazoteko *-agaz batera* egitura erabili leiteke:

Udeagaz batera sikatea etorri da.

Zugaz batera joango naz gero etxera.

– Instrumentua edo kausa adierazotean, *Zerez* kasua be horretarako egon arren, sarri erabilten da: mugagabeen, batez be aurre-determinatzaileaz doanean, singularrean ugariro eta pluralean beti.

Zenbat litrogaz egiten dozuz autoan ehun kilometro?

Erabagiak buruagaz hartu behar dira, ez bihotz hutsagaz.

Makila handiakaz etorri dira geu joten.

Ahalegin egin behar da, halanda be, mugagabe libreetan eta mugatu singularretan balio instrumentalak *-(e)z / -az* atzizkiakaz marketan:

Etxearen hageak zurez eginak dira eta balkoia be oholaz.

Zer egingo dogu jan ez dan ogiaz, oiloai bota?

Badira berba-mota batzuk *–zenbatzaile* zehaztu eta zehaztubakoak, izenordainak, erakusleak eta antzeko hitz-kategoriak – balio instrumentalau adierazoteko beti *-(e)gaz* darabilenak *-(e)z* egin orde:

IA BETI

Bategaz, bigaz, hirugaz...

Askogaz, gitxigaz, hainbestegaz,
hainbategaz, nahikoagaz, batzukaz...

Nigaz, zugaz, gugaz...

Nogaz, zegaz, zeinegaz...

Inogaz, ezegaz...

Honegaz, horregaz, hagaz...

INOIZ EZ EDO NEKEZ

Batez, biz, hiruz...

Askoz, gitxiz, hainbestez,
hainbatez, nahikoz, batzuez...

Niz, zuz, guz...

Nozaz, zezaz, zeinezaz...

Inozaz, ezezaz...

Honez, horrez, harez...(1)

Bost milagaz nahikoa dozue? Horregaz ez goaz inora.

Zurezko koilara bategaz eragin behar jako salda horri.

Egur handi bategaz apurtu eben atea.

(1) Halakoetan instrumentalak esapide egin berezietan gordeten da:

Batez be, batez beste...

Askoz / askozaz handiagoa...

Guzaz ostean...

Honezaz gainera...

Batzuez aparte...

Dana dala, sarritan *Nogaz* eta *Zerez* kasuak nahastau edo bardindu egiten dira. Gramatika batzordearen eretxiz be, batzuetan *-(e)gaz* eta *-(e)z* parekotzat hartu daitezke; biak dira zuzenak eta onargarriak. Gainera, oso ugaria da *-akaz* atzizki pluralak balio instrumentalaz. Izan be, kasu instrumentaleko *-ez* ez da ezaguna Euskal Herriko erdi eta mendebaldean. Halan ba, *-(e)z*, *-az* eta *-akaz* atzizkien bizikidetzak ondoko eskeman ikusi leiteke:

	MUG.	MUG. SG.	MUG. PL.
	-(E)Z	-AZ	-AKAZ
ESKU	Eskuz jo	Eskuaz jo	Eskuakaz jaurti
OIN	Oinez etorri	Oinaz jo	Oinakaz jo
BEGI	Begiz jo	Eskumako begiaz...	Begiakaz adierazo

Jatorriz eta oinarrian, baina, *Nogaz* kasuaz laguntasuna adierazoten da eta *Zerez* kasuaz bitartekotasuna, bidea, tresna, zeozer egiteko erabilten dana. Eredu jasoan, bada, zentzu-banake-ta horri segitzen ahaleginduko gara.

↓Ezpateagaz *zauritu eben.*

↑Ezpateaz...

↓Paleagaz *barik eskuagaz jokatu genduan.*

↑Paleaz *barik eskuaz...*

Beste batzuetan, batez be ahoz, laburtze fonetikoek eragindako hutsak egiten dira, hau da, *Nogaz* kasuko *-agaz* (= *-arekin* batuz) eta *Zerez* kasuko *-az* nahastau egiten dira; batzuek sozietiboa dana instrumentaltzat hartzen dabe. Halan:

*Lagunaz *joan zan Gasteizko jaietara.*

Lagunagaz...

*Amaz *ikusi dot etorten...*

Amagaz...

*Alabeaz *etorri da...*

Alabeagaz...

Bestelako hutsak be egiten dira kasu hau dala eta ez dala. Txarto egitearen arrazoietakoa bat gaztelaniazko itzulpenetan “con” preposizioaren kasuan kasuko balioak eta esangurak ez bereiztea izan leiteke.

*Eskuakaz *poltsikoetan kalean gora joian.*

Eskuak poltsikoetan zituala kalean gora joian.

*Kotxe barriagaz *eta danagaz etorri jaku.*

Kotxe barri eta guzti etorri jaku.

*Gai honegaz *amaitzeko...*

Gai honi amaiera emoteko...

↓Nire soldateagaz *ezin leiteke ezer egin.*

↑Nire soldateak *ez dau askotara -ko emoten.*

-GAZKO(A) atzizki bikotxa:

Esapide batzuetan *-gazko(a)* forma erabilten da. Batzuetan izen edo izen-multzo baten aurrean: *Naturagazko gure jokabidea ez da guztiz egokia.*

Umeagazko hartuemonan aldatu behar dozu, eta ez izan hain zorrotza.

“ezteutsue galarazoko eriotzako orduan *Jangoikoagazko* gauzaak ondo egiteko ain bearra izango dozuen denporea” (J.M. Zabala)

“Eta neskaitilla serbitzarija jausi bada bein bakarrik *korputzagazko* pekatuban etxe-ko Ugazaba edo Semiaz, urten biar ete dau etxe atati?” (J.A.Mogel)

Izenordain eta erakusleakaz erabilten da sarrien: *zugazkoa, hagazkoa...*, “lo relacionado con”, “lo concerniente a” adierazoteko batez be:

Beste guztiakaz egin ditu bakeak; gugazkoak egin barik ditu oindino.

Horregazko tratuak neuri itxi, zuek arduratu dirulaguntzak eskatzeaz.

Izenakaz be erabilia da horraitino:

“Zinuen bidian, gurago zitubela euren etxeetako porrubak Erregeren erregalubak baño, euren taberneetako edan ta konbersazinuak, *Erregegazkuak* baño” (J.A. Mogel)

Esakera batzuetan, haserratu eta ostean hartuemonan hausi egin dala adierazoteko:

Nigazkoak egin dituu!

Hagazkoak egin dodaz!

Norberaren buruaz gogaituta, *buruaz beste egin* adierazoteko:
Bere buruagazkoa *egiten joiala pentsau zeitekean*.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEGAZ	-ORREGAZ	-OKAZ -OKIN
(honegaz) andreonegaz (honegaz) gizononegaz	(horregaz) andreorregaz (horregaz) gizonorregaz	androkaz gizonokaz androkin gizonokin

Honegaz alkateonegaz *ezin da fiau*.
Horregaz txakurorregaz *kontuz ibili behar ei da*.
Zuokaz *ez dago zer eginik!*
Gure mutilokaz *ezin da inora joan*.
Herriko agureokaz *ez daukagu aspaldion bakerik*.

6.2.9. ZEREZ: instrumentala

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)Z	-AZ	-EZ
andraz gizonez	andreaz gizonaz	andrez gizonez

Zerez kasuak erabilera mugatua dau euskeraz, eta oindino estuagoa bizkai euskeran. *-(e)z* mugagabea da gehien erabilten dana, eta berau arrazoi nagusiategaitik: izenak adberbio bihurtzeko dauen erraztasuna: *eskuaz, oinez, itsasoz, bide batez, kontuz, arduraz, buruz, denporaz...*
Honek euskeraz erderaz baino hobeto egiten dau, ahoz behintzat.

Kasu honek forma bi daukatz: bata oinarritzkoa, *Zerez* eta bestea eratorria, *Zertaz / Zezaz*. Ondorioz, marka bi daukaguz: *-(e)z* eta *-zaz (/ -taz)*. Kasu gehienetan *-(e)z* erabilten da, baina pertsona-izenorde, erakusle, galdetzaila eta zenbatzaileakaz *-zaz (/ -taz)* atzizkia azaltzen da sarri, baina ez beti: *nizaz, zuzaz, berazaz..., honezaz, horrezaz, hazaz..., zezaz, zeozertaz, edo -zertaz..., askozaz...,* baina ez bestelako elementuakaz.

*Lagunetaz *txarto esaka dabilz*.

Lagunez...

*Nereataz *maiteminduta dago*.

Nereaz (Nereagaz)...

Erabilgune nagusiak:

– Tresna edo bitartekoa adierazotean:

Ezkerreko eskuaz gogor jo dau..., baina txapapera!

Platerak ur beroaz garbitu ditu.

Lumeaz idaztea gustetan jako.

Zauria alkoholaz erre behar da osatu baino lehen.

Mailuaz jo eta txiki-txiki egiten da.

Lur hezoa atxurraz erraz iraultzen da.

– Materia edo gaia adierazotean:

Eiffel torrea burdinaz eginda dago.

Etxe osoa baltzez margotu dau.
Algodoiz eginiko jertsea erosi deust.
Ardaoa mahatsaz egiten da.

– Modua adierazotean:

Umea negarrez dago kuman.
Borondatez ez eben lortu eta azkenean indarrez sartu ziran.
Bihotzez maite eban.
Buruz jokatu dau.
Pena handiz itxi eban jaioterria.
Umore onez hartu zituan bisitariak.
Minez eta atsekabez egoan, ohetik jagi ezinik.
Pazientziatz eta pitinka-pitinka helduko gara behar dan lekura.
Gogo itzelaz jokatu eben eta azkenean irabazi.

– Lekua adierazotean:

Itsasoz eta lehorrez eraso eutseen armarik onenakaz.
Mendiz mendi ibili gara asteburuan.

– Denporea adierazotean:

Goizez. Egunez. Gauez. Sasoiz. Denporaz. Astiz.
Bankua arratsaldez itxita egongo da udan.
Gaurkoz. Oraingoz. Lehenengoz. Azkenengoz.
Astelahenez. Eguaztenez. Jaiegunez. Astegunez.
Erregen egunez. Gabon egunez. Pazko egunez. Done Jakue egunez.
Pazko maiatzeko konbidetan ebezan senitartekoak bazkaritan.
Mendez mende. Gizaldiz gizaldi. Urtez urte.

– Kausa edo zergaitia adierazotean:

Ikarearen ikareaz behearen gainera jausi zan.
Sartu gura ezik egoan, aldean eukan bildurraz.

– Gaztelaniatzko “natural de” eta antzeko egitura batzuetan:

Jaiotzaz, eleizaz, izatez, herriz...

– Aditz batzuk *-(e)z* atzizkiagazko berebiziko erakarmena dabe:

- a) ahaztu, gogoratu, akordau, konturatu, ohartu, kontu izan...
- b) bete, asetu, hornidu, estaldu...
- c) jo, katigatu, lotu...
- d) damutu, garbatu...
- e) egin, osotu, gorpuztu, mamindu...
- f) zigortu, kastigau, zematu, mehatxatu...
- g) harritu, zurtu, poztu...

Kontu honezaz neu arduratuko naz, trankil egon.
Istripua euki ebanetik ez da aurrekoaz akordetan.
Politikaz jardun dogu.
Berandu konturatu zan horrezaz.
Norberaren lagunaz ez da ezer txarrik esan behar, ezta arerioaz be.

– *Zerez* + bete / beterik:

Negar-anpuz bete jakoz begiak.

Taberna zulo hau mozkorrez beteta dago.
Diruz, penaz, gorrotoz, sagarrez... beterik.

– Garraibideakaz, ezezaguna bada edo zehatz zein dan jakin ezean, *Zerez* kasua erabilten da eta ez *Non*, baina garraibidea ezaguna eta jakina bada *-(e)an* edota *-az* era mugatuak erabili daitezke.

↓Kotxean *joan naz Bilbora.*

↑Kotxez *joan naz Bilbora.*

Nebearen kotxean...

Nebearen kotxeaz...

↓Autobusean *etorri da.*

↑Autobusez *etorri da.*

Bostetako autobusean *etorri da.*

– Denporea modu generikoan: *goizez, egunez, gauetz, arratsaldez, egun argiz, sasoz, denpo-raz...* Baina: *gaur goizean, atzo gauean, bihar arratsaldean...*

**Lehengo astelehen goizez ikusi eben* *Astelehen goizean...*
azkenekoz.

**Pasa dan barikuz heltzekoa zan.* *Pasa dan barikuan...*

**Hurrengo gauetz barrero azaldu ziran.* *Hurrengo gauean...*

– Atze-hitz batzuk kasu honegaz sarri erabilten dira. Esamodu batzuk holan eginak dira: *ahoz gora, hankaz gora, ipurdiz gora, musturrez aurrera, atzekoz aurrera, buruz behera, gogoz kontra, hazaz ostein, horrezaz gainera, tutuz eperdi...*

Baina formula eginetatik kanpora *-(e)z* eta atzekariokaz esaldi libreak be bardin egin leitezke:

Pentsautakoaz bestera. Erabagitakoaz kontra. Esanikoaz gainera. Ikusitakoaz ostein.

Egin danez gero. Ikusiaz gero.

Errekeaz beste aldean/-ra.

Mugaz bestaldean.

Neurriaz behetik.

Lau urtez gorakoak.

Osasunaz gainera, *zer gehiago eskatzen deusazu bizitzari?*

Lapurreteaz ostein, *etxean eginiko kalteak be ez dira makalak izan.*

– Esakera modu bitan, batez be:

a) Aurrez aurre, bidez bide, erdiz erdi, kalez kale, pausuz pausu...

b) Pozaren pozaz, minaren minaz, barrearen barreaz, haserrearen haserreaz...

-(E)ZKO atizki bikotxa:

Gutziz da ugaria, beste kasuetako atizki-bikotxak baino askoz gehiago.

Dana dala, *-(e)z* atizkiaren balio guztiakaz ez dau funtzionatzen *-(e)zko* atizkiak. Berariaz, zerez edo zezaz egina, ze gai edo materialez egina dan adierazoteko balio dau. Dana dala, gai edo materia ez da fisikoa bakarrik izaten; baita hainbakoa be. Hainbestean esan daitezke: *kristalezko, harrizko, plastikozko, zelan esaten diran: pozezko, tristurazko, gogozko, ameseko, putzezko.* Zentzua beti izango da, baina: zerez egina dan.

Egurrezko *ate barrira ipini dogu lehengo zaharra kenduta.*

Txokolatzeko *pastela jan genduan amaren urtebetea ospatzeko.*

Jake narruzkoa. Praka panazkoak. Jertse lanazkoa.

Ama dolorezko, *Birjina maitea...* (erlijino-kantua)

SG. HURBILA		PL. HURBILA
—	—	—

Ez jako mugatzaile hurbilik ezagutzen.

6.2.10. ZERTZAT: prolatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-TZAT	—	—
andratzat gizontzat		

Atzizki bakarra dauka eta, *-(r)ik* partitiboaren antzean, beti mugagabean erabilten da. Esangura aldetik moduzkoen (*lez, bezala...*) antzekoa da.

Kasu hau aditz iragankorraz erabilten da gehien. Sarrien agiri ohi diranetariko batzuk: *euki, hartu, emon, eskeini, ipini, jo, itxi, jo, hautu (aukeratu)*.

Partidua amaitu arte ez da galdutzat emon behar.

Pertsona fintzat daukat neska hori, ez alpertzat.

Lelotzat hartzen gozuz zeure lagunok, ala?

Etxeko zaharrak ez eizueez sorkitzat hartu.

Esan ebana egiatzat jo genduan.

Buruzagi zaharrak bere semea itxi eban oinordekotzat.

Aditz iragangaitzak gitxi erabilten dira *-tzat* atzizkiaz eta zabalena dabilena *egon* da.

Bizar zuridun hori jakitun handitzat dago hemengo jentearen artean.

Urlia laguntzat dago herri guztian.

Balio bat baino gehiago adierazoten dira *-tzat* atzizkiaz:

– Gehienetan norbait edo zerbait zelakoa edo halakoa dalako uste edo auresuposizinoa:

Gaztetzat dauka bere burua. (= Gaztea dala uste dau)

Umetzat hartu gaitue. (= Umeak ginala pentsau dabe)

– Gitxiagotan helburu, xede edo asmoa adierazoten dau:

Dan-danak ez dira onak adiskidetzat. (= Adiskide izateko)

Eskubete intxaur emon eutsien saritzat.

Itsuk ez dau itsurik gura bidelaguntzat.

– Batzuetan *-(r)en ordez, -(r)en truke* zentzuaz:

Ardi zaharraren okelea ipini deuskue bildoskitzat.

– Esapide jakin batzuetan oso erabilia da: *aintzat hartu, ontzat / txartzat euki, askotzat / gitxitzat euki, ezertzat hartu, amaitutzat / hasitzat emon*, e.a.

Lagunen berbak aintzat hartu eizuz, sikan be!

Aditz batzuek (*euki, hartu...*) *Zertzat / Nortzat* eta *Zer / Nor* kasuak erabilteko aukera biko-txa emoten dabe, esangura ezberdinak bada be.

Irakasletzat *hartu nabe.*

(= irakaslea nazala pentsau dabe)

Irakasle *hartu nabe.*

(= irakasle-lana egiteko hartu nabe)

Batzuetan, ostera, *Zertzat / Nortzat* eta *Zer / Nor* kasuak edota euren balioak nahastuta erabilten dira. Atributua daukien aditz batzuei *Zer / Nor* argumentua jagoke zentzurik oinarrizkoenaz darabilguzanean, ez *Zertzat / Nortzat*.

↓Zuzendaritzat *aukeratu eben.*

↑Zuzendari_ *aukeratu eben.*

↓Lehendakaritzat *izendatu dabe.*

↑Lehendakari_ *izendatu dabe.*

↓Aurten Ane *euki dogu idazkaritzat.*

↑Aurten Ane *euki dogu idazkari_.*

SG. HURBILA		PL. HURBILA
—	—	—

Ez dauka mugatzaile hurbilik.

6.2.11. NON: inesiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)TAN	-(E)AN	-ETAN
etxetan lurretan	etxean lurrean	etxeetan lurretan

Erabilgune nagusiak:

– Leku edo tokia adierazoteko, non zer egon edo jazoten dan:

Goian *zerua eta* behean *lurra geratu gara.*

Mendi altuan *edurra, bota surtara egurra.*

Edurra teilatuan, *zakua* lepoan, *ibili beharko dogu aurtengo neguan.*

Zenbat etxetan *bizi ete ziran eurenean baino estuago eta hartuago.*

– Denporea adierazoteko, noiz zer jazoten dan:

Urteetan *bizi izan ziran urik eta argi barik.*

Astelehenean *ezkondu eta*, martitzenean *basora*, eguaztenean *orbela batu*, eguenean *etxera.*

Badakizu zenbat denporan *egon garan zuri itxaroten?*

Lau egunetan *eta* lau gautan *ibili ziran etxerik etxe kantetan eta limosna-eske.*

– Zertan edo ze ekintzatan diharduan:

Beharrean *emon eben gau guztia.*

Umeak pozik dabilz euren saltsan.

Egurretan *dabilz basoan; negurako egurra batzen.*

Maria gurea goruetan, behar ez dan orduetan.

– Egoera adierazoteko, zelan egon edota modua:

Andra zuhurrak onean *eragiten deutsaz gizonari txarrean ezingo leuskiozanak.*

Auzo guztiak bakean *bizi izan ziran luzaroan.*

-(E)N. *Inesibo zaharra.*

Ekintza zentzua adierazoteko gorde da -(e)n inesibo zaharra batez be.

– Izenakaz:

Atxurren (atxurka). Beharren (/ Beharrean). Itaurren (idien aurretik). Lapurren (/ Lapurretan). Nabasen (nabasz lurra goldatzen).
Zaldia lauoinen igaro da erreka hegaletik.

– *Ginen* posposizino edo hitz atzekariaren barruan:

Arrautzaginen. Etxeginen. Gerraginen. Txizaginen.
Txorizoginen *ibili ginan San Martinetan.*

– *Bider* hitzaz leku batzuetan:

Lau biderren (/ Lau bider / Lau biderrez)
Bi biderren *egin behar izan dogu eskabidea.*

– Aditzizenakaz:

Galtzen. Saltzen. Sartzen.
Athletic irabazten ipini dot kinielan.

– Toki-adberbio batzukaz: *han, hemen.*

Gaur egun, inesibo zaharra goiko kontestuetarik kanpo nekez erabilten da. Atzizki arauzkoakaz baliatzen gara bestelakoetan.

Gaupasa eginda egoanez, goiz erdian lotan geratu zan.
Juantxurenean ederto jaten da.
Jausi eta min hartu eban belaunetan.

-(E)TAN mugagabea, izenak aurre-determinatzailezik ez daukan askotan erabilten da. Eta batez be ondoko erabilguneotan:

– Isurkari edo masa baten murgildurik egotea adierazoteko:

Uretan, esnetan, oriotan, ardaotan, urunetan, eztitan...

– Ingurugiroari edo atmosferari lotuta egotea:

Argitan, ilunetan, berotan, hotzetan, epeletan, eguzkitan, gerizpetan, euritan, edurretan, haizetan, lainotan, txingorretan...
Eguzkitan *bero larregi egiten dau gaur, hobeto gagoz gerizpetan.*
Ipini eizu lapiko txikia sutan, su txikian badaezpadan be.

– Zeozeren bila joan, ibili... Bizkai ekialdean eta beste euskalkietan -(E)TARA:

Ogitan, arrautzetan, uretan iturrira, okelatan, arrainetan, gatzetan... (joan, etorri)
Ogitan *urten eban eta gehiago ez zan etxetik agertu.*

– Ekintza batzuk adierazoteko:

Izerditan, adurretan, sutan...

– Zelakotasuna adierazoteko:

Penatan, eztitan...
Etxea sutan dago.
Tximinia ketan dago.

– Ugaritasuna, harridura perpausetan:

Badabil kotxetan!
Badauka dirutan!
Egiten dau hutsetan!

– Tokia adierazoteko, berba batzukaz:

Lekutan *dago!*

Ahotan hartu.
Mezatan dago jentea.

Denpora egitura batzuetan, ahoz atzizkia kentzeko joera badago be, *-(e)an* atzizkia sartzea komeni da.

*Leku bat baino gehiagotan egon da.	Leku baten...
*Itxaron apur(txu) bat, mesedez.	Itxaron apur(txu) baten...
*Bost urte egon zan itxaroten.	Bost urtean...
*Hainbat denpora egon da itxaroten.	Hainbat denporan...
*Astebete ibili da kanpotik.	Astebetean...

-(E)ANGO(A) atzizki bikotxa:

– Denpora eremuan erabiltzen da batez be, denpora-izen horrek (eguna, astea, urtea) aditzen emoten dauen aldiaren ohitasuna edo orotasuna adierazoteko. Esapide finkatu ezagunena *egunean eguneangoa* da, “Aita gure” zaharrea erabiltzen zana. *Hemengo, hango, aurtengo* adberbioetan be gorde da egitura hori. Deba ibarreko euskeran oindino bizirik dago:

Emoiguzu egunean eguneango ogia.

Urtean urteango *usadioa galdu ez dedin, kantauko doguz aurten Gabon kantak.*

“auzo guztiak dagoz ikaraturik ango *eguneango* aserreakaz” (J.M. Zabala)

“ta gozatu oi dira ainbat sarrijeen gero obato izateko ustian, gomunta onegaz arinduten ditubeela *artiang*o neke edo penaak” (J.J. Mogel)

– Denpora eremukoak ez diran zentzuakaz be noiz edo behin erabiltzen da:

“ta ez dabela *ostiangorik* ezagutuko beretzat” (J.J. Mogel)

-(R)ENEAN atzizki bikotxa:

Noren etxean adierazoteko erabiltzen da, eta horregaitik garbiri bereizten da bizidunakazko *-agan* atzizkitik. Toki-denporazko kasu guztietan erabili leiteke:

Medikuarenean. Medikuaenetik. Medikuaenera. Medikuaeneko.

Pertsona-izenordainakaz, pluralekoakaz, eta erakusleakaz be ugaria izan ohi da:

Gurean. Guretik. Gurera. Gureko.

Zuenean. Zuenetik. Zuenera. Zueneko.

Harenean. Harenetik. Harenera. Hareneko.

Honeenean. Honeenetik. Honeenera. Honeeneko.

Atzizki bikotx honeguz eregiak dira hainbat etxe-izen:

Matiene. Sakristaue. Errementariene. Morgakoene.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONETAN	-ORRETAN	-OTAN
-on		
(honetan) etxeonetan (honetan) lurronetan (hemen) etxeon	(horretan) etxeorretan (horretan) lurrorretan	etxeotan lurrotan

-ON. Singular hurbila.

Berba jakin batzukaz erabiltzen da batez be; banaka batzuetan leku zentzuaz, eta sarriago denpora balioaz: *hemen etxeon, gaueon (gabeon > gabion), hileon, asteon...*

- Lekua adierazotean:
Nor galdu zan hemen mendion?
Etxeon ez ete da inor bizi?
Hemen etxeon ez dago zuztarrik.
- Denporea adierazotean:
Gaur goizeon zure anaia ikusi dot.
Asteon zer egiteko asmoa dozue? (Aste honetan)

6.2.12. NONGO: genitibo leku-denporazkoa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)TAKO	-(E)KO	-ETAKO
etxetako lurretako	etxeko lurreko	etxeetako lurretako

Erabilgune nagusiak:

- Lekua adierazotean, norbait edo zerbait nongoa, zein lekutakoa dan:
Etxeko txakurra. Bizkaiko txakolina. Basoko sagua. Bihotzeko Matxalen.
Hango eta hemengo jentea.
Arrateko zelaiko floridadea!
- Denporea adierazotean, norbait edo zerbait noizkoa edo zein alditakoa dan:
Urteko ardaoa. Eguneko zereginak.
Antxinako legea. Aspaldiko kontuak.
Gaueko beharra goizean agiri.
- Zelakotasuna adierazotean, norbait edo zerbait zelakoa edo ze modutakoa dan:
Ganorazko pertsona. Negargarrizko eguraldia. Ustezko egilea.
Zelako autoa! Halako beharrik! Behar dan modukoa.
Ustebako heriotzea. Benetako istorioa.
- Ekintza bati jagokonean, zeozertan jardutea izen bati lotzen deusagunean:
Brometako kontua. Indarkako norgehiagoka. Arrainetako pasadizuak.
- Zer zein dan adierazoteko be erabilten da batzuetan:
Londresko ziudadea. Markinako uria. Zaldibarko herria.
Andra Mariko eleizea. Gorbeiako mendia. Altubeko mendatea.
Gaboneko eguna. Asentsioko jaia.

Ez da ahaztu behar, bada, *Nongo* kasuak, nongotasunaz eta noizkotasunaz ostean, sarriro adierazoten dituala nolakotasuna (zeozer zelakoa dan) eta zenbatekotasuna (zeozerk zenbaterako adina, epea, neurria, pisua, prezioa... dauen).

-(E)KO jabe izatea adierazoteko:

Goian azaldu ditugun balioez gainera, *-(e)ko* atzizkia, *-dun* atzizkia adierazo ohi dogun balio antzekoa erakutsi geinke honako kontestuetan:

– Izena adjektiboaz lagundurik doanean:

Balio handiko *harribitxia*.

Sasoi oneko *mutila*.

– Izena zenbatzailez edo aurre-determinatzailez lagundurik doanean:

Hiru hortzeko *goldea*.

Oin biko *txakurrak*.

Sagar askoko *arbolea*.

Zortzi gizoneko *korua*.

– Baita pluralean doan batzuetan be:

Koloreetako *painelua*.

Halakoetan izen bizidunakaz be erabili leiteke atzizkia:

Hiru abadeko *mezea* (meza diakonatua).

Bi ugazabako *etxea, kaltea*. (errefraua)

-(E)KO kontestu mugagabeen:

Denpora eta neurri kontzeptuakaz loturik dago -(e)tako / -(e)ko atzizki mugagabe-mugatuen arteko nahastea. Oinarrian galdetzaileraren bat (*zein, zenbat...*) dagoanean eta *nongo* itaunari erantzuten jakonean -(e)tako erabilten da, eta hutsik barik tokitasun, nolakotasun eta ekintza zentzuak azpian datzazanean.

Baina zeozerk zenbateko denpora, adina edo neurria dauen adierazoten danean eta *zelako* itaunari erantzuten jakonean -(e)ko erabili behar da.

*Zazpi egunetako *epea emon deuskue*.

Zazpi eguneko *epea...*

*Hamazortzi urtetako *mutil bat hil da meningitisak jota*.

Hamazortzi urteko *mutil bat...*

*Ehun kilometrotako *etapea*.

Ehun kilometroko *etapea*.

Baina, ostera:

*Ze baserrikoa *zara zu?*

Ze baserritakoa...

*Zenbat alderdiko *politikoak batu dira?*

Zenbat alderditako *politikoak...*

*Hamar herrialdeko *tailerrak itxi ditue*.

Hamar herrialdetako *tailerrak...*

*Zein programako *edukia?*

Zein programatako *edukia?*

Zelan bereizi -(e)tako / -(e)ko zenbatzaileakaz:

a) Zenbat bider adierazoteko: -(e)tako, -(e)tan...

b) Denpora-unidade bakartzat hartzen dauenean: -(e)ko, -(e)an...

Lau astetan *hutsik egin barik etorri da*. (Kurtso osoan lau aste)

Lau astean *ez dot ikusi*. (Oin dala lau asterik hona)

Halanda be, batzuetan esangurearen arabera, aukera biak dagoz.

Lau hileko *bidaiak*.

(Bidaiak lau hile iraun dau)

Lau hiletako *bidaiak*.

(Lau hile emon ditu bidaiak egiten)

Hiru urteko *koadrúa*.

(Hiru urte daukazan koadrua)

Hiru urtetako *koadrúak*.

(Hiru urtean egindako koadruak)

Leku-izen bereziei jagokenez, kontsonantez amaitzen diranek bi forma hartu lekiez: *-ko* eta *-eko*.

-ko / -eko: Eibarko / Eibarreko, Londresko / Londreseko...

Baina *-l* edo *-n* amaieradun izenek *-eko* edo *-go* egin lekie.

-eko / -go: Errezileko / Errezilgo, Andoaineko / Andoaingo, Iruneko / Irungo...

Horrezaz aparte, *-tz* amaieradun izenek, *-ko* hartukeran, galdu egiten dabe *-t*.

Zarautzeko	edo	Zarauzko
Izarraitzeko	edo	Izarraizko

Era berean, kasu hau ikustean gogoan hartu behar da hitz batzuek aldaera bi daukiezala: *azke -neko / azkenengo, eguneko / egungo*... biak be erabilgarriak.

-(R)EN eta -(E)KO atzizkien bereizpidea:

Batzuetan *Nongo* eta *Noren* kasuen erabileren artean zalantzak sortzen jakuz. Oinarrian ahaztu behar ez dana da:

-(r)en: norbait edo zerbaiten jabe edo eukitzaile dala adierazoten dau gitxi-asko.

-(e)ko: norbait edo zerbait nongo, noizko edo zelakoa dan adierazoten dau gitxi-asko.

Herriko *plazan alkartuko gara*.

Etxeko geletako hormetako *kolorea ez da guztiz zuria*.

Juan Marik eta Joanak 10 urteko aldea daukie.

Laster hasiko da Euskal Ligako lehenengo estropadea.

Zuzenbideak:

Batzuetan *Nongo* kasua oker erabilten da *Noren* kasuaren lekuan.

*Pelikulako *amaiera tristea da*.

Pelikulearen...

**Kamino* honetako *luzera 20 km da*.

Kamino honen...

*Ureko *temperatura 19 gradukoa da*.

Uraren *temperatura*...

*Itsasoko *zabalera*.

Itsasoaren *zabalera*.

*Euskerako *atzerapena handia da*.

Euskeraren...

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONETAKO	-ORRETAKO	-OTAKO
(honetako) etxeonetako	(horretako) etxeorretako	etxeotako
(hemengo) lurronetako	(horko) lurrorretako	lurrotako

Hemengo etxeonetako *familiagaz batu nintzan zapatuan*.

Horreetako mendiotako *hatxak benetan be ikusgarriak dira*.

Lurrorretako *sasitzea ebagi beharko neuke*.

6.2.13. NONDIK: ablatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)TATIK -(e)tarik	-(E)TIK -(e)rik	-ETATIK -etarik
etxetatik lurretatik etxetarik lurretarik	etxetik lurretik etxerik lurrerik	etxeetatik lurretatik etxeetarik lurretarik

Mendebaldeko tradizioan hiru atzizki erabili izan dira: *-(e)tik*, *-(e)rik* eta *-(e)ti*. Gaur egungo *-(e)tik* atzizkiaren lekuan, eta batez be tradizio idatzian, *-(e)ti* erabili izan da. Idatzizko testuetarako *-(e)tik* eta *-(e)rik* erabiliko dira, batari erabilgune orokorra eskeinirik eta bigarrenari mugatuagoa.

Izan be, Bizkaiko herri askotan zentzuaren arloan banaketa egiten da bata eta bestearen artean. Halanda be, beste herri askotan *-(e)tik* baino ez da erabilten kasu bietan.

– *-(e)tik* leku alorrean:

Olentzero nondik sartzen ete da etxeetara?

Mezatatik urten eta ostean pintxo batzuk jaten joan ginan.

– *-(e)rik* denpora alorrean:

Mokokaldi latza izan genduan eta ordurik hona haserre gagoz.

Sei hilerik behin etxeratzen zan marinela.

Urterik urtera gauzak txarrago dagoz herrian.

Aste birik behin mendirik mendi ibiltzen gara.

– Beste zentzu-eremu batzuetan be erabilten da *-(e)tik* atzizkia: ekintza, e.a.

Beharretik etxera etorrela ikusi eben igaroten.

Esapide fosilizatu batzuetan nahikoa orokorra da *-(e)rik* leku alorrean be erabiltea.

Mendirik mendi ibili ginan.

Etxerik etxe dirua eskatzen ibili ziran.

Mutil hau bururik eginda dago. (-(e)tik be bai)

-(E)TARIKO / -ETARIKO atzizki bikotx partitibo zentzukoak:

Atzizki honek balio partitiboa dauenean honen eratorri bat sortzen da, *-(e)tariko / -etariko* itxuraduna, batzuetan mugatzaileaz erabilirik eta beste batzuetan izen bati aurrean ipinten deusagula.

Mendizaleetariko bi laban eginda trokara jausi ziran.

Sagar gorrietarikoak baino ez ditut gura.

Zeintzuk dozuz guren: honetarikoak ala hatarikoak?

Zuetariko batzuk ezagunak zaituet lehenagotik be.

-(E)TIKO atzizki bikotx jatorri zentzukoak:

Asko ez baina berba-modu batzukaz polito erabilten da oindino, batez be jatorri edo etorki zentzua gehiago markau gura danean, bai toki eremuan, bai denpora eremuan: *nondiko* eta *noiztiko*.

– Toki eremuan:
Nondikoa. Handikoa. Hortikoa. Hemendikoa. Urrundikoa.

– Denpora eremuan:
Noztikoa? Goizetikoa.

Nondikoa *dakazu zeure emaztea? Frantzia partekoa, bai ama neurea.* (balada)
Nongoa da hori? Bermeo edo hortikoa uste dot.
 Urrundikoak *dirala pentsau eta subertau leiteke bertakoak izatea.*
Hori ez da horkoa, hori handikoa da.
 Frantsesetiko *itzulpen onak egiten dira euskerara.*
Askok ez dabez aintzat hartu gura erderatiko berbak.
 Noiztiko *kontuak dira horreek baina!*
 Jaiotzatiko *gaixoa dauka umeak.*

Leku-izen bereziakaz atzizki ezbardinak erabilten dira. Bokalez amaitzen diran izenakaz ez dago arazorik, danak be *-tik* hartzen dabe (Bilbotik, Markinatik...). Kontsonantez amaitzen diranak, ostera, bi forma hartu lekiez: *-tik* eta *-etik*.

-tik / -etik: Gasteiztik / Gasteizetik, Lemoiztik / Lemoizetik, Paristik / Parisetik...

Halanda be, *-l* edo *-n* amaieradun izenek *-etik* edo *-dik* egin lekie.

-etik / -dik: Madriletik / Madrildik, Brasiletik / Brasildik, Irunetik / Irundik...

Horrezaz gainera, *-tz* amaieradun izenek, *-tik* hartukeran, galdu egiten dabe *-t*.

Zarautzetik edo Zarauztik
 Izarraitzetik edo Izarraiztik

Batzuetan, gaztelaniaren eraginez, *Nondik* kasua gehiegi erabilten dogu *Non* kasua hobeto legoken lekuan.

↓Hortik kanpotik *dabilz umeak.*

↓*Lehen*, kaletik *ikusit zaitut.*

↓*Mertxe* Pekinetik *dabil.*

↑Hor kanpoan *dabilz umeak.*

↑*Lehen*, kalean zehar *ikusit zaitut.*

↑*Mertxe* Pekin aldean *dabil.*

Modu berean, gitxi gorabeherako lekua adierazoteko be *Nondik* erabilten da. Holakoetan be jatorragoa da *Non* jartea (*nonon* aditzondoagaz lagunduta).

↓Hemendik *egongo da.*

↓Hortik *ibiliko da.*

↑Hemen nonon *egongo da.*

↑Hemen *egongo da.*

↑Hor nonon *ibiliko da.*

↑Hor nonbaiten *ibiliko da.*

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONETATIK -onetarik	-ORRETATIK -orretarik	-OTATIK -otarik
(honetatik) etxeonetatik (honetatik) lurronetatik (honetarik) etxeonetarik (hemendik) lurronetarik	(horretatik) etxeorretatik (horretatik) lurrorretatik (horretarik) etxeorretarik (hortik) lurrorretarik	etxeotatik lurrotatik etxeotarik lurrotarik

Honetatik bidegurutzeeonetatik *lehenago be pasau garala uste dot.*
 Askok hortik herriorretatik *kanpora joan gurako leukie.*
 Mendiotarik *Bizkai guztia ikusten da.*

6.2.14. NORA: adlatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)TARA	-(E)RA	-ETARA
etxetara lurretara	etxera lurrera	etxeetara lurretara

Erabilgune nagusiak:

– Lekua adierazotean, gehienetan norabidea marketan dauela:

Etorri hona, baina atoa!

Hankea apurtu ebanean ospitalera altzau eben.

Ertzainetara joan behar izan eban bortxaketa salatzen.

– Denporea adierazotean:

Dendak lauretatik zortziretara egongo dira zabalik arratsaldean.

Goizetik gauera guztiz aldatu zan bere jarrera.

Egunetik egunera ederrago zagoz!

– Bada egitura bat, *-(e)ra + izan* ereduakoa, nonora joan edo heltzeko mogimentua adierazoten dauena:

Etxera ziranean, afari eder bat atondu eben.

Etxera behar dozu, andra Milia Lasturko.

Egitura mugagabeak ondo bereiztu behar dira.

*Ze tabernara joaten zara normalean?

Ze tabernatara...

*Zenbat etxera joan zara?

Zenbat etxetara...

Leku-izenei jagokenez, kontsonantez amaitzen diranakaz bizkaieraz *-era* erabilten da beti, nahiz eta batuz *-a* be entzun.

-era: Aoizera, Gorlizera, Pekinera, Belenera, Zarautzera...

Badira esapide batzuk, batez be jolasakaz zerikusia dabenak, sarritan oker erabilten diranak. Halakoak, normalean, *Non* edota *Zerez* kasua eskatzen dabe.

*Futbolera jokatuko dabe iluntzean.

Futboleant...

*Zer, musera egingo dogu, ala?

... museant...

*Palara ala eskura jokatuko dogu?

Palaz ala eskuz...

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONETARA	-ORRETARA	-OTARA
(honetara) etxeonetara (hona) lurreonetara	(horretara) etxeorretara (horra) lurreorretara	etxeotara lurreotara

Oraindino akorduan daukat hona herrionetara etorri ginan lehen eguna.

Horra etxeorretara joango gara biziten laster.

6.2.15. NORAKO: adlatibo destinatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)TARAKO -(e)tako	-(E)RAKO -(e)ko	-ETARAKO -etako
etxetarako lurretarako horretako	etxerako lurrerako biharko	etxeetarako lurretarako zazpiretako

Erabilgune nagusiak:

– Lekua adierazotean:

Alfonbra honeek zure etxerako egokiak dira.

Dendarako lagun bila dabil.

Hartu eizu txapela bururako, gaur eguzkiak gogor joten dau-eta.

– Denporea adierazotean:

Oporretan gengoanean, autoa alokatu genduan aste osorako.

Noizko amaitu behar dozu beharrori? Biharko, bihar goizerako.

– Helburua adierazotean, zertarako itaunari erantzunez:

Honek paperok zeozertarako (/zeozertako) balio dabe?

Gaurko eguraldia ez dago brometarako!

Lehenago be aitatu dogun moduan, batzuetan *Norako* eta *Norentzat* ez dira ondo bereizten eta, horren ondorioz, erabilera desegokiak sortzen dira.

↓ *Bitamina larregi hartzea ez ei da ona* ↑... *ez ei da ona* gorputzerako.
gorputzarentzat.

↓ *Irakasle hau izango litzateke egokiena* ↑... eskolarako.
eskolearentzat.

Bestalde, egitura mugagabeak ondo bereiztu behar dira:

Ze ordutarako etorriko zara? Hamaiketarako (/ hamaiketako).

Ze beharretarako zan eskeintza hori?

**Hiru ezkontzarako gonbita hartu dot.* Hiru ezkontzatarako...

Halanda be, denpora-epea, luzera-neurria eta antzeko unidadeetarako darabilguzanean zenbakiak edo beste zenbatzaileak, mugatua erabilten dogu:

Zenbat denporarako etorri da? Aste birako etorri da.

Depositua bete ezker, nahikoa dot 500 kilometrorako.

Oraindino asko falta jaku miloa bat eurorako.

-(E)RAKO IZAN:

Esapide honek nora joango zentzua dau oinarrian, baina baita zein destinu izan zentzua be.

Autore klasikoen artean gaur baino ezagunagoa zan:

“Norako aiz / pena onetan? / A donde recurrirás en tal conflicto?” (Peñaflorida)

“Norako dira kristinau aldra, aoz baino maite ez zaitubezanak?” (J.A. Mogel)

-(E)KO (/ -(E)RAKO) adizlaguna:

Hitz-kategoria batzukaz eta zentzun-balio batzuetarako *-(e)ko* atzizkia erabilten da *-(e)rako* atzizkiaren lekuan. Ordezkapen hau honeetariko kategorietan jazoten da batez be: adberbio batzuk, izenordainak, erakusleak eta antzeko hitz-motak.

Honako balio-kontestuetan erabilten da batez be:

– Leku eremuan, *norako* itaunari erantzunez:

Honako. Horrako. Harako.

Nahi honako, nahi horrako, ibiltea bada, beti nago ni edonorako.

Baina *-(e)rako* erabiliko da, ostera:

Norako. Etxerako. Kanporako.

– Denpora eremuan, *noizko* itaunari erantzunez:

Nonoizko. Edonoizko. Oraingo. Geroko. Biharko. Etziko. Sekulako. Betiko. Aurtengo.

Baina *-(e)rako* erabiliko da:

Hurrengorako. Datorren urterako. Goizerako. Arratsalderako. Gauerako.

– Denpora eremuan, orduak adierazoteko:

Ordu batetako. Ordu bietako. Lau eta erdietako. Bostetako. Hamarretako.

Seirak lauren gitxiagotako. Zortzirak eta laureneta. Hamabiak bost gitxiagotako.

Zortzirak eta laureneta *bertan egon behar da kontzerturako lekua hartzeko.*

– Ekintza eremuan: *Zertako (/Zetako)* itaunari erantzunez:

Zertako. Edoze(r)tako. Zeoze(r)tako.

Zertako *zenduan diru hori*: ogitako *ala* ardaotako?

Kuadrila gertua, alaia, bipila, edozetakoa.

– Aditzenakaz.

Gai, tresna edo objektu bat zertako dan itanduko balitxaku, erantzun geinke:

Emoteko. Ikusteko. Ibilteko. Jateko. Jokatzeko.

Kontuz perretxiko horreekaz, ez dira jatekoak eta.

-(E)RAKO / -(E)KO adnominala:

Etxerako, mendirako, oherako izen atzizkidunak, batzuetan adizlagunak diran moduan, beste batzuetan izenlagunak izan leitekez. Halan dinogunean: *etxerako beharrak, mendirako asmoa* edota *oherako izarak*.

Nork dauka astegoien baten beharrerako gogorik!

Zenbat balio dau deporterako txandalak?

Halanda be, zertarakoa edo helburu zentzu hau gorde arren, sarritan *-(e)ko* atzizki soila erabilten da *-(e)rako* bikotxaren lekuan. Hori da hizkuntzaren joera eta ontzat emon beharrekoa edozelan be.

Mendiko botak *oparitu deusadaz anaieari*. (Mendirako botak)

Lezamako trenak *puntuetan eta erdietan urteten dau Areatzatik*. (Lezamara doan tren)

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONETARAKO	-ORRETARAKO	-OTARAKO
(honetarako) etxeonetarako (honako) lurreonetarako	(horretarako) etxeorretarako (horrako) lurreorretarako	etxeotarako lurreotarako

Honako beharretarako *berrogei behargin behar ditut*.

Jaiotarako *antolatu dan egitaraua eskasa da*.

6.2.16. NORAINO: adlatibo amaitua

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)TARAINO -(e)tagino	-(E)RAINO -gino	-ETARAINO -ettagino
etxetaraino lurretaraino etxettagino lurrettagino	etxeraino lurreraino etxegino lurragino	etxeetaraino haranetaraino etxeettagino haranettagino

Mendebaldeko tradizioz idatzian *-gino* ugari agertu arren, gaur egun ez da zabalkunde handikoa. Holan, bada, onartuagoa eta erdikoagoa dan *-(e)raino* erabiltea gomendatzen da, beste bat baztertu barik.

Erabilgune nagusiak:

– Lekua adierazotean:

Asko kostau arren, azkenean Oiz puntaraino heldu ginan.

Galdakaogino ez da metroa behingoan ailegauko.

Herriotaraino helduko da autobus zerbitzua laster.

– Denporea adierazotean: *oraindino, gaurgino, egundaino, azkeneraino, amaieraraino, aka -buraino...*

Noizgino egon behar dogu azterketaren emaitzen zain?

Oraindino jente asko kalean bizi da.

Ikerketa horrek azkeneraino heldu behar dau.

– Kantidadea adierazoteko be izan leiteke:

“Parkatuko deusat nire anajeari... zazpi bider gino?” (Añibarro)

-(E)RAINOKO atzizki bikotxa:

Genitiboko *-(e)ko* atzizkiaz izentzen dogunean emendiozko (kopulatibo) balio indartua adierazoten da, gazt. “hasta los...”.

Herri-bazkarian zaharrak, helduak, gazteak eta umeetarainokoak parte hartu eben.

Heriotzeak danak harrapetan ditu: jauntxoak, merkatariak eta pobreetarainoko guztiak.

Sarritan *Noraino*, lekua, eta *Noiz arte*, denporea, nahastau egiten dira eta bereizketa egitea komeni da.

↓Zaragozara arte joan ziran oinez.

↑Zaragozaraino...

↓Mendigoizaleak tontorrera arte heldu dira goizaldean.

↑Mendigoizaleak tontorreraino...

↓Ehungarren orrira arte irakurri dot liburua.

↑Ehungarren orriraino...

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONETARAINO -onettagino	-ORRETARAINO -orrettagino	-OTARAINO -ottagino
(honetaraino) etxeonetaraino (honaino) lurreonetaraino lurreonettagino	(horretaraino) etxeorretaraino (horraino) lurreorretaraino etxeorrettagino	etxeotaraino lurreotaraino

Horraino lautadaorretaraino *heldu ei ziran vikingoak*.
 Horretaraino landotaraino *etorri jakuzan erreka urak*.
 Iturriotaraino *etorten ginan uretan*.

6.2.17. NORANTZ: hurreratze adlatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(E)TARANTZ(a) -(E)TARUNTZ	-(E)RANTZ(a) -(E)RUNTZ	-ETARANTZ(a) -ETARUNTZ
etxetarantz(a) lurretarrantz(a) etxetaruntz lurretarrantz	etxerantz(a) lurrerantz(a) etxeruntz lurreruntz	etxeetarantz(a) lurretarrantz(a) etxeetaruntz lurretarrantz

Forma bitzuk dira ezagunak. Bizkaiera barruan *-(e)rantz* mendebaldekoa da eta *-(e)runtz* ekialdekoa. Mendebaldean, gainera, *-(e)rantza* aldaera be zabal dabil, nahiz idatziz gitxi erabilia izan. Gaur egun, idatzian atzizkirik zabalduena *-(e)rantz* da, baina *-(e)runtz* be aintzat hartzen da, batez be ahoz bizirik dagoan eskualdeetarako.

Norantz hartu behar dot hurrengo bidegurutzean?

Gu, behintzat, oraintxe bertan tabernetaruntz goaz.

Etixerantza joateko ordua dogu.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONETARANTZ(a) -ONETARUNTZ	-ORRETARANTZ(a) -ORRETARUNTZ	-OTARANTZ(a) -OTARUNTZ
(honetarantz) etxeonetarantz(a) (honantz) lurreonetarantz(a) (honuntz) etxeonetaruntz (honuntz) lurreonetaruntz	(horretarrantz) etxeorretarrantz(a) (horrantz) lurreorretarrantz(a) (horruntz) etxeorretaruntz (horruntz) lurreorretaruntz	etxeotarantz(a) lurreotarantz(a) etxeotaruntz lurreotaruntz

Bihar honeetarantz dendotarantz etorriko gara.

Hasi horretarrantz mahaiorretarrantz hurreratsen, mesedez.

6.2.18. NOrenGAN: inesiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(e)GAN	-AGAN	-AKAN -engan
andragan gizonengan	andreagan gizonengan	andrakan gizonakan andregan gizonengan

Izen bizidunakaz eregiten diran *-gan-* hizkidun toki-denpora kasu guztiak *Nor* kasuari loturik egiten dira bizkai euskeran eta mendebaldean oro har, eta ez beste euskalki batzuetan lez *Noren* kasuaren gainean.

Esangura aldetik, *Non* kasuaren parekoa da, baina bizidunakaz erabilirik. Arrazoi horregaitik beragaitik esangura-eremua estuagoa da.

Urduritasuna kontrolatzea ez dago norberagan.

Jainkoagan *sinesten dot*.

Aitita-amamengan *itxi dau seme-alaben ardurea*.

Halan bada, ez da zilegi atzizki hau izen bizibakoakaz erabiltea:

**Neska* baten *ditut begiak*.

Neska bategan *ditut begiak*.

**Hak bere* gogoia ez *dauka* Pilin.

...*ez dauka* Piligan.

Aditz jakin batzukaz eta esapide batzuetan askoz ugariagoa da *Nogan* kasua. Halan:

– *Fedea / esperantzea / itxaropena... euki, ipini, ezarri, izan, egon, sinistu, bizi, ezagutu, itxa-ron, beregan esan, ikusi...*

– *Ni, gu, zu...* lako pertsona-izenordainakaz, edota erakusleakaz: *nigan, zukan, inogan, nor -baitegan, norberagan, honegan, horregan...*

Zuk eskatzen dozuna egitea ez dago nigan, nire gaineko zuzendariagan baino.

Jainkoa gukan eta gu Jainkoagan bizi gaitezana gura leuke Andra Mariak.

Entrenatzaileak uste handiak ipini ditu jokalarrikan hurrengo partidurako.

-(E)GAN eta -(E)TAN / -(E)AN arteko muga:

Kasu batzuetan, bizidun / bizibako muga hausi edo lausotu egiten da atzizkia hautu orduan.

Bizibakoakaz *-(e)gan* nekezago, baina bai, berez bizibako diran izenak bizidun lez erabilten ditugunean: *herri, gizarte, eleiza...* eta halan esan ohi dogu: *herriagan, gizarteagan / gizarte-an...*

Herri horretako alkateak herriagan ipini dau aginpidea.

Ez ei dau eleizeagan sinesten.

Izen bizidunakaz *-(e)tan* mugagabea sarriro agertzen da, baina ez edozein kontestutan, ezpada horretara zentzu-balio jakin batzuk adierazoten diralako. Hara zeintzuk:

– Bizidunak, pluralak diranean, sarri erabilten dira *-etan* atzizkiaz, eta ez derrigorrez *-akan / -engan* dalakoaz. Horretarako moltsotasuna edo kolektibotasuna marketan da:

Gizonetan danerik dago: batzuk onak, beste batzuk txarrak.

Umeetan berbaldunak gustukoago dodaz nik.

Malmuzkeria pertsona edadekoetan ikusiko dozu gehiago gazteetan baino.

Ez daukat konfiantzarik pertsonetan.

Umeetan be, gurasoetan ikusten diran joera antzekoak igarten dira.

– Mugagabe-kontestu batzuetan be *-(e)tan* atzizkia erabilten dogu bizidunakaz. Halan, bizitzako aldiak adierazoten diranean: *mutikotan / neskatotan, umetan / gaztetan / nagusitan...*

Umetan gaitakeria asko egindakoa da.

Mutikotan sarri jokatzen genduan futbolean.

– Zeren edo noren bila edo atzetik ibiltearen zentzua: *-(e)tan* (ibili) = *-(r)en* bila:

Andratan ibiltea lartxu gustetan jake.

Besigutan urten dabe itxasora.

Oilagorretan / Basurdetan joan dira eskopetak hartuta.

– Kopuru handia adierazoteko harridura kontestueta:

Badabil jentetan kalean!

Udalekuetan ikusten da umetan!

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEGAN	-ORREGAN	-OKAN -ongan
(honegan) andreonegan (honegan) gizononegan	(horregan) andreorregan (horregan) gizonorregan	androkan gizonokan androngan gizonongan

Orain, kasuaren ardurea aitatu deitsudan epaileonegan dago.

Esperantzea dogu horregan medikuorregan.

Zuokan laguntasuna beti aurkitu dot momentu latzetan.

Sarri esan ohi da gizartearen etorkizuna gazteongan dagoala.

6.2.19. NOrenGANDIK: ablatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(e)GANDIK	-AGANDIK	-AKANDIK -engandik
andragandik gizonegandik	andreagandik gizonagandik	andrakandik gizonakandik andregandik gizonengandik

Nondik kasuaren parekoa da, baina hau, ostera, bizidunakaz darabilgu.

Askogandik hartu genduzan erantzun txarrak.

Emazteagandik banandu zan orain dala bost bat urte.

Guk geureakandik lortzen dogu behar doguna.

Bizidunak eta bizibakoak, pertsonak eta lekuak, ondo bereiztu behar dira.

*Medikutik *nator*.

Medikuagandik *nator*.

Medikuarenetik *nator*.

Medikuaren kontsultatik *nator*.

*Aholku onak hartu ditut psikologotik.

... psikologoagandik.

Halanda be, goian esan dogun lez, kontestu berezi batzuetan muga hori hausi egiten da (*alka - rregandik, pertsonatik, zalditik...*).

Ez ziran ondo konpontzen eta azkenean alkarregandik banandu dira.

Pertsonatik pertsonara gauzak asko aldatzen dira.

Zalditik astora etorri eta harexegaz konformau behar.

Txapelketa amaitu ostean, zaldi ganetik jausi eta hankea apurtu eban.

Aditz jakin batzukazko erakarmena erakusten dau:

- Apartau, banandu, bereizi
Onak txarrakandik bereizi eizuz.
- Aldendu, urrundu, joan
Lagun hurrenekoakandik aldendu eta Ameriketara joan zan.
Hemengo jenteagandik betiko urrundu zan.
- Hartu, jaso
Oneretxi handia jaso dau ugazabagandik.
- Etorri
Jainkoagandik datorren damu egiazkoa.
Nogandik jatorko hain berbaldun izatea?
- Euki
Gurasoakandik dauka mendirako jokerea.

-(E)GANDIKO kasu bikotxa:

Jatorri edo etorkia adierazoten dauen izena beste izen bati eransten deusagunean darabilgu.
Jainkoagandiko *grazia*.
Gurasoakandiko *doe preziatua*.
Kanpotarrakandiko *guztia txartzat joten dabe batzuk*.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEGANDIK	-ORREGANDIK	-OKANDIK -ongandik
(honegandik) andreonegandik (honegandik) gizononegandik	(horregandik) andreorregandik (horregandik) gizonorregandik	androkandik gizonokandik androngandik gizonongandik

Honegandik astunonegandik *urrundu zaitez atoan!*

Nagusiorregandik *ez dozu gauza onik lortuko.*

Zuokandik *ez dot gauza handirik espero.*

6.2.20. NOrenGANA: adlatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(e)GANA	-AGANA	-AKANA -engana
andragana gizonegana	andreagana gizonagana	andrakana gizonakana andregana gizonengana

Nora kasuaren parekoa da, baina hau bizidunakaz darabilgu.

Zenbategana *hurreratu zara laguntza eske?*

Amagana *etortekotan geratu naz.*

Beharretik *urtenda lagunengana joango zara?*

Osagileak bizkor abiatu ziran zaurituakana.

Nogana zatoz zarataka?

Ai ene! Ai ene! Hagineko mina, medikuagana / Ai ene! Ai ene! Bihotzeko mina, nobioagana. (herri-kantua)

Zuzenbideak:

Bizidunak eta bizibakoak, eta pertsonak eta lekuak, ezbardindu egin behar dira.

*Medikura *joan behar dot.*

Medikuagana...

Medikuarenera...

Medikuaren *kontsultara...*

**Jone* dentistara *joan da.*

...dentisteagana...

...dentistearenera...

...dentistearen *kontsultara...*

**Ertzaintzarengana jo dau.*

Ertzainakana...

Ertzaintetara...

Ertzaintzarenera...

Ertzaintzaren *bulegora...*

Bestelako zuzenbide batzuk:

↓ Alkateaganako *begirunea erakutsi eban.*

↑ Alkateari *begirunea erakutsi eutsan.*

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEGANA	-ORREGANA	-OKANA -ongana
(honegana) andreonegana (honegana) gizononegana	(horregana) andreorregana (horregana) gizonorregana	androkana gizonokana androngana gizonongana

Honegana piztionegana *hobeto hurreratu be ez egitea, mantsoa dala dinoe baina!*

Horregana medikuorregana *joateko agindu deuste.*

Lagunokana *be ia nozonoiz zatozan bisitatxu bat egiten.*

6.2.21. NOrenGANAINO: adlatibo amaitua

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(e)GANAINO	-AGANAINO	-AKANAINO -enganaino
andraganaino gizonenganaino	andreaganaino gizonaganaino	andrakanaino gizonakanaino andreganaino gizonenganaino

Noraino kasuaren parekoa da, baina hau bizidunakaz darabilgu. Kasu honek ez dau aparteko arazorik.

Zuganaino *hurreratzea gura dozu?*
Barria ondoko herrikoenganaino heldu da.
Horrekanaino helduko gara.

MUGATU SG.	MUGATU PL.	PL. HURBILA
-ONEGANAINO	-ORREGANAINO	-OKANAINO -onganaino
(honeganaino) andreoneganaino (honeganaino) gizononeganaino	(horreganaino) andreorreganaino (horreganaino) gizonorreganaino	androkanaino gizonokanaino andronganaino gizononganaino

Gaixoorreganaino *oindino ez da inor hurreratu, ez dakie zer daukan-eta.*
Zure lagunorreganaino heldu orduko gautu egingo deusku!
Alboko herrikoakanaino heldu da atentaduaaren barria.

6.2.22. NOrenGANANTZ: hurreratze adlatiboa

MUGAGABEA	MUGATU SG.	MUGATU PL.
-(e)GANANTZ(a) -(e)GANUNTZ	-AGANANTZ(a) -AGANUNTZ	-AKANANTZ(a) -AKANUNTZ -enganantz(a) -enganuntz
andraganantz(a) gizoneganantz(a) andraganuntz gizoneganuntz	andreaganantz(a) gizonaganantz(a) andreaganuntz gizonaganuntz	andrakanantz(a) andrakanuntz gizonenganantz(a) gizonenganuntz

Bizkaiera barruan, *-(e)ganantz* mendebaldekoa eta *-(e)ganuntz* ekialdekoa dala esan daiteke. Mendebaldean *-(e)ganantza* aldaera be zabal dabil, ebakera gozoagoa emoteko *-a* atzean dauela, idatziz erabilera urria daukan arren.

Noganantz joan da pelotea azkenean?

Lapurrak gizonaganantz egin eban isil-isilik.

Entrenatzaileak, jokalarieganuntz hurreratu eta itzelezko sermoia bota eutsen.

SG. HURBILA		PL. HURBILA
-ONEGANANTZ(a) -ONEGANUNTZ	-ORREGANANTZ(a) -ORREGANUNTZ	-OKANANTZ(a) -OKANUNTZ -onganantz(a) -onganuntz
(honeganantz) andreoneganantz(a) (honeganantz) gizononeganantz(a) (honeganuntz) andreoneganuntz (honeganuntz) gizononeganuntz	(horreganantz) andreorreganantz(a) (horreganantz) gizonorreganantz(a) (horreganuntz) andreorreganuntz (horreganuntz) gizonorreganuntz	androkanantz(a) androkanuntz gizononganantz(a) gizononganuntz

*Holako lohirik! Zikinoneganantz hurreratu egitea, be!
 Ez daukat hor dagoan zatarorreganantz joateko asmorik!
 Zuokanantz gatozala istripu larria ikusi dogu.
 Hemengo androkanuntz nator gaur inkestatxu bat egiten.*

7. POSPOSIZINOAK EDO HITZ ATZEKARIAK

ADI

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoak *-(r)en* daroala: noren edo zeren adi egoteak, itxaroten edo zain egotea adierazoten dau.

Gure adi egon barik, arin alde egiten dau.

Horren adi bazagoz, ona zagoz!

Sin.: *-(r)en* begira, *-(r)i* itxaroten, *-(r)en* zain, *-(r)en* aiduru (ip.).

b) Izen edo izen-multzoak *-(r)i* daroala: zeri adi egoteak begira egotea adierazo gura dau.

Umea koloreei adi egoten da.

c) Izen edo izen-multzoak *-(e)ra* daroala: nora adi egoteak nora begira egotea adierazoten dau.

Nora adi egon zara gu ez ikusteko?

Albora adi barik, joan zaitetz aurrera adi, atzerik hara inor jo ez daigun!

Zentzuak:

1) Itxaroten edo zain egotea genitiboaz.

2) Begira, begiak nonogan edo zeozetan tinko dirala egotea, datiboaz zein adlatiboaz.

ADINA [/Aina], adinako [/ ainako]

Aurreko berbatik banandurik idazten da. Ahozkoan, barriz, espide batzuetan konposatu lez erabilten da eta, horregaitik, loturik idaztea be onartu leiteke: *guraina* (*gura adina*).

Adina (*aina*) aldaera hobetsiko badogu be, ezaguna da *gaina* forma be, erabilia dan lekuetan idazteko zertan baztertu ez dana.

Erabilerak:

a) Edozein kasuri loturik agertu daiteke, baina gehienetan *nor*, *nork* kasuakaz azaltzen da:

Gu adina. Zuk adina. Gugaz adina. Horreentzat adina. Beretzako adina.

Hori adina izateko ez da ezer behar.

Erbestean adina bertan be irabazi zeinke gaur.

“Itxasoak dituzan ur tantoak *lainbeste* (*gaina*) millinoe urte joan da bere” (J.M. Zabala)

“Korreko-kale guztia beretzako *adina* ez dauala igaro da...” (J.M. Mokoroa)

b) Aditz jokatua *-n* atzizkiaz dala, menpeko perpausa eginez be sarri azaltzen da, eta aditz jokatu barik be bai, partizipio soilaz (*jan adina*) edo partizipioaz *-tako / -(r)iko* atzizkien ondoren, baita *-t(z)eko* aditizenez be:

Ez deuskue ekarri eskatu genduan adina.

Bizimodua aterateko adina irabazten dabe.

Jardunaldietan ez zan batu iragarritako adina lagun.

Ez daukie behar adina ardao.

“Esan dodan *alagiña* (*beste, gaña, goara*) bildur izatekoak dira seigarreneko berba deungak” (J.M. Zabala)

c) Izenordainakaz (*ni, zu, gu*) eta erakusleakaz (*hau, hori, ha*) sarri erabilten da genitiboa, batez be hizkera batzuetan. Aurrekoakaz batera, aintzat hartuko da hau be:

Gure adina urte, haren adinako ospea...

Horren gaina diru euki eta oraindino gehiago gura dozu?

Horren gaineko seme-alabak daukazuz, hain gaztea izanda.

Zentzua:

Zenbateko bardinak konparetan ditu. Ez da erabili behar kualidadeak konparetako:

**Ni zu adina azkarra banaz.*

Ni zu baizen...

Ni zu besteko...

Ni zure besteko...

Sin.: beste, hainbat, bezainbat.

AGINEAN, aginik

Atzekari hau autore klasikoetan erabiliagoa da gaur egungo idazle edo hiztunetan baino.

Erabilera:

Aditz partizipioari darraiola agertzen da testuetan, eta aditz-mota jakin bategaz ia beti; arriskua edo egoera larria azaltzen dabenakaz: *hil, galdu, ito, hondatu, goitu, urratu, jausi, leher egin*, e.a.

Behin hondatu aginean egon zan Txomin, galarrena txar batek harrapauta.

Eskolea jausi aginean dagoala bazenki, sartuko zinateke bertan?

“goizeko hamabiak jausi *aginean* erlojuan” (Felix Bilbao)

“Amazazpi urte bete *aginean...*” (Lizardi)

“ikusirik zeuen arimaak [...] infernuko oxinean ondatu *aginean*, etzaree [ansiatuko] larrituko [...]?” (J.M. Zabala)

“Zeuen arimeen salbazinoagaz itxirik edo erdi itxian, eta ernegadu *aginean* aurkituten zareenok, zabal zabal egizuez zeuen biotz estu-larri orreek” (J.M. Zabala)

“larri erabillezan arerijuak ta goitu *aginik*” (J.A. Mogel)

Zentzua:

Aditz batek adierazotako jazoera edo ekintzaren bat berehala jazoteko puntuan dagoala adierazoten dau.

Sin.: hurren, beharrea, *-t(z)eko zorian, -t(z)eko puntuan, -t(z)eko ari-arian, abantzu* (ip.).

AHALA, ahalean, ahaleko

Aditz partizipiotik bereiz idazten da. Baina gidoi batez hari loturik be idatzi leiteke: *jan ahala* (*jan-ahala*), *emon ahalean* (*emon-ahalean*). Erabiliak diran forma nagusiak: *ahala*, *ahalean*.

Erabilerak:

a) *Zenbat* itaunari erantzunez, zenbatzaile balioaz, eta askotasuna adierazoaz erabilten da, batez be *partizipioa* + *ahala* egituran:

Kerexak, jenteak erosi ahala eta gehiago euken etxean.

Arto eta garia jan ahala euken kaixetan.

Auto-etxeek eskatu ahala egiten ditugu autorako piezak.

“Askok eta askok uste dabe eze, *edan-ala* edanda bere, burua nastauta, euren buruen jaube eztireala parau arren, eztala katua artutea” (J.M. Zabala)

b) Egitura hau izen bihurturik be erabili daiteke, mugatzaile eta guzti. Halan, *egin-ahalak*, *emon-ahalak*...

Haserratu ziranean, esan-ahalak alkarrari arpegira bota eutsiezan.

Egin-ahalak eginagaitik ezin izan genduan hormeori altzau.

c) *Ahalean*, aurrekoaren forma adberbiala, *ibili*, *ekin*, *jardun*, *joan*, *etorri* eta halako aditzak kaz batera erabili daiteke:

Txirrindulariak, pedalei emon ahalean etozan aldatsbeheran.

Boxeolariak bata-beste jo ahalean ebilzan, surretatik odola eriola.

Euria bota ahalean da.

Zentzuak:

Partizipioa + *ahala* egiturak balio bi adierazo leikez:

1) Batetik, ekintza bat ahalik gehien, neurririk gorenean bete edo osotzea. Kantidade-konparatze progresiboa esaten jako honi. Honen antzekoa da beste egitura hau be: *zenbat eta... -ago*, *hainbat eta... -ago*.

Ardaoa zenbatgura, jenteak edan ahala ekarten eben mahaira. (= edan ahal eben guztia)

2) Bestetik, ekintza bat garatzen doan neurri edo ginoan beste prozesu bat garatzen dala:

Sagarrak, batu ahala, otzaretan sartzen genduzan.

Pelotea, etorri ahala aidez jo dau.

Prozesuaren iraunkortasun zentzu hau adierazoteko, *zelan ...-n halan...*, edo *...-n neurrian...* egiturak be erabilten dira. Halan:

Umeak, urteetan aurrera joan ahala, hobeto ikasten ditue eskolako gaiak.

Umeak, zelan urteetan aurrera doazan, halan hobeto ikasten ditue eskolako gaiak.

Umeak, urteetan aurrera doazan neurrian, hobeto ikasten ditue eskolako gaiak.

ALBOAN, **albo**, alboko, albotik, albora

Erabilera:

a) Izen soilaz edota *-(r)en* genitibo atzizkidunaz. *Albo* mendebaldeko hitza dogu, eta gaur egun kasu-atzizkiakaz (*-an*, *-ko*, *-tik*, *-ra*) agertzen da normalean.

Ez daki bakarrik egoten, beti dago lagun horren alboan parauta.

Etxe alboko artea bota egin dau haizeak.

Aitazuloa da, beti dago aitaren albotik kendu barik.

Amaren albora joan da biziten.

“Ara zelan dabilizan burruka Oratzar agaz, zuzendau ezinik, ta bere albo albuana.”

(J.A. Mogel)

“Muñetegiko etzearte-alboan be esaten daube bizi ziriara lamiñek.” (L. Akesolo)

“alde egingo dau maijaren alboti, goserik andijena badauka bere” (J.A. Mogel)

b) Albo berbea, aparte edo alde batera zentzua adierazoteko be erabili leiteke: zer(tzuk) edo nor(tzuk) albora itxita, albora botata...

“Erdaldunak albo batera botarik euskeraz berba egin baino egin ez gurago dabenak asko dira.” (P. Zamarripa)

Zentzuak:

1) Noren edo zeren alboan esakeran, ondoan edo aldamenean aditzen emon gura da.

Sin.: ondoan, aldamenean, eretzean (ip.), kantuan (ip.), agerrean (ip.), auzoan (ip.).

2) Nor lagun edo nogaz batera zentzuaz be agertzen da testu zaharretan:

“Euri ta ateri, eguraldi on da txar, landara-jorran edo ira batzen, gizonen albo ibilli arren, gure neskatilleak eztaoe ain erraz eztulik atera” (J.A. Mogel)

3) Alde batera edo aparte zentzuaz:

Txantxetak albora itxirik, esaizu zer dan.

ALDE, aldeko, aldera, alderako

Erabilera:

Izenak *-(r)en* atzizkia daroala, aparte zentzua daukanean izan ezean.

Barriketak eta abarrak alde batera, egun polita igaro genduan.

Betiko gorabeherak alde batera, ikastaro interesgarria begitandu jaku.

Zentzuak:

1) Nor edo zeren fabore egon; aurka edo kontra berben antonimoa:

Ikusleek etxeko taldearen alde(ra) egiteak ez gaitu harritu behar.

Noren alde(ra) urten dau diruak, zurien ala gorrien alde?

Heriotza zigorraren aldekoak dira gehienak Estatu Batuetan.

Erruduntzat egozaren aldeko sententzia emon eban epaileak.

Sin.: *-(r)en bando*, *-(r)en fabore (egon)*.

2) Noren faboretan, onerako (onez), mesederako, hobe beharrez berben sinonimoa da:

Geure herriaren aldeko proiektu baten gabilz jo eta ke.

Akziodun handien alde egin eben.

Neure alde barik, zeuen alde nabil gehiago.

Arimen alde eta fabore egiten ditu mirariak.

3) Noren edo zeren omenez, ohorez (ohoretan), gomutagarri, aintzaz, gorazarrez, izenean:
Monumentu bat eregi dabe haren alde.
Herriko hildakoen alde emongo da mezea.

4) Zeren truke, zeren ordeztu:
Orduan sasoiaren alger gitxiren aldera egiten zan behar.
Zorren aldera txorizo txorta eder bat ekarri eutsan.

Zentzu bera izaten dau aditz batzuen ondoren doanean be: mantenidu alde(ra), jan alde(ra), jantzi alde(ra), edan alde(ra)...
Umezain joan zan Ingalaterrara mantenidu alde.

Zuzenbideak:

<i>*Euskal Herriko talde bat alde</i>	<i>... talde baten alde...</i>
<i>dagoz herritarrek.</i>	
<i>*Euskeraren alde egin dabe apostua.</i>	<i>Euskeraren alde...</i>

ALDEAN

Hiru zentzu nagusi ditu:

1) Konparazio eremuan: -(r)en ondoan, -(r)en konparazioan, -(r)en ikusian, -(r)en eretzean (ip.).

Erabilera:

a) Izen, izenordain edo adjektiboak erabilten da.

Asierren aldean Xabierrek asko daki.
Nire aldean indar handia dauka horrek.
Beste maila batekoak dira lehen aitatu doguzanen aldean.

b) Baina berbea aditzondoan edo toki-denporazko adizlaguna bada, -(e)ko atzizkia erabilten da -(r)en barik.

Lehenengo aldean ondo bizi gara gaur.
Andaluzia dinozu? Hango aldean euri asko egiten dau hemen.
Hareen aldean gaztetxuak ginan gu orduan.
Harrezkeroko aldakuntzak azalekoak dira desbardintasun funtsezko horren aldean.

Sin.: -(r)en ikusian, -(r)en ondoan.

2) Orduak, gitxi gorabeherako ordua: inguruan, aldera.

Erabilera:

Nor kasuari dautsala edo sarri askotan lexikalizaturik: *goizaldean, arratsaldean.*

Hamaikak aldean atsedean txiki bat egiten dogu kafea hartzeko.
Goizaldeko bostak aldean abiau dot ambulanzia igaroten.
Zemendiaren erdi aldera urtengo dabe azterketen emaitzak.
Neguko gau hotz baten, urtarilaren lehenengo egunetan, hor gauerdi alderantz.

3) Gitxi gorabeherako leku, paraje edo ingurua. Kasu honetan kasu-atzizki ezbardinak onartzen ditu: *aldeko, aldetik, aldera*. Aurreko izen edo izen-multzoari, batzuetan mugatzaile barik, beste batzuetan *-(e)ko* atzizkiaren bidez lotzen jako eta izenordain eta antzekoai *-(r)*en atzizkiaren bidez:

Mendi aldean bizi dira.

Handiko aldera doa Bergara aldera.

Itsaso aldeko jentea apur bat diferentea da.

Itsasoko aldetik haizetxo freskoa etorren.

Antza, mendi alderantz egin eban iges.

Gure aldean bideak konponduko dabezalako entzun dot.

“*Eskumaldean, asago, Mendexa aldeko muino eta tontorrek*” (E. Erkiaga)

Sin.: alderdian, partean.

Durango alderdiko jentea ondo dazaut.

Itsaso alderditik etorri da edurra.

Zuen alderdian kalte handiak egin ditu atzoko denporaleak.

Oiz partetik ekarri dabez ardiak.

ALDETIK

Erabilera eta zentzuak:

a) Izenordain eta erakusle genitiboen ondorik: *-(r)*en kontura, *-(r)*en kasa, *-(r)*en kabuz.

Guk geure aldetik eta zuek zeuen aldetik ekingo deutsagu lehenengo, eta gero bate -ratuko doguz beharrak.

Hobe da bakotxak bere aldetik jarraitu daian.

b) Normalean aditz jokatuari dautsala edo inoiz izenaren ondorik be, gaztelerako “en cuanto (a) / (que)” adierazoten dau:

Euskal Herrian bizi garan aldetik, ezinbestekoa dogu euskera jakitea.

Bertokoak zarien aldetik, nik baino hobeto ezagutuko dozuez hemengo bazterrak.

Gai(aren) aldetik eta hizkera(ren) aldetik ez dauka atxakiarik.

ANTZEAN, antzeko, antzera

Modu edo zelakotasunaren zentzu-eremuan dago *antzean, antzera* hitz atzekaria. Haren alderdi berezi bat adierazoten dau, antzekotasun edo kidetasunaren adiera, hatan be.

Erabilera:

a) Izen, izenordain eta antzekoakaz erabilten da, edo *-(r)*en atzizkiak edo mugagabeen:

Zure jakearen antzeko asko ikusten dira kalean oraingo udabarrian.

Geuk be, beste batzuen antzean behar, bizimodua aurrera aterateko.

Baserri antzeko etxeak egiten baino ez leukie itxi behar inguru eder honetan.

Ume antzeko gizon txiki bat zan.

“*Aitaren antzera, itsasorako joera hartu eban mutilak*” (E. Erkiaga)

“*Bazter zulo hori eukan babes antzera*” (E. Erkiaga)

“*Erle egalari antzean*” (S. Onaindia)

- b) Toki-denpora eremuko berbakaz, *-(e)ko* genitiboaz loturik:
Antxineko antzera bizi dira etxe hatan oraindino be.
Betiko antzean bizi dira horreek be.
Beste leku batzuetako antzean jazoten dira hemen be holakoak.
- c) Aditz partizipioaz, *-tako / -(r)iko* atzizkien ondoren:
Geuk egindako antzean (antz-antzean) egin dabe beste guztiek be.
Erbestean ikusitako antzean apaintzen dira errepide-hegalak hemen be.
- d) Aditz jokatuaz, *-n* atzizkiaren ondoren:
Arratian egiten dan antzera egiten dabe euskera Txorierrian be.
Gure osabeak daukan antzean, geuk be kuku-leiho bat atera deusagu etxeari teilatuan.
 “Ezkutuan euki gura zituan berak idorotako lanperna gozoen sorlekuak, umeak txori habiea inori esan barik ezkutuan euki ohi daroen *antzera*” (D. Agirre)

Zuzenbideak:

**Euria egingo dauenaren antza...*

Euria egingo dauen antza...

Sin.: moduan, eran, antzeran.

ARABERA, araberako

Aldaera ezbardinen artean (*arauera, arabera*), *arabera* hautu dogu, euskera batuan lez. Posposizino honek ondorio-zentzua ohi dauka.

Erabilerak:

- a) Izen edo izen-multzoari genitiboaz alkartu dakikeo:
Tradizino judu-kristauaren arabera, Jainkoak egin eban lurra.
Estatistiken arabera, herri garatuetan hiesak sortutako heriotzak %80 jatsi dira.
Iturri batzuen arabera, hildakoak askoz gehiago izan dira.
Itzulpenaren zenbatekoa berba-kopuruaren araberakoa da.
- b) Aditz jokatuari *-naren* atzizkia dautsala.
Zuk esan dozunaren arabera, datorren urtean behar barik geratuko gara.

Zuzenbideak:

**Guk entzun dogun arabera, hurrengo
 kurtsuan autobusak ipiniko dabez
 unibertsidadera.*

Guk entzun dogunaren arabera...

Sin.: *-(r)en* edura, *-(r)en* arau (ip.).

Zuk agindutakoaren eduz jokatu dogu.
Gramatikak dakarzan erregelaren edura moldatu doguz testuak.
Erroak eta adarrak, batzuk besteen arauka dira. (ip.)
Toki arau ahal dena etor bedi!

ARLOAN, arloko, arlotik, arlora

Erabilerak:

a) Ezaguna eta singularra danean baino ez da erabiltzen *-(r)en* genitiboaz:

Beste arlo batzuetan ezeze, hizkuntza politikaren arloan be berezia da Euskal Herria.

b) Ezezaguna izan ezkerro mugagabeen: *kultura arloa, kirol arloa, administrazio eta ekonomi arloa...*

Politika arloko eztabaidak beti izaten dira beroak.

Zentzua:

Berez lur zatia adierazoten dauen izena da, baina adiera figuratuaz erabiltzen da gehiago, zeren esparru edo eremua dan adierazoteko. Horregaitik sartuko dogu hitz-moltso honetan, nahiz berez ez izan atzekari garbia, besteak lez.

Sin.: alor, sail, eremu, esparru.

(-) **ARREN**

Idazkera: izen-adjektiboakaz eta aditzizenakaz doanean batera idatzi behar da, eta aditz jokatuaz eta aditz partizipioaz ostera, banan. Erdibidean dago, beraz, atzizki eta hitz atzekarien artean.

Erabilerak:

a) Izenakaz: *-(r)en amorearren, bildurrarren, damuarren, gitxiarren, itxurarren, Jainkoa - rren, konpromezuarren, larriarren, lotsarren, pozarren...*

“Ametan bere dot neure Proximua neure buruba legez, ta zure amoriarren” (J.A. Mogel)

“Gitxiarren ni hila / Iza-ez naz koipetan” (J.A. Mogel)

“Kanpoti sartuten direanak, ezin egon dira atsa arren” (Fraibartolome)

“sarauko dantza desonestura euren guraz, poz arren armatuta, agineetati ura darijuela doazan gizonak” (Fraibartolome)

“eta lotsaarren ezteutsazu inos konfesoreari aitatu” (J.M. Zabala)

“Jaungoikoarren, neure entzula onak, Jaungoikoarren, bildur ikaragarri bat guzurragazko juramentuari” (J.M. Zabala)

b) Adjektiboakaz: *alperrarren, -(r)en ederrarren, nagiarren...*

Motzarren ez dabe mutilek beragaz ibili gura. (= itsusi edo motza izateagaitik)

Lotsarren geratu da berbaldian, beste guztiakaz tabernara alde egin barik.

Inuzentearren hartzen dozuz zeuk arazo guztiak; ezetz esaten bazenki, hobeto ibiliko zintzatekez.

c) Aditz jokatuaz, *-n* atzizkiak:

Behin eta barru ordurako etorteko esan jakon arren, horregaz alperrik da.

d) Aditzizenaz, *-t(z)earren* egituran:

*Garbiro berba egitearren eta egia esatearren daukie zigortuta.
Norberaren aginduak bete ez egitearren jazo jakuz zoritxar guztiak.*

e) Aditz partizipioaz:

Guk gura izan ez arren, beste askok bai gura leukie.

ARTEAN / ARTE, arteko, artetik, artera

Artean eta arte, bitzuk dira erabiliak. Lehenengoak dau, dana dala, tradizioan itzal handiagoa.

Erabilerak:

a) Izen eta antzekoakaz: *lagun(en) artean, etxeko(en) artean, mendi(en) artean*. Izenordainakaz, berariaz pertsonenakaz, benetan ugaria da: *geure artean, zeuen arteko, euren artera*. Zehaztubako eta erakusleakaz: *nortzuen artean, zeintzuen artean; honeen artean, hareen artean*. Zenbatzaileakaz bardin: *askoren artean, hainbaten artean, lauren artean*.

b) Izena mugagabea doala, bizidun zein bizibakoakaz: *andra artean, lagun arteko, ume artera, patari artetik*. Edota: *baso artean, asun artera, etxe artetik*.

c) *Arte* sarri erabilten da *-(e)ra* atzizkidun izenakaz batera, denpora-eremuakaz batez be, denpora-muga adierazoten dauela. Banan idazteko ohitura dago, baina loturik be idatzi izan da (eta halan egiteari ez deusagu txarto eretxiko): *goizera arte, arrastira arte, iluntzera arte, gauera arte, hurrengora artean lehengo astera artean*.

Denpora-muga hau (atze edo amaierakoa) adierazoteko formula eginak be eregi dira honen inguruan: *datarren (aste, hile...)-ra arte(an), hurrengo (urte, mende...)-ra arte(an)*.

d) Aditzondo batzukaz, atzizki barik be bai: *orain arte, gaur arte, gero arte, bihar arte, etzi(ra) arte, beti(ra) arte*.

e) Aditz partizipioaz, hau baiezkoan danean: *hil arte, leher egin arte, galdu arte, gogaitu arte...*

*Beti behar eta behar, azkenean leher egin arte, eta inoren esker onik ez hartzeko.
Berak esan arte, ez genduan ezer jakin.
Irabazi arte, ez eban etsi.*

f) Aditz jokatuaz, baiezka zein ezezka:

*Batera bestera nogaz ibili daukagun artean, ez gabilz txarto.
Eurak ondo dabilzan artean, ez daukie gure akordurik.
Ipinitako baldintzak beteten ez dituzue n arte ez dago traturik.*

Zentzuak:

1) Moltso, pilo edo talde zentzua hartzen dau izen, izenordain eta horreetarikoakaz. Moltso nahasi eta zehaztubakoa izaten da gehienetan. Holakoetan sarritan izenari loturik erabilten da, atzizkien modura. Horretara sortuak dira: *harriarte, hatxarte, sasiarte, arbolarte, artoar -te, arantzarte...*

Baina atzekari lez eta bereiz idatzita be, moltso balio bera gordeten dau. Gehienetan izen mugagabeen ondorik, baina *-(r)en* atzizkidunaz bardin.

Asun artera jausi da.

Basa artean dabilz txarriak.

Galtzu artean garagarrika ebilzan mutikoak.

Euskaltzaleon artean, zoritxarrerako edo zorionerako, eretxi askotakoak gagoz.

Zaharren artean hazitako umea da hori.

“Baina asto *artean* itxura on eta jasekoa” (Felix Bilbao)

Sin: *-(r)en* tartean, *-(r)en* erdian.

2) Denpora-aditzondoakaz eta aditzaren ostean doanean, denpora zentzua hartzen dau. Batzuetan denpora-igarotearen atze-mugea adierazoteko (*belura arte, joan arte, zeu zatozen arte*), beste batzuetan denporearen iraupena edo igarotea bera (*gabiltzan artean, dagoan artean*).

Dagoan artean jan eta edan, eta ez dagoanean egon.

ATE, atetik, ateruntz

Erabilera:

-(e)tik atzizkidun berbakaz erabilten da gehienbat gaur egun, baina lehenago *-(e)z* instrumentalaz:

Eguneroko zereginetatik ate izaten eban lagunakin kafetxua hartzeko astia.

Zentzua:

Ate izen zaharrak *kanpo* edo *kanpo alde* adierazoten dau:

Txalupea ateko bandan doa. (= kanporantz)

“*Atako bandatik goaz*”. (Ondarroa)

Hitz atzekari lez, *handik kanpora, handik aparte*:

“Hor dago portale bat, uri *az ateti*” (Barrutia)

“*Aita gureaz aterontzean, kristauak gehienez esan ohi duen orazioa da kredoa*” (Ubillos)

Sin.: at, kanpo, aparte, landa, leko.

ATXAKIAN, atxakiagaz [/ atxakiaz]

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoak *-(r)en* dauela (zeozeren atxakian):

Otoitzen atxakian alargumen ondasunak irunsten ebezan.

Aurkezpenaren atxakian beharretik urten genduan.

Eskola horren atxakiagaz egun guztian ixten deuskuz seme-alabak.

b) Aditzizenagaz:

Hara joateko atxakian ez genduan eskolarik emon.

Zu ikusteko atxakian, zure alabea ikusten etorri da.

c) Mendeko perpausetan, aditz jokatuari *-n atxakian* edo *-lako atxakian* eransten jako.

Zuzenbideak:

Behin edo behin irakurri leitekezan *-naren atxakian* erakoak ez dira ontzat emoten:

↓ *Donostiako delegazioa seguruenik itxi egingo zute* naren aitzakian.

Horreen lekuan, *-n / -lako* atzizkidunak bultzatuko ditugu:

↑ *Donostiako delegazioa seguruenik itxi egingo ebelako* atxakian.

Zeharo okertzat baztertuko ditugu, bestetik, *-laren atxakian* edo *-lazko atxakian* moduko formak.

* <i>Andrea bakarrik eukalaren atxakian,</i>	... <i>eukan</i> atxakian...
<i>alde egiten eban.</i>	... <i>eukalako</i> atxakian...
↓ <i>Kanpora joan behar dauenaren</i>	... <i>dauen</i> ...
<i>atxakia ipini dau.</i>	... <i>dauelako</i> ...
	... <i>joan beharraren</i> ...

Sin.: dala-eta, estakuruan, desenkusa.

“Zahartu direlako *estakuruan*, nehork ez deie eskerrik” (Jean Etxepare)

ATXINA

Aldaerak: *Itxina, atxine, itxine* aldaeren aurrean *atxina* hobetsiko da eredu idatzirako.

Erabilera:

Izen, izen-multzo edo aditzondo bati *-(e)tik* atzizkia darraikola:

Gure mutilek hartu dabez oporrak, eta hortik atxina joan dira.

Zoaz handik atxina eta itxi gaizuz baketan!

Menditik atxina joan da.

Zentzuak:

1) Berez *-(e)tik aurrera* egituraren zentzu berbera dauka, eta batzuetan denpora eremuan erabilten da:

Ordurik atxina.

Bihartik atxina.

2) Toki eremuan, *handik atxina, hortik atxina, mundutik atxina* esamoldeek zentzu orokorra goa daukie: *handik zehar, hortik zehar, munduan zehar.*

“*mundu zabaletik atxina* egiten direan lapurreta, kalte modu ta tranpa gaisto guztiak” (J.M. Zabala)

“*Egunetik atxina* (aurrera) nosik bein (aldian bein) edo erloiuak jotorduan edo alan-goetan abemariatxu bat” (J.M. Zabala)

“*Kaletik atxina* bazoaz, begiak batuta joan” (Añibarro)

Sin.: *-(e)an / -(e)tik zehar, -(e)an gaindi, -(e)an barrena.*

ATZEAN, atzeko, atzetik, atzera

Erabilera:

Gaur egun *-(r)en* atzizki edutezkoaren bidez lotzen jako izen edo izen-multzoari, baina izen soil mugagabearen ondotik be erabili daiteke:

Etxe atzean. Ate atzeko mamua. Mahai atzetik begira dozu.

Zentzuak:

1) Norbaiten edo zerbaiten bila ibiltea adierazoten dau batzuetan.

Kontuz horregaz, zure atzean barik, zure diruaren atzean igoal ibiliko da-eta.

“mutillok bere ez ditu inok ikusiko neskatilla *atzian*” (J.A. Mogel)

“Alango baten Olo *atzian* ebillela jausi zan” (J.A. Mogel)

“Ezkara etorri zeuen ondasun *en atzean*, eta bai zeuen arimeen *billa*” (J.M. Zabala)

2) Gehienbat atzeko toki-posizinoa adierazoteko erabilten da:

Udaletxe atzeko zelaian izango dira kontzertuak.

Andrazkoak gizonezkoen atzean jarten ziran lehenago eleizan.

Antioju ilunen atzetik dan-dana ikusten eban inor ohartu barik.

Distantsiak adierazoten diranean, *Nor* izen sintagmaren ondoren erabili daiteke *atzerago* konparazino atzizkiduna:

100 m atzeragotik urten behar izan eben.

3) Batzuetan, ondorengo denpora-gunea adierazoten dau, *ondoren*, *ostean* eta *gero* atzekarien balio beretsuaz:

Zeu izango zara lehenengo, zure atzean neu, eta nire atzean Peru.

Aurrean dogun arazoa konponduagaitik, egon seguru, honen atzean beste batzuk etorriko jakuzana.

4) Esapide eginetan be agertzen da: *bata bestearen atzean.*

Beti dabilz bata bestearen atzean txakur eta katu (eginda).

Egitarauko puntu guztiak aztertu zituau bata bestearen atzetik.

AURKA, aurkako

Erabilera:

Izenari *-(r)en* atzizkia loturik erabilten da gaur egun.

Zentzua:

Alde, fabore atzekarien kontrako esangurea dau.

Zentral termikoaren aurkakoak dira asko Zornotzan.

Franko eta armadarik gehiena Errepublikaren aurka matxinatu zan.

“Minduta dago beronen *aurka* egin diran astakeriakaitik” (M. Zarate)

Sin.: *-(r)en* kontra(ra), *-(e)z* kontra(ra), *-(e)z* bestera.

“Orduntxe birbiztu zan liberalen *kontrako* gorrotoa ere” (Orixe)

“Beti entzun dogunaz *bestera* zer da kontua ta, orain badirudi euskaldunak katoliko ez dirala” (E. Erkiaga)

“Amaren isilik edo behintzat bere gogoaz *bestera* hartu izan eban gazteak asmo hau” (R. M. Azkue)

Zuzenbideak:

**Beti entzun dogun* aurka...

... *entzun dogunaren* aurka...

**Erregearen babesean moro* aurka
gudan dala...

... *moroen* aurka...

AURREAN, aurreko, aurretik

Erabilera eta zentzuak:

a) Izena *-(r)en* atzizkiaz edota mugagabean dala, aurreko toki-posizinoa edo aurreko denpora gunea adierazoz leike.

Auto aurretik kendu zaitetz arin!

5 m aurreragotik hobeto ikusi eitekezan.

Norberaren begien aurrean euki eta ikusi ez.

Zezenen aurrean parau zan San Ferminetan Iruñean.

Ardien aurretik joiazan artzaina eta txakurra.

Hauteskunde aurrean herriz herri ibiltzen dira boto eske.

b) Aditz partizipioaren ondorik erabilten danean, aurreko denporea adierazoten dau:

Inora joan aurretik, jaso eizuz zeure gauzak.

Belu zatoz; zeu heldu aurretxoan alde dau osagileak.

Sin.: baino lehen, orduko, aitzinean (ip.).

c) Testu klasikoetan aditz jokaturia *-n* atzizkiaz dala be agiri da:

“Aberasturik ikusten zaitut il bear dozun aurrean” (J.M. Mokoroa)

d) Ablatiboko *-(e)tik* atzizkiaren ondorik, abiapuntua marketako, bai denporea, bai lekua:

Hemendik aurrera zorrotzago zuzendu beharko doguz azterketak.

Arratsaldetan hiruretatik aurrera zabalik egoten da idazkaritza.

Honik aurrera kontuz ibiliko da.

e) Inesiboko *-(e)an / -(e)tan* atzizkien ondorik:

Kontuz joian Miren bidean aurrera, estarta estua zan-eta.

Karrajuan aurrera egin eban takoi hotsean.

Urteetan aurrera joango da zueneko aitita.

f) *-(e)z* atzizkiaz, lehen gehiagotan erabilten zan, baina gaur esapide eginetan baino ez:

Atzekoz aurrera egiten ditue behar guztiak honeek beharginoneek.

Musturrez aurrera jausi zan laban eginda.

AZPIAN, azpiko, azpitik, azpira

Erabilera:

Izena *-(r)en* atzizkiaz edota inongo mugatasun barik dala.

Ohe azpitik urten dau katuak.

Mahaiaren azpian sartu dau aulkia.

Aulkiaren azpira jausi da.

Zentzua:

Zerbaiten behean egotea adierazoten dau. Mugatu barik doaneko balio beraz erabilten da *-pean*. Halan:

Alfonbra azpian = alfonbrapean.

Bigarrenak egitura lexikalizatuagoa erakusten dau: *teilatupeko*, *eskilarapeko*.

Sin.: -pean.

BAKO [/ Bagako]

Aldaerak: ahoz eta idatziz, gaur egun *bako* forma da nagusi, eta berau erabiltea gomendatzen dogu, nahiz eta tradizioan *baga* eta *bagako* erabiliagoak izan diran. Halanda be, *baga* forma hitz konposatueta gordeten da oraindino be, eta zabal dabilz bizkai euskerako leku batzuetan *lotsabagea* eta halako berbak, guztiz gorde beharrekoak bestetik.

Barik (*bagarik*) formaren adnominala da; halanda ze, adiera nagusia eztasuna edo gabezia izango da.

Bereiz idazten da kontestu librean: *txar bako*, *itxura bako*. Baina lexikalizazioak ugariak diranez, halakoetan loturik: *ardurabako*, *akabubako*, *epebako*, *errubako*, *errukibako*, *lotsa - bako* / *lotsabaga*, *atzenbako*, *amaibako* / *amaibaga*, *senbako*, *zuztarbako*.

Bako, *bagako* formen lekuan *galduko* be erabilten da berba batzuetan: *lotsagalduko*, *esker - galduko*, *zorigalduko*.

Ume lotsagaldukoagorik, *horraitino*, *topau be ezin leiteke egin!*

Erabilerak:

a) Aitatu ditugun lexikalizazioak dira batetik, batez be adjektiboak sortzeko: *ardurabako*, *errukibako*, *itxurabako*, *moldebako*, *petobako*...

Pertsona txarrito eta itxurabakoagorik ikusteko be!

Gizon zuztarbakoagorik eta zentzunbakoagorik ez da egongo beste bat eguzkiaren azpian.

b) Izen zehaztubakoak guztiz da ugaria:

Gustu bako andrea. Gatz bako ogia. Buru bako pertsona.

Ondu bako ardaoa. Hazur bako arraina. Adore bako gizona.

Baina izen-multzo konplexuagoakaz be bardin: izen-adjektiboak, izen-zenbatzaileak, izenlagun-izenak. Halakoetan be, izen-multzoa mugatzaile barik erabilten da:

Harrotasun handi bako laguna.

Kolore bizi bako soinekoa.

Ondasun asko bako gizona.

Ezeren ardura bako pertsona.

Zuzenbideak:

↓ *Gatz askorik bako ogia.*

↑ ... asko bako...

↓ *Gustuko ardaorik bako jana.*

↑ ... ardao bako...

Adjektibo lez ezeze, izen lez be badarabilguz honeetariko berba batzuk:

Aberatsa izatea txarra ei da, baina diru bakoa ez da asko hobea.

c) Aditz partizipioagaz (*esan bako, ikusi bako, etorri bako*) edota partizipio-perpau oso bategaz:

Inok eskatu bako ardurak zertan hartu ditu, ba?

Beste inon ikusi bako gauzak jazoten dira gure artean.

Sin.: gabeko.

BARIK, baga, bagarik

Gaur egun *barik* da forma nagusia, eta beste aldaera biok klasikotzat hartu leitekez.

Lexikalizazioaren isladak ditugu aditzondo konposatu batzuk: *hainbarik, ardura barik, zuz - tar barik, zeregin barik, konturatu barik...*

Batari emon, besteari emon eta orain neu geratu naz hainbarik.

Erabilerak:

a) Izena edo izen-multzoa mugagabeen dala:

Dirulaguntza barik ez daukagu aurrera egiterik.

Gogo handi barik dabil aspaldion.

Ezelako ardura barik nasai bizi dira, behar eta behar ibilteko premia barik.

Jan egiten dau gitxi, eta indar asko barik dabil.

Inoren laguntasun barik jaretsi dogu gagozan lekuraino ailegatzea.

Zuzenbideak:

↓ *Tripa zorririk barik*

↑... *zorri barik.*

b) Izen mugatzailekunaz be erabilten da, batez be pluralean. Lehenago gaur baino gehiago erabilten zan:

Gure diruak barik ezin izango leuskioe euren zorrai erantzun.

Nora zoaz autobuseko txartela barik?

Eta batzuetan halan erabiltea toketan dala esan leiteke:

**Zeure auto barik etorri zara?*

... *Zeure autoa barik...*

**Euskerako liburu barik nora zoaz baina?*

Euskerako liburuak barik...

c) Izenordainakaz be erabilten da:

Inor barik. Ezer barik. Eurak barik.

Gu barik ezin izango leukie talderik osotu.

Zu barik be ondo konpontzen da bera beratarra.

d) Zenbatzaileakaz:

Lar barik ekarri, baterako edo birritarako lain, ez gehiago.

Asko barik be konpondu geintek bezatekoarren.

Bape barik bialdu dabe etxera.

e) Aditz partizipioagaz sarri erabilten da, zelakotasuna adierazoteko: *pentsau barik, jaramo - nik egin barik, joan bagarik, isildu barik*. Eta bardin partizipio-perpau osoen ondorik:

Negar eta negar dago isildu barik.

Inork esan barik egiten ditu behar guztiak: haren finezia!

Dana irakurri barik ezin dozu liburuaren eretxirik emon.

f) Aditzondo, adizlagun eta antzekoakaz: *horrelako barik, beste barik, zer dan barik...*

Hemendik urrun barik iretargira joango gara oporretan.

Hara barik hurrago be badago non egon.

Oraindino ohera barik nago eurei begira.

Beste zer barik espetxera eroan gura izan eben.

Zentzuak:

1) Ekintza bat beteten ez dala, aurrera eroaten da ekintza nagusia. Gehienetan modutasun zentzua (*zelan*) hartzen dau.

Inori ezer esan barik urten eban etxetik eta lagunakana joan zan.

Beharginek ezeren barri jakin barik hartu eban zuzendaritzak langile-kopurua laburtzeko erabagia.

“Munduko baztar gitxik kontauko dabe, ainbeste giza alditan ilun une *bagarik*, lausotu *bagarik*, naastau *bagarik*, beti ziatz, beti zintzoro, beti pirme, beti bardin ta beti garbiro gorde dabeela Jaungoiko Bakarraren sinistute ta ondra egijazkua.” (Frai Bartolome)

Sin.: gabe, -tzaka / -t(z)eke.

2) Kontrakotasuna be erakutsi lei: aurrez aurreko ekintza biren artean, bata egin beharrean, beste bat egiten dala adierazotea, hau da, zeozer baieztu, kontrakoa ukatuz.

Tradizino idatzian ez da balio hau gitxi baino erabili izan, baina gaur egun eta ahozkoan ugaria da.

Berba eta berba egon barik, jaizu jan.

Toketan danean, mutu geratu barik, esan egin behar da pentsetan dana.

Polita barik, motza izan zan.

Datorrena barik, joan doana ezagutzen dot nik.

Gogorrea barik, ondo esanean hartuizu.

Horrena barik, neurea da auto gorri hori.

“Ta geure geurea dogun Unamuno jaun orregaitik, geure Unamuno esan *barik* Unamuno geurea esan bear dodala deritxat neuk” (Zamarripa)

Sin.: beharrean, orde, -t(z)eko lekuan.

3) Batzuetan denpora zentzua hartzen dau, noiz arte:

Hirurak barik ez da bazkaritan etorten.

BARRENEAN, barreneko, barrenetik, barrenera

Erabilerak:

a) Izena mugagabea edota -(r)en atzizkiaz dala: *solo barrenean, pinudiaren barrenera, lan - da barreneko, montortxuaren barrenetik.*

Mendi barrenetako edurrak urtu egin ditu gaurko haize epelonek.

Bedar guztiak landa barrenean pilotu ebezan eta han gurdian kargau.

Kalearen barrenetik abiatu zan dantzari eta soinuari martxea.

Izenaz lexikalizaturik ohi darabilgu sarritan:

Praka-barrenak *tatarrez darabilez oingo modan.*

Alkondara-barrenak *sartu eizuz praken barruan.*

b) Inoiz nongo eta non kasuen ostean be erabilten da: *beheko barrenean, han barrenean...*

Zentzuak:

1) Lekua edo posizinoa adierazoten dau, beheengo parte edo lekua. *Goien* berbearen aurka-koa da: *landa goienean ≠ landa barrenean.*

Beste esaera batzuetan, ostera, atetik gertuko lekua adierazoko leuke:

Eleiza barrenean jesarri zan.

Horreezaz gainera, barrua posposizinoaren esangura berbera izan leike: *itsasoaren barrene-ra, neure barrenean...*

2) Esaera gitxi batzuetan denporea be adierazoten dau:

“Elizarik txikienean-bere urtearen *goienerik* barrenera gitxienez eun bidar entzuten da...” (R.M. Azkue)

BARRI, barria, barririk

Mugatzaile barik, *barri* soilik erabiltea da naturalena atzekari danean, baiezko, galde zein ezezkako perpausetan.

Noren edo nongo barri izatea zeozeren gainean jakitun egotea da.

Erabilerak:

a) Aurreko kategoriari *-(r)en* atzizkia dautsala, edota toki-denporakoetan *-ko* atzizkiaz:

Nork daki horren barri eta horren etxeko barri?

Hemengo barri jakingo dozu, baina hango barri ez.

Berandu emon eutsien ezkontzearen barri.

Ez eutsien aditzen emon heriotzaren barri.

Zelan jakin zeinke Ameriketako barri, bertan sekula egon barik?

Aditz lokuzino jakinak sortzen dira honen inguruan: *barri jakin, barri emon, barri euki.*

Zelan joan zara bakarrik, gure barri jakin barik?

Danaren barri emongo deusuet.

Barri atzekaria mugatzaileaz be erabilten da batzuetan:

Hak ondo daki zuen barri guztia.

Oraindino ez dogu istripuaren barririk.

Joan diranen barririk ez jaku heldu oraindino.

b) Aditz partizipioari laguntzen, ekintza amaitu baino ez dala egin adierazoten dauen denpora-aditzondoaren pareko dogu:

Abade egin barri Apatamonasteriora bialdu eben.

Gaia ikasi barri danean, ondo egin leiteke azterketa.
Hasibarritako garrak makaltzen eta ahultzen joakozan.

Halanda ze, *Partizipioa + barri (izan, egon...)* dogu lokuzinoa. Normalean, bada, *barri* daroan aditz partizipioak ez dau onartzen bere mendeko argumenturik:

**Zuk hori esan barri, mundu guztiari* *Esan barri dozuna...*
kontau deutsagu.
**Literatura-saria irabazi barri daukat.* *...irabazi barri nago.*

Batzu-batzuetan, dana dala, aditzari jagokon argumentu hurbilen bat eroan leike:

Mezatatik etorri barri dago.
Ameriketara joan barri egoan...

Batzuetan guztiz lexikalizaturik eta adjektibo bihurturik daukagu: *ezkonbarri, hasibarri...*

“Arto beroa, *errebarria*, labatik arakoa” (E. Erkiaga)

BARRUAN, barru, barruko, barrutik, barrura

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoaren ondorik, hau mugagabea edota *-(r)en* atzizkiak dala:

Eguraldi hau, kanpoan barik, etxe barruan egoteko bestelakoa da.
Erakunde barruko auziak kanpora ateratea egotzi deustie kide bati.
Kartzela barrutik gatx dago kanpoan zer jazoten dan jakiten.
Garajearen barrura ura sartzen jake.

Beste atzekarietan lez, mugagabeaz ezin da alkartu, baldin izenak izenlagun, adjektibo, erlatibo-perpau edo halakorik inguruan badauka:

**Alderdi horrek daroan politika* *... politikaren barruan...*
barruan ulertu behar dira azken *... politikan...*
adierazpenak.

b) Denpora izen-sintagma baten ondoren erabilten da *barru*, etortekoa dan denporea adierazoteko:

Hilabete barru. Astebete barru. Urtebete barru.
Egun bi barru. Hiru aste barru. Sei hilabete barru. Bost urte barru.

c) *Barru* mugagabea, atzekari izan barik, esapide egin batzuetan be badakusku. Halan, erdarazko “*incluido...*” adierazoteko. Euskara batuan *BEZa barne* egitura erabilten da zentzu beraz:

BEZa barru(an) dala. (IVA incluido)

Barru izan edota *barru egon* aditz lokuzinoa be ezaguna dogu:

Bakotxak bertso bana botako dau, neu barru nazala.

Danok barru! (esku-pelotan, batak bestea kanporatu ondoren, barriro guztiak sartzen diranean)

Zentzuak:

1) Lekutasunaren eremuan eurrez erabilten da, *barnea* edo *barneko gunea* adierazoteko, hain zuzen be.

Kotxe(aren) barruan itxi ebazan giltzak.

Gaztelu zaharraren barruan ez dago ezer, hormak baino.

“Gaixuak bere *barruan*, baitan, halako indar eta adore izkutua behar dau” (E. Erkiaga)

“Erbeste-zehar luzaro ibilita be, bihotz *barru* eroian euskal giroa” (Kirikiño)

Sin.: -(r)en barnean, -(r)en baitan, -(r)en barrenean.

Zuzenbideak:

Leku eta denpora eremuez kanpora be erabilten da, baina horretarako badira beste baliabide batzuk:

↓*Herriko jaien barruan Kepa Junkeraren kontzertua antolatu dabe.*

↑*Herriko jaietan..*

2) Denpora eremuan erabilten da, batez be denpora-gune bat zenbatekoa dan adierazoteko (noiztik noizera).

Batzuetan izen mugatzaile bakoaz:

Urte barruan. Aste barruan. Hile barruan. Lan ordutegi barruan...

Beste batzuetan -(r)en genitibodunaz:

Hiru egunen barruan aurkeztu behar izan zituan agiriak, hemen biziteko baimena eskuratzeko.

3) Denpora eremuan, etorkizun dagoan denpora-gune bat aditzen emoteko be erabilten da *barru* mugagabea, baina kasu honetan izen-sintagma osoaren atzetik. *Barru* atzekariak, oraintxetik hasi eta zeozer gertatuko dan arte zenbat denpora igaroko dan adierazoten deusku; hagaitik ba, aditza beti geroaldian joango da.

Hiru egun barru aurkeztuko ditu agiriak.

Hiru-lau minutu barru, gertu egongo da besigua.

Urte gitxi barru trenez egingo da merkataritza garraiorik gehiena.

Zuzenbideak:

**Hiru egun barru aurkeztu zituan.*

Hiru egun garrenean...

**Hiru-lau minutu barru gertu egongo zan.*

Hiru-lau minutu garrenean...

Sin.: -(r)en buruan.

Sei hileren buruan ezkonduko dira.

Donostiatik ordu gitxiren buruan Frantzira sartu zan trenez.

“Hainbeste urteren *buruan* ikusi ezta, barriro ondoan eta inguruan ikusirik” (E. Erkiaga)

BATERA, BATEAN

Aldaerak: forma nagusia *batera* adlatibokoa da; eta *batean* inesibokoa, barriz, klasikoagoa.

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoa -(e)gaz atzizkiaz dala, eta batzuetan -(e)z atzizkiaz:

Horregaz batera beste mandatu bat be egin behar deuskuzu.

*Lagun guztiakaz batera, gugaz batera eta etxeokaz batera ospatu eban.
Egun argiaz batera altzetan ziran basora joateko.*

b) Aditz partizipioaren ondorik, *eta* juntagailua lokarri dala:
*Beharrea hasi eta batera hondatu jatan ordenadorea.
Jan eta batera ez da uretara joan behar.*

c) Partizipio instrumentalaren ondorik darabilgunean be goiko balio bera hartzen dau, baina bigarren hau klasikoagoa da:
*Ikusiaz batera jakin genduan zer esango euskun.
Haren boza entzunaz batera igarri geuntsan zein zan.*

Zentzuak:

1) Nogaz edo zegaz batera dinogunean, gehienbat laguntasuna edo alkartasuna adierazoten da.
*Benito Lertxundik Euskadiko Orkestra Sinfoniko agaz batera abestu eban.
Txakurragaz batera joian.*

Sin.: lagun dala, -(e)gaz nahastean.

Txakurra lagun ebala joian.

2) Gainerako kasuetan ekintza edo jazoera bi bata bestearen atze-atzean egiten dirala adierazoten dau, euren arteko bat-batekotasuna:
*Sartuaz batera igarri eban aldaketea.
Irakasleak atzea emon eta batera berbetan hasten dira ikasle guztiak.
Goizeko argiaz batera jagi ziran.*

Sin.: -(e)z beste barik (/ бага), eta segiduan, eta berehala, eta atoan.

BAZTERREAN, bazterreko, bazterretik, bazterrerera

Erabilera eta zentzuak:

Izena mugagabea eta batzuetan *-(r)en* genitibo atzizkiak erabilten da. Zeozeren ondo, albo edo hegala adierazoten dau, baina beti eskina, zoko edo leku bakartuaren kutsuaz:

Kale bazterrean barik bestela bizi dira baserrian.

Ortuko hormearen baztertxuan egoan eskekoa hotzak hilik.

“Erreka *bazterreko* lirio lorea / enaz ederra baina, bai ederzalea.” (herri-kopla)

“Atsoak alabea saldu daianean / kukurruku egingo dau ohe *bazterrean*” (herri-kopla)

Lexikalizaziorako joera handia: *korta bazterrean, etxe bazterretan...*

Kale bazterrak zikinez beteta geratu dira jai ostean.

Gaurko sargoriagaz itsaso bazterretara egin dabe kaletarrek.

BEGIRA

Erabilera eta zentzuak:

a) Izen edo izen multzoa *-(e)ra* atzizkiak dala, haren ondorik, begiak nonora zuzenduta eukitea adierazoten dau:

*Sikate handia dagoanean, nekazaria zerura begira egon ohi da.
Udara begira jantzi barriak erosi dodaz.*

b) Datiboko *-(r)i* atzizkiaren ondorik (nori begira, zeri begira), begiak norbaiti edo zerbaiti zuzendurik eukitea adierazoten dau:

*Ume zolia danari begira egoten da.
Ikusi dozu guri begira dagoan gizon hori?*

Eta batzuetan itxaroten egotea be bai:

*Zeri begira zagoz ikastarorako izena emon barik!
Inori begira dagoana ez dabil ondo.
Lan eskabidearen erantzunari begira dago.*

c) Genitiboko *-(r)en* atzizkiaren ondorik (zeren begira), zeri itxaroten edota zeren faltan eta esperoan dagoan adierazoten dau:

*Noren begira zagoz hainbeste denporan?
Zeren begira zagoz, beharrean joan barik. (= zeri itxaroten)
“Harri baten begira zegoan zubia oilarrak kukurruku han jo ebanean” (herri-ipuina)
“Astiune baten begira gagoz saill orri ekiteko.” (J.M. Mokoroa) (= faltan, esperoan)*

Sin.: adi, zain, so, faltan.

BEHARREAN, beharrik, beharretan, beharreko, beharrekoan

Erabilera:

Aditz partizipio hutsaren ondorik, perpaus osoari eraginez:

Esan beharrean. Hil beharrik. Emon beharrekoa. Bialdu beharrekoan.

Zentzuak:

1) Ekintza edo prozesu baten ordeztan edo haren lekuan beste bat egitea:

*Ikasleek gela barruan, ixilik egon beharrean, berba eta berba ziharduen alkarregaz.
Zuzen egia esan beharrean, erdi-berbak erabilirik inguru-minguru ebilen.
“Guraso askok, aurreratu bearrean etxeko ondasuna, atzeratu, ondatu, bagetu ta galdu baino egiten eztabe.” (Añibarro)*

Sin.: ordeztan, lekuan, barik.

2) Ekintzaren bat egin beharrekotzat jotzen dala eta egiteko asmoa dagoala adierazoten dau gehienetan:

*Gauza bat zuri esan beharrean nago eta ez dakit zelan hasi.
Etxera joan beharrean nago, guraso zaharren arduratan nago-eta.*

Sin.: beharra izan, premina izan.

3) Baita bat-batean jazoteko zori edo puntuan dagoala adierazoteko. Autore klasikoetan urria bada be, zabal dabil gaur egun.

*Hil beharrean dago.
Ito beharrean ikusi dot.*

Beste guztiai berbea jan beharrea dabil.
Edan-edan eginda, albo-alboka, ia jausi beharrea igaro zan gure albotik.
Alkar jan beharrea ebilzala zirudian, mosu eta mosu.

Sin.: aginik, aginean, hurren, beharrez, -(z)eko zorian, -(z)eko puntuan, -(z)eko ari-arian, abantzu (ip.).

4) Esaera batzuetan asmoa adierazoten dau: *ondo beharrea, on beharrea, hobe beharrea...*

Sin.: beharrez.

BEHEAN, beheko, behetik, behera

Bananduta idatziko da, lexikalizazioetan izan ezean: *lainabehera, aurbehera, aldatsbehera, goibehera...*

Erabilerak:

a) Izena genitiboan dala, *heriotzearen behean, handikien behean* ereduokotan. Dana dala, gaur egun egitura horreek klasikotzat jotzen dira eta horreen ordezt, *-(r)en azpian* egitura erabilten dabe hitzunez.

“gomutaurik gizon errukior ta prestuben agindubaren beian zorijonekuaguak izango ziriala” (J.A. Mogel)

Zuzenbideak:

**Arriskua* behean

*Arrisku*pean

*Arrisku*aren behean

*Arrisku*aren azpian

Lexikalizazioetan inongo mugatasunik barik erabilten da:

Aldatsbeheran / Aurbeheran arin doa.

b) Kasu instrumentalaz, *-(e)z behera*, erabili izan da lehen, baina egitura horren ordezt, *-(r)en azpian* nagusitu da. *Behera* adlatiboa ezeze, *beheko, behean, behetik* erakoak be erabilten dira.

“Zuri zor deustut Jangoikuaz beian neure izatea” (J. A. Mogel)

“Baña zerubaz beeti nun arkitu ginai ordu ederragorik berorregaz egoten baño?” (J.A. Mogel)

Esapide eginetan dirau batez be berbeta bizian:

Ahoz behez > Ahuzpez zetzan umea ohean.

Buruz behera...

Goikoz behera...

c) Nondik behera:

Zubitik behera bota dau burua.

Erne ez bazabilz, kaka egingo deustue burutik behera.

d) Non behera:

Aldatsean behera egin dau, landan behera.

Errekan behera daroez piraguetan.

BESTE, bestean, besteko, bestera

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoagaz. Edozein kasugaz erabili leiteke berez, baina gehien *-(r)en, -a, -ak* atzizkiakaz.

Haren beste izan / Ha beste izan.
Horren beste jan / Horrek beste jan.
Neure lagunen beste / Neure lagunak beste.
Gure beste / Gu beste. Guk beste.
EAre beste boto / EAk beste...
Zure beste bider / Zuk beste bider.
Hari beste toketan jaku geuri be.
Amari beste ez deusagu zor beste inori.

b) Aditzondo eta adizlagunakaz be erabili daiteke. Toki-denporakoetan *-(e)ko* atzizkiaz edota zentzuak eskatzen dauen atzizkiaz josi daiteke:

Hemengo beste ez dago beste inon. / Hemen beste...
Zuentzat beste / Zuentzako beste.
Geugaz beste ahalegin ez dau beste inogaz egin.

c) Aditz jokatuaz:

Bakotxari berari jagokon beste; guri geuri emoten deuskuen beste.
Gura dan beste, behar dan beste...

d) Aditzizenaz, *-t(z)eko* toki-genitiboa dauela:

Perretxikotan ibili ginan eta danok apur bat jateko beste topau genduzan.
Beti dabil deika eta deika, edonori gogaitu eragiteko bestean.

e) Aditz partizipioaz, *-tako / -(r)iko* atzizkien ondorik:

Berak esaniko beste lagun etorriko dira.
Eskatutako beste eroan deusazanez, orain bera dago hainbarik.

f) Esapide eginen barruan banan idazten da: *behar dan beste* (ahoz *bidanbeste*), *ahal dan beste*, *gura dan beste*.

g) Kantidade-egituren barruan txertaturik, lexikalizazio osoaz: *hainbeste, horrenbeste, honenbeste*, edota euren adnominaletan: *hainbesteko, horrenbesteko, honenbesteko*.

Zelan euki lei hainbesteko pazientzia!
Etxebizitza erosi? Nork euki hainbeste diru?

Kantidadeaz itaun egiten danean: *hainbeste...*, kualidadeaz itaun egiten danean: *hainbeste...*

**Nik ez daukat zure beste pazientzia. ... zure besteko pazientziarik.*
**Nik ez daukat hainbeste gogo / iluzino. ... hainbesteko gogorik / iluzinorik.*

h) Izena edo izen-multzoa *-(e)z* atzizki instrumentalaz dala. Hala egina da *bataz beste* lokuzinoa edota aditz partizipioaz erabilia dan *-(e)z beste* *baga*. Antxina emonkorra bazan be, gaur bakan erabilia da:

Zuzaz beste ezin dot maite.

Nizaz besteak han izango dira.

Uraz beste aldean...

Guzaz besteak / Gu ez besteak...

Autopistaz beste alderdian bizi da.

“Laster baten igaro zan / Uraz alde bestean.” (Mondragoeko erretura)

Sin.: adina, lain, hainbat, bezainbat.

i) Aditz jokatua *-(e)z* atzizkiaz dala zeren kontra esan gura dau: *beti entzun dogunaz bestera, irakatsi deuskuenaz bestera...*

BESTE BARIK, beste baga

Ahoz zein idatziz *beste barik* da gaur egun zabal dabilen era, *beste baga* klasikotzat jo geinke.

Erabilerak:

a) Aditz partizipioa edo aditzizena *-(e)z* atzizki instrumentalaz dala:

“I. Zelan egin leite gauza bat ezeberezetik? E. Jainkuak gura izanaz *beste baga*.” (J.A. Mogel)

“Oneek guztiok geratuko dira orduan arriturik, lotsaturik, konorte baga, krutze san-tea ikusteaz *beste baga*.” (Añibarro)

b) Aditz partizipioa *eta* juntagailuaz lotuta:

Ikusi eta beste barik zarataka hasi zan.

Atzea emon eta beste barik joan egin zan ezer esan barik.

“Hori da kutxiloaren puntearen zorrotza / Ikusi *ta beste barik* hiltzen deust bihotza” (Frantzia korteko balada)

Sin.: *-(e)z* batera, eta atoan, eta berehala, eta segiduan.

BIDER, biderrez

Bider hobetsiko da *bidar* aldaeraren aurrean:

↓ *Zenbat bidar esan behar da?*

↓ *Bi bidarrez deitu behar izan deusat.*

↑ *Zenbat bider...*

↑ *Bi biderrez...*

Hizkera batzuetan, *biderrez*, *biderren* inesibo zaharduna eta halakoak erabilten dira. Bermeon esaterako: *bost biderren*.

Erabilera:

Zenbatzaile-kategoriakaz batera erabilten da, zehaztu zein zehaztubakoakaz: *zenbat bider*, *hainbeste bider*, *bi bider*, *bi biderrez*, *berein bider*, *edozenbat bider*

Hainbat bider. Zenbatgura bider.

Hamaikatxu biderrez. Mila biderrez.

Ohartu bedi, bizkaieraz be *bi bider* esaten dala. Dana dala, bizkaitar hiztunen artean *birritan* zabalago dabil. 1 zenbakiagaz, ostera, *behin* edo *baten* esaten da, baina egundo be ez **bat bider*. Gainerakoetan bietara: *hiru bider / hirutan, lau bider / lautan...*

Ondoko izen baten adnominal bihurtu daiteke, *-ko* atzizkia hartuta: *biderreko*.

Hiru biderreko hutsakaitik ez deusue ezer esango.

Hiru biderrekoagaitik ez deusue ezer esango.

“Ezin badozu garbiro emon zeinbat *biderrekoa*, esan zeinbat izango zan gitxi gora behera” (J.M. Zabala)

Zentzuak:

1) Jazoera baten maiztasuna adierazoteko darabilgunean *bider* hobesten da *biderrez* aldaera baino lehenago.

Hainbat bider izan dira arazoak urak dirala-eta.

2) Zenbatgarrenez jazoten dan adierazoteko, *biderrez*, *biderrean* eta antzekoak erabilten dira: *Abots berbera entzun eban hirugarren biderrez.*

Azkenengo biderrez esango deusue isilik egoteko, hurrengoan kalera bialduko zai - tut.

Bigarren biderrez esanda be, jaramonik be ez; hirugarrenez be esan egingo deusue.

Azkenengo biderrean egin eban lez galdu egin dau ostera be Athleticcek.

“Alan irugarren, laugarren ta gejjago *biderrian* dua ondu baga beti berba onak emoten dituzala” (J.A. Mogel)

BIDEZ

Zeren edo noren bidez, bitartekoak edo baliabideak adierazoten dira.

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoa *-(r)en* atzizkiarekin edo mugagabeen dala:

Keinu bidez / keinuen bidez aditzen dabe alkar.

Zuzenean barik mandatarien bidez bialtzen zituan mezuak.

“Giltzape horretatik ezin irten ez ezaguera *bidez*, ez lurreko maitasun *bidez*” (K. Mitxelena)

b) Izenordain, erakusle, zenbatzaile eta zehaztubakoakin derrigorrez *-(r)en* atzizkia behar dau:

“Gatzamalliak bere, izanik sartu barriak, ikasten dabee nekue andijen ta irabazi laburraren *bidez*, zer itxaraten deutseen.” (J.A. Mogel)

Zuzenbideak:

**Gutun hau bidez...*

**Ni bidez...*

Gutun honen bidez...

Nire bidez...

Sin.: *-(r)en* bitartez, *-(r)en* arartez (ip.).

BILA

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoari mugagabez loturik, ezezaguna danean, edota *-(r)en* genitiboaz ezaguna izan ezkeru. Bizidunakaz: *lagun bila, lagunaren bila, lagunen bila*. Bizibakoakaz: *ogi bila, ogiaren bila, ogien bila*.

Aitorrek hartu ebazan perretxikoen bila joan naz.

Zoaz geltokira alabearen bila, ilun dago-eta.

Beti dabil atxakia bila, bera ez joateko.

“esan ziñaike poltsearen *billa* zabiltzala?” (J.M. Zabala)

“Ez ebillen ama alabearentzat maisu *billa* bakarrik” (E. Erkiaga)

b) Izenordain, erakusle, zenbatzaile eta zehaztubakoakaz derrigorrez *-en* atzizki edutezkoa behar dau: *zeren bila, noren bila, honen bila, zeozeren bila, batzuen bila, bosten bila...*

**Nor* bila...

Noren bila...

**Zer* bila...

Zeren bila...

c) Edutezko izenordainakaz ibiltzen da: *nire bila, gure bila, euren bila...*

“diadar ta ajuika dabilz *neure billa* nire bildur ezdirianak legez.” (J.A. Mogel)

“Eztaucagu cer jua urrin *bere billa*” (Frai P. Astarloa)

**Gu* bila...

Gure bila...

d) Posposizinoa ez dala be erabilten da, aditzondo bakun legez:

Bila dabil, baina ez dot uste horrek gura dauena inon topau leitekenik.

Sin.: atzetik.

BILDUR

Bizkai euskeran: *bildur*. Euskera batuan: *beldur*.

Erabilerak:

Bildur izan aditz lokuzinoa dago atzean: *zeren bildur izan, zertako bildur izan*.

a) Izenari edo izen-multzoari *-(r)en* genitiboaren bidez lotzen jako, tradizioan mugagabea be agertzen dan arren.

Sikate handia dago eta honegaz haizeagaz suteen bildur dira basozainak.

b) Aditzizenaz be erabilten da, edo *-(t(z)eko* atzizkiaz (ze(r)tako bildur izan) edota *-(t(z)en* atzizkiaz.

Joateko bildur ei dira.

Esateko bildurrez dagoz.

“Eskatzeko bildur eta agintzen lotsa” (herri-kopla)

“ume txikia nori itxi eztaukeenak, bakarrik itxiten bildur badira” (J.M. Zabala)

c) Aditz jokatuaz, *-n bildur* eta *-lako bildur* egiturak ditugu, sarritan lehenengoa aditz subjuntiboaz erabilten da:

Koroia kenduko ete deutesen bildurrez...
Kontuz-kontuz eroaten dau umea jausi dedin bildurrez.

Bildur izan / bildur edun lokuzinoaren beste erabilera batzuk: zeri / nori bildurrez.
Ez gaxakoz bildur izan behar ezeri ez inori.

Aditz jokatuari loturik doanean, *-n bildur* edo egitura *-lako bildur* dira, bada, zuzen eta egokiak euskera osoan, eta baztergarriztat jo behar dira noizedonoiz irakurten diran beste honeek:

* *Txakurrak etorriko diranaren* ... *etorriko diran bildur...*
bildur izaten dira umeak gauero. ... *etorriko diralako bildur...*
*... *etorriko diraneko bildur...*
*... *etorriko diralakoaren bildur...*

BITARTEAN,BITARTEZ

Erabilerak:

a) Izenari edo izen-multzoari, mugagabeen edo *-(r)en* lotzen jakola:

Etxe bitartean / Etxe bien bitartean / Etxeen bitarteko hormea.
Urte bitartean. Eskola bitartean. Garizuma bitartean.

b) *-(r)en* atzizkia ezinbestekoa da hitz-kategoria batzukaz: izen mugatuaz, izenordainaz, erakusleaz, zenbatzaileaz edo beste zehaztubako batzukaz doanean. Egitura honi jagoko *bien bitartean* denpora-adintzondoa.

Haren eta nire bitarteko zubia...
Geure bitartez. Batzuen bitartez. Askoren bitartez.
Bi herri honeen bitartean dago baseliza.
Ohol batzuen bitartetik alde egin eban.
Arboladi biren bitartetik doa errekea.

c) Aditz jokatuari *-n* atzizkiak lotuta, denpora eremuan:

Ha datorren bitartean, itxaroten egon barik, zeozer egin daigun.
“Karameloen billa Zinko barruratu zan bitartian, mutikuak ikotika pozaren pozaz”
(Kirikiñi)

d) Aditz partizipio hutsaz:

Mezea amaitu bitartean badago astia egunkaria irakurteko.

e) Lexikalizaturik, *bitartean* eta *bien bitartean* denpora-zentzuko aditzondoetan:

“Eta, *bien bitartean*, hots bakartiak ernetzen dira gauaren ixiltasunean, ohituraren poderioz...” (B. Atxaga)

Baita konposaketa bidez sorturiko izenetan:

Zeruan ater bitarteak dagoz eta halango baten mobiduko gara. (= ater unadak)

Zentzuak:

1) Zer biren arteko leku edo gunea:

Ate(aren) bitartetik begira hasi zan, baina ez ninduan ikusi.
Berna / bernen bitartetik sartu jako baloia.

2) Denpora tartea:

Aste bitartean nekez egoten dira alkarregaz.

Lanordu bitarteko astiune laburrak.

“Elexaan ofizio *bitartean* barriketan egontzanak amar eguneko ur ta ogi utsezko baraua” (J.M. Zabala)

3) Noren edo zeren bidez, zer dala medio, zer dala bitarteko:

Guzurren bitartez engainau ninduan. (guzurrak zirala bitarteko)

Gure ahaleginen bitartez lortu dogu. (gure ahaleginak dirala bitarteko)

Hareek bide onera ekarteko, bere arrebea bitartekozala, zerbait egitea asmau eban.

“Geure eskuz, geure buruz asmauta daukogun bear zaratatsu bat egingo dogu euskalzaleok; eta *geure bitartez*, berorrek eta beste euskalzale guztiok” (Zamarripa)

4) Zenbakiakaz, zenbateko edo kopuruen arteko neurria adierazoten dau, dala orduari buruz, dala edozelako kantidadeari buruz: noiztik noiz arte / nondik nora arte / zenbatetik zenbatera arte:

Bostetatik hamarrak bitartean urten genduan.

Eleizatik plazara bitartean hamaika salto eta barre egiten eben gazteak.

Bizkai mugan hasi eta Bilbo ra bitartean dagozan kaietan...

“Berrogeitik eun tonelada *bitarteko* txalopetan joaten ei ziran” (A. Zubikarai)

Zenbateko guztion artean, denporearena da ugariena, noiz arte:

Seirak bitartean ez dabe sarrerarik salduko.

Astelehenera bitartean ez gara etorriko.

5) Zer dala bitarte:

Hareetarik bata, auzoan bizi zan, etxetik ez urrun, kalea bitarte...

Gela horretatik atea bitarte...

BURUZ, buruzko

Atzekari hau ekialdekoa da berez, baina aspaldirik hedatuta dago euskera guztira.

Erabilera:

Deklinatzen dan edozein kategoriari (izen, izenordain, aditz edo dalakoa) *-(r)i* atzizkiaz lotzen jako.

Hizkuntza gitxituei buruz egingo deusku berba aditu batek.

Zeri buruzkoa da gaurko bideohitzaldia?

Zentzua:

Berbakizuna zein dan adierazoten dau. Erdi eta sartaldean, zeren gainean, zeren inguruan, zer dala-eta (berba egin) erabili ohi da gehiago, batez be berbaz.

Zeri buruz da autua?

Merkataritza gune handien gainean berba egin eben atzoko saioan.

DUIN, duina, duineko

Bizkaiko tradizioan *duin* agiri dan moduan, ekialdean *doi* daukagu.

Erabilerak:

- a) Izen, izenordain, erakusle eta antzeko kategorien ondoren, *-(r)en*, *-(e)rako duin* (*izan*, *egin*):
Ama on baten duinekoak ziran berba honeek.
“Ez eban egin salbazinoerako *duin* edo asko zan penitenzijarik.” (J.A. Mogel)
“*orretarako duin* ezpagara bere” (J.A. Mogel)
- b) Aditzizenakaz *-(z)eko* atzizkiaz alkartzen da:
Liburu hau ez da argitara aterateko duin.
Aitatzeko duina da euskeraren alde egin dauen beharra.
“Egingo naz gizon ogija irabaz *teko duin*” (J.A. Mogel)
“*jaazteko duin duina*” (J.A. Mogel)
- c) *-(e)gaz* atzizkidun sozietiboagaz:
Horrexegaz duin dauka ume batek.

Zentzuak:

- 1) Bardintasunezko konparazioa egiten dau, kantidadea zein kualidadea:
Jangoikua duin edo gehiago...
Eguzkia duin ederra dozu aurpegia.

Sin.: (1) beste, adina, lain. (2) baizen, bezain.

- 2) Nahikoa edo behar-beharrezkoa dana:
Gu pozik gagoz bizi iza teko duinagaz.
Honegaz duin daukagu gure zorrak pagetako.
- 3) Gai, kapaz izan zeozertarako:
“ortxe aurkituko dozu bera artuteko *duin* egingo zaituzana.” (Frai P. Astarloa)
“ez gara *duin* atztxu bat albora egiteko, berak gugaz ezpadarabil, ezta zirkintxu bat bere eguiteko.” (Frai P. Astarloa)
- 4) Gaztelerazko “digno de” zentzua be badau gaur egun:
Eleizarako duin dan hizkera.
Honenbeste ondasunen duin ez garela.

EDU [/ **Eredu**]

Aldaera nagusi bi ditu: *edu* arrunta eta *eredu* klasikoa. Bitzuan forma deklinatuak erabilten dira: *ereduan* / *eduan*, *eredura* / *edura*, *ereduko* / *eduko*. Berbaz dirauana *edu* da. Hagaitik ba, horri emongo jako idatzirako lehentasuna, *eredu* erabilera jaso edo klasikoago baterako itxita.

Erabilerak:

- a) Izen, izenordain, erakusle eta antzeko kategoriakaz erabilten da, sintagma gehienbat *nor* edo *nork* kasuetan dala:

Danon biziak balio dau zureak edu.

Hori edu geu be bagara.

Zuk edu kulpa edo gehiago dauka berak.

“Ia dagoz dantza atan gizonaezkorik *edu* emakume, edo mutilik *edu* neska” (Frai Bartolome)

“ta noberak *edu* ondasun, jakiturija edo entzute ez daukeenai, kasurik ez egitia” (Frai Bartolome)

“Popuertza jakin bihar ditugun egija santuben ezauberarik ez daukee urrineti bere seme alaba askok, aita ta ama *edu* azita egon arren” (Frai Bartolome)

b) Izen edo izen-multzoa *-(r)en* atzizkiaz doala dirau gaur berbete-modu batzuetan:

Euskalerriko leku guztietan balegoz honen eduko gizonak.

“Enparaduba arpegijaren *eduko* badozu.” (Otxolua)

c) Aditz jokatuaren ondoren, *-n* atzizkiaz:

Ez inogaitik txarto esan zeuregaitik ez esatea gurako zenduan edu.

“Alan jausi jakon mardotasuna, laaztu ulia, agertu saiats azurrak, miatu ankia, leena zana ondo igarri ezin zan *ereduan*” (J.A. Mogel)

“beguira zeuen arimeari, eta jagon egizue zor jakan *bestean (eduan, aleginean)*” (J.M. Zabala)

“Oneek eta beste kontau ezin ginaizan *eduk*, ezkontzako estaduban jaditxi ebeen santu izatia.” (Frai Bartolome)

d) Aditzizenaz, *-(z)eko* toki-genitiboaren ondorik:

“Jo-ala makillada artzeco *eduko* astotzar andija” (Otxolua)

Zentzuak:

1) Neurri bardineko konparazioa:

Hori gauza da zu edu ibilteko.

Sin.: beste / bestean, adina, adinbat.

2) Kualidade bardintsuak adierazoteko:

Amak esan deitsun eduan egin beharko zeunke.

Sin.: moduan, bezala, eran, antzean.

3) Gaztelerazko “según”, “a tenor de”:

Bakotxari emongo jako bere egiteen eduan.

Sin.: *-(r)en* arabera.

ERDIAN, erdiko, erditik, erdira

Erabilera:

Izen edo izen-multzoari *-(r)en* atzizkiaz edota mugagabeaz lotzen jakola.

Kale erdian / Kalearen erdian / Kaleen erdian.

Ordu erdian. Minutu erdiko atsedena.

Berba batzuetan lexikalizaturik dirau. Halan: *gauerdia, eguerdia, kuartiluerdia...*

Zentzuak:

1) Leku-posizinoa adierazoteko:

Hainbeste lagun en erditik aurre-aurreraino joan ziran.

Astoa bidearen erditik joian.

2) Denporearen joanean uneda bat marketan dau, erdikoa, hain zuzen.

Goiz erdian atsedentxoa hartzen dabe kafea edateko.

Gauaren erdian hots ikaragarri bat entzun zan.

“Orain artean esan dodan guztia oraindik ez antxiña ta neguaren erdian gertaurikoa da” (D. Agirre)

3) Neurriaren erdia adierazoten dau izen soilaren ondoren erabilita, determinatzaile moduan:

Litro erdi. Tonelada erdi. Kilo erdi. Kilometro erdi.

Pitxar erdi. Baso erdi.

Urte erdi. Minutu erdi.

ERRUZ

Noren edo zeren erruz, esangura negatiboaz erabilten da: zoritxarreko barriren bat adierazoteko gehienbat.

Erabilera:

-(r)en atzizki genitiboaz lotzen da beti. Ugariagoa da *bere, euren* erako izenorde edutezkoakaz, baina izen eta antzeko beste kategoriakaz be erabilia da.

Ertzaintzak dinoanez, ezbeharra errepide labanaren erruz izan zan.

Guraso batzuen erruz arazo handiak sortu dira ikastolan.

Zeozar jazota be, norberaren erruz ez dedila izan behintzat.

Kalteak, egiten dituanaren erruz edota eragiten dituanaren erruz izan daitekez.

“Baña ez deutse autortuko euren *erruz* dala, ez bada euskerearen laburtasunagaiti” (J.A. Mogel)

“alegina egiten badozu txingarra andik kenzeko, ezin esan leiteke zure *erruz* erre dala erropia” (Fra P. Astarloa)

“Zalapartari okerren *erruz* hasarrea barru-barrura sartu arren” (M. Zarate)

Sin: *-(r)en* kulpaz, dala-eta.

“Bildur naiz, sorlekuaren *kulpaz* noski, ene baitan gorrotozko eta mendekuzko gogoia gorderik ez ote dagoen” (J. Etxaide)

ERTZEAN, ertzeko, ertzetik, ertzera

Erabilera eta zentzua:

Izen edo izen-multzoari mugagabez edota *-(r)en* atzizkiak loturik erabilten da. Bazterreko edo eskinako tokia adierazoten dau.

Bildurtu zan, eta bide ertzean egoan etxe batera hurreratu zan.
“Erreka ertzean landa bat dago luze-luze jarrita” (D. Agirre)

Sin.: bazter, hegal, eskina, ondo, albo, hegi (ip.).

ESKE

Erabilera:

Izen edo izen-multzoari zuzen erantsi lekikio, ezelango mugatasun barik, ezezaguna danean, eta *-(r)en* atzizkiaren bidez ezaguna izan ezkerro:

Diru eske / Diruaren eske / Diruen eske.

Bulego haretara jo genduan udalak agindutako laguntzen eske.

Ebatziren bat lehenbailehen hartzeko, laguntza eske nabil.

Mesede eske etorri jaku.

Zuzenbidea:

**Unai ekarririko opari eske etorri jaku. ... opariaren eske...*

ESKER, eskerrak

Erabilerak:

a) Izen, izenordain, erakusle eta antzeko kategoriei loturik, beti be *-(r)i* atzizki datiboaz:

Nori esker aprobau dozu?

Neba-arreben laguntzari esker urten eban aurrera.

Osaba abadeari eskerrak; ostean kartzelan egon beharko eban beste lau hilabetean.

Zuzenbidea:

**Izekoaren esker topau eban beharra. Izekoari esker...*

b) *Eskerrak* izenari mende-perpau kompletiboa lotzen jaku batzuetan, gehienetan *-na* edo *-n* atzizkiaz, eta batzuetan *-la* atzizkiaz:

Arin etorri dana eskerrak, bestela bape barik geratuko zan.

Eskerrak zeozer ikasi doguna aspaldiko urteotan, ezpabere gure koitadua!

Eskerrak etorri zarien, osterantzean bakar-bakarrik egongo nintzan.

ESKU, eskuan / eskuetan, eskutik / eskuetatik, eskuko

Bizkai euskeran *esku* eta *eskuan* dira ugarienak. *Eskupean* be erabilia da.

Erabilera eta zentzuak:

a) Noren esku egoteak noren ardurapean edo erantzukizunean dagoan adierazoten dau. *-(r)en* atzizki genitiboaz erabilten da:

Etorkizuna zeuen esku dago.

Geroko destinua ez dago gizonaren esku, hori Jainkoaren esku dago.

Boto-emoileen esku dago alkate nor ipini.

Arduradun barria ipintea ez egoan lankide en esku.

Ez itxi inoren eskuan norberak egin leiana.

Saria emotea edo ez emotea ez da nire eskuko.

“Eztira promes onak; eta eztauke indarrrik; eta eukita bere zeuen *eskuan* daukazue indargetea ta eragoztea” (J.M. Zabala)

“Al badozu, gizon on bat *en eskuetan* imini eta aren esanera egon” (J.M.Zabala)

“Errialde onetako bizi-zirkiñak euren *esku* ta ardurape egozan, kontrolpean nunbait be” (E. Erkiaga)

b) Norbaiten eskutik hartzea, haren bidez edo bitartez egitea da:

“Gogora [egin] ekarri bekioz *aren eskuti* artu izan dituzan mesede ta ondasun guztizkoak” (J.M. Zabala)

Eskupean atzekaria be, ardurapean edo agintepean zentzuaz erabilten da:

“Juan zan Nazarethera eurakaz, eta bizi izan zan euren *eskupe* eta aguindura.” (Fra P. Astarloa)

Sin.: -(r)en gain, -(r)en kontu, -(r)en menpe, -(r)en pentzuan, -(r)en baitan (ip.).

ESPERANTZEA, esperantzan, esperantzaz

Erabilerak:

a) Mendeko perpausetan, aditz jokatuari *-n* edo *-lako* eransten jako:

Nozonoz egoera hau aldatuko dan esperantzan ibili gara, baina guztiz etsita gagoz.

Gaur etorriko diran esperantzea lakoa izan dot, eta etorri egin jakuz.

Osatuko dalako esperantzan gagoz.

Sin.: itxaropena, ustea.

b) Aditzizenaz, *-t(z)eko* atzizkiaz:

Beharra ixteko esperantzea daukat.

Urteteko esperantzea euki dau, baina etxean geratu behar izan dau.

c) Izenordain posesibo, erakusle eta antzekoakaz be erabilten da, *-(r)en* bitarte dala.

Zure esperantzan egon dira danak, baina huts emon deutsez.

Loteriak noiz urtengo: horren esperantzan egozan pobre koitaduak.

Hobearen esperantzan bizi ziran.

Sin.: ustean, asmoan, itxaropenean, pozean.

GAINEAN [/Ganean], gaineke, gainetik, gainera [/ ganeko, ganetik, ganera]

Aldaera bitzuk dira erabiliak, *gainean* / *ganean*, bata ekialderago, bestea sartalderago. Idatziz *gainean* hobetsi leiteke, orokorragoa edo dalako, baina erabilia dan eremurako *ganean* be ontzat emonez.

Erabilera eta zentzuak:

a) Izen edo izen-multzoari *-(r)en* atzizkiaz lotuta:

1) Lekutasunaren eremuan, goiko posizinoa adierazoten dau. Izen mugagabeari darraikola be bai:

Sasi guztien azpitik eta laino guztien gainetik.
Mendi gainetik beherantz etorren astotxu baten gainean.

2) Gai edo materia baten inguruan jarduteko edo gai hori gogoan erabilteko:

Hauteskundeetako emaitzen gainean berba egin dabe.

3) Noren ardurapean dagoan zeozer agertzeko:

“Emakume zorrotzen *gain* gelditu zan buruko edo gueneko eztabaidea” (E. Erkiaga)

Sin.: -(r)en gain, -(r)en kontu, -(r)en menpe, -(r)en pentzuan, -(r)en baitan (ip.).

b) Instrumentalaren ondorik, *-(e)z gainetik, gainera, gaineko* ereduak eregiak. Gaur erabilerera urriagoa izanagaitik, sustrai sakonekoak dira, eta guztiz gomendagarriak erderazko “*además de*” juntadura-balioa adierazoteko: *horrezaz gainera, hazaz gainera.*

Izen, izenordain, erakusle eta antzekoakaz:

Semeaz gainera alabak be etxean egozan.
Guzaz gainera beste euskaldun asko be bazan Parisen.
“Gure euskal tradizioaz *gainera*, tradizio unibertsalaren oinordeko gara” (J. Sarrionaindia)

Aditz erlatiboaz:

Esan danaz gainera...

Aditzizenaz:

Pentseteaz gainera eta esateaz gainera, eukazan asmoak betetera heldu da ausartiori!

Sin.: ostean, aparte, berezi, landa.

Udaltzainez aparte, ertzainak eta suhiltzaileak be baegozan.
“Txanton, Otoioperen lemazainaz *landa*, labakide be bazan” (E. Erkiaga)

Aditz partizipioaz, erderazko “*después de*” esangurea dauka:

Ikusiaz gainera badakit nor dan.

Horren parean esaera jakin batzuetan *-(r)en* atzizkiaz be badarabilgu: *jakinaren gainean, iku-siaren gainean, entzunaren gainean...*

GARRENEAN, -garren, garrenera, garrenetik, garreneko, garrengo

Bizkai euskeraz, beste euskalkietan gitxi ikusten dan erabilera bat dauka, zenbatzaile atzizki izateaz zerikusi larregi ez daukana. Aldi-tarte baten barruan, hasieratik une jakin batera hel-tzen dala adierazoteko erabilten da. Kasu honetan, atzizkia baino gehiago hitz atzekaria (posizinoa) da. Eta zenbatzaile bati barik, izen sintagma osoari ipinten joko atzean.

Erabilera: NOR (edo beste kasuak) + Atzekaria.

a) Denpora eremuko izenakaz erabilten da batez be: *ordu, egun, aste, hile, urte...* Gehienetan zenbatzaile eta guztiko izen-sintagmetan: *denporea / denporak, hilabete / hileak, urtebete / urteak, gero / geroak.*

Joan da etxetik eta harik hiru egun garrenera azaldu da barriro.

Ettxera sartu eta handik minutu batzuk garreanean urten eban barriro.

Aitita gurea, hemendik hamar urte garrenera be osasunez egotea nahi neuke.

Hemendik ehun urte garrengo holantxe egon gura leuke.

“Amabost egungarreneko ikasiko leuke edozein andrak” (J.A. Mogel)

“Eta arik puskatxu bat *garreanean* begiak zuriak gora eguin, zeure aokadaak eta negar-anpullua emon eta geldituten zara ill otzik.” (J.M. Zabala)

“Arik denpora zati bat *garreanean* jazoten da etxean norbait ezkondu bearra, seinen bat jaiotea” (J.M. Zabala)

b) Izen batzuk *bete* hitzaz osotzen dira unidatea edo bat izatea adierazo nahi danean: *ordu -bete, astebete, hilabete, urtebete...*

Kamioiek auzoko kaminoan egin zituen zuloak handik urtebete garrenera be kon - pontzeko egozan.

Ezbeharra euki eta harik astebete garreanean ondo egozan guztiak.

Zuzendaria ez da orain bulegoan, baina ordubete garreneko hemen dozu atzera.

c) Orduakaz be ugaria da:

Egizuz beste zereginen batzuk orain eta zatoz atzera ordu erdi garreanean-edo auto - aren bila.

Peru eta Mariaren matraka zaratatsu hareekaz, herri guztia ordubete garreneko jakitun egoan.

d) Beste batzuetan denpora-izen mugatuen ondorik ipinten dira, eta singularrean baino sarriago pluralean:

Oindino mutil gazte joan zan misinoetara eta handik urteak garrenera bihurtu zan herrira.

Buruz behera jausi, konorte barik geratu eta handik orduak garreanean etorri zan bere senera.

Hankea apurtu eta luzaroak garreanean be oraindino igeltsuagaz hanka-hoskan ikusi genduan.

Zuzenbidea:

↓*Aste bi beranduago be bera etorri zan.*

↑*Aste bigarreanean...*

↑*Handik aste bira...*

↑*Harik aste bigarrenera...*

Sin.: handik / harik ... -(e)ra. / -(e)an.

GINOAN, gino, ginoko

Bereiz idatziko da hurrengo kasuetan izan ezean:

– Erakusle eta galdetzaileakaz: *horretagino, hatagino, no(ra)gino, zerta(ra)gino...* Dana dala, testuetan sarritan bereizirik agiri dira.

– Adlatiboaz (nora kasua) darabilgunean be, *-raino* atzizkiaren aldaera modura, loturik idatzi leiteke: *honagino, etxeragino*.

– Aditzondoakaz: *orduragino, etzigino, atzogino, oraingino*.

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoari *-(r)en* edutezkoaz alkaturik:

Mutil haren ginoan egiten dogu geuk be.

Zeren ginoko lapurretak egin ete zituan harek?

Zeure ginokoa dozu mutil hori.

b) Adlatiboaz (nora kasua):

Etxebizitzak noragino igon behar dabe, bada!

c) Izen soila nor kasuan doala:

Beharlekukoak, lagunak, etxeokak eta txikitako irakasleak ginoko guztiak batu ziran haren liburuaren aurkezpenean.

Sin.: arteko, eurak be bai.

d) Aditz jokatu erlatiboaz erabilten da gehienbat:

Lurrikara izan dan herrialdeetarako laguntza eskatzen da, bakoetak ahal dauen ginoan.

e) Aditzizenaz, *-(z)eko* atzizkiari darraiola:

“Jatekoa ta jatzekoa beti osatu dugu, sabela ase ta nun-nai txukun agertzeko giño - an” (J. Etxaide)

Sin.: neurrian, heinean, bestean, tamainuan.

Zentzuak:

1) *-ginoko* adnominala, batez be erakusleei dautsela, goren graduko konparazinoa adierazoteko erabilten da:

Hataginoko itxikeriarik, ez dot sekula ikusi!

Horretaginoko ume lotsabakorik ez da inon izango!

2) Bardintasunezko konparazinoa:

Jausitakoa handiagoa dan ginoan, durundia handiagoa.

3) *Dan ginoan* esapideak esangura egina dauka: *ahal dan bestean, ahalean.*

Ate eta leiho guztiak diran ginoan zabalik itxita alde egin dau.

Blaust! zan ginoan edo luze jausi zan lur rera odol-emoile bat.

GOIENEAN [/ Guenean], goieneko, goienetik, goienera [/ gueneko, guenetik, guenera]

Goen eta *guen* aldaeren artean, azkena hobetsiko da idatzirako, orain arteko testu idatzietan gehiago erabili da-eta.

Banan idazten da, baina berba batzuetan guztiz lexikalizatuta agiri da: *udagoien, astegoien, Uriguen, Ibarguen...*

Erabilerak:

a) Izen edo izen-multzoari *-(r)en* atzizkia ipinirik edo inongo lotura barik erabiltzen da.

Deba goiena...

Landa goiena, zeru goienean...

Soloaren goienean dabilz ehiztariak euren txakurrakaz.

b) Nongo kasuaren ondorik gitxitan baino ez da erabiltzen, eta horren orde bestea egitura batzuk normalagoak dira:

↓*Afrikako goien aldean...*

↑*Afrika goienean...*

c) Egitura batzuetan aposizinoan darabilgu, batez be leku-adberbioakaz:

Hemen goienean haizeak leku guztietatik jotzen dau.

Hor goieneko baselizatxua barriztu egingo dabe.

Han goienetik ura jatorku etxe ondora.

Zentzuak:

1) Izenak izentaukoaren goiko parte edo alderdia adierazoten dau. *Barren* berbearen kontrako zentzua dauka:

Etxe goieneko landara jatsi dira Gorbeiaiko ardiak.

Zakuaren goinean gorde doguz zapatak.

2) Denpora zentzua hartzen dauenean, akabuko aldia adierazoten dau: *marti goiena, Paleolitiko Goiena, Erdi Aro Goieneko...*

Udagoien eguzkitsua izan dogu aurten.

Astegoieneko osteratxu bat antolatu dogu.

XIX. mende goieneko autoreei buruzko kritika-liburua argitaratu dabe.

Urte guenean hainbat liburu argitaratzen dira Durangoko Azokarako.

GORA, goian, goiko, goitik

Erabilerak:

a) Genitiboaren ondoren edo inongo mugatasun barik:

Mendiaren goiko aldean hainbat antena ipiniko ditue.

Gure goiko etxebizitzan bizi da.

Zeru goia baino gorago igon eban.

b) Non gora:

Bideetan gora eta behera geratu barik dabil.

Eskilaretan gora egin eban igogailuari itxaron barik.

c) Nondik gora:

Hortik gora egin ezkerrean ailegauko zarie tontorrera. (“a partir de”, lekuagaz)

Bostehun lagunetik gora batu ziran herri-bazkarian. (“más de”)

Ikastaroan hamalau urtetik gorako umeak baino ezin ditugu hartu. (“de más de”)

*Gaurtik gora ez deusut berbarik egingo. ("en adelante", denporeagaz)
Datorren urtetik gora beste modu batera jokatuko dodala dinotsat neure buruari.*

d) Esakeretan; zerez gora egitura.

*Etzi Bilbo hankaz gora izango dogu Andrazkoen tourra dala-eta.
Buruz gora egiten dot lo.
Oporretatik bueltan eperdiz gora topau eban beharlekua.
Aiztoa ahoz gora eukiteaz kontuz!
Azpikoz gora itxi eban gelea umeak.*

HARA, harako

Erabilera eta balioa:

a) Ablatiboaren ondoren erabilten da. Askotan ablatibo zaharraren *-(e)rik* atzizkia hartzen dau. Gehienetan izenakin erabilten da, baina inoiz adberbio edo beste kategoria batzuekin be bai.

*Labarik harako ogia dozu, jaizu!
Uretatik harako prakak jantzi dodaz eta zikindu egin dodaz.
Orrazkera horregaz esan leiteke ohetik hara datorrela.
Garbirik hara joaten da goizero, baina uger-uger eginda etorten da.
Atzerik hara ikusi zaitut.*

b) Aditz partizipioa eta juntagailuaz lagunduta:

Jan eta hara sartu zan uretara.

HUR, hurrean, hurreko

Erabilerak:

a) Ablatiboaren ondorik:

*Etzetik hur-hur daukat metro geltokia.
Nigandik hurrean egozan.
Hemendik hur bizi da.
Bilbotik hurreko herritxo baten bizi da.*

Sin: paraje, urrun barik, gertu.

*Gatika Mungiatik paraje dago.
Etzetik urrun barik bizi da laguna.
Herriko plazatik urrun bako etxe baten daukie egoitza.*

b) Genitiboaren ondorik, alboan adierazoteko.

*Bere hurrean bizi dau alabea.
Bedar-meta handi batzuen hurrean...*

c) *Nor / zer* kasuaren ondorik, gitxi gorabeherako ordua adierazoteko:

Hamabiak hur-hurrean dira, hasi naiten bazkaria egiten.

Sin.: inguru, aldera.

JABE

Erabilera eta zentzuak:

- a) *-(r)en jabe* egiturak zeren ugazaba dan adierazoten dau:
Abarketa pare bategaz joan eta ehun miloiren jabe eginda etorri zan.
Aldundia hainbat ondasunen jabe da.
- b) *Zeri jabe egin* esakerak zaindu esangurea dauka; baina hemen ez da hitz atzekaria:
Egiozu jabe ume txiki horri.

Sin.: kargu egin.

Egiezue kargu zeuen gauzei.

KABUZ, ka(b)utan, kabura

Erabilera:

- Izenordain edutezkoai loturik batez be, *-(r)en* atzizkiaz:
Bere / geure / neure ka(b)utan...
Gazteak euren kabuz taiutu dabe egitasmoa.
Ez ebala inoiz esango pentsau eban bere kautan.
“Iñoan bere kautan neskatilleak” (E. Erkiaga)
“Polito ziharduan neskatoak bere kabuz ta kontura” (E. Erkiaga)

Zentzuak:

Batzuetan, noren kontura, modura edo erara egin dan adierazoten dau, eta beste batzuetan bihurkari lez be erabilten da: *nor bere kautan, nor bere artean, nor bere barrurako, nor bere kasa.*

Sin.: erara, kasa, kontura, gisa, modura.

Itxi umeari bere kasa olgetan. (erara, modura, airera)
Horrek bere gisara hezi ditu seme-alabak. (erara, modura, airera)

KALTEAN, kaltetan, kalterako, kaltez

Erabilerak:

- a) *-(r)en* atzizki genitiboari loturik erabilten da ia beti:
Danakaz haserratzten bazara zeure kaltean ibiliko zara.
Asko hasi ziran esatekoak esaten hareen kaltetan.
Badakizu erretea zeure kalterako dana, ezta?
“Onik bigarren egunean erriko gizadi guztia ebillen zurrur-murru, iñundik diran berba txarrak esaten senar-emazte bi en kaltez” (J. Etxeita)
- b) Nozonoiz izen mugagabeari loturik, *etxe-kalte* berbearen eredura, eregi daiteke:
Etxe kaltean ibili.

- c) Esamolde egin batzuetan be agiri da:
Etixerako kaltean, zurretat kaltean...

Zentzua:

Zeozeren / nonoren kaltean, mesedetan edo faboretan berben aurkako esangurea dauka.
“Zerren dabillen bere osasun, etxe ta izen onaren *kaltean*” (J.A. Mogel)
“Are lehenago, bada oraindik beste obra bat etxeko sukaldeko suak irentsi zuena, munduaren *kaltetan*” (K. Mitxelena)

KANPORA, kanpo, kanpoan

Erabilera:

- a) *-(e)tik* atzizkidun izen edo izen-multzoaz:
Etzetik kanpo(ra) dabil.
Arin urten eban eskaratzetik kanpora.
Klasetik kanpo egizu zeuk gura dozuna, baina hemen...
Epe barruan heltzen diran lanak onartuko dira; handik kanporako guztiak bazter - tu egingo dira.
- b) *-(e)z* atzizkiaren ondorik:
Jokoz kanpo harrapau gaitu.
Atez kanpo euri eta euri da.
Zuzaz kanpo ez dot ezetan pentsetan.
Eskatutako neurriaz kanpoan asko gelditu dira.
Legez kanpo dabil.

Zuzenbidea:

**Ikastaroaren kanpo geratu da.*

Ikastarotik kanpo...

Sin: at, landa, leko (ip.).

Gugandik at dabil, Euskal Herritik at.
Etzetik landa...
Horrezaz landa...

KASA, kasako, kasan

Erabilera eta zentzuak:

Ia beti izenordain edutezkoakaz erabilten da. Nor bere kontura, bere erara edo bere kabuz ibiltea adierazoten dau, eta batzuetan balio bihurkaria be badauka.

Hari bizimodua bere kasa egitea gustetan jako.
Itxiezu, dabilzala euren kasa.
Bakotxa bere kasa bizi da.

Sin.: erara, kabuz, kontura, gisa, modura.

KONTRA, kontrako, kontran, kontrara, kontratik

Erabilera eta zentzuak:

a) Norbaiten edo zerbaiten ondo-ondoan dagoala adierazo gura danean, izen edo izen-multzo soil mugagabeari ipini lekikio, edota *-(r)en* gen. atzizkidunari:

Etxe kontran / Geure etxearen kontran.

Zoaz horma kontrara / Zoaz etxe atzeko hormearen kontrara.

Kendu zaituz su kontratik erre egingo zara-eta.

Ekarri eizu ate kontrako aulkia.

Sin.: ondoan, alboan, aldamenean.

b) Norbaiten edo zerbaiten aurka dagoala adierazoteko *-(r)en* gen. atzizkiak lotzen jako beti izen edo izen-multzoari:

Arerioen kontra eta lagunen alde.

Norberaren kontra datozanean haginak erakutsi behar jakez.

Lege horren kontra bozkatu dabe legebiltzarrean.

Euskeraren kontrako jarrera agertu dau Nafarroako presidentek.

Izenordain, erakusle eta zenbatzaileekin derrigorrez *-(r)en* atzizki genitiboaz:

Zure kontra. Horren kontra. Uste guztien kontra. Natura beraren kontra.

c) *Zerez kontra* egitura zaharra be erabilten da oindino esapide batzuetan, kontrara edo bes-tetara dala adierazoteko: *gogoz kontra, medikuaren esanaz kontra.*

Aditz jokatuagaz noren edo zerez kasua behar dau:

Beti entzun dogunaz kontrara, zer dala kontua eta, orain etxe hau eurena dala dinoe.

Beti entzun dogunaren kontrara...

Sin: *-(e)z* bestera.

LAIN

Lain edo *lagin* berba zaharrak *atal, parte, neurri* esangurea dau.

Konparazino egiturak eregiteko atzekari lez erabilten danean, kantidade-bardintasuna adierazoten dau.

Erabilera: *-(e)ko* toki-genitiboaz lotzen jako beti aurrekoari.

a) Aditzizenaz, *-t(z)eko lain*:

Biziteko lain egiten daki, ez aberastu beharreko urregose txarrez.

Ameriketan, bizimodu eroso aigaroteko lain diru irabazi eban.

b) Adizlagun-mota bigaz: *-(e)rako* eta *-(r)entzako* atzizkiakaz.

Aurten ez dago piper askorik, baina etxerako lain batuko doguz.

Aurtengo lain badago.

Etorri geure etxera bazkaritan, zuretzako lain egongo da-eta.

*Apur bat badaukagu, baina ez danentzako lain.
Bi gehiagorentzako lain leku ete dago mahaian?*

Sin.: beste, adina, hainbat.

LAKO [/ **Lango**], lakoxe(a)

Idazkera:

Bereiz idatziko da hurrengo kasu honeetan izan ezean:

- Erakusleakin: *holako, holako, halako*.
- Galdetzaille eta euren eratorriakin: *zelako, edozelako, ezelako, zeozelako, inolako...*
- Lexikalizazioetan: *upealako*.

Itxura: *lako* forma hobetsiko da *lango* aldaeraren aurrean. Bizkaiko autore klasikoek *lango* formari jera edo abegi handiagoa egin deusie orokorrean. Bitzuk darabilez autore nagusiek (J.A. Mogel, Añibarro, J.M. Zabala...), baina *lango* sarriagotan. Halanda be, gaur egun joera nagusia *lako* erabiltearen aldekoa da.

Erabilerak:

a) Izenordain-erakusleakaz erabilten da gehien:

Ni lako, hi lako, gu lako, zu lako, zuek lako.

Inor ez lako, norbait lako, edonor lako, bera lako, norbera lako...

b) Izen arruntakaz erabilera urriagoa dauka. Izenak mugaturik erabilten dira, gehienetan *nor* kasuan, baina *-(r)en* gen. edutezkoaz be bai batzuetan:

Amerikanuak lako kotxea

Amerikanuen lako kotxea

Aberats jenteak lako etxea

Aberats jentearen lako etxea

Umeak lako...

Umeen lako...

Lehenagokoak lakoa

Lehenagokoen lakoa

Gizonak lakoa

Gizonen lakoa

Mutila lakoa / Sagua lakoa / Mozoloa lakoa

c) Zenbatzile eta beste kategoria batzukaz be erabilten da:

Gitxik lako auto ederra erosi dau.

Beste askok lako etxea dauka.

Zenbatek lako...

Hainbatek lako...

d) Aditz jokatuaz be erabili daiteke, aditzari *-n* edo *-na* erantsita. Ahoz edo *-n* erlazino-atzizkia osorik kenduta, edo *-na* atzizkiaz erabilten da: *Nik daukada(n) lakoa. Zuk daukazuna lakoa.*

Gaurko mundua ez da antxina izan zan lakoa.

Ni ez naz zu zara n lakoa.

Gu garan lakoxeak dira beste guztiak be.

Sin.: bezalako(xe), legezko, moduko.

e) Aditzizenaz, *-t(z)eko* atzizkiaz:
Kontu hori ez da jentaur rean esateko lakoxea.

f) *Ba-... lako* moduzko egituran:
Hilzorian balego lako orroak egiten zituan.

LEKUAN, lekuko, lekutik, lekura

Erabilerak:

a) *-(r)en* gen. atzizkiaz izen edo izen-multzoari loturik:
Sailburuordearen lekuan joan da Ameriketara.

b) Aditz jokatuaz, *-n* atzizkiaz erabilten da. Tokitasun-zentzuko erlatibo perpausak eregiteko sarri erabilten da egitura hori, gaztelerazko “donde”:
Nekez heldu zeintek ez ni nago an lekura.
Gu bizi garan lekuko jenteak jera ona egingo deutsu beti.
Behingoaz urrundu zaitez orain zagozan lekutik.

c) Aditz partizipio edo aditzizenakaz be bardin erabiliko da, *-tako / -(r)iko* eta *-t(z)eko* atzizkien bitartez.
Badaezpadan be ondo biziteko lekura joan da biziten.
Lagun guztiak, geuk esandako lekura batu ziran afaltzen.

Zentzuak:

1) Noren orde.

Sin.: tokian, orde.

Nik zure tokian gauza bera egingo neuke. (Ni zu banintz...)

2) Non: jazoera baten gertalekua adierazoteko.

LEPOTIK, lepora

Erabilera:

Izenakin, izenordainakin eta erakusleakin erabilten da genitiboaren ondorik:
Hamaikatxu barre egin doguz haren lepotik.
Gurasoen lepotik bizi dira.
Erantzukizuna bere lepora hartu eban.
“Jan eta edan dezente, ino *ren lepotik*” (E. Erkiaga)
“Eguna igaro eban atsentsua Nikolasa *ren lepotik!*” (Felix Bilbao)

Sin: *-(r)en kontu(ra)*, *-(r)en pentzura*, *-(r)en bizkarretik*.

Inoren kontura egiten dauz joan-etorriak.
Zeuen kontu geratzen da baimena eskatzea.

Irakasle baten pentzura itxi eben hango ardura guztia.

“Mahai haretako guztia *neure bizkar* izango zala jakinerazo neutsan Oibarri” (E. Erkiaga)

LEZ, letxe, legezko

Aldaerak: *lez* hobetsiko da idazketa arruntean, *legez* maila jaso edo klasikoago baterako itxita. Bigarren hau da tradizioz idatzian erabili izan dana. Mende honetan zabaldu dira batez be *lez* eta antzeko aldaerak (*letz*).

Forma indartuetan be, *letxe* eta *legetxe* formen artean aukera bardina egingo da. Bazterrekotzat joko dira *lentxe*, *laintxe* eta enparauak.

Adnominal modura darabilgunean oster, *legezko* hobetsiko dogu *lezko* formaren ondoan.

Erabilerak:

a) Edozein deklinazino-kasugaz batera erabili daiteke: *gizonak lez*, *gizonari lez*, *gizonakaz lez*, *gizonetan lez*...

Izenordainakaz erakusleakaz eta abar, absolutiboaz edo beste kasu batez erabilten dan moduan, genitiboaren gainean eregiteko joera be zabaldu da: *hauxe / honexen lez*, *ha / haren lez*, *bera / beronen lez*, *bat / baten lez*...

Geu be hori / horren lez bizi gara.

Hau be, ha / haren lez, euskaldun barria da.

Gizon batek / baten lez egiten dau berba.

b) Toki-denpora kasuetako atzizki guztiakaz erabili leiteke: *hango lez*, *inoizko lez* baina baita *inoiz ez lez*, *han lez* be. Beste kasu batzuetan be era bitara jokatzen da: *zueneko lez / zue -nean lez*, *orduiko lez / orduan lez*, *gaurko lez / gaur lez*, *antxinako lez / antxina lez*...

Zeure etxean lez egongo zara hemen.

Norberaren etxera lez joan zeintek ez hara.

Futbol-partidu batetik lez jentea moltsoan etorren kalean zehar.

Aditzondo soilakaz: *beti lez*, *gaur lez*, *antxina lez*...

Halanda be, joera handia dago *-(e)ko* gen. atzizkia erabilteko, batez be, aditzondoakaz: *hango lez*, *hemengo lez*, *gaurko lez*, *orduiko lez*, *sekulako lez*, *betiko lez*, *antxinako lez*, *inoizko lez*...

Izen arruntakaz joera gitxiago dago: *beharrean lez / beharreko lez*.

c) Aditzizenaz, *-t(z)ea* edo *-t(z)eko* atzizkiakaz:

Hori da, lehenengo baietz esan, eta gero ez joatea lez.

Berari esateko lez egon naz, haserre nagoala beragaz.

d) Aditz partizipioaz sarri erabilten da: *-ta*, *-tako* / *-(r)iko* + *lez*, eta esakera batzuetan partizipio hutsaz:

Mozkortuta lez ebilen.

Agindutako lez egin dot.

Neuk esandako lez egizu.

Harrotu lez egin zan txapelketa irabazi ebanean.

Baina baita, *-tako*a edo beste kasu batzukaz:

Konputagailu hau, zuk erositakoa lez, txarto dabil.

e) Aditz jokatuakin *-n lez* ereduaren ondoan ezaguna da oraindino *-na lez* Arratia eta Bizkai mendebaldeko beste inguru batzuetan:

Berandu dana lez, ezin naz luzaroago zuekaz egon.

Legezko gitxi erabilten da gaur egun. Berorren lekuan *lako* eta *-(r)en moduko* erabilten dira gehiago. Halanda be, autore klasikoetan ondo lekututa dago, eta erabilgarritzat jotzen dogu.

“Ak uste dau eztaguala *bera legezko* Barberurik Bizkai guztijan” (J.A. Mogel)

“odola ateratia gaiti ezleukee *zubek legezkuak* diru berezkorik eruan biarko” (J.A. Mogel)

Sin.: *-(r)en moduko, lako, bezalako(xe).*

f) *Ba-... lez* moduzko egituran, alegiazko aditzaz:

Zer pasau dan jakingo ez bazendue lez egin eizue.

MENPE [/ **mende**], menpean, menpeko, menpebik, menpera

Menpe edo *mende* berbeak azpian edo agindupean egotea adierazoten dau. *Menpe* aldaera da nagusi bizkaieran, baina *mende* be ezaguna da, eta autore klasikoek erabilia. *Menpe* mugatu barik gehiago erabilten da, baina inesiboan (*-(e)an*), edota beste leku-denpora kasuetan be agertzen jaku:

Euren menpe(an) bizi beharko joagu.

Euren menpeko beharginak gara.

Erabilera:

Genitibo edutezkodun izen edo izen-multzoari dautsala:

*Jauntxo*en menpetik *urten ezinik bizi izan dira.*

Inoren menpe jardutea beti da nagusiaren onerako.

Zuzendariak bere menpeko guztiai arau zorrotzak ipini deusez.

Buruzagi anker horrek laster ekarri zituan bere menpera matxinatu guztiak.

“Ezinikusiarene *menpe* bere, eurrez sortzen dira arerioak.” (E. Erkiaga)

Zentzuak:

1) Zeren edo noren azpian gagozan:

Diruaren menpe gagoz guztiok.

Nik neure menpera ekarriko zaitut.

Sin.: *-(r)en azpian, -(r)en menean.*

2) Noren ardurapean edo noren pentzuan dagoan adierazoten deusku:

Ez dago neure menpean hori egitea, ostean egingo neuke.

Sin.: *-(r)en esku, -(r)en gain, -(r)en ardurapean, -(r)en baitan, -(r)en pentzura.*

MESEDETAN, mesedean, mesederako

Erabilera:

-(r)en gen. atzizkiak erabilten da eta esamolde egin batzuetan -tzat / -tzako atzizkiakaz.

Herritarren mesedetan ekin eta jardun eutsan bere bizi guztian.

Noren mesedetan da egin dozun hori? Gurean ala eurenean?

Ez da bidezkoa, baten mesedetan beste bati kalte egitea.

Zeuen mesederako egin eta halan eskertzea be!

“Alan behar, bai; eta beretzat mesedetan.” (J.M. Mokoroa)

“... zuentzako mesedean izango da-ta.” (R.M. Azkue)

Sin.: -(r)en faboretan, -(r)en alde.

MODUAN, modura, moduko

Itxura: *moduan* da aldaera zabalena, Bizkai ekialdeko inguru batzuetan *modura* erabilten bada be. *Moduko* izenlaguna da.

Erabilerak:

a) Izenaz:

1) Mugatzaile barik sarri azaltzen da izen bakarragaz, konposatu antza hartzen dauela: *lagun moduan, irakasle modura, inputadu moduan*. Baita *txabola moduko etxea, liburu moduko aldizkaria*.

Inputadu moduan deklarau eban Laura Agirrereren auzian.

Abade moduan egin eutsan berba, ez lagun moduan.

Batzuetan zentzu gatxereslea be badauka. Holakoetan, *gizon moduko* = *gizon antzeko, gizon deitu daiteken*.

Gona moduko bat erosi dau ezkontzarako.

Kotxea edo, kotxe moduko bat badaukat behintzat.

Etxe moduko baten bizi da.

2) Noren kasuaren ondorik:

Umeen moduan dabilz beti.

Nagusien moduan egiten dau berba ume hor rek.

Peruren moduko abotsik daukanik ez dozu topauko.

3) Toki-genitiboari lotuta be erabilten da:

Etxeko moduko jatekoa ipinten deuskue taberna hor retan.

Kaleko modura bizi dira baserrian be.

Ezin da inoiz *nor / zer* edo *non* kasuen ondorik txertatu:

**Gizonak gizon bat moduan jokatu behar dau.*

...*gizon baten moduan...*

**Etxean moduan hartu gaitu.*

Etxeko moduan...

Izenaz ezeze, beste kategoria batzukaz be asko erabilten da *moduan* forma mendebaldean. Izenordain eta zenbatzaileakaz be ezinbestekoa da genitiboa erabiltea.

* <i>Gu</i> moduan / <i>guk</i> moduan	<i>Gure</i> moduan
* <i>Asko</i> moduan, <i>askok</i> moduan, <i>askogaz</i> moduan	<i>Askoren</i> moduan
* <i>Batzuek</i> moduan	<i>Batzuen</i> moduan
* <i>Guretzat</i> moduan	<i>Guretzako</i> moduan

b) Aditzizenaz, *-t(z)eko* erabilten da beti: *jateko moduko umea, entzuteko moduko diskoa, ikusteko moduko pelikulea...*

c) Partizipioaz: *-ko, -tako / -(r)iko* + moduan.

Zeuk itxiko moduan *topau neban dana.*

Aginduriko moduan *bete eban berbea.*

Zeuk azaldutako moduan *bideratu ditu izapide (tramite) guztiak.*

Geuk ebatzitako moduan *bete da dan-dana.*

d) Aditz jokatuaz, *-n* atzizkiaz:

Datozen moduan *hartu behar dira hemen gauzak.*

Neuk dakidan moduan *egingo dot, luzaroago gelditu behar badot be.*

e) *Ba...* moduan moduzko egituran, alegiazko aditzaz.

Diruduna balitz moduan *janzten da.*

NAHASTEAN, nahaste

Ia beti *nahastean*, baina batzuetan *nahaste* soila be bai.

Erabilera:

Izena edo izen-multzoa nogaz kasuaz erabilten da. Inoiz edo behin, baita instrumentalaz be:

Okelea piperrakaz nahaste ipini dau.

Ume txikiak nagusiagoakaz nahastean hobeto jaten dabe.

Sagar ustelak dagoz onakaz nahastean, egizuz alde batera.

“*Titiaz nahaste* edan dagian berbeta jaungoikozkoa” (Arresebeitia)

“*Gizartekeriak be guzurrak nastean* egi batzuk ba darabiltz.” (J. Eguzkitza)

“*Auzitegira daroe Nikanor, atxilotu talde bat egaz naastean.*” (E. Erkiaga)

Sin.: batera.

NAHIKOA

Erabilerak:

a) Izena edo izen-multzoa *-(e)gaz* atzizkiaz dala erabilten da.

Guk bategaz nahikoa daukagu.

- b) Aditzizenakin: *-t(z)ea*gaz, *-t(z)ea*, *-t(z)eko*.
Agureak honaino ailegeteagaz nahikoa egin dau.
Geurea pageteagaz nahikoa daukagu.
Hareei erakusteko nahikoa dakigu.
Mamorroa aitatzea nahikoa da Mirentxu negarrez hasteko.

ONDOAN, ondoko, ondotik, ondora

Idazkera: bereiz idazten da lexikalizinoetan izan ezean. Hatakotzat jo geinkez: *betondoa*, *ukondoa*, *sutondoa*.

Erabilera nagusiak eta zentzuak:

- a) Lekua adierazoteko erabilten da *ondo* sartaldeko euskeran ia beti, izenagaz doanean. Izena mugagabea:

Eleiza ondoraino heldu ziran suak.
Errepide ondoan lurperatu eban gorpua.
Etxe ondora etorri ziran kartelak ipinten.
Erreka ondoko soloa...

Sin.: alboan, hegalean, aldamenean.

- b) Izena genitiboan: *alkarren ondora*, *norberaren ondotik*, *nortzuen ondokoa*, *lagunaren ondoan*, *lagunen ondoan*, *zubi(aren) ondoko etxea...*

“Sartu zan barrura (Azerija), ta Otso ilaren *onduan* damu asko baga ase zan arikiz”
(J.A. Mogel)

Genitiboaz, konparazinoak egiteko:

Honen ondoan txiki sentiduten naz.

- c) Aditz partizipioaz darabilgunean, denpora balioa hartzen dau: osteko edo ondorengo aldia adierazoten dau. Gaur egun gitxi be gitxi darabilgu era hau bizkaitar hitzunok. Jazoera baten ostean gertaturikoa adierazoten dau, gerokotasuna.

Itsasotik etxeratu ondoan, tailer baten hasi zan beharrean.

“...barriz berari jaramonik egiten ez eutsala ta bakarrik emoten eutseela lasto zati bat, ta nosbait eskubete arto garau, biarra eragin *onduan*.” (J.A. Mogel)

“Azerija eguan gisatstegi baten zelata ikusten igaroten zana, ta barre eginda bere zokondoti urten *onduan* esaten deutsa Otso lurrian etzanari:...” (J.A. Mogel)

ONEAN, onerako, onetik, onez

Erabilera:

-(r)en genitiboaren ondorik erabilten da:

Bakotxak bere onerako egiten dau ez besteen onerako.
Zeuen onean dabil, ez bere onerako.
Eta guk ixildu egin behar gure seme-alaben onez.
Aloger orde jardutea beti da nagusiaren onerako.

Lokuzinoetan: *neure onetik atera.*

Sin.: -(r)en hobe beharrez, -(r)en ondo beharrez, -(r)en alde, -(r)en faboretan, -(r)en mesedetan.

Ikasleen hobe beharrez luzatu genduan ikastaroa.
Batzuen pozez, askoren saminez, bere odolekoen alde agertu eban burua.

ORDEZ, orde

Lexikalizatuta: *amaordea, lehendakariordea, uleordea.*

Erabilerak:

a) Mugagabeen:

Teila orde harriak jarri ebazan.
Tabako orde artabizarrak erreten zituen.
“Maitasunezko ezkontza *ordez*, alkar laguntzako tratu bat egokiago deitu eikean”
(A. Zubikarai)

b) Genitiboaz:

Ipini eban bere ordez maiteen eban dizipulua.
Hauxe da hainbat urtetako behar ren ordea.
Eginiko mesedeen ordez, saritxu bat emon eutsan.

c) Aditzaren partizipioaren ondoren:

Norberak egin ordez, inori agintzen daki.

d) Aditz jokatuaz:

Sekula ez dozu hartuko merezi dozun ordea.

Zentzuak:

1) Ordezkapena edo trukea adierazoteko:

Berak bialdu deustazan gauza guzti en ordea egin gura deustat.

Sin.: pagua, ordaina, trukea.

Itzela izan da azkenean hartu dauan pagua.
Gure pekatuen zorraren ordaina...
Ondo eginen pagua, ate ostean palua. (esaera zaharra)
Gaur Santa Agedaz lez, etxe bakoitzean ez dabe eskupeko jasote makala izaten,
agurtze truke eta ordainez.

2) *Nonoren ordeak egin* ordezkoa egitea da:

Joan jatzun mutilaren ordeak egingo deustadaz.

Sin.: -(r)en ordezkoa, -(r)en tokian, -(r)en lekuan, -(r)en partez.

3) *Barik* edo *beharrean* posposizinoen pareko zentzua:

Indartu ordez, makaldu egin zan.
Laguntza emon ordez dirua eskatu eutsan.

ORDUAN, orduko

Denpora zentzua: zeozer noiz jazoten dan adierazoteko.

Erabilerak:

a) Nora adizlagunaz:

Harek hara (heldu) orduko, besteek alde egingo deutsee.

Etxera orduko ordutzarrak joko deuskue.

Etxera orduan kalera.

b) Aditz partizipioaren ondorik: *antolatu orduko, bete orduko, esan orduko...*

Halako sugar handiak ikusi orduan ikaratu egin zan.

Itsasora urten orduan, olatu itzelak jagi ziran.

c) Aditzizenaz, *-t(z)eko* atzizkiaz:

Urteteko orduan heldu ziran.

d) Aditz jokatuaz, *-n* atzizkiaz:

Aitak beharrera urten eban orduan sartu zan semea etxera.

ORDUKO

Orduko posposizinoak denpora zentzuaren barruan, denpora-erlazino bi adierazoten ditu:

1) Bata bestea baino arinago jazoten da:

Oporretan joan orduko iraileko ikastaroak atondu behar dira.

Zubira (heldu) orduko bueltea hartu eban.

Hirurak orduko jakingo dozu zer dan edo zer ez dan.

2) Bata jazo eta berehala jazoten da bestea:

Andereñoak atzea emon orduko hasten dira umeak berbetan.

Sin.: *-(e)z* batera, eta berehala, eta atoa, eta beste barik [/baga].

OSTEAN, osteko

Idazkera: banan idatziko da: *meza ostein, eskola ostein, ate ostein...* Baina berba batzuetan lexikalizatuta agertzen da: *bazkalostekoa, afalostean.*

Erabilerak:

a) Izen mugagabeaz edo gen. edutezkoaz erabilten da: *meza ostein, zeure ostein...*

b) Atzizki instrumentalari darraiola be erabilera ugaria da tradizioz idatzian eta kasu horretan *-(e)z aparte, -(e)z gainera* posposizinoen hurreko zentzua dauka.

“Badaukaguz oneez *ostian* zortzi basabei, ta basaidisko galant bat” (J.A. Mogel)

“Ijeliak darua biarsari edo aloger gejago, ta onek izan daruaz egunekuaz *ostian*, eskupeko edo atsegin sarijac” (J.A. Mogel)

c) Aditz partizipioaz erabili ezker, *eta* juntagailua erabilten da sarritan:

Jan eta ostean...

Zeugaz berbetan egon eta ostean...

Partidua galdu eta ostean...

Ixartu eta ostean, lehenengo-lehenengo...

Zentzuak:

1) Denporearen eremuan, ondoko edo geroko aldiunea:

Opor ostean beharrari ekitea ez da samurra izaten.

Partiduaren ostean talde bietako zaleek alkar jo eben.

Sin.: jarraian, ondoren, eta atoan, eta laster, eta berehala, eta behingoan...

2) Espazioaren eremuan, atze posizioa:

Hatxen ostean hilda topau zituen etorkin batzuk.

Udaletxearen osteko lautadan ipiniko dabe erakusketa aurton.

Frontoi ostetik gora doan bidea konponduko dau udalak.

PAREAN, pare, parera, pareko, paretik

Erabilera eta zentzuak:

a) *-(r)en* genitibo edutezkoaz, modua adierazoteko:

Leloen parean geratu gara.

Zoroen pare ibili naz atzera-aurrera gaur goizean.

Sin.: lez, *-(r)en* moduan, *-(r)en* antzean.

Zoroak lez dabilz kotxean gaurko gazteak.

Umeen moduan ibiltzen dira txakur eta katu.

b) *-(r)en* genitibo edutezkoaz, lekua marketako:

Zubiaren parean alkartzekotan geratu ginan.

Nire parera heldutakoan agur egin eustan.

Alde eizu nire paretik!

PARTEZ, partetik

Erabilera eta zentzuak:

1) Noren ordeaz edo lekuan adierazo gura dau:

Ni zure partez joango naz.

Sin.: *-(r)en* lekuan, *-(r)en* ordeaz, *-(r)en* izenean.

Ni zure lekuan joango naz.

Aitaren izenean joan zan batzarrerera.

2) Noren aldetik esangureagaz:

Gure partetik ez dago eragozpenik.

Gorantziak emon eiozuz geure partez / partetik.

-PE(AN), -peko, -petik, -pera

Idazkera: izen soilari lotu edo erantsirik erabilten da ia beti: *lainopean, eleizpean, etxepean, eskolape, teilapeko, ahopetik, besapera...*

Baina, izen multzo handiagoakaz be ezaguna da:

Inoren ardurapean...

Ertzainen kontrolpean...

Zuzendariaren agindupean...

Erregeak bere agintepeko guztiai zerga garratzak ipini eutsezan.

Erabilerak:

a) Izena mugagabeen joaten da: *lurpean, zerupean, aterpean, zubipean, arkupean, eskepe, teilatupe...*

Izenaren ondoren adjektibo edo izenlagunen bat joan ezkerro, *-(r)en azpian* egituraz ordezkutzen da:

Araupean, baina *Arau zurrunen azpian* (menpe, mendean)

Baldintzapean, baina *Baldintza gogorren azpian* (menpe, mendean)

Zuzenbideak:

**Agintari asko pean*

Agintari askoren azpian

b) *-(r)en* gen. edutezkoari dautsala nekez erabilten da mendebaldean. Dana dala, autore klasikoetan inoiz agiri da adibideren bat:

“aita espiritualaren esanaren-pean beti egon” (J.M. Zabala)

PEKOAN, PEKORA

Itxura: *pekoan* eta *pekora* bitzuk erabilten dira, baina Bizkai ekialdean (Ondarroa, Eibar, Markina...) bigarrena entzuten da.

Erabilera eta zentzua:

-(r)en pekoan egoteak norbaiten edo zerbaiten ardurapean edo hak jagonda dagoala esan gura dau.

Hil jakezan aita-amak eta izekoa eukien lez, haren pekora geratu ziran umeak.

Etxalde guztia txakur baten pekora geratzen da.

“Nok egon biar dau Eguzkijaren pekuan legez oetik urteteko?” (J.A. Mogel)

“Oneen artian zan ekanduba orduban mutiltxu asko imintia, irakasle baten pekuan, alkarregaz azi zitezen” (J.A. Mogel)

“*Pekua*: Protección. Berorren pekuan nago: estoy entregado o bajo la protección de Umd.” (J.A. Mogel)

Sin.: ardurapean, ardurara, pentzuan, kontura.
Zenbat ume daukazuz zeure ardurara?
Erabagi hori itxi neure ardurapean.

PENTZUAN, pentzura, pentzutara

Idazteko *pentzuan*, *pentzura* formak proposatzen doguz, nahiz eta ahoz *pentzutan* eta *pentzutara* era mugagabeak entzunak izan. Tradizino idatzian, barriz, itxura osoagoa daukien *pentzudan*, *pentzudaan* formak agiri dira.

Erabilera eta zentzuak:

a) Izena edo izen-multzoa genitiboan:

Aitak alde egin ondoren, seme-alabak amaren pentzuan geratu ziran.

Etxalde guztia Mikelen pentzura dago. Berak izan ezean, inork ez dau zotzik alborra egiten.

Kotxerik ez daukadanez, beti ibili behar dot inoren pentzuan.

Batean baten pentzuan, bestean bestearen pentzuan... Badakizu, akabuan nagusi askoren astoa, goseak hil.

“ta geroko obiaguaren pentzudaan egonaz, igaro erraza egiten jakee daruen biar gogor ta nekatsuba” (J.A. Mogel)

“eta (fiadurik) iminirik bizitzea olen batzu en pensuan botetan dau burua itsasoaren erdira” (J.M. Zabala)

“Zelan lagako zaitut, ba, beste ren pentzura? (E. Erkiaga)

b) Aditzizenaz *-t(z)eko* toki-genitiboaren ondorik:

Ez egon nik iratzartzeko pentzuan.

Zeren edo noren pentzuan egoteak erderazko “a merced de”, “a expensas de” adierazoten dau.

PESKIZAN

Erabilerak:

a) Genitiboaren ondorik:

Gazteen peskizan ibili naz.

Ez da itxi behar surik umeen peskizan.

b) Aditzizena, *-t(z)eko* atzizkia:

Egun batzuk jai hartzeko peskizan gabilz.

Zentzuak:

1) Zeren bila:

Gurasoen peskizan ibili da.

Lagunen peskizan etorri dira.

2) Noren eskura:

Ez euki botikarik umeen peskizan.

- 3) Zertarako itxaropena edo amesa:
Oporrak heltzeko peskizan gagoz.

PORASUZ

Porasuz, podazuz, podezuz... aldaeren artean *porasuz* gomendatuko geunke idazteko. Euske-
ra batuan *poderioz* erabilten da.

Erabilera eta zentzua:

Izenaz eta aditz partizipioaz erabilten da genitiboaren ondorik:

Indarraren porasuz ez dabe gure gogoa zapalduko.
Denporearen porasuz osatuko jatzuz zauri horreek.
Diruaren porasuz urten dabe aurrera egitasmo guztiek.
Diruaren porasuz irabazi dau Bartzelonak ligea.
Ekinaren porasuz azkenean lortu dogu.
Eginaren porasuz edozertan ikasiko dozu.

Sin.: -(r)en puruz, -(r)en poderioz, -(r)en (k)ariaz (ip.).

Bakea elkarrizketaren poderioz lortuko da.
“Erreka gainezka zetorren aurreko eurite *en poderioz*” (B. Atxaga)
“Gizadia erdibituta dago bazter guztietatik, botere eta menderatasun *aren poderioz*”
(Jose Angel Irigarai)

Zeozeren *porasuz* formak erderazko “a fuerza de” esan gura dau, hau da, gauzea zeren ondo-
rena dan adierazoten dogu.

POZEAN, pozaz

Erabilera eta zentzuak:

- a) Jarrera ona, ilusinoa eta itxaropena agertzen da *zeren pozean* berben bidez.
Diruaren pozean behar eta behar ebilzan.
Horrexen pozean joan da, bestela ez dau izan altzetako gogorik.
Bata bestearen pozean behar eta behar egiten eben andra-gizon hareek.
“Han joian, joan, haize osasuntsuago *en pozean...*” (E. Erkiaga)

Sin.: irrikaz.

- b) *-t(z)eko* aditzizenaz be sarritan erabilten da:

Afaritan joateko pozean egon naz egun guztian.
Alkar ikusi eta kontuak jakiteko pozean betzen ziran.

- c) Aditz jokatuaz, *-n* edo *-lako* atzizkien ondoren:

Astegoienean nonora urtengo dogun pozean astea laburragoa egin jaku.
Dirua jasoko dabelako pozaz dabilz.

PREST

Erabilerak:

a) Aditzizenaz toki-genitiboaren ondorik:

Ordaintzeko prest, emoteko prest, laguntzeko prest....

b) Batzuetan norako edo zertarako eta noizko kasuakaz:

Etixerako prest, beharrerako prest, oherako prest, hondartzarako prest, Bilborako prest, mezatarako prest...

Biharko prest, etziko prest...

Sin.: gertu.

Laguntzeko gertu, mendirako gertu, noizko gertu...

PURUZ

Zeozeren *puruz* formak “a fuerza de”, “a puro de” esanahia dauka. *Porasuz* forma eremu zabalagoan erabilten da, *puruz*, ostera, eskualde batzuetan.

Esanaren puruz izan ezean, ez leuke ezer egingo.

Behar gogorraren puruz daukagu daukagu guztia.

“Horrexeatik hazi zitzaioa hain adar handia, horregatik eta urteen *puruz*, jakina.”

(X. Amuriza)

Sin.: -(r)en porasuz, -(r)en poderioz, -(r)en (k)ariaz (ip.).

*Ahaide hurbilekiko tratua ez da beti lagungarri izaten, hurbiltasunaren kariaz, kal -
tegarri baizik.*

Euskerak gauza bera adierazoteko beste baliabide batzuk be baditu:

Entzunaren entzunaz *azkenean jenteak sinestu egiten dauz hainbat guzur.*

“Esanaren *ekiñez*, erdi sinistu egiten ditu batzuk” (A. Zubikarai)

Baina beti ez dira baliokideak:

Minaren minaz *bihortuta egon da.* (Minaren porasuz)

Zaratearen zarateaz *ezin izan dogu barbarik be egin.* (Zaratearen porasuz)

Diruaren diruaz *ez daki zer gura dauen be.* (Diruaren porasuz)

Bildurraren bildurras *arnasarik be hartu barik pasau zan.* (Bildurraren porasuz)

Jan beharraren jan beharraz.

Esan beharraren esan beharraz.

Zuzenbideak:

*Gaziaren puruz *ezin izan dogu jan.*

*Txarraren puruz...

*Zaharraren puruz...

Gaziaren gaziaz...

Txarraren txarraz...

Zaharraren zaharraz...

TRUKE, trukean

Erabilerak:

a) Izena mugatzaile barik: *mosu truke, sari truke, diru truke, ezkontza truke...*

b) Izen edo izen multzoa genitiboan:

Bazkariaren truke egiten dauz etxeko beharrak.

Horren trukean ha emongo deutsut.

Auspoari eragitera joan behar izaten eban diru apur baten truke.

c) Aditzakaz:

“Bizia bizi *truk* zioen Moisesen legeak” (J. Etxaide)

“Jan *truke* ta egon zalako lenengoan” (E. Erkiaga)

Sin.: -(r)en alde(ra), -(r)en ordez.

Kafe baten alde lagunduko deutsut etsamina prestetan.

URRUN, urrunean, urruneko, urrunera

Mendebaldeko berbetan *urrin* be entzuten da leku batzuetan. *Urrun* orokorragoa da eta gehiago erabili da idatzian. Mungia inguruan *asago* sinonimoa entzuten da esangura beraz.

Erabilerak:

a) Izen, izenorde, erakusle eta aditzondoak ablatibo kasuan doazela erabilten da:

Nigandik, gugandik... urrun

Honetatik, horretatik... urrun

Hemendik, hortik... urrun

Jaiotetxetik urrun, ez etxeko, ez adiskide barik bizi zan luzaroen.

b) Eredu zaharrean, -(e)z instrumentalaz be bai: *uraz urrutia.*

Sin.: urruti, asago.

USTEZ, ustean

Erabilerak:

a) Izena edo izen-multzoa -(r)en genitiboan:

Adituen ustez, azken pelikulea ez da bape ona izan.

b) Aditzizenaren ondorik, -(t(z)eko atzizkiaz:

Alkateari berari esateko ustea daukat.

Oporretan bape ez joateko usteaz egozan.

c) Aditz jokatuaz, -n atzizkiaz:

Gure taldeak irabaziko dauen usterik ez dogu galdu.

Geu joan beharrean, eurak bertora etorriko diran ustean gagoz.

Mendeko perpau osagarria da *uste* izenari batzen jakona. Baina *-n* atzizkiaz ezeze, *-lako* atzizkiaz be eregi daiteke:

Liburuak entzute handia irabaziko daue lako ustea daukagu.

Zentzuak:

1) Zeri itxaroten, zeren zain, zeren adi, zeri begira:

Zeren ustean zagoz ahalbait arinen adiskidetzeko.

2) Zeren adia, asmoa, ideia, intentzinoa, gogoia:

Barrero ez joateko ustean nabil.

3) Eretxia: batzuen eretxiz, gure eretxian...

ZAIN

Erabilerak:

a) Izen-multzoa genitiboan dala: zeozeren edo nonoren zain egoteak zeozeri edo nonori itxaroten egotea adierazoten dau.

Lagunen zain egotea toketan jako beti.

Eusko Jaurlaritzatiko gutunaren zain egon naz.

Zuzenbidea:

**Antza danez, nonori zain egon da*

...nonoren zain...

bide ertzean parauta.

b) Aditzari loturik. Batzuetan aditzizenari, *-t(z)eko* atzizkiaz, beste batzuetan partizipioari *-ko* atzizkiaz:

Geu etorteko zain egon dira afaritan hasteko.

Eskola-lagunak noiz ailegauko zain egon dira partidua hasteko.

Sin.: *-(r)i itxaroten, -(r)i begira, -(r)i adi.*

ZALE

Bereiz idazten da. Halanda be, berba batzuetan lexikalizatuta agiri da: *diruzale, mendizale, pelotazale, etxezale, abertzale, bertsozale, pastoralzale...*

Erabilerak:

a) Gehienetan inongo mugatasun barik lotzen jako izenari edo izen-multzoari, baina *-en* atzizki genitiboaren ondorik be erabilten da:

Gauza on zalea / Gauza onen zalea

Piper zalea / Piper gorri zalea / Piper gorrien zalea

Okela zalea / Okela erre zalea

Patata zalea / Patata prijidu zalea

Ume zalea / Ume txiki zalea

“Agura buruzuri oilanda *zalea*, / nok erakutsi deutsu gurera bidea” (herri-kopla)

b) Zertan zalea:

Irakurten zaleak diranentzat liburuak harribitxiak dira.

Bertsotan zalea da gure mutikoa.

Dantzari zalea, bizikletari ibiltari zalea, kartari zalea, jokari zalea...

c) Aditz partizipioari dautsala:

Ibilitari zalea.

Jan eta edanari zalea.

ZEHAR

Erabilerak:

a) Adizlaguna edo izen-multzoa non kasuan dala:

Hor zehar dabilz goiz guztian.

Frantziari zehar ibilitari gara oporretan.

**Mendia zehar...*

Mendia zehar...

b) Adizlaguna edo izen-multzoa nondik kasuan:

Joan zaituz horti zehar!

Basoetatik zehar ibilitari dira.

Denpora kontuakaz sarritan *zehar* behar ez dala darabilgu:

**Kartelak arratsaldean zehar ipintea*

... arratsaldean...

erabagiti dogu.

Sin.: -(e)an barrena.

ZORIONEZ, zorionerako

Erabilerak:

a) Noren kasuaren ondorik:

Guztion zorionerako ez zan ezer txarrik pasau.

“Bere zorionez, ez joako ara, ez” (J.A. Mogel)

b) Gainontzeko kasuetan ez da posposizinoa, aditzondo bakun lez erabiltzen da:

Zorionerako izan dagiela etxe barriori.

8. GRADUATZAILEAK

Berba mota batzuek euren esangurea gorantz edo beherantz mailakatua edo graduatua izatea onartzen dabe.

Hitz-kategoria nagusiak ondokoak dira:

- izen mota batzuk
- adjektiboak
- aditzondo mota batzuk (moduzko eta denporazkoak batez be)
- aditzak

Hitz kategoria honeen artean adjektiboak eta aditzondoak dira sarrien eta ugarien graduatu ohi diranak.

8.1. ATZIZKI GRADUATZAILEAK

-KO / -SKO

Atzizki txikitzailea da berez, baina edozelan be berba gitxi batzuetan fosilizaturik baino ez dirau sartaldeko euskeran.

Giza-izenakaz: *mutiko* (< *mutil*), *morrosko* (< *morroi*). Honen eratorria da *morroskona*.

Abere-izenakaz, batez be ipuin-alegietako kontestuan eta kutsu peioratiboaz sarri: *astoko*, *mandako*, *azeriko*, *otsoko*, *zezenko*.

“Esan daroe, *mandako* on bat, ahuntz on bat ta emazte on bat, hiru kuka gaizto dire-ala.” (Mikoleta)

-*sko* atzizkiak eregiak dira ondoko hitzak: *idisko*, *oilasko*.

Adjektiboakaz be erabilten da:

Harrosko *samarra da*.

-SKA

Adjektiboakaz baino ez da erabilten. Koloreakaz batez be: *gorriska*, *zuriska*, *horiska*, *berdeska*...

Kotxe zuria erosi dauela dinozu? Ez horixe, ilunskea erosi dau, berdeskea dalako -an nago.

-TO

Atzizki hau, berez, izaki baten txikitasuna adierazoteko txertatzen jake berbei. Baina sartaldeko euskeran, -*to* atzizkiak ia beti handi-zentzua emoten deutse izenei, -*txu* atzizkiak izakien txikitasuna adierazoten dauen bitartean. Halanda ze, gaur egungo euskeran, berba askotan

-to / -txu aurkakotasuna dogu, lehenengoa izaki bat handiagotzeko eta bigarrena txikiagotzeko:

Zentzu gora- edo hanpatzailea:

Andra	Andrato	Andratxu
Gizon	Gizato	Gizontxu
Lapiko	Lapikoto	Lapikotxu
Mutil	Mutilto	Mutiltxu
Neska	Neskato	Neskatxu, Neskaxi, Neskabila
Ume	Umeto	Umetxu
Zaldi	Zaldito	Zalditxu

Adibideak:

Hori ez da mutiltxua, mutiltoa baino.

Baina zelako andratoa egin da berau hamabi urtegaz!

Zelako gizatoa zan bera ba!

Behi nabar horrek dauka errapetoa! Eta esnea be zenbatgura.

Abadearen lapikotxea / txikina baia gozua, / ikazginaren lapikotoa / andia baia arrua. (herri-kantua)

“Berbaurretxua deituko zer hau, berbaurretoa litzake” (Zamarripa)

“Begiratu eban deia etorkon alderdirantza ta bere buruto lodi-higuingarria uretatik aterata ugaraxo bat ikusi eban” (I. Larrakoetxea)

Zentzu txiki- edo gitxitzailea dauka, ostera, oraindino berba gitxi batzukaz. Halan:

Zaku	Zakuto
Ahari	Aharito
Zaran	Zarando (zestilatxua)
Zorro	Zorroto

Atzizki hau daben berba batzuk adjektibo lez erabilten dira kualidatea erakusteko: *txarrito*.
Txarritoak *halakoak, sastar guztiak ez ditu hortxe itxi ba!*

-TSU

Adjektibo eta aditzondo gitxi batzukaz erabilten da:

Bardintsuak *dira eta hartu eizu bata zein bestea.*

Oraintsu *joan da oraindino.*

-TXU [/ -txo]

Hau da izen, adjektibo eta aditzondo txikitasuna edo beheranzko graduaketa egiteko euskerak dauen atzizkirik garrantzitsuena.

Mendebaldeko euskeran -txu da forma nagusia, baina beste euskalkietako -txo be bizirik dago Bizkaiko hego-sartaldean (Arratia...). Hagaitik bada, bigarren honi be ez jako gaxteretxiko.

Izenakaz ugarria da:

gizontxu, umetxu, txahaltxu, etxetxu, mosutxu, arazotxu...

Emon eidazu mosutxu bat, maitea.

Gura dozu gozokitxu ba?

Izen bereziakaz be ugarria da, batez be ume-izenetan:

Juantxu, Maritxu, Txomintxu, Estitxu, Josetxo, Perutxo...

*Gure Estitxuk bost urte egingo ditu Gabon egunean.
Maritxu nora zoaz / eder galantori... (herri-kanta)*

Adjektiboakaz:

*gaztetxu, zabaltxu, loditxu, sikutxu, zuritxu...
Neska gaztetxu bat etorri da informazino bila.
Gona hori mehetxua dozu oraingo sasoirako.
Eurria behar da, lurra sikutxu dago-eta.
Edozertarakoa da, baina harrotxua be bai.*

Aditzondo batzukaz:

*asitrotxu, ondotxu, edertotxu, erreztxu, nekeztxu, gaxtxu...
Arintxu amaitu dabe gauza onerako.
Urruntxu dago oinez joateko.
Ondotxu daki berak hori.
Geldirotxu doa tren.*

Zenbatzaile batzukaz:

*askotxu, gitxitxu, nahikotxu, dezentetxu, hainbatxu, ugaritxu...
Askotxu jan dodalakoan nago.
Nire ustez lartxu ordaindu dozue autoa.*

Adjektibo, aditzondo eta zenbatzaile kategoriakaz darabilgunean, forma soilei ezeze, atzizki graduatzailedunei be eransten jake. Hara zerrenda labur bat:

Askotxu	Gehitxuago	Gehitxuegi	Gehitxuen
Gitxitxu	Gitxitxuago	Gitxitxuegi	Gitxitxuen
Ontxua	Hobetxuagoa	Ontxuegia	Onentxuena
Txartxua	Txartxuagoa	Txartxuegia	Txartxuena
Ondotxu	Hobtotxuago	Ondotxuegi	Ontxuen, Onentxuen
Txartotxu	Txar(to)txuago	Txar(to)txuegi	Txar(to)txuen
Arintxu	Arintxuago	Arintxuegi	Arintxuen
Berandotxu	Berandotxuago	Berandotxuegi	Berandotxuen

-TZAR [/zar]

Izenakaz batez be, baina adjektiboakaz be erabilten da. Handitasun-kualidadea gehitzen deuto batez be izenari, baina aldi berean halako ikutu gatxeresgarria be bai sarritan; ez beti, oster. Halan: *zalditzar, etxetzar, autotzar, arratoitzar, ezpatatzar, zapatatzar...*

*Ha bai gizontzarra!
Hak sartu deusku guri guzurtzarra!
Horrek astotzarorrek zelan egingo dau gauza bat kurioso ba!
Oin dala urte batzuk txiki-txikia zan, baina zelako andratzarra eginda dago orain ba!*

Adjektiboakaz be erabilia da, baina ez beharbada izenakin beste. Adjektibook, gatxereste kutsua erraz hartu leikienak ohi dira: *handitzar, loditzar, alpertzar, nagitzar, gaiztotzar, kokolo-tzar, lelotzar, zantartzar...*

Sekula ez da ahaztu behar, *-tzar* atzizkidun hitzak harridura giroko esaldietan erabilten dirala, eta ez adierazpen perpaus markaubakoetan.

8.1.1. Konparazinoko atzizkiak

-AGO graduatzailea: elementu biren arteko konparaketa egiteko darabilgu. Horretarako *bai - no* juntagailuaz laguntzen da sarritan esaldian.

Hori baino biziagoa. *Ha* baino jakitunagoa. *Danak* baino gaiztoagoa.

Beste hitz batzuen laguntasunean be sarri agiri ohi da: *zenbat (eta)... hainbat (eta)... askoz(zaz) (be), mila bider, apur bat, hainbat, arean, zatia...*

Izenen arteko konparazinoa danean, *gehiago* eta *gitxiago* konparazino-hitzak erabilten dira izenagaz batera, azken baten kopurua edo zenbatekoa dalako konparetan dana.

Euskadiko taldeak indar gehiago *eukala erakutsi eban.*

Diru gitxiagogaz *ekintza* gehiago *egiteko abila izan behar da.*

Adjektiboakaz:

Gure inguruak horkoak baino ederragoak *dira.*

Askoz be negartiagoa *izan zan semea alabea* baino.

Mila bider samurragoa *da gaurko okelea.*

Gure loba bikotzak bata baino bestea okerragoak *dira.*

Zein baino zein epelagoak *dira Peru eta beraren neska-laguna.*

Hobeak *egin deutsu.* ('Bestela egin dozu' esateko erabilten dan esapidea)

"... ta daukeez biotz batzuk atxak *baño gogorrragoak...*" (J.A. Mogel)

Aditzondoakaz darabilgunean, *-ago* sartu ezkerro, *-ik* eta beste adberbio-atzizki batzuk ez ditu bereganatzen. Halan:

Hutsik

Hutsago

Makalik

Makalago

Ondo

Hobeto

Txarto

Txarrago, Txartoago

Pozik

Pozago (Pozagorik)

Beste kasuetan arau arruntari jarraitzen jako:

Guk esan baino lehenago *be jakitun egozan.*

Askoz antxinagotik *ziran aurrerakuntza guztien jabe.*

Nik inork baino nekezago *egiten ditut beharrak.*

Mailukiak bota ezkerro, oindino gozoago *egongo da pastela.*

Ez badator, hainbat okerrago *berarentzat.*

Zenbat eta beluago *joan,* askoz be txarrago *izango da.*

Jantzi hori bestea baino mila bider hobeto *joatzu.*

Zenbat erosoago *bizi dan ezeren ardurarik ez daukana!*

Gura izan, behar izan, maite izan eta antzeko lokuzinoen lehen alderdiak be onartzen ditu konparazino atzizkiak:

Batzuk gurago *leukie goseak hiltea, behar egin* baino.

Egoera larri haretan inoiz baino beharrago *eben jentearen laguntza.*

"*Bildurrago* dirialako mundukuen kastigu ta justiziaren, Jainkuarenaren *baño.*"

(J.A. Mogel)

Zuzenbideak:

**Hamaikatxu bider* hobeagoa *da.*

... hobeaa...

*Hobetoago *egingo zeunke*.

*Hobe *esanda...*

↓Hobeto *zeuk laguntzen badeutsazu*.

Hobeto *egingo zeunke*.

Hobeto *esanda...*

↑Hobe (da) *laguntzen badeutsazu*.

-EGI graduatzailea: zeozeren gehiegizko neurria adierazoten da konparazioaren barruan atzizki honegaz; geuk edota jenteak dinoana neurritzat harturik, kalidade bat larregiaz dauela erakusten dau.

Adjektiboakaz:

Onegia *da mundu honetarako*.

Merkeegia *da gauza onerako*.

Handiegia *dozu jantzi hori soinerako*.

Zure berbak sakonegiak dira gu lakoentzat.

Aditzondoakaz:

Goizegi *heldu gara eta zarratuta dago oindinokarren*.

“Lehenengo urtean *bigunegi* balerabilez...” (J.A. Mogel)

Zenbatzaileakaz:

Gitxiegi *baino gehiegiz huts egitea hobe da*.

Bizkaian, *-egi* atzizkia erabili beharrean, sarritan *lar* erabilten da aurre-hitz lez, bai adjektiboaren bai aditzondoaren aurretik. Holan ba:

Lar *ona da mundu honetarako*.

Lar *merkea da gauza onerako*.

Lar *handia dozu jantzi hori soinerako*.

Zure berbak lar sakonak dira gu lakoentzat.

Larregi *dakitze* *ume horrek*.

Lar *ondo garbitu dozu, atzera be atoan zikintzeko*.

Segovia lar urrun dago egun bateko osteratxua egiteko.

-EN graduatzailea: kalidadearen goren maila adierazoten dau.

Adjektiboa graduatzeko darabilgunean eta adjektiboari izenagaz batera doanean, izenak *-(r)ik* atzizkia hartzen dau ia beti edo gehienetan; horretara konparazio mailarik gorena marketan dogu:

Argazkirik politenak *saria izango dau*.

Kalidaderik gorenko *argazkiak atera ditu*.

Hemengo pelotaririk onena zeuen lehengusua da.

Baina izena atzizki hori barik doala be agertu daiteke adjektiboaren aurrean:

Seme zaharrena. Alaba gazteena.

Bide laburrena. Behar gogorrena.

Zein ete da auzoko etxe politena?

Hauxe da gure etxeko ume finena.

Partitiboaren lekuan beste baliabide batzuk be erabili daitezke: *danetan*, *-en artean*, *-etatik*, e.a.

Horrexek mutikoorrek erakutsi dau danetan zuhurrena izatea.

Hauxe dozu alaben artean zaharrena.

Beste graduatzaile lagungarri batzuk be azaldu leitekez *-en* graduatzailearen aurretik: *ahalik eta / ahal danik eta, ahalik / albait, hainbat, egundoko, sekulako(rik), inoizkorik...*

Albait ondoen *egiten ahalegindu gara.*

Egundoko zoroen *ikusi neban.*

Inoizkorik gozoen *urten deutsu gaur gatzatuak.*

Ebaketa hainbat arinen egitea komeni da, oste txarrik etorri ez dakion.

Aditzondoakaz:

Geldiro

Geldiroen

Ixilik

Ixilen

Polito

Politoen

Ondoen *egin dagianak jaso bei saria.*

Hau azterketau dago danetarik txartoen.

Zuzenbideak:

**Hartu eizu zeuk gurago dozuna.*

... guren *dozuna.*

**Ikasi eizu gehiago gustetan jatzuna.*

... gehien *gustetan jatzuna.*

8.2. BARDINTASUNEZKO KONPARAZINOAK

Elementu bakarreko konparazinoak izaten dira:

Hain

Hauxe da hiru graduen artean ugariena eta danetarakoa. Erreferenterik ez dau izaten gogoan hitzunak, ez urrunekorik, ez hurrekorik; ez da bape markaua.

Adjektiboakaz:

Ez neban uste hain burugogorra izango zanik.

Hain *ona bada, neuri be ekarri eidazu bat.*

Hain *da polita ze, neure emaztea / lastima emoten deustala, berori hiltea.* (herri-balada)

Izen-adjektibo bitartean sarturik erabili izan da graduatzaile hau, beste asko lez, tradizino klasikoan.

“Beekusan Leoiak ez ebala ezer aterako piztija *hain* txikar bat galdubaz.” (J.A. Mogel)

“Harako gizon entzute *hain* handiko Publio Eszipion abade nagusiak” (J.A. Mogel)

Aditzondoakaz:

Ez neban uste hain berandu helduko zanik.

Jaiak hain egozan ondo ze, igarri barik denporea joan eta berandu egin jakon.

Horren

Bigarren graduko konparatzailea da. Aurrekoan baino argiagoa da konparazino-erreferentzia, eta hurragokoa be bai: horrenbesteko edo hori adinako zentzua gordeten dau. Beronegaz sortuak dira *horrenbeste* eta *horrenbat* zenbatzaileak.

Adjektiboakaz:

Ez neban uste horren berbaldi motza egingo zenduanik.

Ez da horren gatxa gauzak patxadaz egitea, ba!

Aditzondoakaz:

Ez neban uste horren goizetik etxeratuko zinanik.

Honen

Lehen graduko hau aurreko biak baino mehatxuago erabilten da. Beronegaz sortuak dira, besteen artean, *honenbeste* eta *honenbat* zenbatzaileak.

Adjektiboakaz:

Ez neban uste honen polita urtengo eustanik.

Aditzondoakaz:

Ez neban uste honen makalik jarriko nintzanik.

8.3. ERREPIKATZEA

– *Txiki-txiki, polito-polito...* eredu

Kualidade-adierazle diran izen batzuk, adjektiboak, aditzondoak, aditz partizipioak eta zenbatzaile batzuk egitura errepikatueta erabilten dira, euren esanahia goratzeko.

Izenakaz, euren kualidadea markau gura danean:

Haregaz ez ibili bromatan, ze ha gizon-gizona da.

Hamalau urte eukiagaitik, oindino ume-umea da, etxezale garbia.

Adjektiboakaz:

Argi-argia da etxebizitza; izan be, eguzkiak alde guztietatik joten dau.

Zure lagun hori nabarmen-nabarmena da, gangar hutsa.

Txiki-txikitxua eta polit-politxua / nori emongo deutzazu neuri agindua. (kopla)

Aditzondoakaz:

Azkenerako, ozta-ozta altzetan eban pelotea.

Oinez joaten da beti, txapa-txapa, orpoetan har barik.

Hasieran astiro-astiro abiatu ziran txirrindulariak.

Zoaz kontuz-kontuz, laban eginda jausi ez zaitez.

Aditzondoetan, errepikatzen dan bigarren hitza deklinatuta be agiri daiteke:

Buruzagi zuhurrari itsu-itsurik segitzen deutzie mendekoek.

Haren asmo guztiak agiri-agirian gelditu dira.

Egon zaitez berogailuaren ondoan bero-berotan.

Geldi-geldika jokalarien arteko alde handitzen joan zan.

Aditz partizipioakaz, izen edo adjektibo erabilera dabenean:

Emon-emon egin eutsan eta apalik bialdu eban etxera.

Pelotaka apurtu-apurtu egin ditue arerioak.

Sekulako guzurre esan eta sinestu-sinestu eginda itxi ditu danak.

Zenbatzaileakaz:

Gitxi-gitxi baino ez ditugu erosi, bestela alperrik galtzen dira-eta.

Holako pertsonak gitxi-gitxi baino ez dagoz munduan.

– Bestelako errepikatzeak:

Adjektiboakaz:

Gogorra baino gogorragoa *da, ez da sekula osagilearenera joan.*
Sorginagoa *bada, sorginagoa!*
Kontu hori iluna da, iluna!

Aditzondoakaz:

Arin be arin *joian etxeruntz, baina gautu egin jakon.*
Ondo baino hobeto *ebilen ola barria.*
Geroago eta larriago, joanago eta artetago *ninoian, ha zan esturea!*

Zuzenbideak:

↓ <i>Liburua</i> superrondo <i>egon da.</i>	↑ <i>Liburua</i> on-ona <i>iruditu jat.</i>
↓ <i>Erropa</i> superpolit <i>bat erosi dot.</i>	↑ <i>Erropa</i> polit-polita <i>erosi dot.</i>
↓ <i>Zapata</i> honeek <i>gozada bat dira.</i>	↑ <i>Zapata</i> honeek <i>bigun-bigunak eta gozatsu-gozatsuak dira.</i>

8.4. HITZ GRADUATZAILEAK

Zenbakiak eta aditzondoak dira.

8.4.1. Gorengo maila agertzeko

Benetan (be)

Harridura edo hanpadura esaldietan erabilten da ia beti.

Adjektiboakaz:

Benetan be *morroskoa egin jatzue zuen mutikoa.*
Aste hau benetan luzea izan da guretzat.
Pelikula hori benetan ona da, gero!
Tristea zan benetan hango ikuskizuna!
Izango ez da, ba! Gaiztoa benetan, holako behar bat egiteko!

Aditzondoakaz:

Benetan *ondo egiten dau dantzaz Josuk.*
Benetan *urrun egoan bere adiskideen herria.*
Polito benetan itxi deusue ulea.
Benetan be *arin egin dau handik honako bidea.*

Zenbatzaileakaz:

Benetan *lar zan ipini euskuen jatekoa.*
Ordaindu benetan gitxi egiten eben, baina behar astoak lez.

Ezin ...-ago

Adjektiboakaz:

Inguru hau ezin ederragoa begitantzen jake kanpotik datozanai.
Ginarra hau ezin hobea dozue bazter guztiak garbitzeko.
Eguraldi ezin txarragoa suertau jaku mendirako.
Bihotzekoa daukanarentzat ezin kaltegarriagoa da txarrikia.

Aditzondoakaz:

Ezin hobeto *egin deuskue arotz beharra (arotzeria); iturgin beharra (iturgintza), ostera, ezin txarrago.*

Galant

Adjektiboakaz, berariaz zentzu gaxereslea dabenakaz erabilten da, haren ondoren ipinirik. Gehienetan sintagma beraren barruan:

*Txarri galanta da horreek beharrok egiten dituana.
Ez da alper galanta, bizitza osoan zotzik mogidu barik egoteko.*

Beste batzuetan sintagma bereziak eregiten dituela:

*Holan jokutzen dauena itsua da galanta!
Zu txoriburua zara galanta!*

Aditza graduatzeko be erabilten zan lehen, *galanto* aditzondoaren bidez:

*Galanto bizi dira inoren lepotik.
Jan eta edan galanto, eta beharrik zotzik be ez.*

Garbi

Adjektiboakaz, haren ostean ipinirik. Gaur egun, gaxerespen zentzukoakaz gehiago erabilten da:

*Euskaldun garbia da.
Zoro garbia da.
Lotsabako garbia eginda dago.*

Aditzakaz eta aditz adberbiotuakaz berariaz:

*Lehen fina izango zan, baina urte batetik bestera garbi alperu da.
Garbi zoratuta dago.
Garbi alperrik galduta ikusi dogu.*

Gutziz

Gaur be erabilia izan arren, lehen ugariago erabilten zan graduatzaile-zereginetan, eta berau zan ugarienetarikoa bizkai euskeran.

Adjektiboakaz:

*Okela guttiz samurra atera eben.
Zuen amama guttiz maitagarria da.
Gutziz da samingarria emon deustazun barria.
Iturri haretako ura guttizko gozoa zan.
“Eta guttiz dira gaistuak umiak daukeezan aldi edo egunetan.” (J.A. Mogel)
“Errege guttiz handi batek deitu zituban bere aurrera gizon jaiotza txito me edo bajuko batzuk, ta esaten deutse (...)” (J.A. Mogel)*

Aditzondoakaz:

*Aspaldion gure herriko kontuakaz kokoteraino gagoz, guttiz gogaituta.
Gutziz ondo deritxat alkateak hartu dauen ebatziari.
Gutziz txarto egoan, noiz hilko.
Jentea guttiz pozik egoan.*

Aditzakaz:

*Gutziz konkortu arte mozkortu zan ardaoz.
Amaitu ziran guttiz euren ezbeharrak.*

“Parcatuko neuskezuz *guztiz* eskudo bijak ta ipiniko litxakezu gaur bere bazkari ederra duarik.” (J.A. Mogel)

Zenbatzaile batzukaz:

“Ekarri deusteenian neure aurrera beste katiguben artian arkituten zan zure Emaz-tegeija, jakin dot *guztiz* asko gura zeuntsala” (J.A. Mogel)

“Izango dituzu kaltiak ganaubetan, garaubetan, osasunian, ta gastau biarko dituzu *guztiz* geijago ostu dituzunak baino.” (J.A. Mogel)

Hitz graduatuaren aurrean azaltzen da batez be, eta izen-adjektibodun multzoa dogunean, erdian edota aurrean be bai:

“Ezin ikusi dodaz zuen jai-egunak; gaiztoak dira zuen batzarrak; *guztizko* gorroto gogorra deutset zuen jaiai.” (J.M. Zabala)

Baten batzuetan aditzaren aurrean ipinirik be erabili daiteke, graduaturiko hitza ostean dala. Honetara indar berezia emoten jako graduaketari:

*Guztiz dira gaiztoak ume batzuk; beste batzuk, ostera, mantso-mantsoak.
Hiru hilabetez bahituta egon ostean, guztiz egoan pozik askatu ebenean.*

Huts

Balioz graduatzailea izan daiteke, baina kategoria lez adjektiboa da. Adjektiboaren eskumako aldean ipinten da.

Sineskor hutsak zarie.

Zure lagun hori barritsu hutsa da.

Horrek ez dau sekula zotzik albora egin, izan be alper hutsa da.

Ganorabako hutsa zara, ez daukazu ezertarako zuztarrik.

Lukurreru hutsa da, ez leuke begiko samarrik be emongo.

On hutsa danez, korotza egiten deustie danak burutik behera.

Ikaragarri

Adjektiboakaz batez be:

Ikaragarri *handia iruditzen jat honako.*

Ikaragarri *itsusia da plazan egin daben iturria.*

Itzel

Tradizino handi bakoa da, baina ahoz ugaria. Graduatzaille lez, *itzel* bera baino gehiago *itze - lezko* erabilten da, baita *itzelean* aditzondoa be.

Adjektiboakaz:

Itzel polita da horko ikuspegia.

Andra hori itzel zaharra da; ehun urtetik gora badaukaz.

Horreek korrikalari baltzok itzelean dira bizkorrak.

Aditzondoakaz:

Itzel ondo pasau genduan.

Aditzakaz:

Gugaz behintzat itzel portau zan.

Itzelean ikasi dau pelotaka jokutzen.

Makal

Adjektiboeci eragiten agertzen da, ezezkako perpausetan, baina beti be harridura kontestueta:

Ha ez da elementua makala!

Alperra ez da makala!

Izenakaz, berariaz kualidadea adierazoteko gai diranakaz:

Gibelak ez daukaz makalak!

Mutil hori ez da makala: eskola-ikasgai guztietan bikain atera dau.

Ez da andra makala: etxean eta kanpoan bietan egiten dau behar.

Ondo

Adjektibo, aditzondo eta zenbatzailearen batzukaz erabilten da. Erabilera mugatua dauka, dana dala; ez da edozein berbagaz erabilten, berba jakinakaz baino.

Adjektiboakaz, honeek onerespenekoak diranean erabilten da, batez be:

Neskatila hori ondo apala dozu.

Gure auzokoak ondo patxadazkoak dira.

Ondo lodia da: ez da behingoan hausiko sokeau.

Adberbioakaz edota adjektibo adberbiotuakaz be bardin:

Ondo pozik dago oposizinoak goitu eta ostean, poza sinestu ezinik.

Ondo txarto egin dozu hori parkatzeaz.

Ondo berandu etorri ziran, bada, makalik baebilzan be.

Mendigoizaleak ondo zuhur eta ondo astiro etozan gailurretik beherantz.

Zenbatzaile batzukaz:

Ondo gitxi irabazita be, kexatzeko modurik ez.

Oso

Hau da gaur egun graduatzaileetan sarrien antzean irakurten dana.

Adjektiboakaz:

Hori, danerako oso karua begitandu jat.

Oso pertsona lotsatia dan arren, itzelak esan deutzaz ugazabari.

Gizon oso orekatua da alde guztietatik.

Aditzondoakaz:

Zorionez, oso ondo egin ditut iraileko azterketak.

Oso gaixorik egokeran, ospitalera eroan dabe, antza.

Oso bizkaieraz barriagoa dogu eta horren ordez beste era batzuk erabilten doguz sarriago.

~Oso ondo jatort.

Itzel / ederto / polito jatort.

Sano

Idatzian ez, baina ahoz oso erabilia da.

Adjektiboakaz:

Itsaso hegaletik ibiltea sano ona dozu hanketarako.

Sano argia eta zuhurra da bere zereginetan.

Aditzondoakaz:

*Sano goiz da oindino ohetik jagiteko.
Alkizak sano ondo jokatu dau Madrilen kontra.*

Zenbatzaileakaz:

Sano gitxi jaten dau.

Txito

Gaur egun zaharkituta eta ahozko erabileratik erdi aldentuta dagoan *txito* graduatzaileak, beronen antzeko balioa daben *gutziz, oso* eta beste batzuk baino goranzko indar handiagoa emoten deitso eragiten deitsan berbeari. Hizkera jagian, halanda be, gomendagarria izan daiteke.

Adjektiboakaz:

*Txito gozoa zan emakume haren irribarrea.
Irakasle txito zorrotza zan latina irakasten euskuna.*

Aditzondoakaz:

*Gu hirurok, txito ondo konpontzen ginan geure artean.
Txito umeturik dabil aspaldian.
Ondo baino hobeto egin dozue lan; txito ondo, esango neuke nik.*

Zenbatzaile batzukaz:

*Aldi baten txito askori gertatu jakon erbestera joan beharra.
Txito gitxi zor deitsugu txikikeria hor regaitik.*

Graduaturiko hitzaren aurrean azaldu ohi da, eta izen-adjektiboak diranean, bien erdian:

“Ni naz Osagilla edo mediku *txito* jakituna” (J.A. Mogel)
“Jagi zan errierta edo gerra *txito* gogor bat lurrari eraatsita dagozan lau oñeco ta eguakaz goijetan dabiltzanen artian.” (J.A. Mogel)

Zuzenbideak:

Gaur egun baztertuta dagoz aldi baten gutunetan erabilten izan diran formulak.

↓ *Alkate jaun txit agurgarria:*

↑ *Alkate jauna:*

Ze(r)

Berez galdetzailea da, baina hanpadura edo goranzko graduatzaile lez darabilgunean ez dago ezelako itaunik perpausean, eta bai harridura antzeko perpaus bat.

Adjektibo eta aditzondoakaz erabilten da gehienbat, baina noiz edo noiz izenakaz be bai. Erabilera jasoan, zehar galdera perpausen taiua gordeten dau, aditz jokatuari *-n* atzizkia dautsa-la. Erabilera arruntean eta gaur egun ahozkoan nagusi dan horretan, aditza hutsik emoten da, menderagailu barik. Halanda ze:

– Eredu jasoan:

*Ze ondo bizi garan, gero! Geuk be ez dakigu ondo.
Ai ze bizimodu petralla dan gurea!*

– Eredu arrunta:

Ze alperra da, baina! Alper nagusia!

Ze garbi eta dotore dagoz inguru honetako etxeak!

Zeharo

Adjektiboakaz:

Zeharo gogaikarria da zure lagun hori.

Zeharo burugorra da, berea baino ez dau ikusten.

Aditzondoakaz:

Zeharo labur erabilten dau ulea eta eperdi-eperditik ebagi dau oingoan be.

Zeharo lelotuta dago bere neskalgunorregaz.

Zeharo gogoberotuta eta nahastauta egoala eretxi deusat.

Zehatz

Aditzondoakaz eta aditz partizipioakaz darabilgu.

Bera izan danagaz, zehatz lodituta eta zehatz alperrik galduta ikusi dot.

Lehen ez eban ezer ikasten, baina oraingoan zehatz finduta jabilku semea.

Zeharo edo *zehatz* erabili beharrean gero eta gehiago entzuten da erderazko “total”: *total aldatuta, total zahartuta...* Gure ustez, forma guztiz kolokiala da eta ez geunke idatzirako gomendatuko.

↓ Total *ondo ibili gara.*

↑ Itzel *ibili gara.*

↓ Total *apurtuta dago.*

↑ Guztiz / zeharo / erabat *apurtuta...*

↑ Apurto-apurto *eginda...*

Zein

Honakoa be galdetzailea da berez.

Adjektiboakaz:

Zein dotoreak diran erosi dituzun zapatak!

Zein gozatsu eta ederra dan lagun artean bizitea!

Aditzondoakaz:

Jake horregaz zein dotore dirudizun zeuk be ez dakizu.

Sinestu be ezin dogu egin zein gaizto portau diran gugaz.

8.4.2. Nahikotasuna agertzeko

Antzeko / antzean

Adjektiboakaz:

Soinean eukan gonea ilun antzekoa zan.

Aditzondoakaz:

Txarto-txarto ez badabilz be, bai txarto antzean behintzat.

Aditzakaz:

Etxe hori jausi antzean dago.

Moduko

Adjektiboakaz:

Gizonezko ha, ez dakit gazte-gaztea baina, gazte modukoa zan.

Nahiko

Adjektiboakaz:

Etxe nahiko eroso da erosi dabena.

Nahiko zehatza da estatistika hori, gure ustean behinik behin.

Nahiko itzulpen egokia dalakoan gagoz.

Aditzondoakaz:

Nahiko ondo dago, nik neuk emongo neuskio oneretxia.

Nahiko polito jabilku amama azkenaldi honetan.

Nahiko argi ikusten dan kontua da.

Nahiko erkinduta ikusi dabe.

Aditzakaz:

Ezeren obligaziorik ez eta, nahiko egiten dau gure alde.

Bagoaz etxera, itxaroten nahikoa gogaitu dogu-eta.

Samar

-*txu* atzizkiaren kutsu beretsua gehitzen deutso graduaturiko berbeari.

Adjektiboakaz:

Okelea gogor samarra izan da. (= gogortxua)

Haize epel samarra ebilen. (= epeltxua)

Drogosoa eta zital samarra da, ernegau eragingo leuskio baita zerari be! (= zitaltxua)

Nahiko eta *samar* hitzen esangurea konparatuz, esan geinke ez dirala pare-parekoak; lehenengo kualidade onakaz hobea izango da eta txarrakaz txarragoa.

eskas samarra da /

on samarra /

nahiko eskasa da ← (eskasagoa)

nahiko ona ← (hobea)

Aditzondoakaz:

Eskas samar jan genduan eztegu haretan.

Urrun samar dago oinez joateko, ezta?

Makal samar ei dakarre etxera.

8.4.3. Ezeztapena agertzeko

Arean be

Bape graduatzailearen balio eta eremu bera hartzen dau. Harek baino erabilera mugatuagoa dauka, ostera.

Adjektiboakaz:

Ez da izan arean be gozoa atera deuskuen ardaoa.

Aditzondoakaz:

Ondo dinozu? Ez dabil arean be ondo aspaldi honetan, erdi makalik baino.

Aditzakaz:

Ez ei deutse arean be gura bere gurasoai.

Bape

Adjektiboakaz:

Hori egoerea ez da bape samurra.

Ez da bape trankila, beti dago ernegetan.

Darabilen guztia lorrintzen dau, ez da bape kurioa. (garbia)

Aditzondoakaz:

Ez deuskue bape erara ipini autobus geltokia.

Ez dira bape gustura ibili ikastaroan.

Ez deustaz bape ondo konpondu oinetakoak.

Aditzakaz:

Ez ei jako bape gustau berak esandakoak idatziz ipintea.

Egin dabenak ez nau bape poztu.

8.4.4. Bestetarikoak

Berebiziko

Aparteko, apropos, ajutu, egoki adjektiboen hurreko balioa eransten deutso izenari batzuetan.

Berebiziko perfila dauka zuk gura dozun lanerako.

Berebiziko zapatak dozuz horreek negurako.

Berebiziko aroa egon da gaur ortuan patatak ereiteko.

Berebiziko jatekoa da angulea Gabonetarako.

Adjektiboakaz eta aditzondoakaz be agertu daiteke:

Berebiziko ondoen bizi da jubilau danik eta gehiago.

Bestelako

Harridura perpausetan erabilten da izenakaz.

Bestelako zeruan bizi da senarra joan jakonetik!

Bestelako eguna igaro genduan domekan Arraten!

Bestelako suertea izan dau zure lagunak lan-poltsa horretan sartu izanaz!

Bestelako laguna hartu eban, handik ebilzan alper mozkor parrandazaleen aldean!

Egundoko

Sekulako, inoiz ez lako denpora-eremuko indarra emoten deutso izenari.

Egundoko denporea egin deusku Madalenetarako.

Egundoko berba garratzak esan ei deustaz.

Egundoko jaiak egin ebezan 25. urteurrena zala eta ez zala.

“Horretan egundoko buruausteak izaten zituan Nikanorrek” (E. Erkiaga)

Egundo halako ...-rik

Egundo aditzondoaren gainean eregiriko harridura esaldia.

Egundo halako berorik ez dot neure bizian ezagutu!

Egundo halako triskantzarik! Dan-dana txiki-txiki eginda geratu zan uriola ostein.

Erdi

Adjektiboakaz, batez be zentzu gatxereslea dabenakaz.

Erdi badaezpadakoa da hori.

Erdi *zoroa da*.
Itsu osoa ez da izango, baina erdi itsua bai.

Aditzondoakaz:

Erdi *batera heldu dira andra-gizonak*.
Ordutzarrak egiten ditu erdi bakarrik.
Osasunez erdi hondatuta dabil andrea hil jakon ezkerero.

Honako / Holako / Halako ...-rik! // Honango / Holango / Halango ...-rik!

Harridura agertzeko erabilten dira, izenakaz edo adjektiboakaz.

Halakorik *horraitino!*
Halako (halako) lotsagarririk *ez da sekula pasau!*
Halako (halako) guzurrik, *entzuteko be!*
Halango jentetzarik *ez jat sekula suertau ikustea!*
Holako *ume* lotsagaldukorik *ez dot egundo ikusi*.
Honango etxerik *ez dago hemen inguruetan*.

Holaseko aldaera Mungialde eta Txorierrri ingurukoa da, eta kalidade guztien artean neurri handikoa dala esateko erabilten da.

Holaseko frontoirik ez dot ikusi.

Ikaragarritzko

Izenakaz:

Ikaragarritzko *sutea izan da eta 230 hektarea baso erre ei dira*.
Ikaragarritzko *zezena agertu jakun aurrean solte*.
Ikaragarritzko *astrapalea izan eben euren artean*.

Ikaragarritzko hitzaren kidea da erdi eta ekialdean erabili ohi dan *izugarritzko*.

Izugarritzko gosetea igaro genuen gerra garaian.
Izugarritzko kolpea hartu zuen.

Itzelezko

Itzel (itzal) hitzaren adnominala da. Asko erabilten da Bizkai euskeran hanpatze edo handitze zentzu horregaz.

Itzelezko *eguna igaro genduan Donostian*.
Itzelezko *barre zantzoak egin genduzan afalostean*.
Itzelezko *basatzea dago zelaian*.

Nagusi

Itzel edo *sekulako* hitzen adiera berberaz erabilten da eskualde batzuetan (Mungialdea...).

– Handia edo itzela dala esateko:

Hor doa andaran bere auto nagusia hartuta.
Guzur nagusiak esaten ditu horrek aurpegiko kolorea bape kanbiau barik.
Golpe nagusia hartu dot hamen atzamarrean ateagaz.
Euri nagusiaren ostean suhiltzaileak etorri dira urak ateraten.

– Handiena dala esateko:

Zein auto eroan dau, txikerra ala nagusia? Nagusia eroan dau.

Negargarrizko

Izenakaz erabilten da batez be, bai *negargarrizko* adnominala, bai *negargarri* adjektiboa:
Negargarrizko *zaratak* / *Zarata* negargarriak *izan ditugu jaietan*.
Negargarrizko *itxurea* / *Itxura* negargarria *eroan eban lehengoan*.

Ondarroa inguruan *negargarrizko*, *itzelezko* edo *ikaragarritzko* esateko, *demaseko* edo *krue* -
la be esaten dabe. Era horreek herriko idatzietarako itxiko geunkez.

Zarata kruela *atera eban*.
Demaseko *eskandalua ibili eban*.

Sekulako

Egundoko hitzaren zentzu hurrekoaz erabilten da.

Izenakaz:

Sekulako *laguna topau dozu, zeuretzako modukoa!*
Sekulako *astinaldia emon eutsan maisuak ume gizajoari*.
Sekulako *prakak erosi deutzazuz, berebizikoak dozuz horrentzat*.

Aditzondoakaz:

Sekulako *ondoan dabilz*.
Sekulako *txarren jokatu eben*.
Sekulako *lodian ikusi dogu*.

Sekula halako ...-rik

Sekula halako negargarririk *ez da beste inon jazo!*
Sekula halako etxe modurik! *Inor etorrienean be, ez jasotea pertsoneak!*

Upealako

Upealako *morroskonea egin da Eneritz zuena*.
Upealako *etxea daukie Bakion*.
“*Upielako* erbiak ez ebazan ba ondo-ondotik atera?” (Felix Bilbao)

Upealako graduatzailea nonor edo zeozer handia, ona edo itzela dala agertu gura danean esaten da. Gernika inguruko euskeran entzuten da batez be.

Egituraren aldetik era horren antzeko beste batzuk be badira. Halan, *idiskoa lakoxe*, gizakia-kaz erabilten dana:

Idiskoa lakoxe morroia ikusi neban hondartzan.

Zelako [/ zelaseko]

Zelako *eginbeharra, dana atondu guran ibili dira, jainkoak hoba(n)!*
Zelako *umorea daukazuen*.

Zelaseko aldaerak be neurria adierazoten dau, tamainu handia, hain zuzen be. Ez da erabilten neurtu ezin diran berbakaz.

Zelako [*auto handia*] / Zelaseko *autotzarra erosi dozun!*
Ikusi dozu zelaseko eraztuntzarra daroan?
Zelaseko *purua daroan ahoan!*
Zelaseko *trafikoa dabilen gaur!*

Zuzenbideak:

*Zelaseko *umorea*.

*Zelaseko *esanbharra*.

Zelako umorea.

Zelako esanbharra.

9. ADITZA

9.1. ADITZAREN FORMA JOKATUBAKOAK

9.1.1. Aditz partizipioa

Aditzaren partizipioak prozesua edo ekintza zelakoa dan dinosku. Hiru prozesu mueta aita-tuko ditugu: burutua, burutubakoa eta gerokoa.

Ekarri dot. (burutua) Aditzak iragarten dauen ekintza amaitutzat jotzen da.

Ekarten dot. (burutubakoa) Ekintza aurrera doala edota sarri jazoten dala adierazoten dau.

Ekarriko dot. (gerokoa) Geroan burutuko dan prozesua da.

Ikusten dan lez, prozesu horreek marketako aditzaren partizipioa aldatu egiten da. Partizipioa burutua eta burutubakoa danean ahozko erabileran aldaera ugari dagoz:

sakatu / saka

ezagututen / ezagutzen / ezetan / ezaguketan

leiduten / leitzen / leitan

Idazkera finkatzeak be arloak ditu, baina idatzian jarraitzeko gure proposamenak honeek dira:

9.1.1.1. PARTIZIPIO BURUTUA

Aditz partizipioa burutua danean, holangoxe aditzak bereizi geinkez mendebaldeko euskeran:

-E eta -Amaieradunak

bete, erre, gorde, bota, laga...

-O amaieradunak

eraso, jazo, igaro...

-I amaieradunak

ekarri, etorri, ibili...

-I amaieradunen artean badira azpimoltso batzuk:

-SI, -ZI amaieradunak:

josi, ikasi, ikuzi, irazi...

-TSI, -TZI, -TXI amaieradunak:

eutsi, ederretsi, iruntsi, eratzi, igurtzi, eretxi, itxi...

-GI amaieradunak, batueraz -KI amaiera dabenak:

eregi (eraiki), edegi (ireki), erabagi (erabaki), ebagi (ebaki), jagi (jaiki)...

-N amaieradunak

emon, egon, esan, joan, urten...

Beste euskalkietan *-o* egiten diran batzuk *-on* egiten dabe bizkaieraz: igon. Ekialdean, barriz, igan.

-TU / -DU amaieradunak

aitatu, gogaitu, hartu, sartu, heldu, saldu...

Amaiera horretako aditzen artean be azpimoltso batzuk egin geinkez:

-STU / -ZTU (-ITU):

egostu, ahaztu, poztu, zehaztu, mehaztu...

Berba silaba bakarretarik datozen aditz batzuetan bikoiztasunak ditugu:

hustu / hutsitu, sastu / satsitu, balztu / balztitu, hoztu / hotzitu, puztu / putzitu...

Halanda be:

haustu (hauts bihurtu), altsitu, hatsitu (baina ez *hastu), gazitu...

-AU amaieradunak

Erromantzetik eratorritakoak dira: (ADU > AU). Euskera zaharrean: *errezadu, pentsadu...* egiten ziran aditzak aspaldirik *-au* egiten dira. Halan:

aparau, errezau, ezkutau, harrapau, izentau, kantsau, kobrau, miazkau, nahastau, olgau, pagau, pasau...

-IDU amaieradunak

(-ITU > -IDU) erromantzetik eratorritako aditzak dira: *abrozidu, leidu, eskribidu, korridu, hornidu, sufridu, zerbidu...* Moltso horretakoa dogu *koiu* aditza, bilakaera berezia izan badau be.

Euskera batuan, bizkaierazko -AU eta -IDU atzizkien lekuan -ATU eta -ITU finkatu dira, eta azken hamarkadotan, batuari hurreratu guran edo, bizkai euskeran be joera horri jarraitu izan jako gehienbat. Gaur egun, ostera, bizkai euskeraren bereizgarri diran -AU eta -IDU amaierak hobestearen aldeko jarrera nagusitzen doa.

AHOZ

pentsa

kanta

saka

akorda

IDATZI

pentsau

kantau

sakatu

akordau

9.1.1.2. PARTIZIPIO BURUTUBAKOA

Burutubako ohiturazko aspektua marketako mendebaldeko euskeran *-tzen, -ten, -tuten, -etan, -ketan* markak zabal dabilz, baina euretatik hiru aintzat hartuko ditugu batez be idatzirako: *-ten, -tzen* eta *-etan*.

-TEN, -TZEN edo -ETAN erabili behar dogun jakiteko aditz partizipioaren amaierari begiratu behar deusagu. Hona hemen bizkaieraz erabilteko proposatzen ditugunak:

Aditz partizipioak honeetariko amaiera bat izan ezkerro: -TEN

-A, -E¹, -I, -O	ateraten, lagaten, beteten, erreten, ibiltzen, ipintzen, erasotzen, jazotzen...
-L	hiltzen
-N	egoten, esaten, igoten, jasaten, emoten...
-SI, -ZI	hastzen, ikusten, jausten, hazten, hezten, irazten...
-STU, -ZTU (1)	abesten, jolastzen, ahazten, bilozten, errazten, orrazten, zorrozten...
-TSI, -TXI, -TZI	goresten, onesten, jastzen, erexen, ixten, janzten, igurzten...
-IDU (2)	horniduten, eskribiduten, leiduntzen, koiutzen...

(1) Amaiera honetako aditzakaz onargarria da -TUTEN atzizkia be, batzuetan zentzuaren argigarri izan daitekelako: *egosi* > *egosten* / *egostu* > *egostuten*.

(2) Erromantzetiko -IDU amaierako aditzetan -IDUTEN ereduia da zabalena bizkai euskeran eta berau hartuko da aintzat eredu idatzirako: *abrozidu* > *abroziduten*, *sufridu* > *sufriduten*... *Sentitten*, *sentidetan*, *sentitan*... erakoak be entzun leitekez leku batzuetan.

Aditz partizipioak amaiera honeek euki ezkerro: -TZEN [/ -tuten]

-TU / -DU² silaba bikoak	batzen, hartzen, sartzzen, galtzen, heltzen, kentzen, saltzen...
-TU / -DU³ enparaduak	apurtzen, parkatzen, ezkontzen, zapaltzen...
-TSITU, -TZITU	hutsitzen, baltzitzen, hotzitzen, satsitzen, altsitzen...

Aditz partizipioak amaiera hau euki ezkerro: -ETAN

-AU (1)	nahastetan, izentetan, pasetan, miazketan...
----------------	--

(1) Erromantzetiko -ADU > -AU erako aditzakaz, idaztorduan -AU hobetsiko dogu, -TU amaierak be erabili leitekezan arren: *errezau* / *errezatu*, *kantau* / *kantatu*, *kobrau* / *kobratu*...

- Amaieran -AU erabilten bada, horrek -ETAN eskatuko dau aditzizenean⁴.
pagau > *pagetan*, *kantau* > *kantetan*...
- Amaieran -TU egin ezkerro, horrek -TZEN eskatuko dau.
pagatu > *pagatzen*, *kantatu* > *kantatzen*...

Halanda ze, azpieuskalki jakin bateko hizkeran ez bagabilz, idatzian jagoteko ereduak hone-exek dira:

¹ Ahoz -etan era be indartsua da -e amaiera daben aditzetan: *bete* > *betetan*, *erre* > *erretan*...

² Ahoz: Arratia aldean: -TZEAN, silaba biko aditz batzukaz (batzean, hartzean, saltzean, sartzean...).

Beste leku askotan -tzian, -tzien.

³ Ahoz: Bizkaiko mendebaldean: -TUTEN.

Lenitz aldean: -KETAN.

⁴ Kasu gitxi batzuetan -AU erakoa baino ez da erabili behar: *olgau* > *olgetan*...

AHOZ

aginduten, agintan
 apurtuten, apurtan
 hartuten, hartzean
 salduten, saltzean
 leidetan, leitan
 sentidetan, sentitan
 betetan
 urtetan
 erabiltzen
 erretzen, erretan
 pentsaten
 kantaten
 sakaten

IDATZI

agintzen
 apurtzen
 hartzen
 saltzen
 leiduten
 sentiduten
 beteten
 urteten
 erabilten
 erreten
 pentsetan
 kantetan
 sakatzen

Aitatu doguzan arau guztien salbuespen moduan, *eskeini* aditza dogu: *eskeini* > *eskeintzen*.

- Nominalizazioak:

Nominalizazioetan partizipio burutubakoa -TEN bada -TEA egingo da, eta era berean, -TZEN bada -TZEA. Halan:

ateraten > ateratea, erreten > erretea, ipinten > ipintea...

ezkontzen > ezkontzea, baltzitzen > baltzitzea, galtzen > galtzea...

-AU amaieradunek -ETAN egiten dabe partizipio burutubakoa edo ohiturazkoa, halanda ze, nominalizazioetan -TEA amaiera izango dabe.

harrapetan > harrapetea, pagetan > pagetea, pentsetan > pentsetea...

Beraz, idatzian lehenengoan ordez bigarrenak bultzatuko dira:

↓Olgateagaz *nahikoa dauka Jonek.*

↑Olgeteagaz...

↓*Jente behartsua* esplotateari ez

↑... esplotateari...

deritxat bidezkoa.

9.1.1.3. GEROALDIKOPARTIZIPIOA

-N, -L amaieradunek -GO atzikia hartuko dabe, gainontzekoek, ostera, -KO. *Hil* aditzaren kasuan *hilgo* hobetsiko da, eta erabilten dan lekuetarako *hilko* ontzat emon. Halan:

esan > esango, igon > igongo, urten > urtengo...

ibili > ibiliko, jazo > jazoko...

hil > hilgo (/ hilko).

-AU amaieradunetan, berbaz *pageko*, *atrapeko*, *ezkuteko*... moduko erak be zabal dabilzan arren, ez dira aintzat hartuko eredu jasoan. Horrek bazterturik, besteok idatziko dira: *pagau* -*ko*, *atrapauko*, *ezkutauko*...

*Ez dira paseko *hemendik*.

... pasauko...

*Ez gara kantseko *esaten*.

...kantseauko...

Aditz lokuzino batzuk:

bildur izan

bildur izaten

bildur izango

ezagun izan

ezagun izaten

ezagun izango

lotsa izan

lotsa izaten

lotsa izango

zor izan

zor izaten

zor izango

ahal izan	ahal izaten	ahal izango
behar izan	behar izaten	beharko
gura izan	gura izaten	gurako
bizi izan	bizi izaten	biziko
falta izan	falta izaten	faltako
balio izan	balio izaten	balioko / balio izango
agiri izan	agiri izaten	agiriko
ardura izan	ardura izaten	ardurako / ardura izango
gomuta izan	gomuta izaten	gomutako

9.2. ADITZA ETA JOSKERAEZAUGARRIEN ARTEKO LOTURAK

Euskeraz mende-perpaua gehienetan joskera ezaugarri batzuk agertzen dira aditz jokatuari lotuta. Esaterako:

*Amak ikusi gaitua*NEAN...

*Inork ez daki*NEZ...

*Berak esan daue*LAKO...

*Egia da*LA...

*Gugaz dago*zaN umeak...

Joskera ezaugarri horreek (-NEAN, -NEZ, -LAKO, -LA, -N...) aditzagaz lotzen diranean lotura-hizkia behar izaten dabe sarritan. Euskera batuan lokarria -E hizkia da, baina bizkai euskeran -A da, salbuespen batzuk gorabehera.

-GO, -I eta -U amaieradun aditzak: -A

nago > nagoana | nagoala | nagoanean

daki > dakiana | dakiala | dakianean

gaitu > gaituana | gaituala | gaituanean

3. pertsona pluralean -e pluralgilea daukien aditzek oposizinoan -A lokarria behar dabe singularrean:

*Berak daki*la dino.

*Eurek daki*la dinoe.

*Amak ekarri gaitu*an galdetu deusku.

*Gurasoek ekarri gaitu*en galdetu deusku.

*Hori dino*ana burutik eginda dago.

*Hori dino*enak burutik eginda dagoz.

-Z pluralgileaz eta nork 1. pertsonarean -T / -DAmorfemaz amaiturikoak: -A

dakit > dakidana | dakidala | dakidanean

jat > jatana | jatala | jatanean

naz > nazana | nazala | nazanean

dakarz > dakarzana | dakarzala | dakarzaneean

-A, -E, -U, -KE eta -KO amaieradun aditzak: lokarri barik

zara > zarana | zarala | zaranean

da > dana | dala | danean

dabe > dabena | dabela | dabenean
 jake > jakena | jakela | jakenean
 leiteke > leitekena | leitekela | leitekenean
 jako > jakona | jakola | jakonean
 daukagu > daukaguna | daukagula | daukagunean
 deusku > deuskuna | deuskula | deuskunean

-KE ahalerako ezaugarria amaieran daben aditzei berez, -A lokarria jagoke, baina hainbarik idazteko joera nagusitzen doa:

neinteke > neintekela / neintekeala
 leuke > leukela / leukela
 leike > leikela / leikeala

-R, -L amaieradunak: -E

nator > natorrena | natorrela | natorrenean
 dakar > dakarrena | dakarrela | dakarrenean
 dabil > dabilena | dabilela | dabilenean

-AU amaieradunak: -E / -A

Berez -A lokarria bajagoke be, *-aben / -abela* egin izan da tradizino idatzian. Hagaitik bada *-e / -a* aukeran emongo dira oraingoz.

nau > nauena / nauana | nauela / nauala | nauenean / nauanean
 hau > hauena / hauana | hauela / hauala | hauenean / hauanean
 dau > dauena / dauana | dauela / dauala | dauenean / dauanean...

Pluraletan:

nabe > nabela...
 habe > habela...
 dabe > dabela...

9.3. ADITZ BEREZIAK

9.3.1. Eguraldi-aditzak

Eguraldiaz zerikusia daben aditzak gehienbat NORK agiri bako aditz transitiboak dira. Nor-nork erara jokatzen dira:

Apirilean be badaki egun onak egiten.

Luzatu Laburtu Argitu Ilundu	DAU DAU	eguna eguna denporea zerua
Gautu Atertu Lainotu Hodeitu	DAU DAU DAU	

Berotu Hoztu / Hotzitu Epeldu Freskotu	DAU	eguraldia denporea eguna
Leitu	DAU(Z)	soloak landa barrenak
Leia bota DAKAR	DAU	gauean euria, edurra, ekatxa, haizea, hotza, denpora ona...
EGIN HASI	DAU DAU	euria, edurra, abazuzea, hotz handia... euria, edurra, txingorra...

*Behin Andra Mariak ezkerro igarten da apur bat zelan laburtzen dauen eguna.
Santa Luzietan eguna argitu orduko iluna. (esaera zaharra)
Asko ilundu dau denporea, euria dakar, antza.
Atertu dau azkenean.
Zerua lainotu dau.
Eguerdi inguruan hodeitu dau.
Gaur gaueon inguru guztiak leitu ditu.*

Zuzenbideak:

*Denporeak hotzitu egin dau egunokaz.
*Behin udabarrian sartuta igarten da
zelan luzetzen dauen egunak.

Denporea hotzitu egin dau...
... zelan luzetzen dauen eguna.

9.3.2. Beste aditz berezi batzuk

-Agurtu / Agur egin

Nor-nork:

Agurtzen nauenetik, adiskidetu egin gara.

Nor-nori-nork:

Agur egin deusat, baina ez nau ikusi.

Baina baita: Agur egin dau *eskuagaz*. (Nori zehaztu barik)

-Ahalegindu

Nor:

Ahaleginduko naz *hau guztiau konpontzen*. (Zertan)

*Ahaleginduko gara lekuz aldatzeaz.

Ahaleginduko gara lekuz aldatzen.

-Ahaztu

Hiru erataraz jokatzeko da:

Nor-nori:

Maleta aireportuan ahaztu jat.

Berak garbitu beharko dauela ahaztu jako.

Nor:

Ez naz horrezaz ahaztu. (Zerez)

Zugaz ahaztu barik nago. (Nogaz)

Nor-nork:

Ez dot ezer ahaztu.
Maletea aireportuan ahaztu dot.

Ahaztuta egon lokuzinoa be ugaria da, bigarren argumentutzat zegaz / zerez dauela:
Ez gagoz zuk esandakoaz ahaztuta.

-Aldatu

Nor:

Amaia igaz beharrez aldatu zan. (Zerez)

Nor-nork:

Amaiak igaz beharra aldatu eban.

-Amaitu

Zer-nork:

Liburu irakurten amaitu dot. (zeozer egiten)
Etxea atontzen amaitu baino ez, umea etorri eta dana hondatu eutsan.
Liburua amaitu dot. (zeozer)

-Ardura izan

Zerk:

Horrek, azken baten, ez dau ardura.

Nori-zerk:

Ez deust ardura etxean geratzeak gaurkoarren.
Horregaitik ez deustso ardura, egon trankil.

Sin: leba izan, inporta izan...

-Balio izan

Zer-nork:

Hogeta hamar miloi balio dabe horreek etxeok.

Komunztadura singularrean zein pluralean egin daiteke, sartaldeko euskeran pluralean egiteko jokera gero eta handiagoa dan arren.

Konplementua mugatuta dagoanean, barriz, komunztadura egin egin behar da:

Miloia balio dau.
Miloiak balio ditu / dauz.
**Miloia balio da konpontzea. Miloia balio dau konpontzeak.*

Nori-nork/zerk:

Horrek ez deustu balioko; beste bat erosi behar dozu.

-Begiratu

Nori/zeri-nork:

Gozo-gozo begiraten deusazu.

Nork:

Ez dozu inon begiratu eta topetea gura dozu? (Non)
Atzera begiraten eben, aurrera barik. (Nora)

Beste adiera batzuk:

– *Zaindu* esateko:

Zer-nork:

Landarak begiratu eizuz kanpoan nagoan artean, mesedez.

– *Nondik* edo *nogandik babestu* esateko:

Nor:

Gaiztakeriatik begiratu zaitez.

-Bildurto / Bidur izan / Bildurra (emon, sartu)

Nor:

Bildur naz zapatuan beharrera joateko deituko ez ete deuskuen.

Bildur da ziria sartu ez degioen.

Nor-nork:

Zerk bildurtzen zaitu? Horrexek bildurtzen nau gehien.

Zer-nori-nork:

Bildurra emoten deusku egitasmo horretan sartzeak.

Ez deust bildurrik emoten bakarrik joateak.

Ugazabak bildurra sartu deusnik eta gora kikilduta dago.

-Bultzatu / Bultza egin

Nor-nork:

Ez eban inork bultzatu, bere borondatez joan zan.

Zer-nori-nork:

Ez eiozu bultza egin.

Haizeak bultza egin deutse lainoai eta zerua garbitu dau.

-Burrukatu / Burruka egin / Burrukan egin

Zer-nork:

Ume biek gogor egin eben burruka.

Ume biek alkarregaz burrukan egin eben.

Nor:

Ume biak gogor burrukatu ziran atzo eskola aurrean.

Nor-nork:

Adierazpen askatasunaren alde burrukatzen dabe.

→ Murruka egin: gazt. “acometer”.

Zer-nori-nork:

Behi gaiztoak murruka egin deutso mutikoari.

-Damutu / Damu izan / Damututa egon

Zer-nork:

Josuk Elorrikoa izanda benetan damu dau euskeraz ikasi ez izana.

Hizkuntzak gaztetan ikasi behar zendukez, gerora damu izan ez daizun.

Zer-nori:

Damutuko jako euskeraz ez ikastea.

Mila bider damutuko jako lehenago joan eza.

Nor:

Damutzen da *euskeraz ez ikasteaz*. (Zertaz)

Damututa dago *txapelketarako izena ez emoteagaitik*. (Zergaitik)

-Deitu / Dei egin

Zer-nori-nork:

Unibertsidadetik dei egin deutsie ahizteari batzar batera.

Gure txakurrari Hartz deitzen deutsagu. (= deritxagu, izena esaten deutsagu)

Zer ordutan deituko dozu? (Nori zehaztu barik)

Nori-nork:

Deituko deutsagu *ea gugaz datorren?*

Noiz deitu deutsazu, ba?

-Dimitidu

Nork:

Gure alderdiko zinegotzi batek dimitidu dau gaur.

-Egin

Zer-nork:

Egizue lehenbailehen.

Zer-nori-nork:

Zin dagizut ez dodala barrero holakorik egingo.

Aditz lokuzino ugariak sortzen dira *egin* aditzagaz: *agur egin, apustu egin / postura egin, barre egin, bultza egin, dei egin...*

Zer-nork:

Postura egingo neuke, horreek ezetz etorri gaur be.

Zer-nori-nork:

Barre egin eutsien bere aurrean.

-Ekin

Zeri-nork:

Ekiozu gogor ikasteari. (Zeri)

Beharrari gogor ekingo deutsagu egitaraua aurrera atera daigun. (Zeri)

Ikasten ekin deutso goiz osoan. (Zertan)

-Emon

Zeri emon erako aditz lokuzinoak sortzen dira *emon* aditzagaz: *barreari emon, berba egiteari emon, edanari emon, negarrari emon...* Baita *zerk emon* erakoak be: *barreak emon, gogoak emon...*

Nori-nork:

Burua galdu dauen ezkerro, etxetik aldentzeari emon deutso.

Barreari eutsi ezinik ibili ziran, eta azkenean be, barreari emon eutsien.

Nori-zerk:

Beti egiten dau gogoak emoten deutsana, ezin dogu beretik atera.

-Entzun

Nor-nork:

Altu berba egin barik be ondo entzuten zaitut.

Nor-nori-nork:

Sarritan entzun deusagu hori esaten.

Nori zehaztu barik:

Entzun eizue *inork dinotsuena.*

Bazterretan ez da besterik entzuten gaixoa eta kalamidadea baino.

-Eragin

Zeri-nork:

Krisketari eragin geuntsan atea edegiteko.

Eragin eiozue *kumeari seina loak hartu daian.*

Eragiok, *mutil, aurreko tanbolinari.*

-Eragon

Aditz hau Orozko inguruan eta Arratia inguruan gordeten da oindino be. Zertan jardun edo zeri ekiten jakon adierazoten dauen aditz trinkoa dogu.

Nori/zeri-nork:

Badaragoio *edurrari ostera be.*

Gogoz daragoio mutikoak ogitartekoari.

“Beti *daragoiot* oni bein-edo-bein aditu daizuen.” (Añibarro)

Sin.: inotsi.

“Beste bein-bere jausiko da ura itogiñatik euriari *badinotso.*” (J. M. Mokoroa)

““Ba *diñotso* euriari...”, “Ba daragoio euriari...”, “Au eurizkoa...” Aspaldian ezta entzuten beste jardunik.” (J. M. Mokoroa)

Zertan erako adizlagunakaz be erabilten da:

“Etx-ondoko sasira jaurt egin ei-dau eztena, Patxiko zapatariak; orain etxebarri-giñen *daragoio* oso garratz.” (J.M. Mokoroa)

“Lusagarra, porrua eta abar ereiten alperr-usain asko-barik *daragoioe.*” (J.M. Mokoroa)

“Zertan *daragoiozue*, mutilak?” (R.M. Azkue)

Beste batzuetan txarto esaka, ekiten edo jarduten zentzua be hartzen dau:

Inogaitik eragoten *dabil beti.*

-Eraso

Nori-nork:

**Gogor* erasotu eban *kontrakoa.*

Gogor eraso eutsan *kontrakoari.*

**Donostian* *mozorro*tu batzuek

... *liburutegi bati* eraso deusie.

liburutegi bat eraso dabe.

-Eretxi

Zer/zelan-nori/zeri-nork:

Polito eretxiko deusazu egin *dozunari?*

Zer deritxazue *datorren astegoienean Urbiara joateari?*

Zer-nori egituraz, batez be 'izena euki' edo 'deitzen da'zentsuaz:
Neskatila horri Madalen deritxo.
Niri Peru derist.

Baina baita 'iruditzen jat'zentsuaz:
Niri hori ondo derist.

Zentzu beretsuaz, aditz perifrastikoa be erabilten da:
Dinozun hori ondo erexten jat.

-Erion

Zer-nori:

Zelaiko iturriari darion ura baino freskoagorik ez dago.
Surretatik erion odolagaz jantzi guztiak lorrindu ebazan.
**Hatxak ura dario. Hatxari ura dario.*

Dariola egon lokuzinoa ugaria da gaur:
Txorroa ura dariola dago; zarratu eizu.

-Eskertu / Eskerrak emon

Zer-nori-nork:

Bihotzez eskertzen deusagu gugaitik egin dauen guztia.
Emon zeuntsen eskerrik pastelak bialtzearren?

Zer-nork:

Beragaitik egin eben guztia asko eskertu eban.

Eskerrak emon lokuzinoa be ugaria da nork-zer egituraz, eta jagokonean nori-egituraz:
Eskerrak emon beharrean nago etorri zarien guztioi.

-Etzan (etxun)

Nor erara jokutzen da toki- edo modu-adizlagunean bat lagun dauela: *hilda, lo, lurrean, ohe - an...hilik datza, lo datza, lurrean datza...*

Aditz trinkoaz:

Arazoa horretan datza eta ez beste ezertan. (Zertan)
Nik dinotsudan hau paperean datza. (Non)
Zan ginoan zetzala egoan pagapean lo.
**Hilik datzate lurrean. (eurak) ... datzaz...*

Aditz perifrastikoaz:

Gaixorik egon ezkerro, ohean etxun zaitez.
Behiak etxun dira.

Nor-nori:

Hanketan etxun jako txakurra.

Nor-nork:

Umea ohean etxun dau.

Etxunda egon lokuzinoa be ugaria da:

Ohean luze etxunda dago, ezeren ardura barik.

-Eutsi

Nori/zeri-nork:

Horreek eutsiko deutsie eurenari!

Berbakoa da Gorka, beti eusten deutso emondako berbeari.

Trinkoa danean zer/nor-nori/zeri egitura jagoko, aditz iragangaitzena. Erabilera guztiz murriztuta dauka gaur egun, eta gehienbat mendeko perpaus-adberbial modura erabilten da:

Sustantiboei dautsela erabilten da hizki hori.

Frontoia eleizeari dautsala dago.

“Erabatera asko izan ez arren, lapurreta txikiak alkarri *badautsaz*, egiten dabe pekatu andia” (Fraibartolome)

-Ezagutu

Nor-nork:

Oindinokarren ez dogu ezagutzen gure loba txikia.

Ondo dazaugu guk Gorozikako jentea.

Testu klasikoetan bigarren beste esangura bat be badauka: *autortu, onartu*.

Badazaut, eta autor dot, ni baino jakitunagoa zarana.

-Falta izan

Nor/zer-nork:

Dendara noa; ezer falta dozu?

Semea falta dau etxean.

Nor/zer-nori:

Zer falta jatzu?

Bat bera be ez jako falta.

Nor/zer:

Nor falta da?

Zer falta da?

-Gogaitu / Gogait egin / Gogait eragin

Nork erara erabilten da mendebaldean:

Gogaitu dot etxean egoten eta banoa zeozer hartzen lagunakaz.

Nor-nork egitura be ezaguna da, baina ‘gogaitarazo’ adiera hartzen dauenean:

Gogaitu gaitu bere betiko guzurrakaz.

Gogait egin lokuzinoa be ugaria da:

Itxaroten gogait egin eban eta azkenean alde egin eban.

Gogait eragin (gogaitarazo) lokuzinoa be zabal dabil:

Antzezlanak gogait eragin deutso eta loak hartu dau zinean.

-Gogoratu / Gogoan izan

Zer-nori:

Behin be ez jako gogoratu holako beharrik egitea.

Zeuri gogoratzen ez bajatzu be, nik ondo gogoan daukat.

Nor:

Oporraldi guztiaz gogoratzen naz zehatz-mehatz. (Zerez)

Nor-nork:

Oporraldi osoa gogoratzen dot zehatz-mehatz.

Zer-nori-nork:

Akordetan ez bazara, neuk gogoratuko deutsudaz.

Gogoan izan lokuzinoa:

Gogoan al dozu ze ondo ibili ginan?

-Gomutau / Gomuta izan

Nor:

*Gomutetan zara lehengo udako ibilaldiaz?
Ondo gomutetan naz zugaz, txikia zinanean.*

Zer-nori:

Nik ez dakidan zertzeladarik gomutauko balitxatzu, idatzi e-mail bat agudo.

Zer-nork:

*Gomutau eizu zelako bizimodua jatortzun gainera.
Orain ezin dot gomuta zertatik ezagutzen dodan.
Gomuta izango dozu erratuta zengozala.*

-Hasi

Nor:

Garbi-ikuzia egiten hasi naz. (Zeozar egiten / Zerri ekiten)

Nor-nork:

Idazlana hasi dot. (Zeozar)
**Gaur idazlanagaz hasiko naz. ... idazlanari ekinez hasiko naz.*
... idazlanari ekingo deusat.

-Heldu

Nori-nork:

*Kokotetik heldu eutsan maisuak Asierrri zantarkerietan harrapau eta gero.
Heldu eiozu eskusorkiagaz ontziari, osterantzean eskuak erreko dozuz.
Eltxoek heldu deusie bart eta garau gorritz josita dago.
Txakurra! Heldu honi!*

Sin: oratu.

-Igon

Nork erara jokatzen da beti mendebaldean:

*Gorengo pisuraino igon genduan.
Temperaturek asko igon dabe.*

Zerbaiti gora eragitea adierazoteko, *altzau* erabilten da:

**Zorroa lepora igon eban. ... altzau eban.*

-Ikutu

Nori-nork egitura da oinarrizkoena:

Buruan ikutu eutsan, baina zirkinik be ez eban egin.

Zuzendariari bere ohorean ikutu eutsielako, sekulako erantzun gogorra emon eban.

Lokuzino lez, *ikutu bat egin* eta *ez ikuturik egin* erabilten dira, beti be nori argumentuaz:
Albotik igarokeran ikutu bat egin eutsalako haserratu egin jakon.
Gai horri ikuturik be ez egitea da onena.

Sarritan gaztelerako “aludir, tocar un tema” adierazoteko darabilgun arren, horren parean badagoz beste aukera batzuk be:

↓ <i>Ez dot ikutu alderdi mitologikoa.</i>	↑ <i>Ez dot aitatu / aztertu / jorratu...</i>
↓ <i>Betiko arazoak ikutu ditugu klaustroan.</i>	↑ <i>Betiko arazoei buruz / arazoan gainean berba egin...</i>

-Irakin

Zerk erara jokutzen da beti; nor bako aditz iragankorra da.
Esneak aspaldi irakin dau.
Odolak berez diraki.

Irakiten egon lokuzinoa be ugaria da:
Ura irakiten dago lapikoan.

-Iraun

Nork egiturako aditz honek, noiz-non-zelan erako adizlagunak hartu ohi ditu, baina ez dauka nor/zer objekturik:

Gure aitaren etxeak zutunik dirau.
Gizon honek urteetan bardin dirau.
Egunak hogeta lau ordu irauten dau.

Aditzagazko komuntzadura beti singularrean egiten da:

* <i>Urteak</i> iraun ebazan <i>ohean.</i>	<i>Urteetan</i> iraun eban...
* <i>Lau ordu eskas</i> iraun ditu <i>operazinoak.</i>	... iraun dau...

Iraun aditza inesiboagaz agertzea ohikoa da:
Urte batzuetan iraun eban *dendan beharrean, baina gero itxi egin eban.* (Non)

-Irudi

- Aditz trinkoaz:

Nor/zer-nork:

Horrek ez dirudi guretzat ona izango danik.
Gizon horrek tximinoa dirudi.

“Egizue onetan, egiten oi dabena sartzan danak lorazko jardin eder baten; bada onen edierantzakoa *dirudit* misino santu batek.” (Añibarro)

-*la* atzizkidun osagarri konpletiboaz:

Badirudi gaixorik dagoala.
Berandu dala dirudi.

- Aditz perifrastikoaz:

Zer-nori:

Ez jat iruditzen dana ondo lotuta geratu danik.
Ez jake ondo iruditu.

Egokia iruditu jake.
Iruditu jako *guzurra esaten genbiltzala*.

-Itxaron

Nori/zeri-nork egitura izan ohi dau, objektua datiboan dala. Objekturik agiri ezean, non-noiz-zelan erako adizlagunen bat eroan ohi dau.

Ezin dabe luzaro itxaron, umeen bila joan behar dabe-eta.
Berton itxarongo deutsagu autobusari, euria bota ahalean da-eta. (Nori)

Beste erabilera eremu bat be badauka:

Itxaroten dot *zu arin osatzea*. (= esperantzea euki, ustea euki)

-Itxi

Batuz: *utzi*.

Nor-nork:

Ikasketak bertan behera itxi dauz. (Nori barik)
Amak alde egin dauenean olgetan itxi dau umea. (Zertan)

Nor-nori-nork:

Prakak itxi deustez, eta gustura daukadaz. (Nori)
Ez deuste motorra erosten ixten, arriskutsuegia dalako. (Ez daukat baimenik)

Nori-nork egitura be ugaria da, nor objektu barik, batzuetan zelan-zertan erako adizlagunen bategaz eta nor-nork egiturea be erabilten da.

Baketan itxi egiozu umeari.
Polikiroldegira joateari itxi deusat, arazo asko batu jatazalako. (Zeri itxi)
Baketan itxi naizu.

-Jardun

Nork erara jokutzen da beti, nor/zer objektu barik, baina zertan erako adizlagunen batek lagundurik:

Mikelek etxeko beharrak egiten dihardu. (Zertan)
Berbetan dihardu.

Nor-nori egitura be ezaguna da, nori azaltzen danean:

Aitita mutikoari kontuak kontetan jardun jako.

-Jarraitu

Zentzun oinarritzkoa, nori edo zeri jarraitzea da; hau da, noren edo zeren atzetik joatea. Nori /zeri-nork:

Etixerako bidean atzetik jarraituko deusku.

Gaur egun, *zertan jarraitu* edo *segidu* edo *ekin* zentzuaz be erabilten da. Eta bigarren balio horregaz nork argumentua eta zertan adizlaguna ohi darabilgu. Dana dala, adiera horretarako hobe da *segidu* aditzaz baliatu.

↓ *Ea oingoxe moduan jarraitzen dauen.* ↑... segiduten dauen.
(Zertan)

Nor-nori/zeri (forma klasikoa): erregimen hori trinkoakaz bakarrik gorde da sartaldean:

Egunez txori guztiak darraikoz gauontzari.
Barruko araudiari garraikoz.
Narraion neure beharrari.

-Kostau

Zer argumentua zenbat adizlagunaz:

Asko kostau da zubi barria egitea.
Erosi eizu; ez jatzu hainbeste kostauko.
Zenbat kostetan da hau?

Badira hori adierazoteko modu jatorragoak be: zegan dago? zenbat balio dau?...

Ez dau komunztadurarik egiten konplementuagaz:

**Miloiak kostetan ditu etxe horrek.* *Miloiak kostetan da etxe hori.*
Miloiak balio ditu etxe horrek.
Bazterrak kostau jako etxe barria!

Zer-nori:

Kostauko jako mutil hoberik aurkitzea. (Zer)
Asko kostau jako aprobetan. (Zertan)
Mila hogerleko kostau jako bazkaria.

-Lagundu / Lagun egin / Lagun izan

Nori-nork erara jotatzen da mendebaldean, gehienetan zertan argumentua lagun dauela.

Ezkaratza batzen neuk lagunduko deusut.
Bertaraino lagunduko deusut, gaur astitsu nabil-eta.

Lagun egin lokuzinoa be zabal dabil:

Lagun egin deutso beharra amaitzen.

Lagun izan lokuzinoa be ugaria da:

Eskerrak bide guztian lagun izan zaitudana; osterantzean bildurtuko nintzan.

-Leba izan

Nori-zerk: nork/zerk argumentua batzuetan azaltzen da, baina beste askotan ez.

Zuri ezerk be ez deus leba, ez etxeak, ez beharrak, ez ezerk.
Ez deutso leba etorri ezin bazara; zu barik be atonduko da.

Baina baita: *Ez, ez dauka lebarik, neu lotuko naz eta egingo dot.*

-Loak hartu

Nor-nork:

Semea oso nekatuta egoan, eta momentuan hartu dau loak.

Loak harturik/-ta egon lokuzinoa be ugaria da:

Orain dala ordubete etxun da eta honezkero loak hartuta egongo da.

Loak hartu > lokartu egiten dan hitzunen artean, eta nor argumentuaz be asko erabilten da:

Telebistaren aurrean parau ezker, momentuan lokartuko naz.

-Luzatu

Zer-nork egiturakoa ohi da, nori aukeran dala:

Amak praka barrenak luzatu deusaz alabeari.

Zer argumentuduna be izan daiteke. Batean zein bestean, zenbat erako adizlagun bat hartu leike.

Zenbat luzatuko da?

**10 kilometrotan luzatuko da
gasaren hodi-sarea.*

10 kilometro luzatuko da...

**Bi egunetan luzatu zan matrikulatzeko
epea.*

Bi egun luzatu zan...

Non?

Hainbat lekutan luzatu behar da hoditeria.

Erderaren eraginez itzulpen desegokiak egiten dira, eta sarritan beste aditz batzuen lekuan erabilten dogu.

**Funtzionarioak bertaratze-agiria
luzatu deutso.*

... bertaratze-agiria emon deutso...

**Udaleko teknikoek luzatutako txostenean
uren egoeraren barri zehatza emoten da.*

... egindako txostenean...

-Merezidu izan

Zer-nork:

Gehiago kasurik ez egitea merezidu dabe.

Aditzizen perpaus bategaz doanean, *-t(z)ea* atzizkia hartu ohi dau, baina nork argumentua agiriratzen ez dala:

Ez dau merezidu hara joatea.

Benetan be merezidu dau ahalegin apur bat egitea.

Ez deutsu merezidu horretan sartzea.

Mendeko perpausagaz doanean, gehienetan *-t(z)ea* erakoa da, eta gitxiagotan aditz subjuntiboduna.

Ez dau merezidu alperreko ahaleginik egitea.

Merezidu dau alargunari kontsolu apur bat emon deiozun.

Zuzenbideak:

**Hango ikuspegia zoragarria dozu eta
pena merezidu dau joatea, eguraldi ona
egin ezkerro.*

... eta merezidu dau joatea...

**Merezitzen dau zuzenean entzutea.*

Merezidu izaten dau...

**Merezidu dau pelikula hori ikusteak.*

Merezidu dau pelikula hori ikustea.

-Neurtu

Zer-nork:

Jokalariek zelaian neurtuko dabez indarrak.

Teknikoak hodiien zabalera neurtu eban.

Zenbat luze eta zenbat zabal dan neurtu behar dozu.

Nor argumentu hutsaz be erabilten da gaur egun:

Aizkolariak domekan neurtuko dira Tolosako plazan.

“Aurrekoa neurtzen dozun neurriagaz neurtuko zara”. (J.M. Mokoroa)

Hurrengo erabilera hau nahiko barria da eta gaztelaniaren eragina dau, baina ezin da baztertu, beste egitura batzuk egokiagoak eta gomendagarriagoak diran arren:

↓ *Eiffel torreak 320 metro* neurtzen dau / ditu.

↑ *Eiffel torreak 320 metro* ditu luzean / luzeran / luzetara.

↑ *Eiffel torreak 320 metroko* neurria / luzera dau.

Sartaldean erabilten dira baita:

Zubi hau 1.000 metro luze da.

Ortu hau 20 metro da luzean.

Era berean:

Baso honek 852 metro daukaz zabalean / zabaleran / zabaletara.

Ze(r) zabalera / luzera dauka *horrek*?

Zenbateko zabalera / luzera dau *baserri harek*?

-Oratu (Ebatu)

Nori/zeri-nork:

Eskutik oratzen eutsan aititak lobeari kaminora joan ez ekion. (Nondik)

Txakurrak haginka ebatu eustan txikitan.

Zeri oratu leion orain pertsonak!

-Pasau

a) Jasan esangureaz:

Zer-nork:

Amama eta lehengusua gaixotu jakuzanean, momentu larriak pasau genduzan.

b) Igaro eta hurreratu esangurakaz:

Nor:

Beragaz egon nazanetik ordu erdi be ez da pasau.

Ondo-ondotik pasau da, eta bada be ez deusku egin.

c) Jazo, gertatu adieraz:

Zer:

Zer pasau zan Bilbon bart gauean?

Zer-nori:

Ez dakit zer pasau jakon hain haserre egoteko.

d) (Ondo / txarto) ibili esangureaz:

Zer-nork:

Ederto baten pasau dogu oportetan aurtan.

e) Emon esangureaz:

Nor-nori-nork:

Pasauko deustazu gatza, mesedez?

-Sakondu

Zertan sakondu:

**Kontu hori gehiago sakondu behar da.*

Kontu horretan *gehiago* sakondu behar da.

-Urten

Bizkai euskeran nork argumentuaz, baina nor/zer barik. Erraz inguratzen ditu, ostera, nondik-noiztik erako adizlagunak.

Belu urten dogu erosketak egiten.

Etzetik goizean goiz urten eban.

Zerbaitek ze ondorio izan dauen adierazoteko be erabilten da. Halakoetan, nork-zer/zelan edota nork-zerk egiturak erabilten dira.

Aurten erosi dogun ardaoak ona (/ onak) urten dau.

Txakur horrek okerra (/ okerrak) urten dau.

9.4. ADITZ LOKUZINOAK: ahal izan / ezin izan // behar izan / gura izan

Indikatiboko aditzak diranez, aditz laguntzaileak IZAN (*naz, jat, nintzan, jatan...*) edo EDUN (*dot, deusut, neban, neutsun...*) izango dira. Aditz partizipioa, barriz, hiru atalez osoturik egongo da: [ETORRI / EROSI + (ahal / behar / gura) + (izan / izaten / izango)], hau da, aditz nagusi bat, lokuzinoa bera eta *izan* aditza aspektua adierazoteko.

AHAL

Aditz iragangaitz bat (*etorri*) eta aditz iragankor bat (*erosi*) *ahal izan* aditz lokuzinoagaz batera doazanean, holako eskemea osotu geinke:

etorri ahal izan da (burutua) etorri ahal da (puntuaria) (1) etorri ahal izaten da (burutubakoa) etorri ahal izango da (gerokoa)	erosi ahal izan dau erosi ahal dau (1) erosi ahal izaten dau erosi ahal izango dau
etorri ahal izan zan etorri ahal zan (1) etorri ahal izaten zan etorri ahal izango zan	erosi ahal izan eban erosi ahal eban (1) erosi ahal izaten eban erosi ahal izango eban

(1) *Etorri ahal da, erosi ahal dau* erako aditz puntuariak nekez erabilten ditue hiztunek per-paus nagusian. Bai, ostera, menderakuntzan: *etorri ahal bada, erosi ahal dauena, etorri ahal zanean, erosi ahal ebala...*

Goiko eskeman ikusten dan lez, aditz nagusiak aditz laguntzailea mugatzen dau, halan, aditz nagusia intransitiboa bada (*etorri*), aditz laguntzaileak be intransitiboa (*naz, jat...*) izan behar dau, eta transitiboa bada (*erosi*), ostera, laguntzailea be transitiboa (*dot, eban...*).

– Aditz lokuzinoak esaldi nagusi zein mende-perpausetan (baldintzakoak, kausalak, osagariak, erlatibozkoak...) erabilten dira:

Etorri ahal bada | bazan | balitz | baledi

Etorri ahal dana | zana | leitekena | (z)eitekena

Etorri ahal dalako | zalako | leitekkelako | (z)eitekkelako

Etorri ahal izaten da | zan | bazan

Etorri ahal izan da | zan | bazan | balitz
Etorri ahal izango da | zan | balitz | litzateke

Ahal izate edo potentzialidadea, ahal hitza barik adierazoten da beste askotan:
Etorri daiteke
Etorri leiteke
Etorri (z)eitekean

Hona eredu-esaldi batzuk:

Etorri ahal izango balitz, *berak egingo leukez hemengo behar guztiak.*
Egin ahal dana *egin eta aurrera.*
Ez dakit gero etorri ahal izango nazan zure bila.
Kontuz ibili ezean, dana lorrindu leitekela esan deuskue.
Bildur izan ginan, han edonor jausi zeitekkelako.

Aditz lokuzinoaren ordenea banatua be izan daiteke batzuetan:
Ahal dozu ikusi ea *umea lo dagoan?*

– Leku batzuetan aditz guztiakaz, transitiboak dirala, zein intransitiboak dirala, aditz laguntzailea beti transitiboa erabilten dabe. Halan:

↓Etorri ahal izan dot, <i>baina ez deustazu ezer esan.</i>	↑Etorri ahal izan naz...
↓Etorri ahal izango baleu, <i>mesede handia egingo leuskigu.</i>	↑Etorri ahal izango balitz...
↓Zeuk joan ahal badozu, <i>gurago dot zeu joan zaitez.</i>	↑Zeu joan ahal bazara...

– Dana dala, subjuntiboko baldintzetan eta beste era batzuetan beti gorde izan dira forma intransitiboak:

Etorri ahal baledi. *Bakarrik egon ahal baledi.*
Joan ahal zeitekeala, *bape ez zan joan.*

- Beraz, eredu idatzirako, tradizioan egin dan lez, forma intransitiboak gorde beharko litzatekez, aditz nagusia be nor eredukoa danean.

– Goiko eskeman ikusten dan lez, ahalezkoak egiteko *ahal izan* aditz lokuzinoa eta *ahalera -ko adizkiak* erabilten ditugu. Ahaleran *edin eta *egin erroetatik eratorritako aditz laguntzaileak erabilten dira: NOR muetako aditzek *edin errotik eratorriak (*naiteke, neinteke, nakikeo, nenkikio...*) hartzen ditue, eta NORR muetakoek *egin errotik eratorriak (*daikegu, geinke, deikeot, neikio...*). Ahalerako adizkiez baliaturik hiru aldi bereizi geinkez: oraina, iragana eta alegiazkoa.

Hona hemen eskemea:

Oraina:	etorri daiteke	erosi daike
Iragana:	etorri (z)eitekean	erosi (z)eikean
Alegiazkoa:	etorri leiteke	erosi leike

Aurreko taulak ikusita zalantza bat sortu lekikigu: esangura berekoak dira *etorri daiteke* eta *etorri ahal da?* Hizkuntzalari guztiak ez datoz bat foma honeen artean desbardintasunik ete

dagoan erabagi orduan. Zoritxarrez gauzak ez dira hain argiak eta esan leiteke sarritan formak neutralizatu egiten dirala:

Zuk aprobau ahal dozu / aprobau zeinke EGA azterketa.
Ezin dot atea zabaldu / ezin nei atea zabaldu.

Halanda be, kasu batzuetan ikusi daiteke aldea:

Ahal dodan guztia egin dot.
Ezin dot egin, ez dakit egiten.
Gura dozunean etorri zein tekez gugana.
Horko liburu guztiak erabili zeinkiez.

Ahal izan eta *ezin izan* aditz-lokuzinoak osotutako aditzak orainaldian amaitzen dan egintza adierazoten dabe eta *ahal izatea* / *ezin izatea* probauta dago; ahalerako aditzek (*zein tekez, zeinkez...*) adierazoten daben egintza etorkizunera begira dago eta, beraz, *ahal izatea* / *ezin izatea* ez dago egiaztatuta.

EZIN

Ahal izan lokuzinoagaz egin dogun moduan, *ezin izan* hartuta, honako eskemeau osotu geinke:

ezin etorri izan da (burutua) ezin etorri da (puntukaria) ezin etorri izaten da (burutubakoa) ezin etorri izango da (gerokoa) (1)	ezin erosi izan dau ezin erosi dau ezin erosi izaten dau ezin erosi izango dau
ezin etorri izan zan ezin etorri zan ezin etorri izaten zan ezin etorri izango zan (1)	ezin erosi izan eban ezin erosi eban ezin erosi izaten eban ezin erosi izango eban

(1) Gerokoan zabal dabilena da beste hau be: ezingo da etorri / ezingo dau erosi, ezingo zan etorri / ezingo eban erosi.

Goiko eskeman ikusten dan ordena tradizinoan erabili izan dana da. Gaur egun horren orde zabalago dabil:

Ezin zan etorri.
 Ezin izango da heldu *barikurako*.

Aditz intransitiboak aditz laguntzailea be intransitiboa erabili izan da tradizinoan. Gaur egun, oster, leku batzuetan beti laguntzaile transitiboak erabilteko jokera dago. Halan:

↓Ezingo dot etorri, *medikuarenera joan behar dot-eta*. ↑Ezingo naz etorri / ezin etorri izango naz...
 ↓Ezin dau joan *dana hankaz gora itxita*. ↑Ezin da joan / ezin joan da...

- Idatzian gorde egin behar da bereizketa eta laguntzaile intransitiboa jagokonean era hori erabili.

Perpauza inperpauzetan, barriz, aditz laguntzailea intransitiboa izango da:
Surtatik kentzen ez badozu, erre egin behar jatzu *lapikokoa*.
Bertara joan aurretik eguna eta ordua eskatu behar izaten da.

– Mende-perpauzetan, eta ondoriozko eta ahalerazko adizkiakaz:

Etorri behar baleu | leuke
 Etorri beharko baleu | leuke
 Etorri behar izan dagian | leian | egian
 Etorri behar izan leike

Etorri beharra euki / izan lokuzinoak modernoagoak dira, baina gaurko hitzunen artean indar handia dabe, batez be derrigorra adierazo edo markau gura danean.

Etorri beharra dauka | eukan | baleuka | eukiko leuke
 Etorri beharra euki dagian | leian
 Etorri beharra euki lei

Hona eredu-esaldi batzuk:

Batek jakin noiz etorri beharra izan leian.
Zeozar esan beharra baleuka, *datorrela trankil gugana*.
Inoiz Gasteizera joan beharra balebe, *gu prest gagoz laguntzeko*.
Gehiago ikasi beharko leukelako *egin deustso haserre*.

GURA / NAHI

Gura izan / nahi izan lokuzinoakaz holako eskemea osotu geinke:

etorri gura izan dau (burutua) etorri gura dau (puntukaria) etorri gura izaten dau (burutubakoa) etorri gurako dau (gerokoa)	erosi gura izan dau erosi gura dau erosi gura izaten dau erosi gurako dau
etorri gura izan eban etorri gura eban etorri gura izaten eban etorri gurako eban	erosi gura izan eban erosi gura eban erosi gura izaten eban erosi gurako eban

- *Gura izan* edo *nahi izan* aditz lokuzinoakaz laguntzailea beti da iragankorra edo transitiboa.

– Mende-perpauzetan, eta ondoriozko eta ahalerazko adizkiakaz:

Etorri gura baleu | leuke
 Etorri gura dauela | ebala
 Etorri gura izaten dauena | ebana
 Etorri gura izan baleu | dagian | egian | leike
 Etorri gura izan dauela | ebala | eukeala | eikeala
 Etorri gurako baleu | leuke
 Etorri gurako dauela | ebala | leukela

Hona eredu-esaldi batzuk:

Gugaz etorri gurako baleu, guri deitzea baino ez dauka.
Neu be kontuan hartu naizuen gurako neuke.
Berak etorri gura izan dauelako etorri gara.
Orduan egitasmo horretan sartu gura izan ez ebenai damutuko jake.

Egitura banatua:

Zeozar gura eban esan, baina galarazo egin eutsien.
Gura leuke joan, baina ez deusie ixten.

GURAGO / NAHIAGO IZAN

Laguntzaile transitiboa erabili behar dabe.

Gurago dot neu joan inori esan baino.
Gurago neuke zeuk esatea / zeuk esango bazeuntso.
Berak egin gurago izan eban, inori eskatu baino.

Zuzenbidea:

**Zuek gurago zenduen zeuek zeuetara ibiltea. ... zeuek zeuetara ibili.*

GUREN / NAHIEN IZAN

Guren ebanetik jan eta jan ekin eutsan, baina osterantzekorik ez eban probau.
Guren dozuna emongo deusut.
Harek guren leukena da gustuko beharra topetea.

9.5. ADITZAREN MODALIDADE-HITZAK

Modalidade-hitzez hiztunaren jarrera erakusten dabe: ustea, zalantza, desioa edo bestelako ñabardura batzuk agertzen ditue.

AHAL

Ez dogu nahastau behar ahalerako formakaz. Geroko partizipioaz erabilten da. Desioa edo gurari bizia adierazoten dau; beti be harridura-taiuko perpausetan.

Joango AHAL da behingo baten!
Itoko AHAL da!
Jausiko AHAL da hortxe bertan!
Etorriko AHAL dira etxera bakez!
Leher egingo AHAL dau behingoz!

AL

Itaunetan erabilten da partikula hau:

Egoten AL dira? | Egon AL dira? | Egongo AL dira?

Ba AL dator hori?
Ba AL dakizu Aitor etorteko dana?

Sartaldean hitzun gehienek ez dabe partikula hori erabilten, baina oraindino leku batzuetan entzun daiteke, batez be galdera erretorikoetan, gaztelaniaz “¿es que...? ¿acaso?” hasten diranen antzekoetan:

Ez al dozu hori entzun?
Ez al dakizu banandu nintzala?

Sarritan egitura horren orde, holakoak darabilguz:

<i>Azkenean be, berak egingo al dau?</i>	<i>Azkenean be, berak egingo dau, ala?</i>
<i>Amagoiak esan al deutsu?</i>	<i>Amagoiak esan deutsu, ala?</i>
<i>Berak prestauko al dau afaria?</i>	<i>Berak prestauko dau afaria, ala?</i>

ANTZA

Ei edo *seguru* partikulen parekotzat hartu geinke.
Esaldiaren hasieran zein amaieran erabilten da, ez aditz multzoaren barruan:
Egon dira, ANTZA. Egoten dira, ANTZA.

Enpresako arduradunak eta sindikatuak akordu batera heldu dira, antza.
Antza danez, kiroldegiko tasek %4 egingo dabe gorantz datorren hilean.
Antza, ez dau inogaz ezer jakin gura.

Sin.: hurrean, seguru, aurki.

BIDE

Aditzari “itxura danez” ñabardurea gehitzen deutso. Aditz laguntzaile edo trinkoaren aurretik erabilten da.

Etorri BIDE da.
Bakarrik BIDE dabil.
Orain pozik BIDE zagoz.

EDO

Ziurtasun eza adierazoten dau. Gaur egun aditz multzotik kanpora erabilten da, atzekari modura.

Egin dau? Egin EDO.
Etorriko dirala EDO esan dabe.
Mozkortuta zagoz, EDO?

EI

Batuzko *omen* partikularen kidea da. Zeharkako informazioa emoteko erabilten da. Horregaitik beharbada, ipuinak kontetan diranean be asko erabilten da.

Egon EI dira. Egoten EI dira. Egongo EI dira.

Ikusi EI dau. Ikusten EI dau. Ikusiko EI dau.
EI dago. EI dabil. EI ekian.

*Gaur goizaldean istripu bat egon ei da Eubako bidegurutzean.
Luzaroan itxaroten egon arren, ez ei zan inor agertu.
Azkenean be pikutara bialdu ei eban.
Berandu etorri zan mutikoa eta amak haserre-haserre eginda jo egin ei eban.*

Informazioa emoteko beste bide bat be badago *esan* aditzaz baliatuta.
*Azkenean be etorriko dala dino.
Medikuek dinoe osatuko dala.*

Zuzenbidea:

**Amerikarrek lehegailuak leku ... bota ei zituen, komunikabideek
okerrekoan bota ei zituela esan dinoenez.
dabe komunikabideek.*

Aditz trinkoa indarturik dagoanean, ez dago *ba-* aurrizkiaren premiarik *ei* erantsi ezkerro:
↓ *Ba ei dago jentea, zaldi-okelea* ↑ *Ei dago jentea...*
oso gustura jaten dauena.

ETE

Batuzko *ote* partikularen ordea da bizkaieraz.
Egon ETE dira. Egoten ETE dira. Egongo ETE dira.
Ikusi ETE dau. Ikusten ETE dau. Ikusiko ETE dau.
ETE dago. ETE dabil. ETE daki.

Itaun-perpauak eregiten dira beronegaz, zuzenak zein zeharkakoak, baina horren atzean hiztunak bere zalantzea baino ez dau agertzen. Bai-ez zein nor-zer erako itaunetan erabilten da.

*Nortzuk ete dira etortekoak?
Zer ete da kalean jazoten dana?
Prentsaurrekoa hasteko eta, etorri ete dira kazetariak!
Zoaz atera, ia inor ete dan.
Deitu dauena Iñaki izan ete dan nago!*

Aditz jokatuaren aurre-aurrean ipinirik erabilten da, dala trinkoa, dala perifrastikoa, dala baiezka, dala ezezka.

*Ekarriko ete ditu agindu geuntsazanak?
Zuk dinozun moduan barik, ez ete da bestetara?
Bera ete dan ez ete dan egon gara.
Hori esan ezkerro, ez dakit, ba, ez ete dan danokaz haserratuko.*

Aditz trinkoa galdegai danean, ez dago *ba-* aurrizkiaren ezetarik *ete* aurretik erantsi ezkerro:

Ete daki ezer, gero!

Ete *dakie euskeraz?*

Ete *dabil inor kalean ordu honetan?*

↓ *Ba ete daki gu zeintzuk garan?*

↑ *Ete daki...*

Ezezka:

Ez ete da berau lehengoan ikusi gendua?

Alperrik ez ete zabilz, gero?

Berbetan dan uneko zalantzea edo zalantzazko itauna egiteko, ez da geroko adizkirik erabili behar, ete + oraineko adizkia baino:

“Nor *ete* da kantoria?” (J.M. Mogel)

“Zetarako *ete* dira piper ta azapraez gorrituko saldaak?” (J.M. Mogel)

“Eta gurasuak aginduten badabe [...], *ete* dauke umiak egiteko obligazioerik?” (J.M. Mogel)

Zuzenbideak:

**Egia izango ete da?*

Egia ete da?

**Nor izango ete da irabazlea?*

Nor ete da irabazlea?

OHI

Ohitura adierazoteko erabilten da.

Egon OHI dira. Ez OHI da egon.

Ikusi OHI dau. Ez OHI dau ikusi.

Eskas OHI dabil. Ez OHI dabil.

Beti esan ohi da, teknika ezagutzea ez dala nahikoa; berezkoa be behar dala.

Holako orduetan izan ohi dira istripu gehienak.

Bederatziak aldera heldu ohi da beharretik.

Ez dau holako beharrik egin ohi.

*Bizkaiko bertsolariak saioz urri ohi dabilz urtean zehar, eta zer esanik ez Gipuzko -
akoen aldean.*

Alkate, Barne ministro, irakasle... *izanikoa* dala adierazoteko:

Retegi pelotari ohiak irabazi dau txapelketa gehien.

Batzuetan, ohikotasuna edo sarritasuna adierazoteko *eroan* eta *joan* aditzen forma trinkoak erabilten dira, eredu horrek erabilera mugatua euki arren.

Eskolako kontu zuzendariak egin daroa.

Psikologo askoren eretziz, bikoteagaz arazoak eukitea normala izan doa.

SEGURU

Antza danez lokuzinoaren parekotzat hartu daikegu testuinguru batzuetan. Esaldian, atzeko edo barruko posizioan agiri da sarrien, baina aurrean be bai. Baina sekula be ez aditz mul-tzo barruan.

Kotxe barria erostekotan dabil, seguru.

Joan ete da? Bai, seguru.
Seguru, alabeak etxe barria erosi deutso Bilbon, eta bertara doaz biziten.
Kanpora joan da eta ez da etorriko bi urtean, seguru.

Sin.: itxura, hurrean.

Ezkontzekotan dabil, hurrean.

9.6. ADITZ LAGUNTZAILEA

9.6.1. Egite era

9.6.1.1. ORAIN ALDIA

IZAN

EGITE ERA NOR ORAIN ALDIA	
Ni	naz
Hi	haz
Ha	da
Gu	gara
Zu	zara
Zuek	zarie
Hareek	dira

Erabilera:

– Menderakuntzan, mende-atzizkiakaz honako formak hobetsiko dira: *nazan / nazala, hazan / hazala, dan / dala, garan / garala, zaran / zarala, zarien / zariela, diran / dirala*.

Ahoz, idatziari ez jagokozan aldaera batzuk be ontzat emongo dira: *nazen / nazela, hazen / hazela*. Ondoko forma klasikoak ontzat emon daitezke idatziz be, estilo jagi edo klasiko sundakoa erabili nahi danean: *garean / gareala, zarean / zareala, direan / direala*.

– Nor egiturako adizkiak, laguntzaile zein trinko lez erabilten dira.

Aditz laguntzaileak:

*Noiz etorriko zara barriro gu ikusten?
Bihar jakingo da zein filmek irabazi
dauen saria.*

Trinkoak:

*Onak zarie ba zuok umore
txarrean zagozanean!
Zer, ze uste dozu atzo goizekoa
nazala ala?*

EGITE ERA							
NOR-NORI			ORAIN ALDIA (Aeredua)				
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		natxak natxan(a)	natxako		natxatzu	natxatzue	natxake
Hi	hatxat		hatxako	hatxaku			hatxake
Ha	jat	jak jan(a)	jako	jaku	jatzu	jatzue	jake
Gu		gatxazak gatxazan(a)	gatxakoz		gatxatzuz	gatxatzuez	gatxakez
Zu	zatxataz		zatxakoz	zatxakuz			zatxakez
Zuek	zatxataze		zatxakoze	zatxakuze			zatxakeze
Hareek	jataz	jazak jazan(a)	jakoz	jakuz	jatzuz	jatzuez	jakez

EGITE ERA							
	NOR-NORI			ORAIN ALDIA (B eredia)			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		naiak naian(a)	naiako		naiatzu	naiatzue	naiake
Hi	haiat		haiako	haiaku			haiake
Ha	jat	jak jan(a)	jako	jaku	jatzu	jatzue	jake
Gu		gaiazak gaiazan(a)	gaiakoz		gaiatzuz	gaiatzuez	gaiakez
Zu	zaiataz		zaiakoz	zaiakuz			zaiakez
Zuek	zaiataze		zaiakoze	zaiakuze			zaiakeze
Hareek	jataz	jazak jazan(a)	jakoz	jakuz	jatzuz	jatzuez	jakez

A eta B ereduez:

– B eredia nor (*ha, hareek*) egiturako adizkien analogiaz sortu eta hedatu da hizkuntza mintzatuan, eta gaur egun, beratu da hiztunen artean nagusi.

Tradizino idatzian, ostera, XX. mendera arte A eredia bakarrik erabili izan da, eta gaur egun be eredu horretako adizkiak dira idatzian lehentasuna dabenak. Azkueren eta beraren osteko gramatikariak izan dira B ereduari arrakasta emon deutsienak. Ahozkoan gomendagarritzat joko geunkez.

Noiz etorriko gaiatzuz bila?

Bihar etorriko gaiatzuez laguntzen.

Ez naiake gehiago hurreratuko ume lotsabako horreei.

Erabilera:

– Nor-nori egiturako adizkiak laguntzaileak izan ohi dira ia beti. Batez be nor (*ha, hareek*) eredukoak erabilten dira.

Platera apurtu jat.

Kontuz ez bazabilz, tortillea erreko jatzu.

Zeugaz egotearren etorri natxatzu, eta zuk zirkinik be ez!

– Aditz trinko predikatibo lez erabili gura danean, *edunen* flexioek egiten deusie ordezkua bizkai euskerarik gehienean, beste euskalkietan lez.

Eztia ona dozu osasunerako.

Lagun txarra dozue hori.

EDUN

EGITE ERA							
	NOR-NORK			ORAIN ALDIA			
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		haut	dot		zaitut	zaituet	dodaz ditut
Hik	nok non(a)		dok don(a)	gozak gozan(a) gaituk gaitun			dozak dozan(a) dituk ditun
Harek	nau	hau	dau	gaitu	zaitu	zaitue	ditu dauz
Guk		haugu	dogu		zaitugu	zaituegu	doguz ditugu
Zuk	nozu		dozu	gaituzu gozuz			dozuz dituzuz
Zuek	nozue		dozue	gaituzue gozuez			dozuez dituzuez
Hareek	nabe	habe	dabe	gaitue	zaitue	zaituee	ditue dabez

Erabilera:

- Menderakuntzan, mende-atzizkiakaz honetara erabilten dira adizkiok:
dodan / dodala, dodazan / dodazala, ditudan / ditudala
dogun / dogula, doguzan / doguzala, ditugun / ditugula
dozun / dozula, dozuzan / dozuzala, dituzun / dituzula
dozuen / dozuela, dozuezan / dozuezala, dituzuen / dituzuela

Era berean:

dituan / dituala // dituen / dituela
dauzan / dauzala // dabezan / dabezala

Halanda be, nork *berak* eta nor *ni, hi, bera* diranean: *-e-* lotura-bokala hartuko da *-a-* lotura be gaitzetsi barik.

dauen / dauan, dauela / dauala
nauen / nauan, nauela / nauala
hauen / hauan, hauela / hauala

Nork *eurak* eta nor *ni, hi, bera* diranean:

naben / nabela, haben / habela, daben / dabela

- Zuzenbidea: ahoz sarritan *-it-* pluralgileaz osotutako aditzei *-z* pluralgilea eransten deutsegu behar ez dala. Idatzirako era horreek ez dira ontzat emongo.

**Kanpora bialdu gaituez. ... bialdu gaitue.*

- Nor-nork ereduko adizkiak laguntzaile lez erabilten dira batez be.

Asko maite nauelako egiten ei dau hori.

Auzoko txakurrek ikusi nabenean arineketan etorri dira nigana.

–*Edun* iragankorraren bidez, solaskidea, norbere burua edo hirugarren pertsona bat, solasgai dana, jokoan txertatzen da.

Maria lagun ona dot.

Behar hori ez dozu txarra.

– *Euki* zentzua gordez beste euskalkietan baino erabilera urriagoa dau. Zentzu horregaz *euki* aditza bera ohi darabilgu gehiago.

Gaur ez dodala behar egiteko bape gogorik esan deusat.

Mahai gainean dozue afaria.

EGITE ERA							
	ZER-NORI-NORK			ORAIN ALDIA		SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		deuat deunat	deusat		deusut	deusuet	deuset
Hik	deustak deustan(a)		deusak deusan(a)	deuskuk deuskun(a)			deusek deusen(a)
Harek	deust	deua deuna	deutso	deusku	deutsu	deutsue	deutse
Guk		deuagu deunagu	deutsagu		deutsugu	deutsuegu	deutsegu
Zuk	deustazu		deutsazu	deuskuzu			deutsezu
Zuek	deustazue		deutsazue	deuskuzue			deutsezue
Hareek	deuste	deue deune	deusie	deuskue	deutsue	deutsuee	deutsee

EGITE ERA							
	ZERTZUK-NORI-NORK			ORAIN ALDIA		PLURALA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		deuadaz deunadaz	deusadaz		deusudaz	deutsuedaz	deutsedaz
Hik	deustazak deustazan(a)		deusazak deusazan(a)	deuskuzak deuskuzan(a)			deutsezak deutsezan(a)
Harek	deustaz	deuaz deunaz	deusaz	deuskuz	deutsuz	deutsuez	deutsez
Guk		deuaguz deunaguz	deutsaguz		deutsuguz	deutsueguz	deutseguz
Zuk	deustazuz		deusazuz	deuskuzuz			deutsezuz
Zuek	deustazuez		deusazuez	deuskuzuez			deutsezuez
Hareek	deustez	deuez deunez	deusiez	deuskuez	deutsuez	deutsueez	deutseez

Aldaerak:

– Nori *hiri* danean eta objektua plurala, aldaera lez, *deuazat* / *deuzanat* eta euren paradigma-koak be aintzat hartuko dira.

– *Nor* eta *nork* 3. pertsonak diranean adizkiak bereiztea komeni da:

a) Nori(*hari*)-nork(*harek*) egituran, tradizioaren ildotik *deutso* adizkiaren azken bokala *-a* bihurtzen da objektua plurala danean (*deutsaz*).

b) Nori(*hari*)-nork(*hareek*) egituran *deutsie* hobetsiko da. Ondorenez, baztertu egingo da *deutsoe* (*deutsoe* > *deutsee* > *deutsie*), nahiz eta XX. mendean hainbat idazlek halan erabili.

c) Nori(*hareei*)-nork(*harek*) egituran *deutse* hobetsiko da, nahiz eta tradizio idatzian *deutsee* formaren azpian neutralizaturik agertu.

d) Nori(*hareei*)-nork(*hareek*) egituran *deutsee* hobetsiko da.

Erabilera:

– Menderakuntzan, nori(*hari*)-nork(*harek*) *deutso* adizkia mendeko bihurtzen danean *-o-* > *-a-* aldaketa hobetsiko da: *deutsan* / *deutsala*.

Horren barri jakin dauenean negarrari emon deutso.

Pipertuta dago irakasleak ez deutsalako kasurik egin.

Gurasoek ez deutsie oporretan joaten itxi.

Zergaitik ez deuskuzuek apunteok laga gura?

Jonek kuadernoak ostu deutsez ikaskideei.

9.6.1.2. LEHEN ALDIA

IZAN

EGITE ERA NOR LEHEN ALDIA	
Ni	nintzan
Hi	hintzan
Ha	zan
Gu	ginan
Zu	zinan
Zuek	zinien
Hareek	ziran

Aldaerak:

– Tradizio klasikoan, pluralean beste honeek erabili izan dira: *ginean*, *zinean*, *zineen*, *zire* -*an*, estilo jagian aintzat hartzekoak izan daitezkeanak.

– Bizkai mendebaldean zabal dabilz pluraleko adizkiok: *gintzazan*, *zintzazan*, *zintzezan*.

Erabilera:

– Eredu honetako adizkiak laguntzaile zein trinko lez erabilten dira.

Non sartu hintzan zapatu gauean?

Areinegun ez ziniela etorri esan deustazu, ezta?

Lehenago, gaztea nintzanean, hamaikatxu parranda egiten nituan.

Umetan bihotz onekoa zinan, baina orain...

EGITE ERA							
NOR-NORI				LEHEN ALDIA			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		nintxaan nintxanan	nintxakon		nintxatzun	nintxatzuen	nintxaken
Hi	hintxatan		hintxakon	hintxakun			hintxaken
Ha	jatan	jaan janan	jakon	jakun	jatzun	jatzuen	jaken
Gu		gintxaazan gintxazanan	gintxakozan		gintxatzuzan	gintxatzuezan	gintxakezan
Zu	zintxatazan		zintxakozan	zintxakuzan			zintxakezan
Zuek	zintxatazen		zintxakozen	zintxakuzen			zintxakezen
Hareek	jatazan	jaazan jazanan	jakozan	jakuzan	jatzuzan	jatzuezan	jakezan

Aldaerak:

– Andrazkoen hitanorako *-nazan* erako amaierak be aintzat hartuko dira: *gintxanazan, jana -zan...*

Erabilera:

– Ez dau erabilera zabal-zabala. Ahozkoan be galdutzat edo ia galdutzat emon daitekez eredu honetakoak. Batez be nor (*ha, hareek*) paradigmakoak erabilten dira.

Gaztea nintzan, zorua nintzan / jarri nintxakon alboan... (herri-kanta)

Zuzendariari ez jakon gustau atzoko zure jarrerea.

Zer pasau jatzun atzo etxera hain berandu heltzeko?

Dei eta dei ibili gintxakozalako be haserratu egin zan.

EDUN

EGITE ERA							
NOR-NORK			LEHEN ALDIA				
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		hindudan	neban		zindudazan	zinduedazan	nituan - - - nebazan
Hik	ninduan nindunan		heuan	ginduazan ginduzanan			hituan - - - heuzan
Harek	ninduan	hinduan	(z) eban	ginduzan	zinduzan	zinduezan	zituan - - - ebazan
Guk		hindugun	genduan		zinduguzan	zindueguzan	genduzan
Zuk	ninduzun		zenduan	ginduzuzan			zenduzan
Zuek	ninduzuen		zenduen	ginduzuezan			zenduezan
Hareek	ninduen	hinduen	(z) eben	ginduezan	zinduezan	zindueezan	zituen - - - ebezan

Aldaerak:

– *Hik-gu* egituran (andrazkoenean) ontzat emongo da: *gindunazan*.

Erabilera:

– Eredu honetako adizkiak aditz laguntzaile lez erabilten dira batez be, baina trinko lez be bardin erabili leitekez.

Atzo ez hindudan ezagutu be egin!

Beti egiten zituan beharrak azkeneko orduan.

Hemendik alde egin zenduanean bake santua emon zenduan!

Dana sinestu ebelako pasau jaken ha.

Ez neban zuokandik halakorik espero!

– Zuzenbidea:

Sarritan orainaldiko aditzei -N lehenaldiko marka jarri eta beste barik osotzen doguz era honetako adizkiak:

**Atzo antzerkian* ikusi zaituten. ...ikusi zindudazan.

**Berak* ezagutu gaituzen. ...ezagutu ginduzan.

Beste oker bat, Nor-Nork paradigmako adizkiak erabili beharrean, Zer-Nori-Nork paradigmako laguntzaileak erabiltea da:

*Ikusiostezun *atzo?* *Ba neuk zeu, bai.* Ikusi ninduzun...

EGITE ERA							
	ZER-NORI-NORK			LEHEN ALDIA		SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neuan neunan	neutsan		neutsun	neutsuen	neutsen
Hik	heustan		heutsan	heuskun			heutsen
Harek	eustan	euan eunan	eutsan	euskun	eutsun	eutsuen	eutsen
Guk		geuan geunan	geuntsan		geuntsun	geuntsuen	geuntsen
Zuk	zeunstan		zeuntsan	zeuskun			zeutsen
Zuek	zeunsten		zeuntsien	zeuskuen			zeuntseen
Hareek	eusten	euen eunen	eutsien	euskuen	eutsuen	eutsueen	eutseen

EGITE ERA							
	ZERTZUK-NORI-NORK			LEHENALDIA		PLURALA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neuzan neunazan	neutsazan		neutsuzan	neutsuezan	neutsezan
Hik	heustazan		heutsazan	heuskuzan			heutsezan
Harek	eustazan	euazan eunazan	eutsazan	euskuzan	eutsuzan	eutsuezan	eutsezan
Guk		geuzan geunazan	geuntsazan		geuntsuzan	geuntsuezan	geuntsezan
Zuk	zeunstazan		zeutsazan	zeuskuzan			zeuntsezan
Zuek	zeunstezan		zeuntsiezan	zeuskuezan			zeuntseezan
Hareek	eustezan	euezan eunezan	eutsiezan	euskuezan	eutsuezan	eutsueezan	eutseezan

Aldaerak:

– Hitanoan (andrazkoenean) aintzat emongo dira: *neuzanan, euzanan, geuzanan, euzenan*.

Erabilera:

– Eredu honetako adizkiak sarritan entzun daitezke:

Berbea emon neutsan ez nebala guzur gehiago esango.

Arazoak euki genduzanean ez zeuskun bape lagundu.

Isilik egoteko esan eutsan, bestela hagin guztiak hausiko eutsazala.

Antzokian sartu ginanean isil-isilik egoteko esan euskuen.

– Aditz laguntzaileak izan ohi dira, ez trinkoak. Aditz lokuzinoetan oso erabilia da:
Zor deutzazuna bihurtu egin behar deutzazu.
Guraizan handia deutso, asko igarri ez arren.

– Zuzenbidea:

Sarritan, lehenaldiko aditzak erabili beharrean, orainaldikoei -N marka ipintzen jake:

**Beti esaten eustazun etorteko* ... esaten zeunstan...

eta etorteko.

*Emontsegun.

Emon geuntsan.

9.6.2. Baldintza

9.6.2.1. BALDINTZA

IZAN

BALDINTZA NOR ALEGIAZKOA	
Ni	banintz
Hi	bahintz
Ha	balitz
Gu	bagina
Zu	bazina
Zuek	bazinie
Hareek	balira

Aldaerak:

– Bizkai sartaldean, pluralean beste honeek entzuten dira gehiago: *bagintzaz, bazintzaz, bazintzaze, balitzaz.*

– Bizkai mendebaldean ahalerazko adizkiek ordezkatu dabe aspaldirik baldintzen lekua: *baneinteki, baheinteki, baleiteki, bageintekiz, bazeintekiz, bazeintekize, baleitekez.*

Erabilera:

– Orain aldiko baldintza alegiazkoa gaur bakan erabilten da, baina lehen gehiago: *egoten banintz, etorten balitz, joaten bazina...* Ahal partikula modalagaz osotutako aditzetan erabilten da batez be: *etorten ahal balitz, egiten ahal baleu...*

– Aditz perifrasiari aditz bi erabilten dira batez be:

a) Alegiazko baldintza igarora: *egon banintz, etorri balitz, joan bazina.*

b) Alegiazko baldintza gerokoa: *egongo banintz, etorriko balitz, joango bazina.*

Sasoiz etorri bazinie, zinera joango ginan.

Nire laguna izan ez bazina, lan barik geratuko nintzan.

Aberatsa (izango) banintz, munduari bueltea emongo neuskio.

Kotxea beharko balitz, neurea eroango neuke.

– Aditz trinko lez be erabilten dira *oxala* zentzuagaz:

Ganorazkoa bahintz, sikan be!

Ai nire esanak egia balira!

– Sarritan, baldintza-ondorioa egituraren ondoan baldintza-egite erako lehenaldia edota baldintza-ahalera erabilten dira.

Zu joan ez bazina, ni be ez nintzan joango.

Arin-arin etorriko balira, oindino heldu leitekez zortziretako eskolara.

Barrero hemendik agertuko balitz, txiki-txiki egingo neuke.

– Zuzenbidea:

Erabiliak dira ondorioko adizkien kutsaduraz eregiriko forma honeek: *banintzake*, *bahintza - ke*, *balitzake*, *baginakez* / *bagintzakez*, *bazinakez* / *bazintzakez*, *bazinakeze* / *bazintzakeze*, *balitzakez*. Adizki horreek ez dira aintzat hartuko eredu idatzian.

↓ *Gure semetxoa bizkorragoa balitzake...* ↑ *Gure semetxoa bizkorragoa balitz...*

↓ *Ohetik goizago jagiko bazintzakez...* ↑ *Ohetik goizago jagiko bazina...*

BALDINTZA							
NOR-NORI				ALEGIAZKOA			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		banintxaa banintxan(a)	banintxako		banintxatu	banintxatzue	banintxake
Hi	bahintxat		bahintxako	bahintxaku			bahintxake
Ha	balitxat	balitxaa balitxan(a)	balitxako	balitxaku	balitxatu	balitxatzue	balitxake
Gu		bagintxaaaz bagintxanaz	bagintxakoz		bagintxatzuz	bagintxatzuez	bagintxakez
Zu	bazintxataz		bazintxakoz	bazintxakuz			bazintxakez
Zuek	bazintxataze		bazintxakoze	bazintxakuze			bazintxakeze
Hareek	balitxataz	balitxaaaz balitxanaz	balitxakoz	balitxakuz	balitxatzuz	balitxatzuez	balitxakez

Aldaerak:

– Nori *hiri* danean, hurrengo aldaerak be aintzat hartuko dira: *banintxak*, *balitxak*, *bagintxa - zak* / *bagintxazan(a)*, *balitxazak* / *balitxazan(a)*.

Erabilera:

– Eredu honetako adizkiak ez dira asko erabilten:

Zer egingo zenduke dendan lapurrak agertuko balitxatzuz?

Txakurra hilko balitxako ez leuke jakingo zer egin.

EDUN

BALDINTZA NOR-NORK				ALEGIAZKOA			
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		bahindut	baneu		bazindudaz	bazinduedaz	baneuz - - - banitu
Hik	baninduk banindun(a)		baheu	baginduzak baginduzan(a)			baheuz - - - bahitu
Harek	banindu	bahindu	baleu	baginduz	bazinduz	bazinduez	baleuz - - - balitu
Guk		bahindugu	bagendu		bazinduguz	bazindueguz	bagenduz
Zuk	baninduzu		bazendu	baginduzuz			bazenduz
Zuek	baninduzue		bazendue	baginduzuez			bazenduez
Hareek	banindue	bahindue	balebe	baginduez	bazinduez	bazindueez	balebez - - - balitue

Aldaerak:

– *Baneuz, baheuz, baleuz, balebez...* Bizkai sartaldeko adizkiak dira, eta *banitu, bahitu, bali-tu...* Bizkai sortaldekoak.

Maiztasun handikoak dira eredu batekoak zein bestekoak, eta biak dira onargarriak idatzian.

Erabilera:

- Eredu honetako adizkietan, batez be, nor (*ha, hareek*) eredukoak erabilten dira.
Jakin izan baneu, zuekaz joan neintekean.
Eskatutakoa sasoiz amaituko balebe, ez geunke arazorik eukiko.
Drogazalea dala esango baleu, etxetik botako leukie.
Mikelek ekarriko bazinduz, guk ez geunke zure bila joan beharrik izango.
Aita Jainkoak egin banindu / zeruetako giltzari... (herri-kanta)

BALDINTZA							
	ZER-NORI-NORK			ALEGIAZKOA		SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		baneua baneuna	baneutso		baneutsu	baneutsue	baneutse
Hik	baheust		baheutso	baheusku			baheutse
Harek	baleust	baleua baleuna	baleutso	baleusku	baleutsu	baleutsue	baleutse
Guk		bagendua bagenduna	begeutso		bageutsu	bageutsue	begeutse
Zuk	bazeunst		bazeutso	bazeunsku			bazeutse
Zuek	bazeunste		bazeuntsie	bazeunskue			bazeutsee
Hareek	baleuste	baleue baleune	baleutsie	baleuskue	baleutsue	baleutsuee	baleutsee

BALDINTZA							
	ZERTZUK-NORI-NORK			ALEGIAZKOA		PLURALA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		baneuaz baneunaz	baneutsaz		baneutsuz	baneutsuez	baneutsez
Hik	baheustaz		baheutsaz	baheuskuz			baheutsez
Harek	baleustaz	baleuaz baleunaz	baleutsaz	baleuskuz	baleutsuz	baleutsuez	baleutsez
Guk		bagenduaz bagendunaz	begeuntsaz		bageuntsuz	bageuntsuez	begeuntsez
Zuk	bazeunstaz		bazeuntsaz	bazeunskuz			bazeutsez
Zuek	bazeunstez		bazeuntsiez	bazeunskuez			bazeutseez
Hareek	baleustez	baleuez baleunez	baleutsiez	baleuskuez	baleutsuez	baleutsueez	baleutseez

Aldaerak:

– Andrazkoen hitanoan *baneuzan(a)*, *baleuzan(a)*... aldaerak be aintzat hartuko dira.

– Herri hizkeran zabal dabilz, ondoriozkoen kutsapenez garatu diran bigarren eredu honetakoak be: *baneuskio*, *bazeunskio*, *baleuskio*..., baina era horreek ez dira aintzat hartuko idatzirako.

Erabilera:

Dendan daukadazan prakak batuko bazeunstaz, eskertuko neuskizu.
Maisuari akatsez jositako idazlanak ekarriko baleutsaz, atoan arteztuko leuskioz.
Lapikokoari txorizoa eta urdaia sartuko bazeuntsaz, bestelako gustua hartuko leuke.

9.6.2.2. ONDORIOA

IZAN

ONDORIOA NOR ALEGIAZKOA	
Ni	nintzateke
Hi	hintzateke
Ha	litzateke
Gu	ginateke gintzatekez
Zu	zinateke zintzatekez
Zuek	zinatekie zintzatekeze
Hareek	lirateke litzatekez

Aldaerak:

– Idatzirako forma zaharragoak (*ginateke*, *zinateke*, *zinatekie*, *lirateke*) gordetea gomendatuko da, baina, analogiaz eraturako forma barriagoak be (*gintzatekez*, *zintzatekez*, *zintzatekeze*, *litzatekez*) ez dira baztertuko.

Erabilera:

– Bizkai mendebaldean *nintzateke* ereduko adizkien lekua *neinteke* eredukoek hartu dabe antxinarik. Halan esan ohi da, eta irakurri be autore batzuetan: *etorriko neinteke*, *etorriko heinteke*, *etorriko leinteke*, *etorriko geinteketz*, *etorriko zeinteketz*, *etorriko zeinteketze*, *etorriko leinteketz*.

Dana dala, idatzian ondorioko paradigmako adizkiak gomendatuko dira:

↓ *Antzerki lan hori Bilbora balekarre, joango geinteketz.* ↑ ... *joango ginateke.*

– Gaur egun, geroko partizipioaz batera erabilten dira laguntzaileok:

Partizipioa + *-ko* + *litzateke*

Gorrotto deustala jakingo baneu, ez nintzateke barriri beragana hurreratuko.
Apur bat saiatuko balira, jokalaria onak izango lirateke.

ONDORIOA							
NOR-NORI				ALEGIAZKOA			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		nintxakik nintxakin(a)	nintxakio		nintxakizu	nintxakizue	nintxakie
Hi	hintxakit		hintxakio	hintxakigu			hintxakie
Ha	litxakit	litxakik litxakin(a)	litxakio	litxakigu	litxakizu	litxakizue	litxakie
Gu		gintxakizak gintxakizan(a)	gintxakioz		gintxakizuz	gintxakizuez	gintxakiez
Zu	zintxakidaz		zintxakioz	zintxakiguz			zintxakiez
Zuek	zintxakidaze		zintxakioze	zintxakiguze			zintxakieze
Hareek	litxakidaz	litxakizak litxakizan(a)	litxakioz	litxakiguz	litxakizuz	litxakizuez	litxakiez

Aldaerak:

– Aspaldiko urteotan bizkaiera moderno idatzian, bai irakaskuntzan, bai literaturan, *litzakit*, *nintzakio*, *gintzakizuz*... ereduko aditzak erabili izan dira, batez be. Baina, forma horreek barik, besteak (*litxakit*, *nintxakio*, *gintxakizuz*...) dira bizkai euskerari jagokozanak eta eurok erabiltea proposatzen dogu.

– *Hiri* adizkietan (andrazkoenean) aintzat hartuko dira baita: *gintxakinaz*, *litxakinaz*.

Erabilera:

– Nor / Zer 3. pertsonak kenduta, paradigma honetako aditzak ez dira sarri erabilten. Hona hemen adibide batzuk:

Ondo etorriko litxakigu geuri be horreetariko ikastaro batzuk egitea.
Inor beharko baleu berari laguntzeko, gu pozik etorriko gintxakioz.

EDUN

ONDORIOA							
NOR-NORK				ALEGIAZKOA			
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		hinduket	neuke		zindukedaz	zindukiedaz	neukez nituke
Hik	nindukek ninduken(a)		heuke	gindukezak gindukezan(a)			heukez hituke
Harek	ninduke	hinduke	leuke	gindukez	zindukez	zindukiez	leukez lituke
Guk		hindukegu	geunke genduke		zindukeguz	zindukieguz	geunkez gendukez
Zuk	nindukezu		zeunke zenduke	gindukezuz			zeunkez zendukez
Zuek	nindukezue		zeunkie zendukie	gindukezuez			zeunkiez zendukiez
Hareek	nindukie	hindukie	leukie	gindukiez	zindukiez	zindukieze	leukiez litukie

Aldaerak:

- Nor (*ha, hareek*) paradigmaman *geunke, zeunke* ereduko adizkiak bultzatuko dira.
- Nor *zuek* danean, *zindukedaze, zindukeze...* paradigmako adizkiak ez dira aintzat hartuko idatzirako, eta *zindukiedaz, zindukiez...* erara eregitakoak gomendatuko dira.
- *neukez / nituke* ereduaren artean, *neukez, heukez...* paradigmako adizkiak maiztasun handiagokoak dira bizkai euskeran eta horreekin gomendatuko dira idatzirako, beti be bestea aukeran dala.

Erabilera:

- Geroko aditz partizipioak eginiko perfrasiatan erabilten dira: *esango neuke, egingo leu - ke, emongo geunkez...*
Gurasoakaz bizi ezkeru, ez neuke burukomin handirik eukiko.
Azterketa gaingituko ez bazendue, irailean barriz egin beharko zeunkie.

ONDORIOA							
	ZER-NORI-NORK			ALEGIAZKOA		SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neuskik neuskin(a)	neuskio		neuskizu	neuskizue	neuskie
Hik	heuskit		heuskio	heuskigu			heuskie
Harek	leuskit	leuskik leuskin(a)	leuskio	leuskigu	leuskizu	leuskizue	leuskie
Guk		geunskik geunskin(a)	geunskio		geunskizu	geunskizue	geunskie
Zuk	zeunskit		zeunskio	zeunskigu			zeunskie
Zuek	zeunskide		zeunskioe	zeunskigüe			zeunskiee
Hareek	leuskide	leuskie leuskine	leuskioe	leuskigüe	leuskizue	leuskizuee	leuskiee

ONDORIOA							
	ZERTZUK-NORI-NORK			ALEGIAZKOA		PLURALA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neuskizak neuskizan(a)	neuskioz		neuskizuz	neuskizuez	neuskiez
Hik	heuskidaz		heuskioz	heuskiguz			heuskiez
Harek	leuskidaz	leuskizak leuskizan(a)	leuskioz	leuskiguz	leuskizuz	leuskizuez	leuskiez
Guk		geunskizak geunskizan(a)	geunskioz		geunskizuz	geunskizuez	geunskiez
Zuk	zeunskidaz		zeunskioz	zeunskiguz			zeunskiez
Zuek	zeunskidez		zeunskioez	zeunskigüez			zeunskieez
Hareek	leuskidez	leuskiezak leuskinezan	leuskioez	leuskigüez	leuskizuez	leuskizueez	leuskieez

Aldaerak:

– Hareek-hiri danean, eta objektua singularra, *leuskiek* aldaera be bada, eta objektua plurala danean, *leuskiezak* / *leuskiezan* aldaerak be aintzat hartzekoak dira.

– Nori hareei jagoken paradigmán be *-oe* (*-ue*) amaieradun adizkiak dira nagusi tradizioan: *neuskioe*, *heuskioe*, *leuskioe*, *geunskioe*...

– Paradigma klasikoak *-ke-* hizkiari eusten deutso adizki guztietan, nori *hari*, *hareei* kasukoetan salbu, non Markina joerako autoreek *-kio*, *-kioe* egiten dabén.

neuskek / *neusken*, *neuskio*, *neuskezu*, *neuskezue*, *neuskioe*
heusket, *heuskio*, *heuskegu*, *heuskioe*
leusket, *leuskek* / *leusken*, *leuskio*, *leuskegu*, *leuskezu*, *leuskezue*, *leuskioe*
geuskek / *geusken*, *geunskio*, *geunskizu*, *geunskizue*, *geunskioe*

zeunsket, zeunskio, zeunskiegu, zeunskioe
zeunskede, zeunskioe, zeunskiegu, zeunskiee
leuskede, leuskee / leuskene, leuskioe, leuskegue, leuskezue, leuskezuee, leuskioee

– Bizkai ekialdeko toki batzuetan, *-ke* atzizkia atzean dala, *leutsake, geuntsuke, zeunstake...* eredua erabilten da, (*lioke, genizuke, zenidake...*) batuzko ereduaren antzerakoa, baina paradigma honetako adizkiek ez dabe isladarik bizkaierazko tradizino idatzian eta ez dira bultzatuko.

Erabilera:

Inon baino hobeto bertan azalduko leuskioe.
Posta elektronikoa ondo balebil, atoan aginduko geunskizuez gure beharrak, zeuek be irakurri daizuezan.

9.6.2.3. -KE-dun IRAGANEKOAK

- Aditz gitxi baino ez dira:
 Nor paradigmakoa: *zatekean.*
 Zer-Nork paradigmakoak: *eukean, eukien, eukezan, eukiezan.*
- Partizipio burutuaz erabilten dira:
Izan zatekean. (“pudo ser”, “probablemente fue” edo antzerako esanahia dauka)
Egin eukean. (“pudo hacer”, “probablemente lo hizo”)

IZAN

NOR LEHEN ALDIA	
Ni	
Hi	
Ha	<i>zatekean</i>
Gu	
Zu	
Zuek	
Hareek	

Aldaerak:

– Gramatiketan eta eskola liburuetan, alegiazko baldintzen ondorioetarako eredu batzuk landu diran arren, aditzok ez daukie bape tradizinerik. Halan: *nintzatekean, hintzatekean, zitza-tekean, gintzatekean...* eredua, edo *nintzatekean, zatekean, ginatekean, zinatekean...*

Horren ordez, alegiazko ondorioari jagokonean, indikatiboko lehenaldia erabiltea gomendatzen da: *nintzan, hintzan, zan...*

**Jakin baleu, joango zatekean. ... joango zan.*
**Deitu baleuskue, etorriko gintzatekezan. ... etorriko ginan.*

Erabilera:

– Partizipio burutuaz erabilten da:

Etorri zatekean. (“pudo venir”, “probablemente vino”)

Autoretarik:

“Eta esan bear dozu zeinbat bider izan *zatekean*, beti jausi ezagaitik” (J.M. Zabala)

EDUN

	NOR-NORK			LEHEN ALDIA			
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik			neukean				neukezan nitukean
Hik			heukean				heukezan hitukean
Harek			eukean				eukezan zitukean
Guk			geunkean genduekan				geunkezan gendukezan
Zuk			zeunkean zendukean				zeunkezan zendukezan
Zuek			zeunkien zendukien				zeunkiezan zendukiezan
Hareek			eukien				eukiezan zitukien

Erabilera:

– Nor / Zer *ha*, *hareek* paradigmako aditzak baino ez dira erabilten.

Egin eukean.

Autoretarik:

“Ez *neukean* nik sinistu, nire semeak, nire alabeak ori egingo eustanik.” (J.M. Zabala)

9.6.3. Ahalera

9.6.3.1. ORAIN ALDIA

*EDIN

AHALERA NOR ORAIN ALDIA	
Ni	naiteke
Hi	haiteke
Ha	daiteke
Gu	gaitekez
Zu	zaitekez
Zuek	zaitekeze
Hareek	daitekez

Erabilera:

– Oso gitxi erabiliak dira, ez bakarrik gaur eguneko berbetan, baita tradizino idatzi klasikoan be. Gaur egun ez dira orain aldiko formok erabiltzen, euron ordeztu alegiazko paradigmakoak erabili izan dira eta egiten dira: *neinteke, heinteke, leiteke, geintekez, zeintekez, zeintekeze, leitekez.*

Joan gaitekez lagunakaz jolasten?

Gura dozunean etorri zaitekez bisitan.

– Batzuetan ahalezko adizkiak erabili beharrez *ahal izan* eta *ezin izan* aditzak, indikati-
boan, erabiltzen dira.

Joan naiteke?

Joan ahal naz?

Ezin gaitekez joan.

Ezin gara joan.

Bihar ezin gaitekez amama ikusten etorri.

Domekan ezin zaitekeze aititaren urteguna ospatzen etorri ala?

	AHALERA NOR-NORI			ORAIN ALDIA			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		nakikek nakiken(a)	nakikeo		nakikezu	nakikezue	nakikee
Hi	hakiket		hakikeo	hakikegu			hakikee
Ha	dakiket	dakikek dakiken(a)	dakikeo	dakikegu	dakikezu	dakikezue	dakikee
Gu		gakikezak gakikezan(a)	gakikeoz		gakikezuz	gakikezuez	gakikeez
Zu	zakikedaz		zakikeoz	zakikeguz			zakikeez
Zuek	zakikedaze		zakikeoze	zakikeguze			zakikeeze
Hareek	dakikedaz	dakikezak dakikezan(a)	dakikeoz	dakikeguz	dakikezuz	dakikezuez	dakikeez

Erabilera:

– Oso gitxi erabiliak eta tradizioan gitxi lekukotuak dira.

EGIN

AHALERA							
	NOR-NORK			ORAIN ALDIA			
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		haiket	daiket		zaikedaz	zaikiedaz	daikedaz
Hik	naikiek naiken(a)		daikiek daiken(a)	gaikezak gaikezan(a)			daikezak daikezan(a)
Harek	naike	haike	daike	gaikez	zaikez	zaikiez	daikez
Guk		haikegu	daikegu		zaikeguz	zaikieguz	daikeguz
Zuk	naikezu		daikezu	gaikezuz			daikezuz
Zuek	naikezue		daikezue	gaikezuez			daikezuez
Hareek	naikie	haikie	daikie	gaikiez	zaikiez	zaikie(e)z	daikiez

Erabilera:

– Gitxi erabilten dira. Euron ordeaz alegiazko paradigματοak darabilguz.

Ume txikiek ezin daikie bidea bakarrik kurutzatu.

Behar dozuen guztia erabili daikezue.

Ezin gaikezuz hemen botata itxi!

Ezin ulertu daikegu zelan gertatu dan ezbeharra.

AHALERA							
	ZER-NORI-NORK			ORAIN ALDIA		SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		deikeat deikenat	deikeot		deikezut	deikezuet	deikiet
Hik	deikedak deikedan(a)		deikeok deikeon(a)	deikeguk deikegun(a)			deikiek deikien(a)
Harek	deiket	deikek deiken(a)	deikeo	deikegu	deikezu	deikezue	deikie
Guk		deikeagu deikenagu	deikeogu		deikezugu	deikezuegu	deikiegu
Zuk	deikedazu		deikeozu	deikeguzu			deikiezu
Zuek	deikedazue		deikeozue	deikeguzue			deikiezue
Hareek	deikede	deikee deikene	deikeoe	deikegue	deikezue	deikezuee	deikiee

AHALERA							
ZERTZUK-NORI-NORK			ORAIN ALDIA		PLURALA		
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		deikeadaz deikenadaz	deikeodaz		deikezudaz	deikezuedaz	deikiedaz
Hik	deikedazak deikedazan(a)		deikeozak deikeozan(a)	deikeguzak deikeguzan(a)			deikiezak deikiezan(a)
Harek	deikedaz	deikezak deikezan(a)	deikeoz	deikeguz	deikezuz	deikezuez	deikiez
Guk		deikeaguz deikenaguz	deikeoguz		deikezuzuz	deikezueguz	deikieguz
Zuk	deikedazuz		deikeozuz	deikeguzuz			deikiezuz
Zuek	deikedazuez		deikeozuez	deikeguzuez			deikiezuez
Hareek	deikedez	deikeez deikenez	deikeoez	deikeguez	deikezuez	deikezueez	deikieez

Erabilera:

– Paradigma honeetako aditzak be ahoz ez dira erabilten eta tradizino idatzian adibide gitxi baino ez dira topau:

“Kendu deike” (RS)

“Esan daikio” (J.A. Mogel)

Mila bana liburu eta bina kaset banatu deikieguz kanpainen parte hartu daben eus - kaltegiei.

9.6.3.2. ALEGIAZKOA

*EDIN

AHALERA NOR ALEGIAZKOA	
Ni	neinteke
Hi	heinteke
Ha	leiteke
Gu	geintekez
Zu	zeintekez
Zuek	zeintekeze
Hareek	leitekez

Erabilera:

– Aditz transitiboakaz neutralizazioa be aspaldirik agiri da paradigma honetan. Halan, *lei / leike, leiteke* adizkiaren parean erabilten dira. Ahozkoan neutralizatu arren, idatzian bereiztu egin behar dira.

Joan geintekez bihar zuekaz?

Noiz geratu zein tekez beranduagora arte?
Zelan izan leiteke han bertan gertatu eta inor ez konturatzea?

– Zuzenbidea:

Idatzian era iragankor eta iragangaitzak bereizi behar dira:

*Oinez etorri leike. ... etorri leiteke.
*Geu be joan geinke. ... joan gein tekez.
*Bizirik urten dau eta pozik egon zeinke. ... egon zein tekez.

AHALERA							
NOR-NORI				ALEGIAZKOA			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		nenkikik nenkikin(a)	nenkikio		nenkikizu	nenkikizue	nenkikie
		nenkik nenkin(a)	nenkio		nenkizu	nenkizue	nenkie
Hi	henkikit		henkikio	henkikigu			henkikie
	henkit		henkio	henkigu			henkie
Ha	lekikit	lekikik lekikin(a)	lekikio	lekikigu	lekikizu	lekikizue	lekikie
	lekit	lekik lekin(a)	lekio	lekigu	lekizu	lekizue	lekie
Gu		genkikizak genkikizan(a)	genkikioz		genkikizuz	genkikizuez	genkikiez
		genkizak genkizan(a)	genkioz		genkizuz	genkizuez	genkiez
Zu	zenkikidaz		zenkikioz	zenkikiguz			zenkikiez
	zenkidaz		zenkioz	zenkiguz			zenkiez
Zuek	zenkikidaze		zenkikioze	zenkikiguze			zenkikieze
	zenkidaze		zenkioze	zenkiguze			zenkieze
Hareek	lekikidaz	lekikizak lekikizan(a)	lekikioz	lekikiguz	lekikizuz	lekikizuez	lekikiez
	lekidaz	lekizak lekizan(a)	lekioz	lekiguz	lekizuz	lekizuez	lekiez

Aldaerak:

– *lekiket*, *lekikeo* ereduko adizkiak dira formarik zaharrenak.

– Datiboaren aurrean -ke > -ki bihurtukeran, *lekikit*, *lekikio*... ereduko adizkiak sortu ziran. Horreek tradizio handia daukie, eta eurok gomendatzen dira idatzirako.

– Bizkai mendebaldean -ki- ahalerakoa ezabaturik daben adizkiek iraun dabe: *lekit*, *lekio*, *lekizu*, *genkizuz*, *genkiez*... Eurok dira ahoz erabilten diran bakarrak eta idatzirako be aintzat hartu daitezke.

Erabilera:

– Ia ez dira erabilten. Adizkiokaz lekukotasun bi baino ez dira topau.

“Aspertu banekio, *asper lekiket.*” (RS)

“Hegaz baneki *ora nekikeo txoriari.*” (RS)

EGIN

AHALERA							
NOR-NORK			ALEGIAZKOA				
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		heinket	nei neike		zeinkedaz	zeinkiedaz	neiz neikez
Hik	neinkek neiken(a)		hei heike	geinkezak geinkezan(a)			heiz heikez
Harek	neinke	heinke	lei leike	geinkez	zeinkez	zeinkiez	leiz leikez
Guk		heinkegu	geinke ginei		zeinkeguz	zeinkieguz	geinkez gineiz
Zuk	neinkezu		zeinke zinei	geinkezuz			zeinkez zineiz
Zuek	neinkezue		zeinkie zineie	geinkezuez			zeinkiez zineiez
Hareek	neinkie	heinkie	leie leikie	geinkiez	zeinkiez	zeinkieez	leiez leikiez

Erabilera:

– Ahalerazko kasuen barruan gehien erabilten diranak honeetxek dira.

– Nor *ha*, *hareek* kasuan, ahoz normalean forma laburtuak erabilten dira, ekonomia kontuakaitik edo. Halanda be, mende egituran -N eta -LAerakoakin erabiliagoak dira *neikeaN*, *leikieLA* ..., *neiaN*, *leieLA* baino.

Horrek ezin lei (leike) egia izan!

Itxura negargarri horregaz edonor ikaratu ginei (geinke)!

Egin ahalean dabil, baina ezin lei atea zabaldu.

Egin neikelako esan deusut ea egitea gura dozun.

Entzun geinkezanak kontuan hartuta, hobe isilik geratu.

Egin zeinkeana egin, eta aurrera.

– *neinkezu* ereduoen ondoa, *nengikezu* ereduok be ezagunak dira literaturan.

– Zuzenbidea:

Berbaz, sarritan, ereduak gorde beharrean, sinpletu egiten dira. Esaterako, *leike* 3. pertsonako aditzaren gainean sortzen dira gainerako guztiak:

↓ *Irakurri leikezu altuago, mesedez?* ↑ *Irakurri zinei / zeinke...*

↓ *Ezin leikeot beharra arinago amaitu.* ↑ *Ezin nei / neike...*

AHALERA							
ZER-NORI-NORK			ALEGIAZKOA			SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neik nein(a) neikik neikin(a)	neio neikio		neizu neikizu	neizue neikizue	neioe neikioe
	Hik	heikit	heio heikio	heigu heikigu			heioe heikioe
Harek	leit	leik lein(a) leikik leikin(a)	leio leikio	leigu leikigu	leizu leikizu	leizue leikizue	leioe leikioe
	leikit						
Guk		geinkik geinkin(a)	geinkio gineio		geinkizu gineizu	geinkizue gineizue	geinkioe gineioe
Zuk	zeinkit zineit		zeinkio zineio	zeinkigu zineigu			zeinkioe zineioe
Zuek	zeinkide zineide		zeinkioe zineioe	zeinkigue zineigue			zeinkiee zineiee
Hareek	leide	leie leine leikie leikine	leioe leikioe	leigue leikigue	leizue leikizue	leizuee leikizuee	leiee leikiee
	leikide						

AHALERA							
ZERTZUK-NORI-NORK			ALEGIAZKOA			PLURALA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neizak neizan(a) neikizak neikizan(a)	neioz neikioz		neizuz neikizuz	neizuez neikizuez	neioez neikioez
	Hik	heidaz heikidaz	heioz heikioz	heiguz heikiguz			heioez heikioez
Harek	leidaz	leizak leizan(a) leikizak leikizan(a)	leioz leikioz	leiguz leikiguz	leizuz leikizuz	leizuez leikizuez	leioez leikioez
	leikidaz						
Guk		geinkizak geinkizan(a) gineizak gineizan(a)	geinkioz gineioz		geinkizuz gineizuz	geinkizuez gineizuez	geinkioez gineioez
	Zuk	zeinkidaz zineidaz	zeinkioz zineioz	zeinkiguz zineiguz			zeinkioez zineioez
Zuek	zeinkidez zineidez		zeinkioez zineioez	zeinkiguez zineiguez			zeinkieez zineieez
Hareek	leidez	leiez leinez leikiez leikinez	leioez leikioez	leiguez leikiguez	leizuez leikizuez	leizueez leikizueez	leieez leikieez
	leikidez						

Aldaerak:

– -kioe > -kie

Leku batzuetan galdu egin da *nori* kasuaren aurreko -o hizkia. Halan, *neikie, leikie, geinkie* paradigma eregi da, baina idatzirako ezaugarri hori gordetea gomendatzen da: *neikioe, lei -kioe, geinkioe...*

– *-ki* ahalerako marka bako aditzak be aintzat hartuko dira idatzirako. Dana dala, lehenago aitatu dogun moduan menderakuntzan *-kidunak* gehiago erabiliko dira.

Bialdu geinkioN galdetu dau. (gineioN baino gehiago)

Erabilera:

Zeure giltzak itxi zeinkioez oportetan zagozan artean.

Egin zeinkio umeari kasu apur bat?

Ehun euro itxi neikizuz, gehiago ez.

Zu beti izan zara suberte onekoa, baina oraingoan kukuak oker jo leizu.

Gure lurrak parke publiko bihurtzea proposatu leikigu alkateak.

Beti hiletak joten dabilenez, azkenean gogaitarazo leikizue.

Etxeko arazo guztiak neure pentzuan itxi beharrian, nebeak be lagundu leikit, ezta?

– Zuzenbidea:

Zer-nork paradigmako aditzetan lez, Zer-nori-nork paradigmaren be sarritan erraztu egiten dira aditz formak eta *leiker*en gainean sortzen dira beste batzuk:

↓ *Esan leiketsezu niri itxaroteko apur baten.*

↑ *Esan zeinkio...*

↓ *Lagundu leiketsezue kaminoa kurtzetan umeai.*

↑ *Lagundu zeinkioe...*

↓ *Geuk eroan leiketsegue liburua.*

↑ *... eroan geinkioe...*

9.6.3.3. LEHEN ALDIA

*EDIN

AHALERA NOR LEHEN ALDIA	
Ni	neintekean
Hi	heintekean
Ha	(z)eitekean
Gu	geintekezan
Zu	zeintekezan
Zuek	zeintekezen
Hareek	(z)eitekezan

Erabilera:

Ohiko orduan eta lekuan batu geintekezalakoan nengoan.

Oinez be joan zeintekezan, taxia hartu barik.

Nor bizi eitekean etxe zahar haretan?

Esan eitekean eguraldia altzauko ebala, baina okerrera egin dau.

AHALERA							
NOR-NORI				LEHEN ALDIA			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		nenkikian nenkikinan	nenkikion		nenkikizun	nenkikizuen	nenkikien
		nenkian nenkinan	nenkion		nenkizun	nenkizuen	nenkien
Hi	henkikidan henkidan		henkikion henkion	henkikigun henkigun			henkikien henkien
	ekikidan lekidan	ekikian ekikinan lekian lekinan	ekikion lekion	ekikigun lekigun	ekikizun lekizun	ekikizuen lekizuen	ekikien lekien
Gu		genkikiazan genkikizanan	genkikiozan		genkikizuzan	genkikizuezan	genkikiezan
		genkiazan genkizanan	genkiozan		genkizuzan	genkizuezan	genkiezan
Zu	zenkikidazan zenkidazan		zenkikiozan zenkiozan	zenkikiguzan zenkiguzan			zenkikiezan zenkiezan
Zuek	zenkikidazen zenkidazen		zenkikiozen zenkiozen	zenkikiguzen zenkiguzen			zenkikiezen zenkiezen
Hareek	ekikidazan lekidazan	ekikizian ekikizanan lekizian lekizanan	ekikiozan lekiozan	ekikiguzan lekiguzan	ekikizuzan lekizuzan	ekikizuezan lekizuezan	ekikiezan lekiezan

Erabilera:

– Nor / zer 3. pertsona danean bi eratako adizkiak erabilten dira: batetik, berez paradigma horreetakoak diran aditzak: *ekikidan*, *ekikian* / *ekikinan*, *ekikion*..., eta bestetik, alegiazko aditzen *l*- hizkia gordeten dabenak: *lekidan*, *lekian* / *lekinan*, *lekion*...

– Paradigma batekoak zein bestekoak erabilten dira, gitxi entzuten badira be. Tradizino idatzian be bietarikoak dagoz lekukotuak.

Halako uriolakin ura sartu ekikizuen / lekizuen etxera.

Zu etorri zenkikiguzan / zenkiguzan zuzenean.

Edonoiz agertu ekikigun / lekigun ikuskatzailea, eta bildur izan ginan.

EGIN

AHALERA							
NOR-NORK			LEHEN ALDIA				
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		heinkedan	neikean neian		zeinkedazan	zeinkiedazan	neikezan neizan
Hik	neinkean neinken		heikean heian	geinkeazan geinkenazan			heikezan heizan
Harek	neinkean	heinkean	(z)eikean leian	geinkezan	zeinkezan	zeinkiezan	(z)eikezan leizan
Guk		heinkegun	geinkean gineian		zeinkeguzan	zeinkieguzan	geinkezan gineizan
Zuk	neinkezun		zeinkean zineian	geinkezuzan			zeinkezan zineizan
Zuek	neinkezuen		zeinkien zineien	geinkezuezan			zeinkiezan zineiezan
Hareek	neinkien	heinkien	(z)eikien leien	geinkiezan	zeinkiezan	zeinkieezan	(z)eikiezan leiezan

Erabilera:

– (z)eikean / (z)eikezan, (z)eikien / (z)eikiezan 3. pertsonako aditzakaz batera alegiazko l-dunak erabilten dira: *leian / leizan, leien / leiezan*.

Eskatzaileak zein ordutegi gura eban be adierazo eikean.

Eurak be ekarri leien, inor bila agindu barik.

Zeuk be erosi zeinkezan, Bilbon izan zara-eta.

Alkartzeko deitu euskunean kargua ixteko benetako arrazoiak azaldu eikezala uste genduan.

AHALERA							
	ZER-NORI-NORK		LEHEN ALDIA			SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neian neinan	neion		neizun	neizuen	neioen
		neikian neikinan	neikion		neikizun	neikizuen	neikioen
Hik	heidan heikidan		heion heikion	heigun heikigun			heioen heikioen
Harek	leidan	leian leinan	leion	leigun	leizun	leizuen	leioen
	(z)eikidan	(z)eikian (z)eikinan	(z)eikion	(z)eikigun	(z)eikizun	(z)eikizuen	(z)eikioen
Guk		geinkian geinkinan	geinkion		geinkizun	geinkizuen	geinkioen
		gineian gineinan	gineion		gineizun	gineizuen	gineioen
Zuk	zeinkidan zineidan		zeinkion zineion	zeinkigun zineigun			zeinkioen zineioen
Zuek	zeinkiden zineiden		zeinkioen zineioen	zeinkiguen zineiguen			zeinkieen zineieen
Hareek	leiden	leien leinen	leioen	leiguen	leizuen	leizuen	leieen
	(z)eikiden	(z)eiekien (z)eieinen	(z)eiekioen	(z)eiekiguen	(z)eiekizuen	(z)eiekizuen	(z)eiekieen

AHALERA							
	ZERTZUK-NORI-NORK		LEHEN ALDIA			PLURALA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		neiazan neinazan	neiozan		neizuzan	neizuezan	neiezan
		neikiazan neikinazan	neikiozan		neikizuzan	neikizuezan	neiekiezan
Hik	heidazan heikidazan		heiozan heikiozan	heiguzan heikiguzan			heioezan heikioezan
Harek	leidazan	leiazan leinazan	leiozan	leiguzan	leizuzan	leizuezan	leiezan
	(z)eikidazan	(z)eikiazan (z)eikinazan	(z)eikiozan	(z)eikiguzan	(z)eikizuzan	(z)eikizuezan	(z)eiekiezan
Guk		geinkiazan geinkinazan	geinkiozan		geinkizuzan	geinkizuezan	geinkiezan
		gineiazan gineinazan	gineiozan		gineizuzan	gineizuezan	gineiezan
Zuk	zeinkidazan zineidazan		zeinkiozan zineiozan	zeinkiguzan zineiguzan			zeinkiezan zineioezan
Zuek	zeinkidezan zineidezan		zeinkioezan zineioezan	zeinkiguezan zineiguezan			zeinkieezan zineieezan
Hareek	leidezan	leiezan leinezan	leioezan	leiguezan	leizuezan	leizuezan	leieezan
	(z)eikidezan	(z)eiekiezan (z)eiekinezan	(z)eiekioezan	(z)eiekiguezan	(z)eiekizuezan	(z)eiekizuezan	(z)eiekieezan

Erabilera:

– Nor-nori eta Nor-nork laguntzaileetan lez, alegiazko *l-* hizkia gordeten daben aditzak agiri dira nork 3. pertsonetan: *leidan, leian / leinan, leion...*

On egin leigun gaixotu ginanean.

Banekian erretzeari itxi neikiona.

Ezin geinkizuen ukatu eskubide hori.

Ezin zeinkion inori esan.

Lagun guztiei emon geinkioezan probetan.

Jake horrek emendio handia egin leizun edurretara joan zinanean.

“Au zan andreari egin al *leion* egitekorik onena” (Añibarro)

9.6.4. Subjuntiboa

Subjuntiboak bost erabilera nagusi ditu batik bat:

1.- Helburuzko perpausak

Sarri, helburua adierazoteko erabilten da subjuntiboa. Kasu honeetan adizkiek -N atzikia hartzen dabe.

Zertarako ekarri zenduzan ariketak? Zeuok aditzak ikasi zengiezan.

2.- Guraria edo nahia adierazoten daben perpausak

Kasu honeetan be aditz laguntzaileak -N atzikia hartzen dau. Normalean, guraria edo nahia adierazoten daben aditzakaz: *nahi izan, nahiago izan, gura izan, gurago izan, komeni izan, ona izan, opa izan...*

Errepideetan kontuz ibili zaitez gura dot.

Euskaldunok euskeraz egin daigun komeni da.

3.- Aginte-perpausak

Aginteran 1. eta 3. pertsonarako ez dago adizkirik. Horreen ordeaz, subjuntiboko orainaldiko perpausak erabilten dira. Lehen pertsonarako -N atzikia hartzen da eta hirugarrenerako -LA.

Isildu naiten, badaezpada be.

Etorri daitezala ume honen gurasoak.

4.- Perpaus konpletiboak

Azpian aginte-perpaua daukien perpaus konpletiboetan be subjuntiboa erabili daiteke. Kasu honetan, aditz laguntzaileak -LA atzikia hartzen dau.

Etorri zaitezala esan deusut. (Etorri zaitez!)

Gaur kirola egiteko oinetakoak eroan daidazala esan deuste eskolako irakasleek.

Mezatan isilik egon geintezala esan euskun abadeak.

5.- Denporazko perpausak

Geroaldi kutsua daukie.

Erosketak egin dagizuzanean, ez ahaztu orioa erostea!

Danok batu gaitezanean hasiko gara jaten.

Gaur egun subjuntiboko forma honeek lehen baino gitxiago erabilten badira be, idatzirako txito gomendagarriak dira. Euron ordeaz -TEN + indikatiboko aditza erabilten dogu.

Aita etorri daitenean jaten hasiko gara.

Aita datorrenean...

Aita etorten danean...

- *daiteN / daiteLA*

Aurreko adibideetan ikusi dogunez, subjuntiboko adizkiek batzuetan -N atzikia hartzen dabe eta beste batzuetan -LA. Baina, noiz erabili -N eta noiz -LA?

-N	Helburuzko perpausak (<i>Zertarako?</i>) Nahia adierazoten daben perpausak Aginte-perpausak (1. pertsona)	<i>Irakurri daiaN itxi deusat liburua.</i> <i>Hemendik joan daiteN gura dot.</i> <i>Hasi gaitezaN beharrean!</i>
-LA	Aginte-perpausak (3. pertsona) Perpaus kompletiboak (<i>Zer?</i>)	<i>Etorri daitezaLA etxera!</i> <i>Ahalbait arinen joan zaitezeLA esan dau.</i>

9.6.4.1. ORAIN ALDIA

*EDIN

SUBJUNTIBOA NOR ORAIN ALDIA	
Ni	nadin ----- naiten
Hi	hadin ----- haiten
Ha	dedin ----- daiten
Gu	gaitezan
Zu	zaitezan
Zuek	zaitezen
Hareek	daitezan

Aldaerak:

– Aintzat hartzekoak dira baita aditz klasiko honeek be: *daitean, gaitean, zaitean, zaiteen, ditean.*

Erabilera:

– Subjuntiboko adizkiak mende-perpausetan erabilten dira.

a) -N atzizkiak: *nadin, hadin, dedin...*

b) -LA atzizkiak: *gaitezala, zaitezala, zaitezela, daitezala...*

c) BA- baldintzako aurritziaz: *banadi, bahadi, badadi, bagaitez, bazadiz / bazaitez, bazaite - ze, badaitez.* Atzenengo honeek guztiz zaharkituak dira.

Leihoak zabaldu eizuz ezkaratza kez bete ez dedin.

Horreek ez dabe gura ni hona etorri nadin.

Kontuz ibili zaitezan komeni da.

“Baina ez da lutu janzirik josi bear jaiegunean enterruari laguntzeko etxeoak, auzoan edo adiskideren bati eskatuta *aurkitu albadadi*” (J.A. Mogel)

SUBJUNTIBOA							
	NOR-NORI			ORAIN ALDIA			
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Ni		nakian nakinan	nakion		nakizun	nakizuen	nakien
Hi	hakidan		hakion	hakigun			hakien
Ha	dakidan	dakian dakinan	dakion	dakigun	dakizun	dakizuen	dakien
Gu		gakiakan gakizanan	gakiozan		gakizuzan	gakizuezan	gakiezan
Zu	zakidazan		zakiozan	zakiguzan			zakiezan
Zuek	zakidazen		zakiozen	zakiguzen			zakiezen
Hareek	dakidazan	dakiakan dakizanan	dakiozan	dakiguzan	dakizuzan	dakizuezan	dakiezan

Aldaerak:

– *Hiri* andrazkoa danean aintzat hartuko da *-nazan* amaieraz eregitako ereduak: *gakinazan*, *dakinazan*.

Erabilera:

– Mende-perpauz batzuetan, osagarrien eredu batzuetan, adberdio moduzkoetan eta aginduzko batzuetan, *-la* atzizkiak eregiten dira: *dakidala*, *dakizuezala*...

Igardi on bat emon behar deusat alkandora horri, lohia kendu dakion.

Berari laguntzen joan nakion erregutu deust.

“Ez itxi inori zeure ondasunak, *damutu eztakikezun*, eta etorri etzaitekezan.” (J.M. Zabala)

“Ez, bada, inori guzurrik sartu, guzurra ez *dakizun agertu*.” (J.A. Mogel)

EGIN

SUBJUNTIBOA							
NOR-NORK			ORAIN ALDIA				
	Ni	Hi	Ha	Gu	Zu	Zuek	Hareek
Nik		haidan	daidan		zaidazan	zaiedazan	daidazan
Hik	naian nainan		da(g)ian dainan	gaiazan gaizanan			da(g)iazan dainazan
Harek	naian	haian	da(g)ian	gaizan	zaizan	zaiezan	daizan
Guk		haigun	daigun		zaiguzan	zaieguzan	daiguzan
Zuk	naizun		daizun	gaizuzan			daizuzan
Zuek	naizuen		daizuen	gaizuezan			daizuezan
Hareek	naien	haien	da(g)ien	gaiezan	zaiezan	zaiezezan	da(g)iezan

Aldaerak:

– *Hik* andrazkoa danean, *gainazan* aldaera be aintzat hartzekoa da.

– Batzuetan *egin* erroaren *-g-* hizkia gordetea argigarria izan leiteke, batez be hiru bokal baten diranean: *da(g)ian*, *da(g)ien*, *da(g)iezan*...

Erabilera:

Kantau daigun gura dabe.

Alde egin dabe, harrapau ez dagiezan.

Eurek ezagutu zagiezan ekarri zaitut hona.

Kontuz joan zaitetz atzerik hara jo ez gaizan.

“On itxuriaz ez zaitte arrotu, okerra zuzentzat ezdagizun artu” (J.A. Mogel)

SUBJUNTIBOA							
ZER-NORI-NORK			ORAIN ALDIA			SINGULARRA	
	Niri	Hiri	Hari	Guri	Zuri	Zuei	Hareei
Nik		de(g)iadan deinadan	de(g)iodan		deizudan	deizuedan	de(g)iedan
Hik	deidaan deidan		de(g)ioan de(g)ionan	deiguan deigunan			de(g)iean de(g)ienan
